

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea



# LEGEEN ESPIRITUAZ II



MONTESQUIEU

# Legeen espirituaz II



Jatorrizko izenburua:  
*De l'esprit des lois*  
Euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta  
Berrikuslea: Jon Arrieta  
Hitzaurregilea: Carmen Iglesias

Lehen argitalpena: 1998ko ekainean

© Itzulpenarena: Iñaki Iñurrieta  
© Klasikoak, 1999  
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo  
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1998-XII-28

ISBN: 84-88303-36-X (Obra osoarena)  
ISBN: 84-88303-38-6 (Bigarren liburuaarena)  
Lege gordailua: BI.-1555-99

Fotokonposaketa: L&A Diseinua.  
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.  
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.  
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

Laugarren partea





# HOGEGARREN LIBURUA

Merkataritzari buruzko Legeez, merkataritza-  
tzaren izaera eta bereizketa kontsideratuta

Docuit quae maximus Atlas

Virgilio, *Eneida*

*musei deia*

Pierio mendiko birjinak<sup>1</sup>, aditzen al duzue nire deia? Goiargi nazazue. Bide luzea egin dut. Penaz, nekez eta saminez nago. Jar iezazkidazue gogoan gaur arte urrun izan ditudan lasaitasuna eta gozoa. Inoiz ez zarete plazerraren bidez zuhurtziara eta egiara eramaten duzuenean bezain jainkozko.

Baina nekeen gogorra leundu nahi ez badidazue, ezkuta ezazue lana bera. Gogoeta eginaraz iezadazue, sentiaraz iezadazue. Egizue ikasiak izan gaitezen, eta nik ez dezadan irakats; eta gauza baliagarriak iragar ditzadanean, uste dezatela denek ez nekiela ezer eta zuek esan didazuela dena.

Zuen iturriko ura maite duzuen harritik sortzen denean, ez da airean goratu eta erortzen, belardian zehar isurtzen da, gozarazi egiten dizuete, artzainei ere gozarazten dielako.

Musa xarmantak, begirada bakar bat igortzen badidazue, mundu guztiak irakurriko ditu nire lanak, eta dibertimendua izan ezin zena plazerra izango da.

Musa jainkozkoak, nabari dut goiargitu egiten nauzuela, baina ez bakarrik Tempé-ri xarameletan kantatzen diotena edo Delos-en liraz errepikatzen dena. Zuek nik arrazoiari hitz eginaraz diezaiodan nahi duzue. Bera da gure zentzuetan nobleena, beteginena, bikainena.

# I

## *Merkataritzaz*

Ondoren datozen gaiak zabalago jorratu behar lirateke, baina liburu honen izaerak ez du horretarako biderik ematen. Haran lasai batetik joan nahi nuke, baina uholde batek narama.

Merkataritzak sendatu egiten ditu aurreiritzi suntsitzaileak, eta ia arau orokorra da ezen, ohitura leunak diren leku guztietan, badela merkataritza, eta merkataritza den leku guztietan, ohitura leunak dituztela.

Ez bedi inor harri, beraz, gure ohiturak antzina genituenak bezain ankerrak ez direlako. Merkataritzari esker, nazio guztien ohituren ezagutza noranahi iritsi da; batzuk eta besteak konparatu dira, eta hortik on ugari etorri da.

Esan daiteke merkataritzaren legeek hobetu egiten dituztela ohiturak, eta aldi berean, lege horiek hondatu egin ditzaketela ohiturak. Merkataritzak galbidean jartzen ditu ohitura garbiak<sup>2</sup>: horra Platonen kexen gaia; baina gizabideratu eta leundu egiten ditu ohitura barbaroak, egunero ikusi ohi dugunez.

# II

## *Merkataritzaren espirituaz*

Merkataritzaren ondorio naturala bakea ekartzea da. Elkarrekin negoziatzen duten bi nazio elkarren mendeko bihurtzen dira: batak erosteko interesa badu, besteak saltzekoa, eta batasun guztiak elkarren premiaren gainean oinarritzen dira.

Baina merkataritzaren espirituak nazioak elkartzen baditu ere, ez ditu berdin elkartzen norbanakoak. Ikusten dugunez, merkataritzaren spirituak bakarrik ukitutako herrialdeetan<sup>3</sup> giza ekintza eta bertute moral guztiak dira salerosgai; gauzarik txikienak, gizadiak eskatzen dituen haiek, diruaren truke egiten edo ematen dira.

Merkataritzaren spirituak justizia zehatzaren sena sortzen du gizakiengan, batetik lapurretaren kontrakoa, eta bestetik gizakiak bere

interesez gehiegi arduratzea eta besteen interesez batere ez arduratzea eragiten duten bertute moralen kontrakoa.

Merkataritzarik batere ez izateak, aitzitik, lapurreta dakar, Aristotelesek gauzak eskuratzeko moduen artean sartzen duena. Merkataritzaren espiritua ez da zenbait bertute moralen kontrakoa; esate baterako, abegi ona, oso arraroa merkataritza duten herrialdeetan, bada herri lapurretan, miresgarria badirudi ere.

Tazitok dioenez, germaniarren artean sakrilegioa zen inori etxe-ko atea ixtea, ezaguna nahiz ezezaguna izan. Atzerritar bati abegi on egiten zionak<sup>4</sup> harrera berdina egingo dioten beste etxe baten helbidea ematen zion, eta gizabide berdinez hartzen zuten han. Baina germaniarrek beren erresumak fundatu zituztenean, abegi on hori neke bihurtu zitzaien. Hala dirudi burgundiarren kodeko bi legeren arabera<sup>5</sup>: batek zigortu egiten du atzerritar bati erromatar baten etxea erakutsiko dion barbaro oro, eta besteak zera arautzen du, atzerritarren bat hartzen duenari kalte-ordainak emango dizkiotela beste biztanleek, bakoitzak bera-ri dagokion partea.

### III

#### *Herrien pobreziaz*

Bi motatako herri pobreak daude: batetik, gobernuaren iraupe-nak horrelako bihurtu dituenak; hango jendea ez da gai ia inolako bertuterik izateko, haien pobretasuna beraien esklabotzaren parte baita; eta bestetik, pobre direnak bizitzako erosotasunei uko egin dietelako edo ezagutu ez dituztelako; eta hauek gauza handiak egin ditzakete, haien pobretasuna beraien libertatearen osagai baita.

### IV

#### *Gobernu-eren merkataritzaz*

Merkataritzak zerikusia du konstituzioarekin. Bakar baten gobernu-motan, luxuan oinarrituta egon ohi da merkataritza, eta bene-

tako premietan oinarrituta ere badagoen arren, helburu nagusia merkataritza horretan ari den nazioari urguiluarentzat, plazerretarako eta fantasiatarako on izan daitekeen guztia ematea da. Zenbait lagunek osatutako gobernu-eran, gehiagotan oinarritu ohi da ekonomian. Tratulariek, Lurbirako nazio guztiei begi emanda daudenez, batetik ateratzen dutena bestera eramaten dute. Horrelaxe jardun dute merkataritzan Tiro, Kartago, Atenas, Marseilla, Florentzia, Venezia eta Holandako errepublikek.

Trafiko-mota horrek zenbaiten gobernu-erarekin du berezko zerikusia, eta inoizka baita monarkiarekin ere. Izan ere, oinarritzat gutxi irabazteko praktika duenez, are beste edozein naziok baino gutxiago, eta horren truke etengabe irabaztea, ezinezkoa da luxuaren mende bizi den herri bat, asko gastatzen duen eta helburu handiak besterik ez dauzkan herri bat, horrelako merkataritza-motan ari dadin.

Hori dela eta esan zuen Zizeronek<sup>6</sup>, hain ondo, honako hau: «Ez dut nahi herri bat aldi berean munduko nagusi eta munduaren egile izan dadin». Hain zuzen, pentsatu beharko litzateke nor bakoi-tzak estatu horretan, eta estatuak berak bere osoan, burua egitasmo handiz eta txikiz beteta edukiko zutela beti eta aldi berean; eta hori kontraesana da, bi gauzak batera ezinak dira.

Ekonomiazko merkataritzari esker bizi diren estatu horietan ere, egin, egiten dira eginkizunik handienak, eta monarkietan ez duten ausardia-modu bat dute. Hona hemen arrazoia:

Merkataritza-mota batek beste motara darama: txikiak ertainera, ertainak handira; eta gutxi irabazteko hainbesteko gogoia izan duena, asko irabazteko gogo gutxiagorik ez duela jartzen da.

Gainera, tratularien eginkizun handiak arazo publikoekin nahastuta daude beti ezinbestean. Baina monarkietan arazo publikoak, gehiengotan, susmagarri zaizkie merkatariei, estatu errepublikarretan seguru iruditzen zaizkien adina. Beraz, merkataritza-asmo handiak ez dira monarkientzat eginak, baizik eta zenbait lagunen bidezko gobernu-erarentzat.

Hitz batez, estatu hauetan nork bere ondasunez ustez daukan segurantz handiagoari esker, edozeri ekiten diote; eta eskuratu dutena seguru dutela uste dutenez, arriskuan jartzen ausartzen dira gehiagoko eskuratzeko; eskuratzeko bideak besterik ez dira arriskatzen; giza-ekiek, ordea, esperantza handiak dituzte beren zorian.

Ez dut esan nahi badela monarkiaren bat ekonomiazko merkataritzatik guztiz at dagoena, baizik eta monarkia berez ez dela horretara hain emana. Ez dut esan nahi ezagutzen ditugun errepublikak luxuzko merkataritzatik guztiz at daudenik, baina luxuak berez zerikusi gutxiago du haiekin.

Estatu despotikoari dagokionez, alferrik da horretaz hitz egitea. Arau orokorra: morrontzapean den nazio batean, lan gehiago egiten da kontserbatzeko, ezer eskuratzeko baino; nazio libre batean, berriz, lan gehiago egiten da beste gauza batzuk eskuratzeko, kontserbatzeko baino.

## V

### *Ekonomiazko merkataritza egin ez duten herriez*

Marseilla, nahitaezko aterbe itsaso ekaiztsu baten erdian; Marseilla, haizeek, itsasoko hondar-metek, kostaren zer-nolakoak nahitaez bertara jotzera behartzen duten leku hori, maiz izan da itsas jendearen topaleku. Lurraldearen antzuak<sup>7</sup> eraman zituen bertakoak ekonomiazko merkataritzara. Langileak izan behar, naturak ukatzen ziena ordezkatzeko; zintzo izan behar, beren onbidea ekarriko zieten nazio barbaroen artean bizi izateko; neurritsuak izan behar, haien gobernu-era beti lasaia izan zedin; azkenik, ohitura urriak izan behar, zenbat eta abantaila gutxiago eman seguruago kontserbatuko zuten merkataritzatik bizi ahal izateko.

Nonahi ikusi izan da bortizkeria eta gehiegikerietatik sortu dela ekonomiazko merkataritza, gizakiak zingiretan babestera behartuak direnean, uharteetan, itsasaldeko paduretan, are labarretan. Halaxe sortu ziren Tiro, Venezia eta Holandako hiriak; iheslariek segurtasuna aurkitu zuten han. Iraun beharra zegoen, eta mundu osotik atera zuten bizibidea.

## VI

### *Nabigazio luzearen ondorio batzuk*

Batzuetan gertatu ohi da ekonomiazko merkataritza egiten duen nazio batek, herrialde bateko salerosgai baten beharra duelarik

beste herrialde bateko salerosgaiak eskuratu ahal izateko, batzuekin gutxi irabaztea onartzen duela, inoiz deus ere ez, besteekin asko irabazteko itxaropen edo segurantzagatik. Hala, Holandak, ia bera bakkarrik ari izaten zenean Europako hegoaldetik iparraldera merkataritzan, iparraldera eramaten zituen Frantziako ardoak, eta funts gisa baizik ez zituen baliatzen iparraldean bere merkataritza egiteko.

Gauza jakina da ezen, Holandan, maiz, urrutitik ekarritako zenbait salerosgai ez direla erositako lekuetan baino garestiago saltzen. Hona zer arrazoi ematen duten: itsasontzia lastatu beharra daukan kapitain batek marmola hartuko du; zura behar badu zamak behar bezala antolatzeko, zura erosiko du; eta ezer galtzen ez duen bitartean, pozik hura. Halaxe, Holandak ere baditu bere harrobiak eta basoak.

Ezer ematen ez duen merkataritza ez ezik, galerak sortzen dituen ere baliagarria izan daiteke. Entzun izan dut Holandan balearen arrantzak, oro har, ez duela ematen kostatzen dena; baina itsasontzia egiten enplegatutakoak, aparailu eta janarien hornitzaileak, horietan omen dira arrantza horretan interes handiena dutenak. Arrantzan galduta ere, irabazi egin dute hornizioetan. Merkataritza hori loteria modukoa da, eta bakoitza bilete beltza tokatuko ote zaion esperantzak bizi du. Mundu guztiak nahi du jokatu, eta zuhurrenek gustura jokatzen dute joko-itxurarik ikusten ez dutenean: jokoaren nahasmenduak, bortizkeriak, lasakeriak, denbora-galtzea eta are bizitza osoa galtzea.

## VII

### *Ingalaterraren espiritua merkataritzaz*

Ingalaterrak ia ez du muga-zerga finkorik beste nazioekin. Parlamentu bakoitzarekin, nolabait esan, aldatu egiten du tarifa, esku-bide partikularrak kenduz edo erantsiz. Horretan ere bere independentzia gorde nahi izan du. Bertan egiten den merkataritzan arreta handia jartzen duelarik, lotura gutxi hartzen ditu itunen bidez, eta bere legeen mende dago bakarrik.

Beste nazio batzuek interes politikoen atzetik jarri dituzte merkataritza-interesak; hark, ordea, merkataritzaren interesen atzetik jarri ditu beti interes politikoak.

Munduko herrien artean, bera da hiru gauza hauek ondoen gorde dituenen: erlijioa, merkataritza eta libertatea.

## VIII

### *Nola batzuetan traba egin zaion ekonomiazko merkataritzari*

Monarkia batzuetan, ekonomiazko merkataritzan diharduten estatuei kalte egiteko legeak egin izan dira. Debekatu egin zaie beren herrialdekoak ez ziren beste salerosgai batzuk ekartzea; ez zaie utzi trafikatzera etortzen, monarkia horietan egindako itsasontzien bidez ez bazen.

Lege horiek ezartzen dituen estatuak merkataritzan erraz jarduteko modua izan behar du; bestela, besteri egin nahi dion kaltearen berdina egingo dio bere buruari. Hobe da tratuak gutxi eskatzen duen eta, merkataritzaren premiak direla medio, nola edo hala mendeko den nazio batekin egitea; bere asmoen edo negozioen zabaleroagatik beharrezko ez diren salerosgaiak non kokatu badakien nazio batekin; aberatsa izanik salerosgai askoz bete daitekeen nazio batekin; salerosgaiak laster ordainduko dituenarekin; nolabait esanda, leial izateko beharra daukan nazio batekin; printzipioz bakezalea den nazio batekin, irabazi bai baina konkistatu nahi ez duenarekin; hobe da, diot, nazio horrekin tratuak egitea, ezen ez beti arerio izango diren beste batzuekin, ez baitituzte abantaila horiek guztiak emango.

## IX

### *Inor merkataritzatik baztertzeaz*

Hona hemen arau behinena: arrazoi pisuzkorik ez bada, ez da baztertu behar naziorik merkataritzatik. Japoniarrek bi naziorekin bakarrik jarduten dute merkataritzan: txinatarrekin eta holandarrekin. Txinatarrek<sup>8</sup> ehuneko mila irabazten dute azukrearekin, eta batzuetan beste hainbeste itzulerakoan. Holandarrek ere horrelatsuko

irabaziak ateratzen dituzte. Arau japoniarren arabera jokatu duen nazioa tronpatu egingo da nahitaez. Konkurrentziak jartzen die bidezko prezioa salerosgaiei, lehiak ezartzen ditu benetako erlazioak haien artean.

Are gutxiago atxiki behar zaio estatu bat bere salgaiak nazio bakar bati saltzeari, honek denak prezio jakin batean hartuko dituela eta. Poloniarrek horrelako merkataritza egin dute gariarekin Danzig-eko hiriarekin; Indietako zenbait erregek gisa horretako kontratuak dituzte espeziak direla-eta holandarrekin<sup>9</sup>. Ohitura horiek nazio pobre bati dagozkio bakarrik: bizibidea seguru izatearen truke aberasteko itxaropena galtzeko prest dagoenari; edota izadiak eman dizkien gauzak erabiltzeari uko egiterainoko, edota gauza horiekin etekinik gabeko merkataritzan jarduterainoko morrontzapean dauden nazioei.

## X

### *Ekonomiazko merkataritzari dagokion era*

Ekonomiazko merkataritzan ari diren estatuetan jarri diren bankuek, zorionez, balio-zeinu berriak eratu dituzte beren kredituaren bitartez. Baina oker jokatzea zatekeen banku horiek luxuzko merkataritzan ari izaten diren estatuetara eramatea. Bakar batek gobernatzen dituen herrialdeetan jartzea dirua alde batean eta boterea bestean dardela onartzea da, hots, alde batetik inolako botererik gabe dena edukitzeko gaitasuna, eta bestetik inolako ahalmenik gabe boterea edukitzea. Horrelako gobernu batean, printzeak soilik dauka, edo eduki dezake, altxorra, eta beste inork badauka, gehiegizko bihurtzen den uneaz geroztik, printzearen altxor bilakatzen da.

Arrazoi berberetatik, merkataritzan aritzeko elkartzen diren tratularien konpainiak oso gutxitan komeni izaten zaizkio bakar baten gobernu-motari. Konpainia horien izaera aberastasun partikularrei aberastasun publikoen indarra ematea da. Baina estatu horietan, indar hori ezin da egon printzearen eskuetan baizik. Gehiago esango dut: ez dira beti komeni izaten ekonomiazko merkataritza egiten den estatue-



tan; eta, negozioak ez badira norbanakoen eskumenetik at egoteko bezain handiak, hobe izango da salerosketa-askatasuna pribilegio eskusiboen bidez ez oztopatzea.

## XI

### *Gai beraren jarraipena*

Ekonomiazko merkataritza egiten duten estatuetan, portu franko bat ezar daiteke. Estatuaren ekonomiak, norbanakoen urritasunaren ondorio baita, ekonomiazko merkataritza zuzpertz du, nolabait esan. Portu franko hori ezartzeagatik zergetan galtzen duena, errepublikaren lan-aberastasunari esker atera dezakeenak berdintzen du. Baina gobernu monarkikoan portu frankoak ezartzea arrazoiaren kontrakoa izango litzateke. Ez luke luxuari zergen zama kentzea beste ondoriorik. Luxu horrek eman dezakeen on bakarraz gabetuko lirateke, eta horrelako konstituzio batean luxuak izan dezakeen galga bakarraz.

## XII

### *Merkataritza-askatasunaz*

Merkataritza-askatasuna ez da tratulariei nahi dutena egiteko ematen zaien gaitasuna; hori haien esklabotza litzateke. Zerbaitek merkatoriari traba egiteak ez du esan nahi baitezpada merkataritzari traba egiten dionik. Askatasunaren herrialdeetan aurkitzen ditu tratulariak ezin konta ahala debeku; eta esklabotza dagoen herrialdeetan du eragozpen gutxien legeen aldetik.

Ingalaterrak debekatuta dauka bere artilea kanpora ateratzea; ikatza hiriburura itsasoz garraia dadin nahi du; ez du uzten bere zaldiak erbestera ateratzen, zikiratuta ez badaude; kolonietako itsasontziek<sup>10</sup>, Europan ari badira merkataritzan, Ingalaterran porturatu behar dute. Trabak jartzen dizkio merkatoriari, baina merkataritzaren mesedetan.

## XIII

### *Libertate hori zerk desegiten duen*

Merkataritza den lekuetan, aduanak dira. Merkataritzaren xedea salerosgaiak Estatuaren mesedetan esportatzea eta inportatzea da. Aduanen xedea, berriz, esportazio-inportazioen gainean halako eskubide bat izatea da, Estatuaren mesedetan halaber. Beraz, Estatuak neutral izan behar du bere aduanen eta bere merkataritzaren artean, eta bi gauza horiek elkar ez oztopatzeko moduan jardun behar du; eta orduan merkataritza-askatasunaz gozatuko dira.

Herri-finantzek desegin egiten dute merkataritza beren bidega-beekin, mutirikeriekin, gehiegizko zergekin; baina horrez gainera, sorrarazten dituzten zailtasunekin eta eskatzen dituen formaltasunekin desegiten dute. Ingalaterran, aduanak errege-administrazioak kudeatuta baitaude, negoziatzeko oso erraztasun bitxia dago: hitz bat idaztea aski da traturik handienak egiteko; ez da beharrezko merkatariaik denbora asko gal dezan eta zenbait enplegatu izan ditzan espreski aduanak errentan hartu dituztenen oztopo guztiak kentzeko edo haien mende jartzeko.

## XIV

### *Salerosgaien konfiskazioa berekin daramaten merkataritza-legeak*

Ingelesen Gutun Nagusiak debekatu egiten du gerra izanez gero atzerriko merkatarien salerosgaiak bahitzea edo konfiskatzea, errepresaliengatik ez bada. Ederra da nazio ingelesak hori bere askatasunaren artikulua bihurtu izana.

Espainiak 1740an ingelesekin izan zuen gerran, lege bat egin zuen<sup>11</sup>, zeinen arabera heriotzara zigortzen baitzituen Espainiako estatuetan Ingalaterrako salerosgaiak sartzen zituztenak; zigor berbera ezarri zien Ingalaterrako estatuetara Espainiako salerosgaiak eramaten zituztenei. Halako agindu batek, nik uste, Japoniako legeetan baino ez du parekorik. Gure ohituren kontra doa, merkataritza-espirtuaren kontra eta zigorren proportzioan egon behar duen egokitasuna-

ren kontra; ideia guztiak nahasten ditu, estatu-krimen bihurtzen baitu gizabide-haustura besterik ez dena.

## XV

### *Zorreatik atxilotzeaz*

Solonek<sup>12</sup> agindu zuen Atenasen inor ez zela atxitua izango zor zibilengatik. Egiptotik hartu zuen lege hori<sup>13</sup>; Bokorisek egina zen, eta Sesostrisek berritua.

Lege hori oso ona da arazo<sup>14</sup> zibil arruntetarako; baina arrazoi dugu merkataritza-kasuetarako ez erabiltzean. Izan ere, tratulariak dirutza handiak ematera behartuta daudelarik denboraldi maiz oso laburretarako, ematera eta berriro jasotzera, zordunak esandako denboran bete behar ditu bete beharrekoak, eta horrek zorreatik atxilotzea eskatzen du.

Kontratu zibil arruntetatik sortzen diren arazoetan, legeak ez du zorreatik atxilotzerik ezarri behar, kasu gehiago egiten diolako hiritar baten libertateari beste baten komenientziari baino. Baina merkataritzatik sortzen diren abenikoetan, legeak kasu gehiago egin behar dio komenientzia publikoari hiritar baten libertateari baino; eta horrek ez ditu kentzen gizatasunak eta antolakuntza publiko onak eskatzen dituzten mugatze eta murrizteak.

## XVI

### *Lege ederra*

Genevako lege bat, zorretan bizi edo hil direnen seme-alabak magistraturan eta are Kontseilu Nagusitik ere kanpo uzten dituen, oso ona da. Ondorio hau du, negozioetarako konfiantza ematen duela; magistratuenganako uste ona ematen du; hiriarekiko uste ona. Fede partikularrak fede publikoaren indarra du oraindik ere han.

## XVII

### *Rodasko legea*

Rodastarrak urrunago joan ziren. Sexto Enpirikok<sup>15</sup> dio haien artean semeak ez zeukala aitaren zorrak ordaintzetik libratzerik oinordekotzari ezezkoa emanda. Rodasko legea merkataritzan oinarritutako errepublika batentzat egina zen; alabaina, nik uste dut merkataritza-legeak berak ere muga hau ezarriko zuela: alegia, semea merkataritzan hasi eta gero aitak egindako zorrek ez zutela eraginik izango semearen ondasunetan. Tratulari batek beti ezagutu behar ditu bere betebeharrak, eta uneoro jokatu behar du bere ondasunen egoeraren arabera.

## XVIII

### *Merkataritzarako epaileez*

Xenofonte, *Errentak* liburuan, prozesuak bizkorren erabakitzeko zituzten merkataritza-prefektuei sariak ematearen alde ageri da. Gure jurisdikzio kontsularraren premia sentitzen zuen hark ere.

Merkataritza-auziek oso formalitate gutxi eskatzen dituzte. Eguneroko egintzak dira, eta eguneroko beste egintza batzuk jarraituko zaizkie atzetik. Beraz, egunero erabaki behar dira. Oso bestelakoak dira etorkizunean eragin handia duten baina oso gutxitan gertatzen diren bizitzako ekintzak. Ezkondu, ia behin bakarrik ezkondu ohi da bat; donazio edo testamentuak ez dira egunero egiten; behin bakarrik iristen da adin-nagusitasuna.

Platonek dio<sup>16</sup> hiri batean itsas merkataritzarik ez bada, lege zibilen erdiak aski direla, eta egia osoa da hori. Merkataritzak herri-mota desberdinak sorrarazten ditu herrialdean bertan, hainbat eta hainbat abeniko, ondasun-klase eta eskuratzeko modu. Hartara, hiri merkataritza batean epaile gutxiago dago, eta lege gehiago.

## XIX

### *Printzeak ez duela merkataritzan aritu behar*

Teofilok<sup>17</sup>, bere emazte Teodorarentzako gauzak zeuzkan itsasontzi bat ikusi zuelarik, erre egin zuen. «Enperadorea naiz», esan zion, «eta zuk galera bateko nagusi bihurtzen nauzu. Nondik atera beharko du jende pobreak bizibidea, haien lana ere guk egiten badugu?». Hauxe gehitzea ere bazeukan: nork geldiaraziko gaitu, monopolioaz baliatzen bagara? Nork behartuko gaitu gure betebeharrak betetzera? Guk egiten dugun merkataritza hori, kortesanoek ere egin nahiko dute, eta gu baino askonahiagoak eta bidegabeagoak izango dira. Herriak gure justizian du uste ona, ez gure oparotasunean; haiei miseria dakarkieten hainbeste zerga, gure miseriaren froga dira.

## XX

### *Gai beraren jarraipena*

Portugaldarrak eta gaztelarrak Ekialdeko Indietan nagusi zirenean, merkataritzak hain zituen adar aberatsak, non bi herrialde horietako printzeek laster bereganatu baitzituzten. Horrek hondatu egin zituen leku haietako establezimenduak.

Goako erregeordeak partikularrei ematen zizkien pribilegio eksklusiboak. Ez da uste onik horrelako jendearengan; merkataritza eten egiten da beraren ardura dutenak behin eta berriz aldatzen badi-ra; inork ez du bere gain hartzen merkataritza hori, eta ez da ardura-tzen ondorengoari hondatuta emateagatik; probetxua partikularren eskuetan geratzen da, eta ez da aski hedatzen.

## XXI

### *Nobleek monarkian egin merkataritzaz*

Merkataritzaren espirituaren kontra doa nobleek horretan jardutea monarkian. «Kaltegarria litzateke hirientzat», diote Honorio eta

Teodosio enperadoreek<sup>18</sup>, «eta saltzeko eta erosteko erraztasuna ezabatuko luke merkatarien eta plebeioen artean».

Monarkiaren espirituaren kontra doa nobleak merkataritzan ari-tzea. Ingalaterran nobleei merkataritza egiten utzi dien usadioa da gobernu-era monarkikoa ahultzen gehien lagundu duten gauzetako bat.

## XXII

### *Gogoeta partikularra*

Zenbaitek, estatu batzuetan egin ohi denaz harrituta, pentsatzen dute Frantzian nobleak merkataritzan aritzera behartuko lituzketen legeak egon beharko lukeela. Hori nobleak suntsitzeko bide bat litza-teke, merkataritzarentzako inolako abantailarik gabe. Herrialde hone-tako usadioa oso zuhurra da: tratulariak ez dira nobleak, baina noble bihur daitezke. Noble bihurtzeko esperantza dute, baina ez dituzte horren eragozpenak. Ez dute beren lanbidetik irteteko beste biderik, bera ondo betetzea edota ohorez egitea baizik, eta hori beren gaitasu-nari lotuta joan ohi da gehienetan.

Bakoitza bere lanbideari atxiki behar zaiola eta bere seme-ala-bei pasarazi behar diela agintzen duten legeak ezin dira onak izan estatu despotikoetan baizik<sup>19</sup>, non inork ez baitauka eredu erakargarri-rik izaterik.

Ez bedi esan bakoitzak hobeto burutuko duela bere lanbidea beste batez ordezkatu ezingo duenean. Nik diot nork bere lanbidea hobeto beteko duela, lanbide horretan gailendu direnak beste batera iristeko itxaropena izango dutenean.

Noblezia diruz erosi ahal izatea bizkorgarri ederra da tratula-riak hori lortzen saia daitezen. Ez naiz aztertzen ari ea ondo dagoen aberastasunei bertutearen saria ematea; zenbait gobernutan hori egitea oso onuragarria izan daiteke.

Frantzian, bi gizarte-klasek hartu dute bereziki parte erresuma-ren handitasunean. Noble handien eta herriaren artean dagoen togako noblezia hori da bat; lehenaren distira izan gabe, beraren pribilegio guztiak dituen; norbanakoak erdi mailan uzten dituen, legeen gor-

dailu den gorputza gailurrean dagoelarik; noblezia hori, zeinetan nork bere burua ez daukan gailentzerik gaitasunaren eta bertutearen bidez baizik; lanbide ohoragarria izanik, beti ere ohoragarriago bat bistan uzten duena. Beste gizarte-klasea, noblezia guztiz guduzalea da, zenbat-nahi aberastasun izanik ere, fortuna egin beharra dagoela pentsatzen duena, baina beren ondasunak gehitzeko lotsaz dena, aurrez xahutzen hasten ez bada; nazioaren parte hori, bere ondasunen kapitalaz zerbitzatzen duena; behea jota dagoenean, bere lekua beste norbaiti uzten diona, honek ere bere kapitalaz zerbitza dezan; gerrara doana inork esan ez dezan ez dela bertan izan; aberastasunak espero ezin dituenean, ohoreak espero dituen; aberastasunak lortzen ez dituenean, ohorea lortu duelako kontsolatzen dena. Eta bizpahiru mendeotan bere indarra etengabe handitu badu, bere legeen ontasunari egotzi behar zaio hori, ez fortunari, honek ez baitu horrelako irmotasunik.

## XXIII

*Zein naziori egiten dion kalte merkataritzan aritzeak*

Aberastasunak funtsak edo mugikariak izaten dira; herrialde bakoitzeko lurrak bertako biztanleenak izan ohi dira. Estaturik gehienek atzeritarrei bertan lurrak erosteko gogoia kentzen dieten legeak dituzte; jabea han izateak bakarrik ematen die balioa; horrelako aberastasunak estatu bakoitzarenak dira. Baina mugikariak, hala nola dirua, ordaintzekoak, kanbio-letrak, konpainien akzioak, itsasontziak eta salerosgai-mota oro, mundu osoarenak dira, alde horretatik estatu bakarra osatzen baitu, zeinen osagaiak gizarte guztiak baitira. Herri aberatsena mugikari horietako gehienak dauzkana izango da. Estatu batzuek kopuru izugarria dute; bakoitzak bere produktuen bidez eskuratzten ditu, beren langileen lanaren bidez, beren industriaren bidez, beren aurkikuntzen bidez, are halabehar hutsaren bidez. Nazioen askonahia lehian dabil munduko mugikariak lortzearren. Baliteke estatu zorigaitzekoren bat beste herrialdeetan diren salerosgaiez gabetuta egotea, eta are ia bere guztiez ere bai; lur-sailen jabeak atzeritarren kolonoak besterik ez dira izango han. Estatu horri dena faltako zaio, eta ezingo du ezer erosi; hobe luke munduko inongo nazioarekin

merkataritzan ariko ez balitz; merkataritzak eraman du pobrezia, zegoen inguruabarretan.

Hartzen dituenak baino salerosgai edo produktu gehiago bidaltzen dituen herrialdeak pobretuz lortzen du oreka; gero eta gutxiago jasoko du, harik eta, ezin gehiagoko pobrezian, gehiago jaso ez dezan arte.

Merkataritzan diharduten herrialdeetan, dirua berehala desagertzen da, bai eta itzuli ere, hartu duten estatuek zor dutelako; hizpide ditugun beste estatu horietan, ordea, dirua ez da inoiz itzultzen, hartu dutenek ez dutelako ezer zor.

Polonia dugu adibidea. Ia ez du batere guk munduko mugikari deitzen ditugun horietarik, lurrak ematen duen garia izan ezik. Jaun batzuek probintzia osoak dauzkate; gari-kantitate gehiago ekoiztera behartzen dute nekazaria, atzerritarrei saldu eta luxuak eskatzen dizkien gauzak erosi ahal izateko. Poloniak inongo nazioarekin merkataritza-traturik ez balu, bertako herria zoriontsuagoa litzateke. Handikiek, garia besterik ez edukita, nekazariei emango liekete bizi izateko; jabetza handiegiak zama astunegiak izanik, nekazariekin partituko lituzkete; mundu guztiak izango luke larrua edo artilea bere abere-taldeei esker, eta ez legoke gastu eskergarik egin beharrik jantzitan; handikiek, luxua maite baitute beti, eta beren herrialdean baizik aurkituko ez luketenez, lanera animatuko lituzkete pobreak. Nik diot nazio hori gorabidean jarriko litzatekeela, salbu eta barbaro bihurtuko ez balitz; baina hau legeek zain dezakete.

Begira diezaigun orain Japoniari. Har dezakeenaren gehiegizko kantitateak bidal dezakeenaren gehiegizko kantitatea ematen du; gauzak orekan egongo dira, inportazioa eta esportazioa neurritsuak balira bezala; eta bestetik, puzte moduko horrek mila abantaila ekarriko dizkio Estatuari: gehiago kontsumituko da, gauza gehiago izango dira arteak lantzeko, gizon enplegatu gehiago, boterea lortzeko bitarteko gehiago; gerta daiteke kasuren batean bat-batean laguntza behar izatea, eta horrelako estatu batek beste edozeinek baino azkar-rago eman ahal izango du. Zaila da herrialde batek beharrezkoak ez diren gauzak edukitzea, baina merkataritzari berez dagokio beharrezko ez diren gauzak baliagarri bihurtzea, eta baliagarriak beharrezko. Estatuak, beraz, sujet gehiagori eman ahal izango dizkie beharrezko gauzak.



Esan dezagun, beraz, merkataritza eginez ez dutela ezer behar ez duten nazioek galtzen; dena behar dutenek galtzen dute. Beren buruaz aski duten herriek ez, baizik eta beren mugen barruan ezer ez daukatenek ateratzen dute abantaila inorekin salerosketan ez aritzetik.



# HOGEITA BATGARREN LIBURUA

Merkataritzari buruzko Legeez,  
munduan zehar izan dituen  
iraultzen aldetik begiratuta

## I

*Gogorakizun orokor batzuk*

Nahiz eta merkataritza aldaketa handietara lotua egon, gerta daiteke zenbait kausa fisikok, lurraren edo klimaren zer-nolakoek, betiko finkatzea haren izaera.

Gaur egun Indietako merkataritza hara bidaltzen dugun diruaren bidez soilik egiten dugu. Erromatarrek berrogeita hamar milioi sestertzio inguru bidaltzen zituzten urtero hara. Diru hura, gaur egun gurea bezala, salerosgai bihurtzen zuten, eta Mendebaldera ekartzen. Indietan negoziatu duten herri guztiek metalak eraman eta salerosgaiak ekarri izan dituzte beti.

Naturak berak eragiten du efektu hori. Indiarrek beren arteak dituzte, beren bizimoduari egokituak. Gure luxua ezin liteke haiena izan, ez eta gure premiak ere. Haien klimak ez die eskatzen edo uzten guretik doakien ezer. Biluzik ibili ohi dira asko eta asko; dauzkaten jantziak, herrialde hark ematen dizkie; eta erlijioak hainbeste indar du haien gainean, non nazka sorrarazten baitie gure elikagaiekiko. Beraz, gure metalak besterik ez dute behar, balioen zeinuak, eta horien truke ematen dituzte salerosgaiak, herrialde hartako urritasunak eta naturak oparo eskaintzen baitie halakoetarik. Antzinako idazleek, Indiez mintzatu zaizkigunean, gaur ikusten ditugun bezala deskribatzen dizkigute<sup>21</sup> jokabide, manera eta ohituraren aldetik. Indiak gaur egun direna izan dira eta izango dira; eta

garai guztietan, Indiekin negoziatuko dutenek dirua eramango dute, eta ez dute ekarriko.

## II

### *Afrikako herriez*

Afrikako kostetako herri gehienak basatiak edo barbaroak dira. Uste dut hori honegatik dela: biztanlerik gabeko lurraldeek bereizten dituztelako herrialde txiki biztanledunak. Ez dute industriarik eta arterik; ugari dituzte metal preziatuak, eta besterik gabe eskuratzen dituzte izaditik. Beraz, herri zibilizatu guztiek abantailaz negozia dezakete haiekin: baliorik gabeko gauzak estimaraz diezazkiekete, eta horien truke prezio handiko gauzak.

## III

### *Hegoaldeko herrien premiak iparraldeko herrien premiak ez bezalakoak direla*

Europar halako oreka bat dago hegoaldeko nazioen eta iparraldekoen artean. Lehenek bizitzako erosotasun guztiak dituzte, eta premia gutxi. Bigarrenek, berriz, premia asko dituzte, eta erosotasun gutxi. Batzuei, naturak asko eman die, eta haiek gutxi eskatzen diote; besteei, naturak gutxi ematen die, eta haiek asko eskatzen diote. Orekak iraun egiten du hegoaldeko nazioei eman dien alferkeriari esker, eta iparraldekoiei eman dien lanerako gogoari eta jarduerari esker. Hauek lan asko egitera behartuta daude, hori gabe dena faltako bailitzaieke, eta barbaro bihurtuko bailirateke. Horrexek bihurtu du normal esklabotza hegoaldeko herrietan: aberastasunik gabe aise bizi daitezkeenez, are errazago bizi daitezke libertaterik gabe. Baina iparraldeko herriek libertatearen beharra daukate, horri esker lortzen baitituzte naturak eman dizkien premia guztiak asetzeko bitarteko gehiago. Iparraldeko herriak, beraz, bortxapean daude, libre edo barbaro ez badira: ia hegoaldeko herri guztiak daude, nolabait, bortxazko egoeran, esklabo ez badira.

## IV

### *Antzinakoen merkataritzaren eta gaur egungoaren arteko alde nagusia*

Noizean behin munduan merkataritza aldatzen duten egoerak izaten dira. Gaur egun Europako merkataritza iparraldetik hegoaldera egiten da gehienbat. Klimen arteko aldearen ondorioz, herriek batzuek besteen salerosgaien premia handia dute. Adibidez, hegoaldeko edariak iparraldera eramanda, antzinakoek ia ez zuten merkataritza-mota bat eratzen dute. Hori dela eta, itsasontzien edukiera gari-modiotan neurtzen zen antzina, eta gaur egun likore-tonatan neurtzen da.

Guk ezagutzen dugun antzinako merkataritza, Mediterraneoko portu batetik bestera egiten zen, hegoaldean zegoen ia dena. Alabaina, klima bereko herriek gutxi gorabehera gauza berberak dituztenez, ez daukate klima desberdinekoek adinako premiarik beren artean merkataritzan jarduteko.

Hau ez dago kontraesanean Indietako merkataritzaz esan dudarekin: klimen arteko alde handiegiak elkarren premiarik ez izatea dakar.

## V

### *Beste desberdintasun batzuk*

Merkataritza, batzuetan konkistatzaileek desegina, besteetan erregeek oztopatua, batetik bestera dabil lurrean zehar, ihes egiten du zapaltzen duten lekutik, arnasa hartzen uzten dioten lekuan pausatzen da; gaur egun nagusi da basamortuak, itsasoak eta haitzak besterik ageri ez ziren lekuan; eta nagusi zen lekuetan, ez da basamortua besterik.

Gaur egun Kolkidari begiratuta (ez da baso zabal bat baino, non herriak, egunetik egunera urrituz doalarik, ez baitu defendatzen bere libertatea turkiarrei eta pertsiarrei bere burua txikizka saltzeko baizik), inork ez luke esango bazter hori, erromatarren garaian, hiriz beteta zegoenik, eta merkataritzak bertara deitzen zituenik munduko

nazio guztiak. Ez dago monumentu bakar bat ere herrialde hartan; Plinio<sup>22</sup> eta Estrabonen<sup>23</sup> lanetan baizik ez daude aztarnak.

Merkataritzaren historia herrien arteko harremanen historia da. Suntsiketek eta populazioen eta hondamendien joan-etorri eta gorabeherak eratzen dituzte historia horretako gertaera nagusiak.

## VI

### *Antzinakoen merkataritza*

Semiramisen altxor eskergek<sup>24</sup>, ezin baitziren egun batean bilduak izan, pentsarazten digute asiriarrek berek ere beste nazio aberats batzuk arpilatu zituztela, gerora beste nazio batzuek beraiek arpilatu zituzten bezala.

Merkataritzaren ondorioa aberastasunak dira; aberastasunena, luxua; luxuarena, arteen betegintzarrea. Arteek, Semiramisen garaian zeuden punturaino iritsiak zirelarik<sup>25</sup>, adierazten digute ordurako merkataritzak indar handia zuela.

Luxuzko merkataritza handia zegoen Asiako inperioetan. Luxuaren historia merkataritzaren historiaren parte eder bat litzateke; pertsiarren luxua mediarrena zen, eta mediarrena asiriarrena.

Aldaketa handiak gertatu dira Asian. Iparrekialdean dagoen Pertiako parte, Hirkania, Margia, Baktria, etab., gaur egun desagertuak diren hiri oparoz<sup>26</sup> beteta zeuden behinola, eta inperio horren iparraldea<sup>27</sup>, alegia Kaspio itsasoa Ponto Euxinotik bereizten duen parte, egun ez diren hiriz eta nazioz beteta zegoen.

Eratostenesek<sup>28</sup> eta Aristobulok, Patroklori<sup>29</sup> jarraituz, diote Indietako salerosgaiak Oxus ibaitik pasatzen zirela Ponto itsasora. Marko Varronek<sup>9</sup> diosku Ponpeioren garaian —Mitridatesen kontrako gerran— jakin zela zazpi egunetan Indiatik baktriarren herrira joan zitekeela, eta Ikaro ibaira, zeinek Oxusera jotzen baitu; handik Indiako salerosgaiak Kaspio itsasoa zeharka zezaketela, eta Ziro ibaiaren bokalean sartu; ibai horretatik bost eguneko bidea besterik ez zegoela, lehorretik, Faso ibaira iristeko, eta handik Ponto Euxinora. Zalantzarik gabe, herrialde horiek populatzen zituzten

nazioei esker, asiriarren, mediarren eta pertsiarren inperio handiek komunikazioa zuten sortaldeko eta sartaldeko parte urrunekin.

Komunikazio hori ez dago gaur egun. Herrialde horiek guztiak tartariarrek sakailatu zituzten<sup>31</sup>, eta nazio suntsitzaile hori bizi da bertan, bazter haiek kutsatzen. Oxus ibaia ez da iristen Kaspio ibaira; tartariarrek desbideratu egin dute arrazoi partikularrak direla medio<sup>32</sup>; harea lehorretan galtzen da. Jaxarte ibaia ere, behinola nazio zibilizatuen eta nazio barbaroen artean hesia zena, desbideratu egin dute tartariarrek<sup>33</sup>, eta ez da iristen itsasora.

Seleuko Nikator-ek Ponto Euxinoa Kaspio ibaiarekin lotzeko egitasmoa<sup>34</sup> hartu zuen. Egitasmo horrek erraztasun handiak emango zizkiokeen garai hartan egiten zen merkataritzari, baina hura hiltzean ez zen ezertan geratu<sup>35</sup>. Ez dago jakiterik burutu ahalko zukeen bi itsasoak bereizten dituen istmoan. Herrialde hori oso gutxi ezagutzen da gaur egun; jendez gabetua da, eta basoz betea. Ura ez da falta, ibai ugari jaisten baitira Kaukaso menditik, baina Kaukaso hori, istmoaren iparraldea eratzen baitu, eta beso modukoak<sup>36</sup> hedatzen baititu hegoaldera, oztopo handia zatekeen, batez ere eskusak egiteko antzea ezagutzen ez zen garai hartan.

Pentsa liteke Seleukok gerora Pedro I.ak egin zuen puntu berean egin nahi zuela bi itsasoen elkartzea, alegia Tanais ibaia Volgari hurbiltzen zaion lur-beso lehorretan, baina Kaspio ibaiaren iparraldea aurkitu gabe zegoen artean.

Asiako inperioetan luxuzko merkataritza zegoen bitartean, tiriarrek ekonomiazko merkataritza egiten zuten lehorretik. Bochardek haiek itsasotik gertu dauden herrialde guztietara bidali zituzten kolonia guztien zerrendarekin bete du *Kanaan* bere lanaren lehen liburua; Herkulesen zutabeak pasatu zituzten, eta ozeanoko kostetan kokatu ziren<sup>37</sup>.

Garai hartan, nabigatzaileak behartuta zeuden itsas bazterrari jarraitzera; horixe zen, nolabait esan, haien iparrorratza. Bidaia luzeak eta nekosoak ziren. Ulisesen nabigazioaren nekeak gai emankorra gertatu dira munduko poema guztietan lehenaren ondotik ederrena denarentzat.

Herri gehienek gutxi ezagutzen zituzten berengandik urrun zeuden herriak, eta hori ekonomiazko merkataritza egiten zuten nazio-

en mesedetan zen. Nahi adina nahasten zituzten beren tratuak: nazio azkarrek herri ezjakinen gainean hartzen dituzten abantaila guztiak zituzten.

Egiptok, erlijioak eta ohiturek atzerritarrekiko harreman orotarik urrunduta, ia ez zuen kanpo-merkataritzarik; lur emankorra eta egundoko ugaritasuna zituen. Garai hartako Japonia zen; aski zuen bere buruarekin.

Egiptoarrek hain ardura gutxi jarri zuten kanpo-merkataritzaz, non Itsaso Gorrikoa bertan porturen bat zuten nazio txikiei utzi baitzieten. Onartu egin zuten idumearrek, judutarrek eta siriarrak bertan ontziak edukitzea. Salomonek<sup>38</sup> itsaso hura ezagutzen zuten tiriarrak jarri zituen itsasketa horretan.

Josefok dio<sup>39</sup> bere nazioak, nekazaritzan jarduten baitzuen soilik, gutxi ezagutzen zuela itsaso; horregatik, judutarrek noizbehinka baino ez zuten tratuan jardun Itsaso Gorrian. Elath eta Asiongaber konkistatu zieten idumearrei, eta hauek beren merkataritza eman zieten; bi hiri horiek galdu ondoren, ordea, merkataritza ere galdu egin zuten.

Ez dago gauza bera esaterik feniziarrez: ez zuten luxuzko merkataritzarik egiten; ez zituzten konkista bidez egiten negozioak; haien urritasunak, abileziak, arteziak, haien arriskuek, haien nekeek, beharrezko bihurtu zituzten munduko nazio guztientzat.

Itsaso Gorriaren hurbileko nazioek itsaso horretan eta Afrikakoan baizik ez zuten tratuan jarduten. Munduak Indietako itsaso aurkitu zenean —Alexandroren garaian— izan zuen harridurak frogatzen du hori aski ondo. Esan dugu<sup>40</sup> Indietara beti metal preziatuak eramaten direla, eta ez direla ekartzen<sup>41</sup>; Itsaso Gorritik urrea eta zilarra ekartzen zituzten itsasontzi judutarrak Afrikatik etortzen ziren, ez Indietatik.

Are gehiago: nabigazio hori Afrikako ekialdeko kostan egiten zen, eta garai hartako nabigazioaren egoerak nahikoa ondo frogatzen du ez zirela joaten urruneko lekuetara.

Badakit Salomonen eta Josafaten ontziteria hirugarren urtean itzultzen zela, baina hortik ez dut ondorioztatzen bidaiaren luzeak urruntasun handia esan nahi duenik.

Pliniok eta Estrabonek dioskutenez, Indietako eta Itsaso Gorriko itsasontzi ihiz egin batek hogeit egunetan egiten zuen bidea,



itsasontzi greko edo erromatar batek zazpitan egiten zuen<sup>42</sup>. Proportzio horren arabera, ontzi greziar edo erromatarrek urtebetean egiten zuten bidaia bat, hiru urtekoa zen gutxi gorabehera Salomonen ontzientzat.

Lastertasun desberdineko bi itsasontzik ez dute egiten bidaia lastertasunaren araberrako denboran: geldotasunak maiz are geldotasun handiagoa dakar. Itsasbazterrari jarraitu behar zaionean, eta une oro posizio desberdinean egon ohi denean, edo golko batetik irteteko haize onari itxaron behar zaionean, eta aurreratzeko beste haize bati, belaontzi on batek eguraldi on guztiak aprobetxatzen ditu; beste bat, ordea, geratu egiten da leku zailetan, eta zenbait egunez zain egon behar izaten du aldagetak zain.

Indietako itsasontzien geldotasun hori, denboraldi berean itsasontzi greko eta erromatarrek egiten zuten bidearen herena besterik ez baitzuten egiten, egun gure itsas ontziterian ikusten dugunak argi dezake. Indietako itsasontziek, ihizkoak izaki, itsasontzi greziar eta erromatarrek baino ur gutxiagoren lekua hartzen zuten, hauek zurezkoak eta burdinaz josiak baitziren.

Indietako itsasontzi haiek egungo zenbait naziotakoekin konpara daitezke, hondo gutxiko portuak dituztenekin. Halakoak dira Venezia eta, oro har, Italia osoa<sup>43</sup>, Itsaso Baltikoko eta Holandako probintziako portuak<sup>44</sup>. Leku horietako ontziak, portu horietatik sartu eta irten behar dutenez, egitura biribil eta zabalekoak dira; portu onak dituzten beste nazio batzuetako ontziak, berriz, hondo aldetik, uretan asko murgiltzeko aproposa den formakoak dira. Hori dela eta, azken hauek edozein haizerekin nabigatzen dute, eta besteek, berriz, haizea atzetik dutenean baizik ez dute nabigatzen. Uretan asko sartzen den ontziak norabide berean nabigatzen du ia haize guztiekin. Hori urak haizeak bultzatutako ontziari egiten dion kontrari zor zaio, ura berme-puntu baitu, eta ontziak haizeari aurkezten dion alde luzeari; horrekin batera, lemari eman efektuaren ondorioz, norabide aldera begira jartzten da proa eta, hartara, ia haize kontra ere aurrera daiteke. Baina ontziaren hondoa biribila eta luzea denean eta, ondorioz, uretan gutxi sartzen denean, ia ez du berme-punturik; haizeak eraman egiten du ontzia, eta honek ezin dio kontra egin, haizea doan aldera joan baino. Ondorioz, egitura biribileko ontziak geldoagoak dira bidaietan: 1. denbora asko galtzen dute haizearen zain, batez ere norabidez maiz aldatu beharra badaukate; 2. geldoago dabilta, zeren eta, berme-pun-

turik ez daukatenez, ezin baitute besteek adina bela eraman. Horrenbestez, egun ontziteria hainbeste hobetu delarik, antzeak komunikatu egiten direlarik, antzeari esker naturaren eta antzearen beraren akatsak arteztu egiten direlarik, hain alde handia bada, zer izan behar zuen antzinako itsasontzi haien kasuan?

Ezin dut gai hau amaitutzat eman. Indietako ontziak txikiak ziren, eta greziar eta erromatarrenak, handinahikeriak eginarazi zizkien ontzitzarrak alde bat utziz gero, ez ziren gureak bezain handiak. Alabaina, zenbat eta txikiagoa izan ontzi bat, hainbat eta arrisku handiagoa du eguraldi txarra denean. Enbatak ontzi bat hondora dezake, baina handiagoa balitz zabuka erabili besterik ez luke egingo. Gorputz bat zenbat eta handiagoa izan tamainaz, hainbat eta txikiagoa da erlatiboki gainazala; ondorioz, ontzi txiki batean ontzi handi batean baino txikiagoa da proportzioa, hots, alde handiagoa dago ontziaren gainazalaren eta eraman dezakeen pisuaren artean. Gauza jakina da ezen, usadio ia orokorraren arabera, ontzi batean gutxi gorabehera jartzen den zama, edukieraz har dezakeen uraren erdia adinakoa dela. Demagun ontzi baten edukiera zortziehun tona ur dela: ontzi horren karga lauhun tonakoa litzateke; lauhun tona ur har ditzakeen ontzi baten karga, berriz, berrehun tonakoa litzateke. Hortaz, lehen ontziaren tamainaren eta eramango lukeen pisuaren arteko proportzioa  $8/4$  litzateke, eta bigarren ontziaren kasuan, berriz,  $4/2$ . Demagun handiaren eta txikiaren gainazalen arteko proportzioa  $8/6$  dela; txikiaren gainazala<sup>45</sup>, pisuarekiko,  $6/2$  izango da; handiaren gainazala pisuarekiko, ordea,  $8/4$  izango da; eta haize eta olatuek gainazalaren kontra bakkarik jarduten dutenez, ontzi handiak, bere pisuari esker, txikiak baino hobeto jasango ditu itsasoaren astinduak.

## VII

### *Greziarren merkataritza*

Lehen greziarrak itsaslapurrak ziren denak. Minosek, itsasoko nagusi izana baitzen, beharbada lapurretetan baizik ez zuen izan arrakasta handiagorik: haren inperioa uharte-ingurueta mugatzen zen. Baina greziarrak herri handi bihurtu zirenean, atenastarrek eskuratu

zuten itsasoko nagusitasuna, nazio merkataria eta garaile hark garaiko erregerik indartsuenari<sup>46</sup> bere legea ezarri, eta Siria, Txipre eta Feniziako itsas armadak menderatu zituelako.

Hitz egin beharra daukat Atenasek itsasoan izan zuen nagusitasunaz. «Atenas», dio Xenofontek<sup>47</sup>, «nagusi da itsasoan; baina Atika kontinentean dagoenez, etsaiek arpilatu egiten dute hark urrunera espedizioak egiten dituen bitartean. Jaun aberatsek beren lurrak honda ditzaten uzten dute, eta ondasunak uharteren batean gordetzen dituzte; herri xehea, ez baitauka ondasunik, inolako kezkarik gabe bizi da. Baina atenastarrak uharte batean biziko balira eta gainera itsasoko nagusi balira, edonori egin ahalko liokete kalte, eta inork ezingo lieke kalte egin berei, itsasoko nagusi izanik». Irudi luke Xenofonte Ingalaterraz mintzo dela.

Ospe-asmoz beteta, Atenas, bere eragina handitu ordez bekaizkeria handiagotzen zuelarik, bere itsas nagusigoa zabaltzeaz bertatik gozatzeaz baino arduratuago zelarik; bere gobernu-era politikoaren kariaz herri xeheak errenta publikoak beretzat banatu eta aberatsak zapalduta zeudelarik; Atenas hark ez zuen jardun merkataritza handi hartan; ez zuen jardun meategietako lanak, esklaboen ugariak, itsasgizonek, Greziako hirien gainean zuen itzalak eta, beste ezerk baino gehiago, Solonen instituzioek agintzen zioten merkataritza handian. Haren negozioak Greziara eta Ponto Euxinora mugatu ziren ia osorik, eta handik atera zuen bizibidea.

Korinto ezin hobeto zegoen kokatuta: bi itsaso bereizten zituen, ireki eta itxi egiten zuen Peloponesoa, eta ireki eta itxi egiten zuen Grezia. Oso hiri garrantzitsua izan zen, herri grekoa mundu bat zenean, eta hiri grekoak nazioak zirenean. Atenasek baino merkataritza handiagoa egin zuen. Portu bat zuen Asiako salerosgaiak hartzeko, eta beste bat Italiakoak hartzeko; izan ere, Maleo lurmuturra gainditzeko zailtasun handiak zeudenean —han elkarren kontrako haizeek<sup>48</sup> topo egin eta hondamenak eragiten baitituzte—, nahiago izaten zen Korintora jo, han lehorretik ere pasaraz baitzitezkeen itsasontziak itsaso batetik bestera. Beste ezein hiritan ez ziren hain gora iritsi arteak. Erlijioak usteldu zizkion, azkenik, aberastasunak utzi zizkion ohiturak. Tenplu bat eraiki zion Venusi, eta mila emagalduta sagaratu zituzten bertan. Mintegi hartatik irten ziren emakume eder gehienak zeinen historia Ateneo idazten ausartu baitzen.

Badirudi Homeroren garaian Greziako oparotasuna Rodas, Korinto eta Orkomenen zegoela. «Jupiterrek», dio hark<sup>49</sup>, «rodastarrak maite zituen, eta aberastasun handiak eman zizkien». «Aberats» epitetoz izendatzen du Korinto<sup>50</sup>.

Orobat, urre asko dituzten hiriez mintzatu nahi duenean, Orkomene aipatzen du<sup>51</sup>, Egiptoko Tebasekin batera. Rodasek eta Korintok beren ahalmena gorde zuten, eta Orkomenek galdu egin zuen. Orkomeneren kokalekuak —Helespontotik, Propontidatik eta Ponto Euxinotik gertu baitzegoen— pentsarazten du itsasbazter horietako merkataritzatik ateratzen zituela bere aberastasunak, urrezko ardilarruaren alegia bertan sorrarazia baita. Hain zuzen, Miniares izena eman zitzaion Orkomeneri<sup>52</sup>, bai eta argonautei ere. Baina harrezkero itsaso horiek ezagunago bihurtu ziren, greziarrek bertan kolonia ugari eraiki zituzten, kolonia horiek herri barbaroekin salerosketan aritu ziren, metropoliarekin harremanak izan zituzten, eta horren guztiaren ondorioz Orkomeneren gainbehera hasi, eta beste hiri greziarrekin nahastu zen.

Homero aurreko greziarrek beren artean eta herri barbaroren batekin baino ez zuten jardun salerosketan; baina herri berriak eratu zituzten heinean, zabaldu egin zuten beren mendeko barrutia. Grezia erdiuharte handia zen, non lurmuturrek itsasoa atzerarazten zutela baitzirudien, eta golkoak alde guztietatik irekitzen zirela, hura berriro hartzeko bezala. Greziari begi emanez gero, ikusiko da herrialde mugatu samarra izan arren kostalde luzea duela. Kolonia ezin ugariagoek zirkunferentzia eskerga bat eratzen zioten inguruan, eta han, nolabait esateko, barbaro ez zen mundu osoa ikusten zuen. Sizilian eta Italian sartu zela? Nazioak eratu zituen han. Pontoko itsasoetara, Asia Txikiko kostaldeetara, Afrikakoetara nabigatu zuela? Gauza bera egin zuen han ere. Hiriak aberastu egin ziren, beste herri batzuetatik gertu aurkitu ahala. Eta hona gauza miresgarria: ezin konta ahala uhartek inguratzen zuten hala ere.

Zein aberastasun-iturri ederrak Greziarentzat, munduari, nola-bait esateko, eman zizkion jokoak! Errege guztiek eskaintzak bidaltzen zituzten hango tenpluetara; alde guztietatik etorritakoak biltzen ziren hango jaietara; giza jakinmin osoaren arreta erakartzen zuten hango orakuluek; azkenik, gustua eta arteak halako puntura eramanez zituzten, non haiek gaindi daitezkeela pentsatzea haiek ez ezagutzea izango baita beti!

## VIII

### *Alexandroz. Haren konkista*

Alexandroren garaiko lau gertaerak iraultza handia ekarri zuten merkataritzara: Tiro hartzeak, Egipto konkistatzeak, Indiak konkistatzeak eta herrialde horren hegoaldean den itsasoa aurkitu izanak.

Pertsiarren inperioa Indo ibairaino hedatzen zen<sup>53</sup> Alexandro baino askoz lehenago, Dariok<sup>54</sup> nabigatzaileak bidali zituen, eta ibai horretatik jaitsi ziren Itsaso Gorriraino iritsi arte. Hortaz, nolatan izan ziren greziarrak Indietako merkataritza hegoaldeetik egin zuten lehenak? Nolatan ez zuten lehenago egin pertsiarrek? Zertarako baliatzen ziren hain hurbil zituzten itsasoez, beren inperioa bainatzen zuten itsasoez? Egia da Alexandrok Indiak konkistatu zituela, baina herrialde bat konkistatu beharra al dago bertan salerosketan aritzeko? Aztertu egingo dut hau.

Ariana<sup>55</sup> Pertsiar golkotik Indoraino hedatzen zen, eta hegoaldeko itsasotik Paropamisio mendietaraino, eta nola edo hala pertsiarren inperioaren mende zegoen; baina hegoaldean idorra zen, errea, landu gabea eta barbaroa. Tradizioak zioenez<sup>56</sup>, Semiramisen eta Zioren armadak akabatu egin omen ziren hango basamortuetan; eta Alexandrok, atzetik bere itsasontziak ekarri bazituen ere, bere armadaren parte handi bat galdu zuen bertan. Pertsiarrek iktiofagoen<sup>57</sup>, oriten eta beste herri barbaro batzuen esku uzten zuten itsasbazter osoa. Bestalde, pertsiarrek<sup>58</sup> ez ziren nabigatzaileak, eta haien erlijioak berak galarazi egiten zien itsas merkataritzaz baliatzea. Dariok agindutako Indotiko nabigazioa bere indarra erakutsi nahi duen printze baten fantasia izan zen, zerbaitetarako baliatu nahi duen errege baten egitasmo arautua baino. Ez zuen ondoren izan, ez merkataritzan, ez itsasketan; eta ezjakintasunetik irten ondoren, atzera bertara erori ziren.

Are gehiago: Alexandroren espedizioa baino lehen, gauza ziurtzat jotzen zen<sup>59</sup> Indietako hegoaldean ezin zitekeela bizi<sup>60</sup>; uste hori honako honetan oinarritzen zen: Semiramisek<sup>61</sup> bidalitako gizonetatik hogeia, eta Ziok bidalitakoetatik zazpi besterik ez zirela itzuli.

Alexandro iparraldetik sartu zen. Ekialdera jotzeko asmoa zuen, baina hegoaldea nazio handiz, hiriz, eta ibaiz beteta aurkitu zue-  
nez, konkistatzen saiatu zen, bai eta lortu ere.

Gero Indiak mendealdearekin lotzea pentsatu zuen itsas mer-  
kataritzaren bidez, lehorrean eraiki zituen kolonien bidez lotu zuen  
bezala.

Ontziak eginarazi zituen Hidaspes ibaian, ibai horretatik jaitsi  
zen, Indoan sartu eta honen bokaleraino nabigatu zuen. Armada eta  
flota Patialan utzi zituen, eta bera joan zen, zenbait itsasontzirekin,  
itsasoa arakatzera, eta portuak, senaiak eta armategitarako erabili nahi  
zituen lekuak markatu zituen. Patialara itzulitakoan, itsas armadatik  
aldendu eta lehorreko bidea hartu zuen hari lagundu ahal izateko, eta  
haren laguntza jaso ahal izateko. Itsas armada itsasertzari jarraitu  
zitzaion Indo ibaiaren bokaletik, oriten eta iktiofagoen lurraldeetako,  
Karamaniako eta Pertiako itsasbazerretan zehar; putzuak zularazi  
zituen, hiriak eraikiarazi; arraina jatea galarazi zien iktiofagoei<sup>62</sup>,  
itsasbazer hartan nazio zibilizatuak bizi zitezen nahi baitzuen.  
Nearkok eta Onesikritesek egin dute hamar hilabeteko bidaia haren  
egunez eguneko kontakizuna. Susara iritsi ziren, eta han aurkitu zuten  
Alexandro, bere armadari festa eskaintzen.

Konkistatzaile hark Alexandria sortu zuen, Egipto segurtatze-  
ko asmoz; lurralde hura irekitzeko giltza zen hiria, bere aurreko erre-  
geek hura ixteko giltza izan zuten leku berean<sup>63</sup>. Baina orduan ez zen  
arduratzen mekataritzaz; Indietako itsasoa aurkitzeak bakarrik sorra-  
raziko zion pentsamendu hori.

Badirudi aurkikuntza horren ondoren ere ez zuela izan inolako  
ikuspegi berririk Alexandriaz. Oro har, bazuen Indien eta bere inpe-  
rioko mendealdearen artean merkataritzari bidea irekitzeko asmoa,  
baina merkataritza hori Egiptotik zehar egiteko, gauza asko ezagutzea  
falta zitzaion. Ikusiak zituen Indo eta Nilo ibaiak, baina ez zituen eza-  
gutzen bi horien artean dauden Arabiako itsasoak. Indietara iritsi  
orduko, flota berriak eginarazi zituen, eta Euleo ibaitik, Tigris eta  
Eufratestik eta itsasotik nabigatu zuen<sup>64</sup>; desegin egin zituen pertsia-  
rrek ibai horietan eginak zituzten urjauziak; ohartu zen pertsiar sartu-  
nea ozeanoko golko bat zela. Itsaso hori arakatzera joan zen<sup>65</sup>,  
Indietakoa arakatu zuen bezala; Babilonian mila ontzirentzako portua  
eginarazi zuen, eta ontzitegiak; bostehun talentu bidali zituen Fenizia

eta Siriara, marinela bidal zituzten, itsasbazterrean zabaltzen zituen kolonietan kokarazi nahi baitzituen; azkenik, egundoko lanak egin zituen Eufrates ibaian eta Asiriako beste ibaietan. Hauek guztiak ikusita, ez dago zalantzan jartzerik haren asmoa Indietako merkataritza Babilonia eta Pertsiar golkotik egitea zela.

Zenbaitek, Alexandrok Arabia konkistatu nahi zuelako aitza-kiaz<sup>66</sup>, esan dute inperio hura setiatzeko asmoa zuela, baina nola aukeratu zuen ezagutzen ez zuen leku bat?<sup>67</sup> Bestalde, munduko herrialderik deserosoena zen, eta bere inperiotik aldenduko zatekeen. Kalifak ere, beren konkistetan urrutira iritsi zirenean, Arabiatik alde egin eta beste nonbait jarri ziren bizitzen.

## IX

### *Alexandroren ondorengo errege greziarren merkataritza*

Alexandrok Egipto konkistatu zuenean, oso gutxi ezagutzen zen Itsaso Gorria, eta batere ez itsaso horrekin bat egiten duen ozeanoaren aldea, batetik Afrikako eta bestetik Asiako kostak bustitzen dituen; uste zen ezinezkoa zela Arabiako erdiharteari bira ematea. Alde banatatik saiatu zirenek bertan behera utzia zuten egiteko hori. Honela esaten zuten<sup>68</sup>: «Nola ote daiteke Arabiako hegoaldeko itsasbazterrera nabigatzea, Kanbisesen armada, iparraldetik zeharkatu zuelarik, ia osorik akabatu baitzen, eta Lagusen seme Ptolomeok Babiloniara Seleukus Nikatorri laguntzera bidalitakoak gaitz sinestezinak jasan baitzituen eta, beroagatik, gauez baino ezin baitzuen aurrera egin?».

Pertsiarrek ez zuten inolako nabigaziorik. Egipto konkistatu zutenean, beren lurrean zuten espiritu berbera eraman zuten hara, eta axolagabezia hain izan zen handia, non greziar erregeak honako hone-taz ohartu baitziren: tiriarren, idumearren eta judutarren nabigazioak ez ezagutzeaz gainera, Itsaso Gorrikoen berri ere ez zeukatela. Nire ustez, Nabukodonosorrek Tiro lehen aldiz suntsitu zuenean, eta harekin batera Itsaso Gorriaren ertzeko hiriak, ordura arte ikasitakoa galdu egin zen.

Egiptok, pertsiarren garaian, ez zuen Itsaso Gorrian muga; ez zeukan<sup>69</sup> Nilo ibaiak bere uraldietan estaltzen duen lur-zerrenda luze eta estua baizik, bi aldeetatik mendikatez mugatuta dagoena. Beraz, bigarren aldiz aurkitu behar izan zuten Itsaso Gorria, eta Ozeanoa ere bai; eta aurkikuntza hori errege greziarren jakinminari esker gertatu zen.

Nilon gora egin zuten; elefante-ehizan ibili ziren Niloren eta itsasoaren artean diren lurraldeetan; itsaso horren ertzak aurkitu zituzten lehorretik; eta aurkikuntza hori greziarrek egin zutenez, izenak greziarrak dira, eta tenpluak greziar jainko-jainkosei eskainita daude<sup>70</sup>.

Egiptoko greziarrek oso merkataritza zabalean jardun ahal izan zuten; Itsaso Gorriko portuetako jabe ziren; Tiro, nazio merkatarioren etsaia, desagertua zen; lurralde hartako superstizio zaharrek<sup>71</sup> ez zieten trabarik egiten; Egipto munduko erdigune bihurtua zen.

Siriako erregeek Egiptokoei utzi zieten Indietako hegoaldeko merkataritza, eta iparraldeko merkataritzari lotu zitzaizkion bakarrik, Oxus ibaitik eta Kaspio itsasotik egiten zenari. Garai hartan uste zuten itsaso hau iparraldeko ozeanoko zati bat zela<sup>72</sup>; eta Alexandrok, hil baino zerbait lehentxeago, itsasontziak eginarazi zituen<sup>73</sup> ea Ponto Euxinotik Ozeanoarekin bat egiten zen ikusteko, edo Indiak aldera zegokeen beste ekialdeko itsasoren batetik. Haren ondoren, Seleukok eta Antiokok arreta berezia jarri zuten hura aztertzen. Ontziak hornitu zituzten horretarako<sup>74</sup>. Seleukok aztertu zuenari Itsaso Seleuzida deitu zioten; Antiokok aurkitu zuenari, berriz, Itsaso Antiokida. Alde hartan zituzten egitasmoez arduratuta, ez zuten axolarik jarri hegoaldeko itsasoetan; dela Ptolomeotarrek, Itsaso Gorriko ontzien bidez, jadanik inperioa osatua zutelako, dela pertsiarrengan itsasoarekiko axolagabezia garaitezina aurkitu zutelako. Pertsiaiko hegoaldeak ez zuen marinelik ematen; Alexandroren bizitzaren azken uneetan baizik ez zen halakorik ikusi han. Baina Egiptoko erregeek, Txipreko, Feniziako eta Asia Txikiko kostaldeko hainbat lekuren jabe, bitarteko guztiak zituzten itsas ekintzetarako. Ez zeukaten beren sujeten espiritua bortxatu beharrik; hari jarraitu besterik ez zeukaten.

Nekez uler daiteke antzinakoek Kaspio itsasoa ozeanoaren zati bat zela sinesteko hartua zuten seta. Alexandroren espedizioek, Siriako erregeenek, partiarren eta erromatarrenek, ezin izan zieten iritzia aldatu. Nor bere hutsegiteez berandu ohartu ohi da. Hasieran



Kaspio itsasoaren hegoaldea baizik ez zen ezagutzen, eta ozeanoa zelakoan zeuden; itsasbazterretik zehar iparraldeko kostarantz egin ahala, ozeanoa lurren artetik sartzen zelakoan zeuden hala ere. Kostari jarraituta, ekialdetik, Jaxartes ibairaino arakaturaz zuten; eta mendebaldetik, Albaniako ertzeraino. Itsasoa, iparraldetik, lohitsuaren zen<sup>75</sup> eta, beraz, batere ez egokia itsasketarako. Hori guztia dela eta, ozeanoa besterik ez zuten ikusi han.

Alexandroren armada ekialdetik Hipanis ibairaino iritsia zen bakarrik; alegia, Indora jotzen duen azken ibairaino. Hortaz, greziarrek Indietan izan zuten lehen merkataritza herrialdearen oso zati txiki batean egin zuten. Seleuko Nikator Gangesaraino sartu zen<sup>76</sup>; eta handik aurkitu zen ibai horrek jotzen duen itsasoa, hau da, Bengalako golkoa. Gaur egun itsas bidaiei esker lurrak aurkitzen dira; behinola, lurrak konkistatzeari esker itsasoak aurkitzen ziren.

Estrabonek<sup>77</sup>, Apolodoroaren lekukotza eta guzti, zalantzan jarritzen du Baktrianako errege greziarrak<sup>78</sup> Seleuko eta Alexandro baino urrunago iritsi izana. Egia balitz ere ekialderantz Seleuko baino harantzago ez zirela iritsi, urrunago iritsi ziren hegoalderantz: Siger aurkitu zuten<sup>79</sup>, eta Malabarko portuak, eta orain hizpide izango dutan nabigazioa sortu zen hortik.

Pliniok<sup>80</sup> erakusten digu hiru bide hartu zirela, hurrenez hurren, Indietako nabigazioa egiteko. Lehenik, Siagrekko lurmuturretik Pataleneko uhartera joaten ziren, Indoko bokalera alegia; ikusten denez, Alexandroren ontziek ibilitako bidea zen hori. Ondoren bide laburrago<sup>81</sup> eta seguruagoa hartu zuten, eta lurmutur hartatik Sigerrerraino joan ziren. Siger hori Estrabonek<sup>82</sup> aipatzen duen Sigerko erreinua besterik ezin daiteke izan, Baktrianako errege greziarrek aurkitu zutena. Pliniok bide hori denbora laburragoan egiten zelako baizik ezin du esan laburragoa zela; izan ere, Sigerrek Indo ibaia baino atzerago behar zuen, Baktrianako erregeek aurkitu baitzuten. Handik itsasbazter batzuk saihesten ziren, eta zenbait haize aprobeztatzen. Azkenik, merkatariek hirugarren bide bat hartu zuten: Kanen edo Ozelisera joaten ziren, Itsaso Gorriko bokalean zeuden portuetara, eta handik, mendebaldeko haize bati esker, Muzirisera iristen ziren, Indietako lehen etapara, eta handik beste portu batzuetara.

Ikusten denez, Itsaso Gorriko bokaletik Siagerraino joan ordez, Arabia zoriontsuko kostaldean iparrekialdetik gora eginez, zuzenean

mendebaldetik ekialdera joaten ziren, alde batetik bestera, monzoiei esker, zeinen aldaketak paraje haietan barrena nabigatuz ikasi baitziztuzten. Antzinakoak ez ziren itsasbazter haietatik aldentzen monzoiez<sup>83</sup> eta alisioez baliatzen zirenean baizik, iparrorratza bezalakoa baitziren haientzat.

Pliniok<sup>84</sup> dio uda erdian abiatzen zirela Indietara, eta abenduaren azken aldera edo urtarrilaren hasieran iristen zirela handik. Hori guztiz bat dator gure nabigatzaileen egunkariekin. Afrikako erdiuhartearen eta Ganges ibaiaz hemendikoaren artean dagoen Indietako itsasoan, bi monzoi daude: lehenengoan haizeek mendebaldetik ekialdera jotzen dute, eta abuztu-irailetan hasten da; bigarrenean haizeek ekialdetik mendebaldera jotzen dute, eta urtarrilean hasten da. Horregatik abiatu ohi gara Afrikatik Malabarrera Ptolomeoren ontziak abiatzen ziren garaian, eta itzultzen gara haiek itzultzen ziren garaian.

Alexandroren ontziek zazpi hilabete behar izan zituzten Patialatik Susara joateko. Uztaillean abiatu ziren, alegia, gaur egun Indietatik itzultzeko ezein itsasontzi ausartzen ez den garaian. Monzoi bataren eta bestearen artean, haizeak aldatu egiten dira aldi batez, eta iparraldeko haize batek, ohiko haizeekin nahastuta, enbata izugarriak eragiten ditu batez ere itsasbazterretan. Horrek ekain-uztail-abuztuetan irauten du. Alexandroren ontziek, Patialatik uztaillean abiatuta, enbata asko jasan zituzten, eta bidaia luzea izan zen, kontrako monzoiarekin bidaiatu zutelako.

Pliniok dio udaren hondarrean abiatu ohi zirela Indietara; hartara, monzoiak aldatzen direneko tarte aprobe txatzen zuten Alexandriatik Itsaso Gorrira joateko.

Ikus, arren, nola aurreratu zen pixkanaka nabigazioa. Dariok agindu zuen bidaia, Indo ibaitik Itsaso Gorrira jaisteko, bi urte eta erdikoa izan zen<sup>85</sup>. Alexandroren ontziak<sup>86</sup> Indotik jaitsi eta hamar hilabetean iritsi ziren Susara, Indo ibaitik hiru hilabetez eta Indietako itsasotik zazpi hilabetez nabigatu ondoren. Gero, berrogei egunetan egin zuten Malabarko itsasbazterretik Itsaso Gorrirako bidea<sup>87</sup>.

Estrabonek, Hipanis eta Ganges ibaien artean diren herriez dagoen ezjakintasuna azaltzerakoan, dio Egiptotik Indietara doazen nabigatzaileen artean gutxi joaten direla Gangeseraino. Hain zuzen, bistan da ontziak ez zirela hara joaten; Itsaso Gorriko bokaletik

Malabarko kostara joaten ziren, mendebaldetik ekialderako monzoiei esker. Geratu egiten ziren etapetan, eta ez zuten inguratzen Gangesez hemendiko erdiuhartea Komorik lurmuturretik eta Koromandelko kostatik. Egiptoko erregeen eta erromatarren nabigazio-plana urte berean itzultzea izaten zen<sup>88</sup>. Beraz, greziarrek eta erromatarrek Indiekin zuten merkataritza ez zegoen gurea bezain hedatua, ezta gutxiagorik ere. Guk haiek ezagutzen ez zituzten herrialde eskergak ezagutzen ditugu, Indietako nazio guztiekin jarduten dugu salerosketan, eta are haien ordez ere aritzen gara eta nabigatzen dugu.

Baina haiek guk baino errazago ari izaten ziren merkataritza horretan, eta, egun Guzarat eta Malabarko kostetan bakarrik jardungo balitz salerosketan, eta, hegoaldeko uharteetara jo gabe, uhartetarrek ekarriko lituzketen salerosgaiekin aski izango bagenu, nahiago izango genuke Egiptoko bidea Esperantza Oneko lurmuturra baino. Estrabonek<sup>89</sup> dio horrela jarduten zutela salerosketan Zeilango herriein.

## X

### *Afrikako itzuliaz*

Historiak irakasten digu iparrorratza aurkitu baino lehen lau aldiz saiatu zirela Afrikako itzulia egiten. Feniziar batzuk, Nekok<sup>90</sup> eta Eudoxiok<sup>91</sup> bidalirik, Ptolomeo-Laturoren haserretik ihesi, Itsaso Gorritik abiatu ziren eta lortu egin zuten. Sataspe<sup>100</sup>, Xerxesen garaian, eta Hannon, kartagotarrek bidalia, Herkulesen zutabeetatik abiatu ziren eta ez zuten lortu.

Afrikako itzulia egiteko, gakoa Esperantza Oneko lurmuturra aurkitu eta biratzea zen. Baina Itsaso Gorritik abiatuz gero, lurmutur hori Mediterraneotik baino bide erdia hurbilago zegoen. Itsaso Gorritik lurmutur horretara doan kosta seguruagoa da lurmuturretik Herkulesen zutabeetara doana baino<sup>101</sup>. Herkulesen zutabeetatik abiatzen zirenek lurmuturra aurkitu ahal izateko, iparrorratza asmatzea zen beharrezko. Horri esker, Afrikako kostatik aldendu eta ozeano zabalean barrena nabigatu ahal izan zen<sup>102</sup>, Santa Helenako uharterantz edo Brasilgo kostarantz. Beraz, oso litekeena da Itsaso Gorritik Mediterraneora iritsi

izana, eta Mediterraneotik Itsaso Gorrira ezin itzuli izana. Bira handi hori egin gabe, zeinen ondotik ezin baitzen itzuli, naturalagoa zen Afrikaren ekialdeko merkataritza Itsaso Gorritik egitea, eta mendebaldeko itsasbazterrekoa Herkulesen zutabeetatik.

Egiptoko errege greziarrek lehenik golkoaren barrualdeko itsasertza aurkitu zuten, Herumgo hiritik Dirarainokoa. Alegia, egun Bab-al-Mandab deritzan itsasarteraino doan kosta aurkitu zuten. Handik Aromaten lurmuturreraino, Itsaso Gorriaren sarreran<sup>103</sup>, nabigatzaileek arakatu gabea zuten kosta; eta hori argi ageri da Artemidorok dioskunagatik<sup>104</sup>: kosta horretako lekuak ezagunak zirela, baina distantziak ezezagunak; izan ere, portu horiek lehorretik joanda ezagutzen ziren, ez itsasoz joanda.

Harkaitz hartatik aurrera, non hasten baita Ozeanoko itsasbazterra, ez zen ezer ezagutzen, Artemidorok eta Eratostenesek irakasten digutenez<sup>105</sup>.

Horixe zen Estrabonen garaian —Augustoren garaian, alegia— Afrikako kostez zegoen ezaguera. Baina Augustoren ondoren, erromatarrek *Raptum* eta *Prassum* harkaitzak aurkitu zituzten; Estrabonek ez ditu aipatzen, artean ezezagunak zirelako. Ikusten denez, bi izen horiek erromatarrek dira.

Ptolomeo geografoa Adriano eta Antonino Pioren garaian bizi izan zen; eta Eritreako itsasoko Periploaren autoreak, dena delarik ere, zerbait geroxeago bizi izan zen. Hala ere, lehenak *Prassum* harkaitzean jartzen du Afrika ezagunaren muga<sup>106</sup>, Hego latitudeko hamalagarren gradu inguruan; eta Periploaren autoreak<sup>106</sup>, berriz, *Raptum* harkaitzean, latitude horretako hamargarren graduan, gutxi gorabehera. Badirudi azken honek beren ibilietako leku bat hartzen duela mugatzat, eta Ptolomeok jadanik inor joaten ez zen leku bat.

Honexek berresten dit ideia hau, *Prassum* inguruko herriak antropofagoak zirela<sup>107</sup>. Ptolomeok<sup>108</sup>, leku asko aipatzen dizkigularik Aromateseko portuaren eta *Raptum* harkaitzaren artean, hutsune osoa uzten du *Raptum*-etik *Prassum*-era. Indietako nabigazioan ateratako probetxu handiak ahaztarazi bide zuen Afrikakoa. Azkenean, erromatarrek ez ziren inoiz ibili nabigazio erregularrean kosta hartan: lehorretik aurkitu zituzten portu haiek, eta enbatak hara eramandako itsasontziei esker; eta gaur egun Afrikako itsasbazterra ondo samar eta

lehorreko barrualdea oso gaizki ezagutzen diren bezala<sup>109</sup>, antzinakoek ondo samar ezagutzen zuten barrualdea, eta oso gaizki kostak.

Esan dut Nekok eta Eudoxiok Ptolomeo-Laturoren garaian bidalitako feniziarrek egin zutela Afrikako itzulia; Ptolomeo Geografoaren garaian bi itsasaldi horiek alegiazkotzat hartu behar ziren, zeren eta *signus magnus*-aren ondoren —Siamgo golkoa da hau, nik uste— lur ezezaguna jartzen baitu<sup>110</sup>, Asiatik Afrikara *Prassum* harkaitzeraino doana. Hartara, Indietako itsasoa aintzira bat litzateke soilik. Antzinakoak, Indietan iparraldetik ibiliak izaki, ekialderantz aurreratu zirenean, hegoaldean kokatzen zuten lur ezezagun hura.

## XI

### *Kartago eta Marseilla*

Kartagok Jende Zuzenbide berezia zeukan: irato egiten zituen<sup>110</sup> Sardinian eta Herkulesen zutabeen aldean merkataritzan ari- tzen ziren atzeritar guztiak. Haren zuzenbide politikoa ere berebizi- koa zen: lurra lantzea galarazten zien sardiniarrei, heriotza-zigorraz. Areagotu egin zuen bere indarra bere aberastasunei esker, eta ondo- ren aberastasunak bere indarrari esker. Mediterraneoak bustitzen duen afrikar itsasbazterrean nagusi, ozeanokotik hedatu zen. Hannonek, Kartagoko senatuaren aginduz, hogeita hamar mila kar- tagotar barreiatu zituen Herkulesen zutabeetatik Zerneraino. Hark dioenez, Herkulesen zutabeak Kartagotik bezain urrun dago leku hori Herkulesen zutabeetatik. Posizio hori nabarmentzekoa da: era- kusten digu Hannonek ipar latitudeko hogeita bost graduan jarri zuela bere ezarlekuen muga, hau da, Kanariar irlak baino bizpahiru gradu hegoalderago.

Hannonek, Zernen zegoelarik, beste itsasaldi bat egin zuen, hegoalderantz aurkikuntza gehiago egiteko asmoz. Ez zuen batere miatu kontinentea. Jarraitu zitzaion itsasbazterraren luzera hogeita sei eguneko nabigaziokoa zen, eta, janaririk ezean, itzuli beharra izan zuen. Badirudi kartagotarrak ez zirela baliatu Hannonen ekintza har- taz. Eszilaxek dio<sup>112</sup> Zerneze harantzago itsasoa ez dela nabigagarria<sup>113</sup>, han hondo gutxikoa delako, limoz eta itsas belarrez bete; halaxe da,

asko dago horietarik eskualde hartan<sup>114</sup>. Eszilaxek aipatzen dituen Kartagoko merkatariek Hannonek —hirurogei itsasontzirekin, bakoi-tza berrogeita hamar arraunekoa— gainditu zituen oztopoak aurkitu-ko zituzten agian. Zailtasunak erlatiboak dira, eta gainera, ez da nahastu behar ausardia eta are ausarkeria xedetzat duen ekintza bat, jokabide arruntaren ondorio denarekin.

Hannonen kontakizuna antzinateko idazti eder bat da: ekintza burutu zuen gizon berak idatzi zuen; ez du inolako harrokeriarik ageri bere kontakizunean. Kapitain handiek sinpleki idazten dituzte beren ekintzak, harroago baitaude egin dutenaz esan dutenaz baino.

Gauzak haren estiloa bezalakoak dira. Ez du kontu liluragarrietara jotzen; hark klimaz, lurraz, bertakoen ohitura eta manerez dioen guztia bat dator gaur egun Afrikako kosta honetan ikusten denarekin; irudi luke gure nabigatzaile baten egunkaria dela.

Hannon ohartu zen<sup>115</sup> egunez isiltasun osoa zela nagusi kontinentean; gauez musika-tresna batzuen hotsa aditzen zela; eta suak ikusten zirela nonahi, batzuk handiak, beste batzuk txikiagoak. Gure kontakizunek berretsi egiten digute hori: egunez, basati haiek, eguzkiaren beroa saihesteko, basoetan barrentzen dira; gauez su handiak egiten dituzte piztia urrunarazteko; eta grinatsu maite dituzte dantza eta musika-tresnak.

Hannonek sumendi bat deskribatzen digu gaur egun Vesubiok erakusten dituen ezaugarri guztiekin; eta kartagotarrei jarraitu baino hil nahiago izan zuten bi emakume iletsuren kontakizuna (Kartagora eramane zuen haien larruazala) ez dago esan den bezain urrun egiantzetik.

Kontakizun hori are ederragoa da monumentu punikoa delako; eta monumentu punikoa delako hartu izan da alegiazkotzat. Izan ere, erromatarrek kartagotarrenganako gorrotoa gorde zuten baita haiek suntsitu eta gero ere. Garaitzak soilik erabaki zuen *fede punikoa ala fede erromatarra* esan behar ote zen.

Modernoak<sup>116</sup> aurreiritzi horri jarraitu zaizkio. Honela diote: zer gertatu zitzaion Hannonek deskribatzen dizkigun hiriei, are Plinioren garaian ere ez baitzen haien aztarrenik? Harrigarria, aztarrenak geratzea izango zatekeen. Korinto edo Atenas eraikiko zituen bada Hannonek kosta haietan? Kartagotar familiak uzten zituen mer-

kataritza-guneetan; eta bizkor bada bizkor, basatien eta piztiengandik seguru uzten zituen. Kartagotarren zorigaitzek geldiarazi zuten Afrikako itsasketa; familia haiek hil edo basati bihurtuko ziren, derri-  
gor. Gehiago diot: hiri haien hondarrek artean iraun balute, nork aurkituko zituen hango baso eta paduretan? Hala ere, Eszilax eta Polibioren lanetan aurkitzen dugunez, kartagotarrek kokaleku handiak zituzten kosta haietan. Horra Hannonen hirien aztarrenak; ez da besterik, Kartagoz beraz ere ez delako ezer geratu.

Kartagotarrak aberastasunen bidetik zebiltzan eta, ipar latitudoko laugarren graduraino eta longitudeko hamabosgarreneneraino iritsi balira, Urrezko kosta eta ondoko itsasbazterra aurkituko zituzketen. Gaur egun han egiten denaz guztiz bestelako merkataritza egingo zuketena; izan ere, badirudi Amerikak beste herrialde guztietako aberastasunak merketu dituela. Erromatarrek ezin kenduko zizkieten altxorrak aurkituko zituzketen.

Gauza harrigarriak esan izan dira Espainiako aberastasunez. Aristotelesi sinetsiz gero<sup>117</sup>, Tartesosera iritsi ziren feniziarrek hainbeste zilar aurkitu zuten han, non ez baitzen kabitzen haien itsasontzietan, eta metal horretakoak egin zituzten tresnarik arruntenak. Kartagotarrek, Diodorok kontatzen digunez<sup>118</sup>, hainbeste urre eta zilar aurkitu zuten Pirinioetan, non beren itsasontzien ainguretan jarri baitzuten. Ez dago herri-ipuina horietaz fidatzerik; hona hemen gertaera zehatzak.

Estrabonek<sup>119</sup> aipatzen duen Polibioren zati batean ikusten denez, Betis ibaiaren iturburuan zeuden zilar-meategietan berrogei mila gizonek egiten zuten lan, eta hogeita bost mila drakma ematen zizkieten erromatarrei eguneko; alegia, urteko bost milioi libera inguru, markoak berrogeita hamar franko eginez gero. Meategiak zeuden mendiei zilarrezko mendiak esaten zieten<sup>120</sup>; alegia, garai hartako Potosi zen hura. Gaur egun Hannoverko meategiek ez dituzte garai hartan Espainiako meategietan enplegatzen ziren gizonen laurdenak, eta gehiago ematen dute; baina erromatarrak, kobrezko meategiak eta zilarrezko meategi gutxi batzuk besterik ez zituztenez, eta greziarrak, Atikako meategi batere ez aberatsak besterik ezagutzen ez zituztenez, harrituta geratu bide ziren haien ugariak.

Espainiako oinordekotzako gerran, Rodako markesa zeritzan gizon batek, zeinetaz esaten baitzen porrot egin zuela urrezko meategiekin eta aberastu egin zela ospitaleekin<sup>121</sup>, Pirinioetako meategiak

irekitzea proposatu omen zion Frantziako gorteari. Tiriarrak, kartago-tarrak eta erromatarrak aipatu zituen. Bilatzen utzi zioten; bilatu zuen, zulatu zituen bazterrak; aipuak ematen jarraitu zuen beti ere, baina ez zuen ezer aurkitu.

Kartagotarrek, urre-zilarren merkataritzan nagusi, berunaren eta eztainuaren merkataritzan ere nagusi izan nahi zuten. Metal horiek lehorrez eramanez ziren Galiako ozeanoko portuetatik Mediterraneokoetaraino. Kartagotarrek berek hartu nahi izan zituzten: Himilkon bidali zuten, Kasiteride uharteetan —Silley uharteak zirela uste da— kokalekuak eratzeko<sup>122</sup>.

Betikatik Ingalaterrarako bidaia horiek zirela eta, zenbaitek pentsatu izan du kartagotarrek iparrorratza zutela, baina argi dago itsasbazerretik joaten zirela. Ez dut nahi Himilkonek dioena beste frogarik, lau hilabete behar izan baitzituen Betis ibaiaren bokaletik Ingalaterrara joateko; horrez gainera, piloto kartagotar baten historia<sup>123</sup> dugu: erromatarren itsasontzi bat zetorrela ikusirik, nahita hondartu zen, besteari Ingalaterrako bidea ez erakusteko<sup>124</sup>. Historia honek erakusten digunez, bi itsasontzi haiek kostatik oso gertu zeuden topo egin zutenean.

Antzinakoek egin zituzten itsas bidaiek iparrorratza ezagutzen zutela pentsaraz diezagukete, nahiz eta ezagutu ez. Pilotu bat itsasbazerretik urruntzen bazen, eta bidaian eguraldi barea bazuen, gauez izar polarra bistan beti, eta egunez eguzkia irteten eta sartzen ikusiz, argi dago bazeukala egun iparrorratzaren bidez bezala joaterik; baina zori hutsezko kasu bat zatekeen hori, ez ohiko nabigazioa.

Ikusten denez, lehen gerra punikoari amaia jarri zion hitzarmenean, Kartago itsasoko nagusi izateaz arduratu zen batez ere, eta Erroma lehorrekoa. Hannonek<sup>125</sup>, erromatarrekiko negoziazioan, deklaratu zuen ez ziela onartuko Siziliako itsasoan eskuak garbi zitzaten; hori ez ezik, ez zitzaien utzi lurmutur ederraz harantzago nabigatzea; debekatu egin zitzaien<sup>126</sup> Sizilian<sup>127</sup>, Sardinian, Afrikan —Kartagon salbu— salerosketan aritzea. Salbuespen horrek frogatzen digu ez zitzaizela oso onura handiko merkataritza eskainiko.

Lehen garaietan, gerra handiak izan ziren Kartago eta Marseillaren artean<sup>128</sup>, arrantza zela eta. Bakea egin ondoren, ekonomiazko merkataritzan lehiatu ziren biak. Marseilla jeloskorrago bihur-



tu zen, zeren eta, kontrarioaren pare izanik trebezian, gutxiago baitzen indarrez, eta horra zergatik gorde zieten hain leialtasun handia erromatarrei. Hauek Espainian kartagotarren kontra egindako gerra, aberastasun-iturri izan zen Marseillarentzat, biltegitarako baliatu baitzitzaien. Kartagoren eta Korintoren gainbeherak areagotu egin zuen Marseillaren ospea; eta, gerra zibilak etorri izan ez balira, zeinetan begiak itxi eta batzuen edo besteen alde jarri beharra baitzegoen, zorintsu izango zatekeen erromatarren mendea, hauek ez baitziren batere jeloskor haien merkataritzagatik.

## XII

### *Delosko uhartea. Mitridates*

Erromatarrek Korinto suntsitu zutenean, merkatariaak Delosera erretiratu ziren. Herritarrek erlijioari zioten begiruneari esker, uharte hura leku segurutzat zeukaten<sup>129</sup>; gainera, oso ondo kokatuta zegoen Italia eta Asia arteko merkataritzarako; izan ere, Afrika deuseztu eta Grezia ahuldu ondoren, askoz garrantzitsuago bihurtua baitzen.

Lehen garaietatik, greziarrek, esan dugunez, kolonoak bidali zituzten Propontidara eta Ponto Euxinora; kolonia haiek beren legeak eta askatasuna gorde zituzten pertsiarren garaian. Alexandrok, barbaroen kontra abiatua baitzen, ez zien eraso egin<sup>130</sup>. Ez dirudi Pontoko erregeek, kolonia haietako batzuk hartu baitzituzten, beren gobernu politikoa<sup>131</sup> kendu zietenik.

Errege haien ahalasuna hazi egin zen haiek menderatu eta gero<sup>132</sup>. Mitridates tropak nonahi erosteko moduan zegoen; galerak konpontzeko<sup>133</sup>; langileak, itsasontziak, gerrako makinak edukitzeko; aliatuak izateko; erromatarrenak erosteko, eta are erromatarrak berak ere; Asiako eta Europako barbaroak soldatapean<sup>134</sup> edukitzeko; gerra luzaroan egiteko, eta ondorioz tropak ondo hezteko: armatu eta erromatarren arte militarra<sup>135</sup> irakatsi zien, eta talde handiak eratu haiengandik ihes egindako soldaduekin; azkenik, galera handiak eta porrot handiak jasan zituen, baina hil gabe; eta ez zatekeen hilko, baldin eta,

aldi onetan, errege lizun eta barbaroak printze handiak zorigaitzean egindakoa suntsitu ez balu.

Hala, bada, erromatarrek beren handitasunaren gorenean zeuden garaian, beren buruei beste inori beldurrik ez zietela ziruditenean, Mitridatesek berriro jarri zuen auzitan Kartago hartzeak eta Filiporen, Antiokoren eta Pertseoren porrotek erabakia zutena. Ez da izan gerra zorigaitzekoagorik: bi alderdiek ahal handia eta elkarrekiko abantailak izanik, Greziako eta Asiako herriak suntsituak izan ziren, dela Mitridatesen alde zeudelako, dela kontra zeudelako. Delos denen zorigaitzean nahastu zen. Merkataritza erori egin zen alde guztietatik; ezin bestela izan, herriak suntsituak izan ziren eta.

Erromatarrek, beste nonbait<sup>130</sup> hizpide izan dudan sistema bati jarraituz, dena suntsituz, konkistatzaile azaldu ez izateko, hondatu egin zituzten Kartago eta Korinto; eta galduko ziren hala eginda, Lur osoa konkistatu ez balute. Pontoko erregeak Ponto Euxinoko kolonia greziarren jabe bihurtu zirenean, ez zuten zalantzarik izan handitasuna emango ziekeena suntsitzeko.

## XIII

### *Erromatarrek itsas armadarako zuten jiteaz*

Erromatarrek lehorreko armada besterik ez zuten aintzakotzat hartzen, zeinen espiritua beti irmo irautea baitzen, leku berean borrokatzea, eta bertan hiltzea. Ezin zuten aintzakotzat hartu itsas jendearen jokamoldea: borrokara azaldu, ihes egin, itzuli, arriskuari izkina egin beti, jukutriez maiz baliatu eta indarraz oso gutxitan. Hori dena ez zegokion greziarren jiteari, eta are gutxiago erromatarrenei.

Hortaz, legioetan lekua izateko duin ez zirenak bidaltzen zituzten itsas armadara; itsas gizonak jareginak izan ohi ziren ia beti.

Gaur egun ez dugu ez estimu berdina lehorreko tropekiko, ez mesprezio berdina itsasokoekiko. Lehenengoetan urritu egin da artezia; bigarrenetan, berriz, gehitu; eta gauzak egiteko behar den gaitasun-mailaren arabera estimatu ohi dira gauza horiek.

## XIV

### *Erromatarrek merkataritzari buruz zuten ikuspegiaz*

Erromatarrek inoiz ez dute azaldu atxikimendu berezirik merkataritzarekiko. Nazio etsai gisa, eta ez nazio merkatarik gisa, egin zioten eraso Kartagori. Hiri merkatarien alde egin zuten, nahiz eta haiek mendean ez eduki; esate baterako, handitu egin zuten Marseillaren ahala, zenbait herrialde emanez. Beldur handia zieten barbaroei, baina batere ez herri tratulari bati. Bestalde, beren izaerak, beren ospeak, beren hezkuntza militarrek, beren gobernu-erak, urrundu egiten zituen merkatarizatik.

Hirian gerrez, hauteskundeez, azpijokoez eta prozesuez baikik ez ziren arduratzen; landan, nekazaritzaz; eta probintzietan, berriz, gobernu-era gogor eta tiranikoa eta merkataritza bateraezina ziren.

Konstituzio politikoa merkataritzaren kontrakoa bazuten, haien Jende Zuzenbidea beste horrenbeste. «Ez adiskidetasunaz, ez harrera onaz, ez aliantzaz gurekin harremanik ez duten herriak», dio Ponponio juriskontsultuak<sup>141</sup>, «ez dira gure etsaiak; hala ere, gurea den zerbait haien eskuetan erortzen bada, hartaz jabetzen dira, gizaki libreak haien esklabo bihurtzen dira, eta guk ere berdin jokatzeko dugu haiei buruz».

Haien zuzenbide zibila ere politikoa bezain nekagarri zen. Konstantinoren legeak, goi-mailako pertsonekin ezkontzen den jende xehearen haurrak sasiko deklaratu ondoren, salgaien denda duten emakumeak<sup>142</sup> esklaboekin nahasten ditu, taberna-jendearekin, antzokietako emakumeekin, prostituzio-leku bat duen edo hareak gainean borrokatzera kondenatutako gizon baten alabekin. Hori erromatarren antzinako instituzioetatik zetorren.

Ondo asko dakit zenbaitek, bi ideiaz guztiz sinetsita —bata, merkataritza estatu batentzat munduan den gauzarik baliagarriena dela, eta bestea, erromatarrek munduko legeriarik onena zutela—, haiek merkataritza asko sustatu eta ohoratu zutela pentsatu dutela; baina, egia esan, oso gutxitan pentsatu zuten hartan.

## XV

### *Erromatarrek barbaroekin zuten merkataritzaz*

Erromatarrek inperio handia osatu zuten Europa, Asia eta Afrikan; herrien ahultasunak eta agintearen tiraniak eduki zituzten gorpuz izugarri haren parte guztiak batuta. Erromatar politika, menderatu ez zituzten herri guztietatik bereiztea izan zen; haiei garaipenen antzea irakasteko beldurrak atzerarazi egin zuen aberas-teko antzea. Legeak egin zituzten barbaroekiko merkataritza oro galarazteko. «Inork ez diezaiela bidal ardorik, oliorik edo beste liki-dorik barbaroei, ezta probatzeko ere», diote Valeriok eta Grazianok<sup>143</sup>. «Ez bekie urrerik eraman», eransten dute Grazianok, Valentinianok eta Teodosiok<sup>144</sup>, «eta haiek dutena ere, ken bekie maltzurkeriaz». Burdinaren garraioa heriotza-zigorpean debekatu zuten<sup>145</sup>.

Domizianok, printze herabea izaki, erauzarazi egin zituen Galiako mahatsondoak<sup>146</sup>, ardoak barbaroak erakarriko zituen beldur-rez, antzina Italiara erakarri zituen bezala. Probok eta Julianok, ez baitzieten inoiz beldurrik izan, berriro landarazi zituzten.

Ondo dakit inperioa ahuldu zenean barbaroek merkatuak ireki-tzera<sup>147</sup> eta berekin salerosketan aritzera behartu zituztela erromata-rrak. Baina horrek berak frogatzen du erromatarren jaidura merkata-ritzan ez aritzea zela.

## XVI

### *Erromatarrek Arabiarekin eta Indiek zuten merkataritzaz*

Arabia zoriontsuarekiko trafikoa eta Indiekikoa izan ziren kanpo-merkataritzako bi adarrak, adar bakarrak ia. Arabiarrek aberastasun handiak zituzten: itsaso eta basoetatik ateratzen zituzten, eta, gutxi erosten eta asko saltzen zutenez, auzokoen urre-zilarrez jabetzen ziren<sup>148</sup>. Augustok<sup>149</sup> haien aberastasuna ezagutu zuen eta adiskide edo etsai izatea erabaki zuen. Elio Galo Egiptotik Arabiara

pasarazi zuen. Honek herri alferrak, lasaiak eta batere ez gerrazaleak aurkitu zituen. Batailak jo, setioak jarri, eta zazpi soldadu besterik ez zituen galdu; baina bide-gidarien maltzurkeriak, ibilaldiek, klimak, goseak, egarriak, gaixotasunek, gaizki harturiko neurriek, armada desegin zioten.

Beraz, arabiarrekin negoziatzearekin etsi behar izan zuen, beste herriek egina zuten bezala, hots, urrea eta zilarra eramanez haien salgaien truke. Oraindik ere berdin jarduten da tratuan haiekin; Alep-eko karabanek eta Suezko errege-itsasontziek dirutza izugarriak eramaten dituzte hara<sup>150</sup>.

Naturak merkataritzarako egin zituen arabiarrek, ez gerrarako, baina herri lasai haiek partiarren eta erromatarren mugen aurrean aurkitu zirenean, batzuen eta besteen laguntzaile bihurtu ziren. Elio Galok merkataria aurkitu zituen; Mahometek, orde, gerrari; gogoa berotu zien, eta horra konkistatzaile bihurturik.

Erromatarrek Indiekin zuten merkataritza handia zen. Estrabonek<sup>151</sup> jakin zuen Egipton ehun eta hogeita itsasontzi enplegatzen zituztela bertan; merkataritza hark diru hutsez irauten zuen. Berrogeita hamar milioi sestertzio bidaltzen zituzten hara. Pliniok dio<sup>152</sup> handik ekartzen ziren salerosgaiak ehun aldiz garestiago saltzen zirela Erroman. Uste dut oso orokorrean ari dela; etekin hori behin ateraz gero, mundu guztiak atera nahiko zukeen, eta une hartatik aurrera inork ez zukeen hainbeste aterako.

Auzitan jar daiteke erromatarrentzat ona izan ote zen Arabiako eta Indietako merkataritza egitea. Beren dirua bidali beharra zeukaten hara, eta ez zuten, guk bezala, Amerikaz baliatzerik, honek guk bidalitakoaren ordaina ematen baitu. Sinetsita nago haien artean txanponen balioa handitu izanaren arrazoi bat, hots, kobrezko txanpona ateratzearena, zilar-eskasia izan zela, Indietara etengabe garraiatzeagatik. Eta herrialde hartako salerosgaiak ehun aldiz garestiago saltzen baziren Erroman, erromatarren etekin hura erromatarren beren gainean egiten zen, eta ez zuen inperioa aberasten.

Esango zait agian, beste alde batetik, merkataritza hark itsasontziteria handia ematen ziela erromatarrei, hau da, botere handia; salerosgai berriek handitu egiten zutela barne-merkataritza, aurrerarazi egiten zituztela antzeak, industriari eusten ziotela; hiritar-kopurua

bizitzeko zeuden bitarteko berrien arabera handitzen zela; merkataritza berri hark luxua sorrarazten zuela, eta frogatu dugu ezen luxua bakar baten gobernu-erarentzat ona baina askoren gobernu-erarentzat txarra zela; txanpon berri hura ateratzea haien errepublikaren erortaren une berean gertatu zela; luxua Erroman nahitaezkoa zela; eta beharrezkoa zela mundu osoko aberastasunak beretzen zituen hiri batek aberastasunok bere luxuarekin itzultzea.

Estrabonek dio<sup>153</sup> erromatarrek Indietan zuten merkataritza Egiptoko erregeek zutena baino askoz handiagoa zela, eta bitxia da erromatarrek, merkataritza gutxi ezaguturik, Indietako merkataritzari Egiptokoek baino arreta handiagoa jarri izana, egiptoarrek, nolabait esateko, begien aurrean zutelarik. Argitu beharra dago hau.

Alexandroren heriotzaren ondoren, Egiptoko erregeek itsas merkataritza ezarri zuten Indietan, eta Siriako erregeek, inperioko probintzia ekialdekoenak bere zeuzkatenez —eta beraz, Indiak ere bai—, eutsi egin zioten VI. kapituluan hizpide izan dugun merkataritzari, lehorretik eta ibaietatik egiten zenari alegia, eta errazbide berriz egiten zen kolonia mazedoniarrak ezarri zirenez geroztik; hartara, Europa Indiekin komunikatuta zegoen bai Egiptotik eta bai Siriako erresumatik. Siriako erresumaren zatikatzeak, zeinetatik sortu baitzen Baktrianakoa, ez zion inolako trabarik egin merkataritza hari. Marinek, Ptolomeok aipatzen duen tiriar batek<sup>154</sup>, zenbait merkatori mazedoniarrek Indietan egindako aurkikuntzak aipatzen ditu. Erregeen espedizioek aurkitu ez zutena, merkatariek aurkitu zuten. Ikusten dugu Ptolomeorengan<sup>155</sup> Harrizko dorretik<sup>156</sup> Seraraino joan zirela, eta merkatariek hain urrun aurkitutako kolonia bat, Txinako iparrekialdean, mirari modukoa izan zen. Hala, Siria eta Baktrianako erregeen garaian, Indiako hegoaldeko salerosgaiak Indo eta Oxus ibaietatik eta Kaspio itsasotik iristen ziren mendebaldera, eta iparrekialdekoenak, berriz, Seratik, Harrizko dorretik eta beste etapa batzuetan zehar Eufrates ibairaino ekartzen ziren. Merkatori haiek, gutxi gorabehera, ipar latitudeko berrogeigarren graduan egiten zuten beren bidaia, Txinako sartaldean dauden herrialdeetan zehar, orduan orain baino zibilizatuagoak baitziren, artean tartariarrek inbaditu gabeak izaki.

Hortaz, Siriako inperioak lehorretiko merkataritza hainbeste hedatzen zuen bitartean, Egiptok ez zuen asko aitzinarazi itsas merkataritza.

Partiarrak agertu eta beren inperioa sortu zuten, eta Egipto erromatarren indarraren mende erori zenean, inperio hura indarrean zegoen, eta bere hedadurarik handienara iritsia zen.

Erromatarrak eta partiarrak bi potentzia etsai izan ziren, eta elkarren kontra borrokatu ziren ez zein nagusi izango jakiteko, zeinek iraungo zuen baizik. Bi inperio haien artean basamortuak sortu ziren; bi inperioen artean armak izan ziren beti; merkataritza ez izateaz gainera, komunikaziorik ere ez zen haien artean. Anbizioak, jelsiak, erlijioak, gorrotoak, ohiturek, denak bereizten zituen. Hartara, Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko merkataritzak, aurrez hainbeste bide izan ondoren, bat bakarra izan zuen harrezkeroztik, eta Alexandria, etapa bakar bihurturik, asko hazi zen.

Hitz bat besterik ez kanpo-merkataritzaz. Haren adar nagusia Erromako herritarrei jaten emateko ekartzen zen garia zen; hiri-arazoa zen, bada, merkataritza-arazoa baino gehiago. Hori dela eta, nabigatzaileek pribilegio batzuk jasotzen zituzten<sup>157</sup>, inperioaren osasuna beren arduraren mende zegoelako.

## XVII

### *Mendebaldean erromatarrak suntsitu ondorengo merkataritzaz*

Erromatar inperioa inbaditu egin zuten, eta hondamen orokorraren ondorioetako bat merkataritza suntsitzea izan zen. Hasieran barbaroek lapurretagai baizik ez zuten ikusten merkataritza, eta ezarri zirenean, ez zioten nekazaritzari herri garaituaren beste lanbideei baino abegi hobea egin.

Laster, ia ez zen merkataritzarik izan Europan; nobleak, nonahi nagusi baitziren, ez ziren hartaz arduratzen.

Bisigodoen legeak<sup>158</sup> ibaien ubide-erdia hartzen uzten zien partikularrei, baldin eta beste erdia sare eta ontzientzat libre geratzen bazen; oso merkataritza gutxi egon behar, zalantzarik gabe, haiek konkistaturiko herrialdeetan.

Garai hartan ezarri ziren *aubaine*-zerga eta naufragio-zerga zentzugabeak. Gizonek pentsatu zuten ezen, atzerritarrak berekin

zuzenbide zibilaren inolako harremanez lotuta ez zeudenez, berek ez zietela zor, batetik, inolako justiziarik, eta bestetik, inolako errukirik.

Iparraldeko herriak hain muga estuen barruan zeudenez, dena zitzaien arrotz; hain pobre zirenez, edozer zen haientzat aberastasun. Beren konkisten aurretik itsaso estu eta harkaitzez bete baten bazterrean bizi zirenez, harkaitz haietatik beretatik atera zuten etekina.

Baina erromatarrek, mundu osorako egiten baitzituzten legeak, oso lege gizatiarrak eginak zituzten urperatzeez<sup>159</sup>; alde horretatik, jazarri egin zituzten itsasbazterrean bizi zirenen lapurretak; are gehiago, haien fiskoaren lapurreta-gosea<sup>160</sup>.

## XVIII

### *Araudi partikularra*

Bisigodoen legeak, hala ere, merkataritzaren mesederako xedapen bat zuen: agintzen zuen itsasotik etortzen ziren merkataria beren epaileek eta beren nazioko legeen arabera epaituko zituztela beren artean sortzen ziren eztabaidez. Hori herri nahastu haietan guztietan ezarritako usadioan zegoen oinarrituta: gizon bakoitzak bere legearen arabera bizi behar zuela. Segidan, horretaz mintzatuko naiz.

## XIX

### *Erromatarrek ekialdean ahuldu zirenez geroztiko merkataritzaz*

Mahometarrak agertu, konkistatu eta banatu egin ziren. Egiptok bere erregeak izan zituen; Indiekiko merkataritza egiten jarraitu zuen. Herrialde hartako aberastasunen jabe izanik, beste guztietako abarastasunak erakarri zituen. Hango sudanak garai hartako printze ahaltsuenak izan ziren; historian ikus daiteke nola, indar iraunkor eta ondo erabiliari esker, gurutzatuen suharra, oldarra eta kemena geldiarazi zuten.



## XX

### *Nola merkataritzak bere bidea egin zuen Europar basakeriaren erdian*

Aristotelesen filosofia Mendebaldera ekarri zutenean, oso atsegina gertatu zitzairen gogo sotileko pertsonen. Ezjakintasun-garaietan espiritu argiak izaten dira horiek. Eskolastikoak, filosofia hartaz harropuzturik, hainbat eta hainbat azalpen hartu zizkioten filosofo hari<sup>161</sup> interespeko maileguaz, haren sorburu naturala Ebanjelioan izan arren; bereizketarik egin gabe, kasu guztietan kondenatu zuten. Hortaz, merkataritza, jende xehearen lanbidea besterik ez izanik, jende doilorrarena bihurtu zen; izan ere, berez baimendutako edo beharrezko den gauza bat debekatzen den guztietan, hori egiten duen jendea jende doilor bihurtzea besterik ez da lortzen.

Merkataritza garai hartan laidoak estalitako nazio baten eskue-tara pasatu zen, eta laster ez zuten bereizi lukurreria ankerrenetatik, monopolioetatik, zerga-bilketetatik eta dirubide gaizto guztietatik.

Judutarrak<sup>162</sup>, beren ordainarazpenei esker aberasturik, tirania berdinez gabetzen zituzten printzeek, eta horrek kontsolatu egiten zuen herria, egoera hobetzen ez bazion ere.

Ingalaterran gertatu zenak argituko digu beste herrialdeetan egin zutena. Joan erregeak<sup>163</sup> judutarrak kartzelaratu zituen haien aberastasunez jabetzeko, eta gutxi atera ziren begi bat behinik behin galdu gabe; errege hark horrela partitzen zuen justizia. Haietako batek, zazpi hortz hautsi zizkiotelarik —egunean bat—, hamar mila marko eman zituen zortzigarren egunean. Enrike III.ak hamalau mila marko zilarrezko atera zizkion Aaron-i, York-eko judu bati, eta beste hamar mila erreginarentzat. Garai hartan bortizki egiten zen gaur egun Polonian nolabaiteko neurriz egiten dena. Erregeek beren mendekoen poltsa arakatzerik ez zeukatenez, judutarren pribilegioak zirela eta, hauek jartzen zituzten torturapean, ez baitzeuzkaten hiritartzat.

Azkenik, ohitura bat agertu zen, kristautzen ziren judutar guztien ondasunak konfiskatzea. Ohitura bitxi horren berri, bera indargabetzen duen legeari esker jaso dugu<sup>164</sup>. Arrazoi hutsal-hutsalak eman

dira horretaz; esan izan da probatu egin nahi zirela, eta deabruaren esklabotzatik erabat libratu. Baina bistan da konfiskazio hori judutarrengandik jasotzen zituzten zergen nolabaiteko amortizazio-eskubide bat zela<sup>165</sup> printzearentzat edo jaunentzat, hauek zergok gabe geratzen baitziren juduek kristautasuna besarkatzen zutenean. Garai hartan, gizakiak lurren pareko ziren. Eta azpimarratuko nuke, bidenabar, nola erabili izan duten gizonak nazio hori mendez mendez: ondasunak kentzen zitzaizkien kristautu nahi zutenean, eta handik berehala, erre egiten zituzten kristautu nahi ez bazuten.

Hala eta guztiz ere, merkataritza irainetik eta desesperantzatik irteten hasi zen. Judutarrek, herrialde guztietan legez kanpo utzita, beren ondasunak babesteko modua aurkitu zuten. Hala, beren egoitzak finkatu zituzten; izan ere, printze batek, haietaz gabetu nahi izan da ere, ez zuen gogo handirik izango haien diruaz gabetzeko.

Kanbio-letrak<sup>166</sup> asmatu zituzten, eta horrela, merkataritzak itzuri egin zion bortizkeriari, eta noranahi hedatu zen; tratularirik aberatsenak ere ondasun ikustezinak zituen, noranahi bidal zitezkeenak, eta inon arrastorik uzten ez zutenak.

Teologoak beren printzipioak mugatu beharrean gertatu ziren, eta merkataritza, borondate gaiztoarekin bortizki lotuta egon eta gero, zintzotasunaren baitara itzuli zen berriro, nolabait esateko.

Beraz, eskolastikoen asmaketei zor dizkiegu merkataritzaren suntsipenak ekarritako zoritxar guztiak<sup>167</sup>, eta printzeen askonahiari berorien boterearen eskumenetik at jartzen duen gauza bat ezartzea.

Orduz geroztik, printzeek berek aurrez pentsatuko zutena baino zuhurtzia handiagoz gobernatu behar izan dute; izan ere, gertakizun haren ondotik, agintearen gehiegikeriak hain traketsak gertatu ziren, non denen esperientzia izan baita gobernuaren ontasunak baizik ez dakartzala aberastasuna eta ongizatea.

Hasiak gara makiavelismotik sendatzen, eta egunez egun sendatuko gara. Neurritasun handiagoa behar da aholkularitzan. Behinola estatu-kolpe zeriztenak, zuhurtziagabekeriak baizik ez lirateke gaur egun, izugarrikeriak izugarrikeria.

Zori onekoa da gizonentzat halako egoeran egotea non, beren grinek gaizto izateko pentsamendua bururatzen badiete ere, ez izateko interesa baitute hala ere.

## XXI

*Bi mundu berriren aurkikuntza: Europaren egoera gertaera  
horri dagokionez*

Iparrorratzak mundua zabaldu zuen, nolabait esateko. Asia eta Afrika aurkitu ziren, aurrez haien ertz batzuk besterik ez baitziren ezagutzen, eta Amerika aurkitu zen, haren aztarrenik ere ezagutzen ez zelarik.

Portugaldarrek, Ozeano Atlantikoan nabigatuz, Afrikako punturik hegoaldekoena aurkitu zuten; itsaso zabala ikusi, eta handik Ekialdeko Indietara iritsi ziren. Itsaso horretan bizi izandako arriskuak, eta Mozanbike, Melinda eta Calicut-en aurkikuntza, Camoensek kantatu zituen, Odisearen xarmaren eta Eneidaren handitasunaren pixka bat sentiarazten dituen poeman.

Veneziarrek turkiarren herrialdetik egina zuten ordura arte merkataritza, eta hainbat laido eta irain jasan arren, eutsi egin zioten. Itxaropen Oneko lurmuturra eta ondorengo beste batzuk aurkitu zirenean, Italia ez zen gehiago izan merkataritza-munduko erdigunea; munduaren bazter batean geratu zen, nolabait esateko, eta han dago oraindik ere. Sortaldeko merkataritza bera nazio handiek bi Indietan egiten dutenaren mende dago, eta Italiak gehigarri gisa jarduten du hartan.

Portugaldarrek konkistatzaile gisa trafikatu zuten Indietan. Gaur egun holandarrek indiar printze txikiei ezartzen dizkieten lege gogaikarriak<sup>168</sup>, portugaldarrek ezarri zituzten aurretik.

Austriako etxearen fortuna izugarria izan zen. Karlos Bosgarrenak Borgonia, Gaztela eta Aragoiko oinordekotza jaso zuen; enperadore bihurtu zen, eta horri handitasun-mota berri bat emateko, mundua handitu egin zen, eta mundu berria agertu zen haren mende.

Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuen eta, nahiz eta Espainiak ez bidali hara Europako printze txiki batek ere bidal zitzakeenak baino indar gehiago, bi inperio handi eta beste estatu handi batzuk menderatu zituen.

Espainiarrek, konkistatzaile gisa, mendebaldea aurkitu eta konkistatu zuten bitartean, portugaldarrek ekialderantz bultzatu zituzten beren konkista eta aurkikuntzak. Bi nazio horiek topo egin zuten;

Alexandro VI.a aita santuagana jo behar izan zuten, eta hark muga ezaguna ezarri, eta prozesu handi bat epaitu zuen.

Baina Europako beste nazioek ez zieten utzi beren partiketa hartaz lasai gozatzen: holandarrek bota egin zituzten portugaldarrak ia ekialdeko India gutzietatik, eta nazio asko kokatu ziren Amerikan.

Espainiarrek konkista-gai gisa hartu zituzten aurkitutako lurraldeak; haiek baino finagoak ziren herriak ohartu ziren lurralde haiek merkataritza-gai zirela, eta hartan jarri zuten begia. Hainbat herrik hain zuhurtzia handiz jokatu zuten, non tratulari-konpainiei eman baitzieten boterea, eta hauek, urruneko estatu haiek negozio hutserako baizik gobernatzen ez zituztelarik, beste ahalmen handi bat erantsi zioten estatu nagusiari, trabarik egin gabe.

Han eratutako koloniak antzinako kolonietan adibide gutxi dituen mendekotasun-mota batekoak dira, dela gaur egunekoak Estatuaren beraren mende daudelako, dela estatu horretan ezarritako merkataritza-konpainia baten mende.

Kolonia horien zertarakoa, horiekin merkataritzan auzoko herrialdeekin baino baldintza hobeetan jardutea da, hauekin abantaila guztiak bi aldeentzakoak izaten baitira. Horretarako, erabaki zen metropoliak bakarrik negozioa zezakeela kolonian, eta arrazoi handiz hori, zeren eta kokatze horren helburua merkataritza hedatzea izan baitzen, ez hiri bat edo inperio berri bat sortzea.

Hala, bada, European oinarritzko legea da kolonia arrotz batekiko merkataritza herrialdeko legee zigor daitekeen monopoliotzat hartu behar dela, eta gai horretaz ez da juzgatu behar antzinako herrien<sup>169</sup> legeen eta adibideen arabera, horiek dagoeneko ez baitira erabilgarriak.

Jakinekotzat jotzen da metropolien arteko merkataritzak ez dakarrela kolonietan ere berdin jarduteko baimenik, eta hauek debeku-egoeran geratzen dira beti.

Kolonien desabantaila —merkataritzarako askatasuna galtzen baitute— ondo berdinduta geratzen da metropoliaren babesaz<sup>170</sup>, hau armaz edo legeen bidez baliatzen baitaie.

Hortik Europako hirugarren lege bat dator: kolonian atzerritarak merkataritzan jardutea debekatuta dagoenean, ezin dela nabigatu haren uretan itunek ezarritako kasuetan izan ezik.

Norbanakoak Estatuari buruz direna dira nazioak munduari buruz, eta zuzenbide naturalaren eta berek egindako legeen arabera gobernatzen dira beren artean. Herri batek beste bati utz diezaioke itsasoa, lurra utz diezaiokeen bezala. Kartagotarrek exijitu zieten<sup>171</sup> erromatarrei ez zezatela nabiga muga batzuetatik harantzago, eta greziarrek agindu zioten Pertiako erregeari zaldi-lasterraldi bateko tar-teaz urrun egon behar zuela beti itsasertzetik<sup>172</sup>.

Gure koloniak hain urrun egotea ez da haien segurantzarako eragozpena; izan ere, metropolia urrun badago hura defendatzeko, metropoliaren nazio etsaiak ere hura bezain urrun daude koloniak konkistatzeko.

Gainera, urruntasun horrek egiten du han kokatzera doazenak hain klima diferente bateko bizimodura ezin jarri izana; behartuta daude jatorrizko herrialdeko bizimoduaren erosotasun guztiak alde bat uztera. Kartagotarrak<sup>173</sup>, sardiniarrak eta kortsikarrak mendeango edukitzeko, debekatu egin zieten, heriotza-zigorpean, ezer landatzea, ereitea eta gisa horretarako egitea; Afrikatik bidaltzen zizkieten jana-riak. Gu puntu berera iritsiak gara, hain lege gogorrek egin gabe. Antiletako gure koloniak miresgarriak dira; ez ditugun eta ezin eduki ditugun salerosgaiak dituzte, baina gure merkataritzaren xede dena falta zaie.

Amerikaren aurkikuntzaren ondorioa Asia eta Afrika Europari lotzea izan zen. Amerikak, Ekialdeko Indiak deritzen Asiako lurralde zabal harekin zuen merkataritzaren gaiaz baliatuz, Europa hornitu zuen. Zilarra, merkataritzarako zeinu gisa hain baliagarria den metal hori, munduko merkataritza handienaren oinarria ere izan zen mer-kantzia gisa. Azkenik, Afrikako nabigazioa beharrezko bihurtu zen; gizakiz hornitzen zituen Amerikako meategi eta lurretako premiak.

Europa hain botere-maila handira iritsi da, non historian ez baita horrekin konparatzeko moduko beste ezer, kontuan hartzen badi-ra gastuen izugarria, eginkizunen handia, tropen kopurua eta haien mantenuaren iraupena, nahiz eta guztiz alferrikakoak izan, hots, era-kuste hutsagatik edukitzen direnak.

Aita Du Haldek<sup>174</sup> dio Txinako barne-merkataritza Europa oso-koa baino handiagoa dela. Baliteke, baldin eta gure kanpo-merkatarit-zak barnekoa handiagotuko ez balu. Europak munduko beste hiru

parteent merkataritza eta nabigazioa egiten ditu; Frantziak, Ingalaterrak eta Holandak gutxi gorabehera Europako merkataritza eta nabigazioa egiten dituzten bezala.

## XXII

### *Espainiak Amerikatik atera zituen aberastasunez*

Europak<sup>175</sup> hainbeste abantaila aurkitu baditu Amerikako merkataritzan, pentsa liteke Espainiak jaso dituela gehien. Mundu aurkitu berritik hainbeste urte eta zilar atera zituen, non ordura arte zegoena ezin baitzen konparatu ere egin.

Baina, susmaezina bazirudien ere, miseriak porrota ekarri zion nonahi. Felipe II.ak, Karlos V.ari jarraitu zitzaizolarik, mundu guztiak ezagutzen duen bankarrota egin behar izan zuen, eta ez da izan hark baino gehiago sofritu dituenik tropa beti gaizki ordainduen zurrumurruak, ozarkeria eta errebolta.

Garai hartatik aurrera, Espainiako monarkia gainbehera joan zen etengabe. Izan ere, barne-akats fisikoa zegoen haren aberastasun-ena izaeran, alferreko bihurtzen zituena, eta akats hori egunez egun hazten zen.

Urrea eta zilarra fikziozko edo zeinuzko aberastasuna dira. Zeinu horiek, oso iraunkorrak izaki, gutxi hondatzen dira; hori dute ezaugarri. Zenbat eta gehiago ugaltu, hainbat eta gehiago galtzen dute balioa, gauza gutxiago ordezkatzeko dituztelako.

Mexiko eta Peru konkistatu zituztenean, espainiarrek alde bate-ra utzi zituzten aberastasun naturalak, eta zeinu-aberastasunak hartu zituzten, berez baliogabetzen zirenak. Urrea eta zilarra oso urriak ziren Europan, eta Espainiari, metal horien kantitate guztiz handi baten jabe bat-batean, aurrez inoiz eduki ez zituen itxaropenak erne zitzaizkion. Konkistaturiko herrialdeetan aurkitutako aberastasunak, ordea, ez ziren meategietakoen proportzioan. Indiarrek ezkutatu egin zuten parte bat, eta gainera, herri haiek, urrea eta zilarra jainkoen tenpluak eta erregeen jauregiak edertzeko baino ez baitzituzten erabiltzen, ez zituzten bilatzen gure gosez; azkenik, ez zuten ezagutzen

meategi guztietatik metalak ateratzeko sekretua; bereizketa suaren bidez egiteko bidea ematen zutenetatik baizik; ez zuten merkurioa erabiltzeko modua ezagutzen, eta agian ezta merkurioa bera ere.

Hala ere, zilarra bikoiztu egin zen etengabe Europan, eta horrekin batera baita erosten zen guztiaren prezioa ere.

Espainiarrek meategiak zulatu, mendiak induskatu, eta ura ateratzeko, mea hausteko eta bereizteko makinak asmatu zituzten; eta indiarren biziaz ardurarik ez zutenez, etengabe behartzen zituzten lanera. Zilarra laster bikoiztu zen Europan, eta etekina erdira urritu zen Espainiarentzat, urtero metal-kantitate berdina baitzuen, haren prezioa bien bitartean erdira jaitsia zelarik.

Denbora bikoitzean, zilarra berriro bikoiztu zen, eta etekina berriro urritu zen erdira.

Erdia baino gutxiagora ere urritu zen. Hona nola.

Meategietatik urrea ateratzeko, behar bezala prestatzeko eta Europara garraiatzeko, gastua egin beharra zegoen. Demagun gastuaren eta urrearen arteko proportzioa  $1/64$  izan zela; zilar-kantitatea bikoiztu zenean —eta, beraz, prezioa erdira urritu zenean—, proportzioa  $2/64$  izan zen. Hartara, Espainiara urre-kantitate berdina ekarri zuten ontziek benetan erdia balio zuen eta bi aldiz gehiago kostatzen zen zerbait ekarri zuten.

Horrela jarraituz gero, bikoiztu eta bikoiztu, laster aurkituko da Espainiako aberastasunen ezinaren kausaren aurreramendua.

Badira berrehun urte inguru Indietako meategietan lanean ari direla. Demagun gaur egun merkataritzako munduan den zilar-kantitatea, aurkikuntza aurretik zegoenarekin konparatuta, 32 bider handiagoa dela, hau da, bost aldiz bikoiztu dela; beste berrehun urtetan, kantitate hori 64 bider handiagoa izango da, hots, berriro bikoiztuko da. Alabaina, gaur egun, mearen berrogeita hamar kintal urre-meak lau, bost eta sei ontza urre ematen ditu; eta bi besterik ematen ez dituenean, meatzariak gastutarako baizik ez du ateratzen. Berrehun urte barru, lau besterik ateratzen ez dituenean, meatzariak gastutarako baizik ez du aterako. Beraz, etekin urria atera ahal izango zaio urreri. Arrazoiketa berak balio du zilarrarentzat ere, alde bakar batekin: zilar-meategietako lana urre-meategietakoa baino pixka bat emankorragoa dela.

Eta baldin eta etekin handiagoa ematen duten meategi ugariagoak aurkitzen badira, zenbat eta ugariagoak izan, hainbat lehenago amaituko da etekina.

Portugalдарrek hainbeste urre aurkitu dute Brasilen<sup>177</sup>, non espainiarren etekina laster asko urrituko baita nahitaez, eta berena ere bai.

Askotan aditu dut deitoratzen Frantzisko I.aren itsutasuna Kristobal Koloni ezetza eman ziolako, honek Indietara joatea proposatu zionean. Egia esan, bide zuzenetik jokatu zen orduan, nahiz eta beharbada zuhurtziagabetasunez. Espainiak alegiako errege burugabe hark bezala egin zuen: berak ukitzen zuen guztia urre bihur zedila agindu, eta azkenean jainkoengana jo behar izan zuen berriz ere, bere miseria amait zedin erreguka.

Hainbat naziok ezarritako konpainia eta bankuek burutu zuten urrea eta zilarra zeinu gisa merketze hori; izan ere, zenbait fikzioz baliatuz, halatan biderkatu zituzten artikuluen zeinuak, non urreak eta zilarrak ez baitzuten eginkizun hori bete oso-osorik, eta balio gutxiagoko bihurtu baitziren.

Hartara, kreditu publikoak meategien lekua hartu zuen, eta are gehiago urritu zen espainiarrek haietatik ateratzen zuten etekina.

Egia da holandarrek Ekialdeko Indietan egindako merkataritza esker, prezioa pixka bat jaso zietela espainiarren salerosgaiei; izan ere, zilarra eraman zutenek Ekialdeko salerosgaiekin trukatzeko, arindu egin zizkieten espainiarrei Europan zituzten gehiegizko artikulak.

Eta merkataritza hori, Espainiari oso zeharka doakiola badirudi ere, horretan ari diren nazioei bezain abantailatsu zaio.

Esan berri dugunaren ondorioz, Espainiako Kontseiluaren agintarauak epai daitezke: urrea eta zilarra apaingarri eta alferrikako beste gauza batzuetan erabiltzea debekatzen dute; Holandako estatuek antzeko dekretua egingo lukete, baldin eta kanelaren kontsumoa debekatuko balute.

Nire arrazoiketa ez dagokie meategi guztiei: Alemania eta Hungariakoak, zeinetarik ez baita gastutarako baino askoz gehiago ateratzen, oso baliagarriak dira. Estatu nagusian daude; milaka lagun enplegatzen dituzte bertan, eta hauek gehiegizko diren artikulak kon-



tsumitzen dituzte; egia esan, meategi haiek herrialdeko manufaktura bat dira.

Alemania eta Hungariako meategiek balioa ematen diote lurrak lantzeari, eta Mexiko eta Perukoetan egindako lanak balio gabetu egiten du lan hori.

Indiak eta Espainia nagusi beraren mendeko potentzia bi dira, baina Indiak dira nagusi, eta Espainia osagarria. Alferrik da politikak osagarria nagusi bihurtu nahi izatea; Indiek beregana erakartzen dute beti Espainia.

Indietara urtero doazen berrogeita hamar milioi salerosgai ingurutik, Espainiak bi milioi eta erdi baizik ez ditu hornitzen; Indiek, bada, berrogeita hamar milioiko merkataritza egiten dute, eta Espainiak bi milioi eta erdikoa.

Nazioaren industriaren, biztanle-kopuruaren eta lurra lantzearen mende ez dagoen zerga akzidentala da, eta aberastasun-mota ustela dakar. Espainiako erregea, dirutza handiak jasotzen baditu ere, estatu guztiz pobre bateko pertsona partikular guztiz aberats bat baizik ez da alde horretatik. Dena pasatzen da atzerritarrendandik beragana, haren sujetek ia parterik hartu gabe. Merkataritza horrek ez du zerikusirik haren erresumaren zori onarekin edo txarrarekin.

Baldin eta Gaztelako probintzia batzuek Cádizko aduanak ematen dion dirutzaren antzekoa emango baliote, haren ahalmena askoz handiagoa litzateke: haren aberastasuna herrialdearen ondorio izango litzateke-eta; probintzia horiek sustatu egingo litzutekete besteak, eta denen artean gaiago lirateke batzuen eta besteen gastuei aurre egiteko; altxor handi baten ordeztu, herri handi bat izango litzateke hura.

## XXIII

### *Arazoa*

Ez dagokit niri auzi honetaz iritzia ematea: ea Espainiak, Indietako merkataritza berak egin ezinean, ez ote lukeen hobe atzerritarrei libre uztea. Hauxe besterik ez dut esango, merkataritza horri

politikak utziko dion ahalik eta oztopo gutxien ipintzea komeni zaio-  
la Espainiari. Nazioek Indietara daramatzaten salerosgaiak garestiak  
direnean, Indiek beren merkantziatik asko ematen dute, alegia urrea  
eta zilarra, kanpoko merkantzia gutxiren truke; alderantziz gertatzen  
da merkantzia horiek prezio urrikoak badira. Beharbada komenigarria  
litzateke nazioek elkarri kalte egitea, hara daramatzaten merkantziak  
beti merke izan zitezen. Horra aztertu beharreko printzipio batzuk,  
beste gogorakizun batzuetatik bereizi gabe, hala ere: Indien seguran-  
tza, aduana bakar baten premia, aldaketa handi baten arriskuak,  
aurreikusten diren eragozpenak, aurreikusi ezin direnak baino arrisku  
gutxiago dakartenak maiz.

# HOGETA BIGARREN LIBURUA

Legeez, diruaren erabilerarekin duten  
zerikusiaren aldetik

## I

### *Dirua erabiltzearen arrazoia*

Merkataritzarako salerosgai gutxi dituzten herriek, hala nola basatiek, eta bizpahiru jenero besterik ez duten herri zibilizatuek, truke bidez negoziatzen dute. Hala, Tonbuktura, hots, Afrikako bihotzera, gatza trukatzera doazen mairu-karabanek ez dute diruaren premiarik. Mairuak pila batean jartzen du gatza; beltzak bere hautsa beste batean; nahikoa urre ez bada, mairuak kendu egiten du bere gatzetik, edota beltzak urrea gehitzen du, harik eta bi aldeak bat etorri arte.

Baina herri batek salerosgai askorekin trafikatzan duenean, dirua behar da nahitaez, zeren eta metal garraiaerraz batek saihestu egiten baititu truke bidez jardunda egin beharko liratekeen gastuak.

Nazio guztiek elkarren premia dutelarik, maiz gertatzen da batek bestearen salerosgai asko nahi izatea, eta honek haren oso gutxi; beste nazioren bat, aldiz, alderantzizko kasuan dagoke. Baina nazioek dirua dutenean eta salerosketaz jarduten dutenean, salerosgai gehien hartzen dutenek dirutan ordaintzen dute gehiegizkoa. Alde hau dago: salerosketa denean, gehien eskatzen duen nazioaren premien arabera egiten dela merkataritza; eta trukea denean, merkataritza gutxien eskatzen duen nazioaren premien arabera egiten dela bakarrik, horrela ez izatera, azken honek ezinezkoa bailuke bere erosketa ordaintzea.

## II

### *Diruaren izaeraz*

Dirua salerosgai guztien balioa adierazten duen zeinu bat da. Metalen bat hartzen da, zeinua iraunkorra izan dadin<sup>178</sup>, erabilia gutxi higatzen dena eta, desegin gabe, zatiketa askotarako gai izango dena. Metal preziatu bat aukeratzen da, zeinua erraz garraiatu ahal izateko. Metal bat oso egokia da neurri komuna izateko, erraz bihur daitekeelako lege berera. Estatu bakoitzak bere zigilua jartzen du bertan, forma legearen eta pisuaren berme izan dadin, eta bata eta bestea begi hutsez ezagut daitezten.

Atenastarrak, metalik erabiltzen ez zutenez, idiez baliatzen ziren<sup>179</sup>, eta erromatarrek ardiez; baina bi idi inoiz ez dira berdin-berdinak izaten; metal-puska bat, aldiz, beste baten berdin-berdina izan daiteke.

Dirua salerosgaien balioen zeinu den bezala, papera diruaren balioaren zeinu da, eta ona denean, hain ondo ordezkatzeko du, non, ondorioari dagokionez, ez baita inolako alderik.

Dirua gauza baten zeinu den bezala, eta hura ordezkatzeko duen bezala, gauza bakoitza diruaren zeinua da, eta ordezkatu egiten du; eta Estatua aberatsa izango da, baldin eta diruak gauza guztiak ondo ordezkatzeko baditu, eta bestetik, gauza guztiak dirua ondo ordezkatzeko badute, eta batzuk besteen zeinu badira; alegia, beren balio erlatiboan, bata edukita bestea eduki daiteke. Hori ez da gertatzen gobernu-era moderatua denean baizik, baina gobernu-era moderatua denean ere ez da beti gertatzen; adibidez, legeak zordun bidegabeko baten alde badaude, haren gauzek ez dute ondo ordezkatzeko dirua, eta ez dira zeinu. Gobernu-era despotikoari dagokionez, miraria litzateke gauzek beren zeinua ordezkatzeko: tirania eta mesfidantza direnean, mundu guztiak lurperatu egiten du bere dirua<sup>180</sup>, beraz, gauzak ez dira diruaren ordezkari.

Batzuetan legegileek halako antzea erabili izan dute, non gauzak dirua berez ordezkatzeko gainera, diru bihurtzen baitziren berak ere. Zesarrek<sup>181</sup>, diktadorea izanik ere, baimendu egin zien zordunei beren hartzekodunei lur-zatiak ematea gerra zibilaz aurretik zuten pre-

zioan. Tiberiok<sup>182</sup> agindu zuen dirua nahi zutenek altxor publikotik jasoko zutela baldin eta lurra diru-kopuru bikoitzaren truke hipotekatzzen bazuten. Zesarren garaian, lur-zatiak izan ziren zor guztiak ordaintzeko dirua; Tiberioren garaian, berriz, hamar mila sestertzio lurretan bost mila sestertzio dirutan balio zuen diru arrunta bihurtu ziren.

Ingalaterrako Gutun Nagusiak debekatu egiten du zordun baten lurrak edo errentak hartzea, haren ondasun higikorak edo pertsonalak zorra kitatzeko aski direnean, eta zordunak eskaintzen baditu; hala, bada, ingeles baten ondasun guztiek dirua ordezkatzzen dute.

Germaniarren legeek dirutan neurtzen zituzten egindako kalteen edo delituen zigorren ordainketa. Baina herrialdean oso diru gutxi zegoenez, diruaren balioa eman zieten fruitu eta abereei. Horrela dago ezarrita saxoniarren legean, alde batzuk gorabehera, herri batzuen eta besteen erraztasunen eta erosotasunaren arabera. Lehenik<sup>183</sup>, legeak txanponaren balioa aberetan adierazten du: bi tremiseko txanpona hamabi hilabeteko idi bat zen, edo ardi bat bere arkumearekin; hiru tremisekoak hamasei hilabeteko idi bat balio zuen. Herri haietan, dirua ganadu, salerosgai edo fruitu bihurtzen zen; eta gauza horiek diru bihurtzen ziren.

Dirua, gauzen zeinu ez ezik, diruaren zeinu ere bada, eta dirua adierazten du, kanbioari buruzko kapituluan ikusiko dugunez.

### III

#### *Diru idealez*

Diru errealak eta diru idealak daude. Herri zibilizatuek, ia denak diru idealez baliatzen direlarik, ez dute hala egiten beren diru errealak ideal bihurtu dituztelako. Lehenik, haien diru errealak metalen baten pisu jakin bat eta lege jakin bat dira. Baina laster fede gaiztoak edo premiak ekarri ohi dute txanpon bakoitzetik metal-pixka bat kentzea, izena berdin utziz; esate baterako, libra bateko pisua duen zilarreko pieza batetik, zilararren erdia kentzen da, eta libera deitzen jarraitzen zaio; zilarrezko liberaren hogeirena zen piezari, sos deitzen jarraitzen zaio, nahiz eta ez izan dagoeneko liberaren hogeirena.

Hortaz, libera libera ideala da, eta sosa sos ideala; eta gisa horretan beste zatiketak ere; eta bide horretatik irits daiteke une bat non libera esaten zaion hori liberaren parte txiki-txiki bat den, eta horrek are idealago bihurtuko du. Gerta daiteke libera bat balioko duen txanponik gehiago ez egitea, eta sosa balio duen txanponik ere ez; orduan, libera eta sosa txanpon guztiz idealak izango dira. Txanpon bakoitzari nahi beste libera edo soseko balioa emango zaio; aldaketa etengabea izango da, zeren eta gauza bati beste izen bat ematea, gauza bera aldatzea zail den bezain erraza baita.

Gehiegikeriaren sorburua galarazteko, oso lege ona izango da merkataritza lora dadin nahiko duten nazio guztietan, txanpon errealak erabiltzea eta ideal bihurtuko dituen eragiketak ezin dela egin agintzen duena.

Ez dago ezer aldaezinagorik, gauza guztien neurri den hura baino.

Merkataritza oso aldakorra da berez, eta oker handia da beste ziurgabetasun bat gehitzea merkataritzari berez dagokionaz gainera.

## IV

### *Urre- eta zilar-kantitateaz*

Nazio zibilizatuak munduko jabe direnean, urrea eta zilarra egunero emendatzen dira, dela berenetik ateratzen dituztelako, dela dauden lekura bila doazelako. Urritu egiten dira, ordea, nazio barbaroak gailentzen direnean. Jakina da metal horiek oso urri izan zirela godoek eta bandaloek batetik, sarrazenoek eta tartaroek bestetik, dena inbaditu zutenean.

## V

### *Gai beraren jarraipena*

Amerikako meategietatik ateratako urreak, Europara ekarririk, eta handik Ekialdera bidalirik, on egin dio Europako nabigazioari:

Europak Amerikatik trukean jasotzen duen beste salerosgai bat gehiago da, eta trukean Indietara bidaltzen duena. Urre- eta zilar-kantitate handiagoa, beraz, onerako da metal horiek merkantziatzat hartzen direnean; ez da onerako, ordea, zeinutzat hartzen direnean, haien ugartasuna zeinu-izaera horren kontra doalako; izan ere, zeinua bere urritasunean oinarritzen da.

Lehen gerra punikoa baino lehen, zilarrak kobreak baino 960 bider gehiago balio zuen<sup>184</sup>; gaur egun, gutxi gorabehera, 73 1/2 bider gehiago balio du<sup>185</sup>. Proportzioa behinola bezalakoa balitz, diruak hobeto beteko luke bere zeinu-funtzioa.

## VI

### *Zergatik interesaren prezioa erdira jaitsi zen Indiak aurkitu zituztenean*

Garcilaso Incak dio<sup>186</sup> ezen Espainian, Indietako konkistaren ondoren, errentak ehuneko hamarretik ehuneko bostera jaitsi zirela. Horrela behar zuen. Zilar-kantitate handia ekarri zuten bat-batean Europara: laster, pertsona gutxiagok izan zuten zilarraren beharra; gauza guztien prezioak gora egin zuen, eta zilarrarenak behera; proportzioa, beraz, hautsi egin zen, eta zor zahar guztiak kitatu egin ziren. Gogora gaitezen Sistemaren garaiaz<sup>187</sup>, non gauza guztiek balio handia baitzuten, dirua izan ezik. Indietako konkistaren ondoren, dirua zute-nek beren merkantziaren prezioa edo mailegua —hots, interesa— beheratu behar izan zuten.

Orduz geroztik mailegua ezin izan da iritsi tasa zaharraren mailara, urtero Europan diru-kopurua gehitu egin delako. Bestalde, estatu batzuen funts publikoak, merkataritzak ekarritako aberastasunetan oinarrituta, oso interes merkea ematen zutenez, partikularren kontratuak haren arabera erregulatu behar izan ziren. Azkenik, kanbioak gizakiei dirua herrialde batetik bestera eramateko erraztasun handia eman dienez, lekuren batean dirua eskas bazen, ugari zen leku guztietatik eraman zitekeen hara.

## VII

*Nolatan finkatzen den gauzen prezioa zeinu-aberastasunak  
aldatzen direnean*

Dirua salerosgaien edo artikuluen prezioa da. Baina nola finkatuko da prezioa? Alegia, zein diru-partek ordezkatuko du gauza bakoitza?

Baldin eta munduan den urre- eta zilar-masa bertan diren salerosgaiekin konparatzen badugu, egia da artikulua edo salerosgai bakoitza urre- eta zilar-masa osoaren parte batekin konparatu ahalko dela. Bataren totala bestearen totalari dagokionez, bataren parte bat bestearen parte bati egokituko zaio. Demagun munduan artikulua edo salerosgai bakar bat besterik ez dela, edo bakar bat erosten dela, eta dirua bezala zatitzen dela; salerosgai horren parte hori diru-masaren parte bati egokituko zaio; bataren totalaren erdia, bestearen totalaren erdiari; bataren hamarrena, ehunena, milarena, bestearen hamarren, ehunen, milarenari. Baina gizakien jabego dena ez baita guztia merkataritzan, eta metalak edo txanponak —zeinuak, alegia— ez baitaude denak batera, prezioak gauza guztien eta zeinu guztien arteko arrazoi konposatuaren arabera finkatuko dira; eta merkataritzan diren gauza guztien eta bertan diren zeinu guztien arteko arrazoi konposatuaren arabera; eta gaur merkataritzan ez diren gauzak bihar egon daitezkeenez, eta gaur ez dauden zeinuak bihar sar daitezkeenez, gauzen prezioa ezartzea gauza guztien eta zeinu guztien arteko arrazoiaren mende dago beti.

Hortaz, printzeak edo magistratuak ezin dute ezarri salerosgaien balioa, ez eta dekretuz ezarri ere bat eta hamarren arteko erlazioa bat eta hogeiren artekoaren berdina denik. Julianok<sup>188</sup> Antiokian artikuluen prezioa jaitsi zuenean, izugarrizko gosetean ekarri zuen.

## VIII

*Gai beraren jarraipena*

Afrikako itsasbazterreko beltzek balioen zeinu bat dute, txanponik gabe: zeinu ideal hutsa da, merkantzia bakoitzarekiko duten



atxikimendu-mailan oinarritua, hartaz duten premiaren arabera. Artikulu edo salerosgai batek, adibidez, hiru makuto balio du; beste batek, sei makuto; beste batek, hamar makuto; hiru, sei, hamar besterik esango ez balute bezala. Prezioa merkantziak beren artean konparatuta ateratzen da; beraz, ez da inolako txanponik, baina merkantzi zati bakoitza da bestearen txanpon.

Ekar dezagun une batez gure artera gauzak balioztatzeko modu hori, eta bil dezagun gurearekin: munduko merkantzia eta artikulu guztiek, edota beste guztietatik bereizitako estatu jakin bateko merkantzia eta artikuluek, makuto-kopuru jakin bat balioko dute, eta, estatu horretako dirua makutoak hainbat partetan zatituta, diru horren zati bat makuto baten zeinua izango da.

Estatu bateko dirua bikoiztu egiten dela emanez gero, makuto bakoitzeko bi aldiz diru gehiago egongo da; baina dirua bikoiztean, makutoak ere bikoiztuz gero, proportzioak bere horretan iraungo du, bikoizte bataren eta bestearen aurretik bezala.

Baldin eta, Indien aurkikuntzaz geroztik, urrea eta zilarra batetik hogeira ugaritu badira European, artikuluen eta merkantzien prezioak ere batetik hogeira handitu beharko luke. Baina, beste alde batetik, merkantzien kopurua batetik bira ugaritu bada, artikulu eta merkantzia horien prezioa ere, alde batetik, batetik hogeira handitu, eta bestetik batetik bira jaitsi behar; beraz, batetik hamarrerako proportzioan geratu da.

Merkantzia eta artikuluen kopurua hazi egiten da merkataritza haztean; merkataritza, berriz, hazi egiten da etengabe iristen den dirua haztean, eta lurralde eta itsaso berriekiko komunikazio berriak izatean, artikulu eta merkantzia berriak ematen baitizkigute.

## IX

### *Urrearen eta zilarraren urritasun erlatiboaz*

Urrearen eta zilarraren urritasun positiboaz gainera, bada bi metal horien arteko urritasun erlatibo bat ere.

Askonahiak gorde egiten ditu urrea eta zilarra, zeren eta, konsumitu nahi ez duenez, desegiten ez diren zeinuak maite baititu.

Nahiago du urrea gorde zilarra baino, beldur baita galduko ote duen, eta hobeto ezkuta baitezake kantitate gutxiagoan dagoena. Beraz, urrea desagertu egiten da zilarra arrunta denean, daukatenek gorde egiten dutelako; berriz agertzen da zilarra urri denean, bere gordelekuetatik atera beharra izaten delako.

Beraz, haxe da araua: urre asko izaten da zilarra urri denean, eta urrea urri izaten da zilar asko denean. Horrek erakusten du ugaritasun eta urritasun erlatiboaren eta ugaritasun eta urritasun errearen arteko aldea. Luze mintzatuko naiz honetaz.

## X

### *Kanbioaz*

Herrialde batzuen eta besteen diruaren ugaritasun eta urritasun erlatiboak eratzen du kanbio deritzana.

Kanbioa diruaren unean uneko balioaren finkapena da.

Zilarrak, metal gisa, balio bat du beste merkantzia guztiek bezala; eta balio bat du, halaber, beste merkantzien zeinu izan daitekeen aldetik; eta merkantzia hutsa besterik ez balitz, ez dago zalan-tzarik ez lukeela bere prezioetik askorik galduko.

Zilarrak, diru gisa, printzeak batzuetan finka dezakeen baina beste batzuetan finkatu ezin duen balio bat du.

1. Printzeak proportzio bat ezartzen du —metal gisa— zilar-kantitate baten eta diru gisako kantitate horrexen artean. 2. Finkatu egiten du diru gisa erabilitako metalen arteko proportzioa. 3. Txanpon bakoitzaren balioa eta pisua ezartzen ditu. Azkenik, aipatu dudan balio ideala ematen dio txanpon bakoitzari. Honela deituko nioke diruaren balioari, lau harreman horietan: *balio positiboa*, lege batez finka daitekeelako.

Estatu bakoitzeko txanponek, gainera, *balio erlatiboa* dute, beste herrialde batzuetako txanponekin konparatzen diren aldetik; balio erlatibo horixe ezartzen du kanbioak. Balio positiboaren mende dago hein handi batean. Tratarrien balioespen orokorrak finkatzen

du, eta ezin du finkatu printzearen aginduak, etengabe aldatzen delako, eta mila gauzaren gorabeheran dagoelako.

Balio erlatiboa finkatzeko, nazioak diru gehien duen nazioaren arabera egokituko dira. Hark beste guztiek batera adina diru badu, bakoitza harekin neurtu beharko da, eta gero beren artean neurtuko dira, nazio nagusiarekin neurtu diren bezala.

Gaur egungo munduan, Holanda<sup>189</sup> da nazio hori. Azter dezagun kanbioa harekiko.

Holandan florin deritzan txanpona dute; florinak hogeit hamar balio ditu, edota berrogei sos-erdi. Ideiak sinpletzeko, imajina dezagun ez dela florinik Holandan, eta sos-erdiak besterik ez dituztela: mila florin dituen norbaitek berrogei mila sos-erdi izango ditu, eta abar. Alabaina, Holandarekiko kanbioa honetan datza: zenbat sos-erdi balioko duen beste herrialde batzuetako txanpon bakoitzak; eta Frantzia hiru liberako ezkututan kontatu ohi denez, kanbioak eskatu-ko du zenbat sos-erdi balioko duen hiru liberako ezkutu batek. Kanbioa berrogeita hamalautan badago, hiru liberako ezkutuak berrogeita hamalau sos-erdi balioko du; hirurogeitan badago, hirurogei sos-erdi balioko du; zilarra Frantzia urri bada, hiru liberako ezkutuak sos-erdi gehiago balioko du; ugari bada, berriz, sos-erdi gutxiago.

Urritasun edo ugaritasun horiek, nondik baitator kanbioaren aldaketa, ez dira urritasun eta ugaritasun errealak; urritasun edo ugaritasun erlatiboak dira. Adibidez, Frantziak Holandan funtsak izateko premia holandarrek Frantzia izatekoa baino handiagoa denean, esan ohi da dirua arrunta dela Frantzia, eta urria Holandan; eta alderantziz.

Demagun Holandarekiko kanbioa berrogeita hamalautan dagoela. Frantziak eta Holandak hiri bakar bat osatuko balute, ezkutu bateko txanpona ematen denean egin ohi den bezala egingo litzateke: frantziarrek hiru libera aterako lituzkete beren sakeletatik, eta holandarrek berrogeita hamalau sos-erdi berenetik. Baina Paris eta Amsterdam-en artean distantzia dagoenez, hiru liberako nire ezkutuaren truke Holandan dituen berrogeita hamalau sos-erdi ematen didanak berrogeita hamalau sos-erdiko kanbio-letra bat eman beharko dit Holandaren gainean. Ez berrogeita hamalau sos-erdi, berrogeita hamalau sos-erdiko letra bat baizik. Hortaz, diruaren urritasunaz edo ugaritasunaz iritzia izateko<sup>190</sup>, jakin beharra dago ea Frantzia

Frantziarako berrogeita hamalau sos-erdiko letra gehiago dagoen, Holandarako ezkutuko letrak baino. Holandarrek eskainitako letra asko badago, eta frantziarrek eskainitako ezkutu gutxi, dirua urri da Frantzian, eta ugari Holandan, eta kanbioak gora egin beharra dauka: nire ezkutuari truke berrogeita hamalau sos-erdi baino gehiago eman behar zaizkit, bestela ez nituzke emango; eta alderantziz.

Ikusten denez, kanbio-eragiketek beti berdindu behar diren sarrera eta irteeren kontua osatzen dute; zor duen estatu batek ez du kitatzen bere zorra kanbioaren bidez, partikular batek ere ez baitu bere zorra kitatzen dirua trukatu.

Demagun munduan hiru estatu besterik ez direla: Frantzia, Espainia eta Holanda; Espainiako zenbait partikularrek ehun mila markoko zorra dutela Frantzian, eta Frantziako zenbait partikularrek ehun eta hamar mila markoko zorra Espainian; eta gorabeheraren bat dela medio, bakoitzak, Espainian eta Frantzian, bere dirua jaso nahi lukeela bat-batean: zer esan nahi lukete kanbio-eragiketek? Bi nazioek ehun mila markoko dirutza kitatuko liokete elkarri, baina Frantziak hamar mila marko zor lituzke artean Espainian, eta espainiarrek hamar mila markoko letrak edukiko lituzkete Frantziaren kontura, eta Frantziak bat ere ez Espainiaren kontura.

Holanda Frantziarekin kontrako kasuan balitz, eta saldo gisa hamar mila marko zor balizkio, Frantziak bi eratan ordaindu ahalko lioke Espainiari: edota Espainiako hartzekodunei hamar mila markoko letrak emanez Holandako zordunen gainean, edota hamar mila markoko dirutza jenerotan bidaliz Espainiara.

Hortik ondorio hau atera daiteke: estatu batek beste herrialde batera dirutza bat itzultzeko premia duenean, berez berdin dio dirua edota kanbio-letrak jiratzea. Bi ordain-modu horien abantaila kasuan kasuko inguruabarren arabera da: ikusi beharko da ea une horretan zerk emango duen sos-erdi gehiago Holandan, jenerotan emandako diruak<sup>191</sup> ala dirutza horren balioko letra batek Holandaren gainean.

Frantzian balio berdinak eta pisu berdinak Holandan balio eta pisu berdina ematen dutenean, kanbioa parean dagoela esaten da. Txanponen gaur egungo egoeran<sup>192</sup> baliokidetzat, gutxi gorabehera, ezkutu bakoitzeko berrogeita hamalau sos-erdi dago; kanbioa

berrogeita hamalau sos-erdiren gainetik dagoenean, esango dugu altu dagoela, eta gutxiagotan dagoenean, baxu dagoela.

Kanbiaketa batean Estatuak irabazi ala galdu egiten duen jakiteko, zordun, hartzekodun, saltzaile eta erosle gisa hartu behar da. Kanbioa parean baino baxuago dagoenean, galdu egiten du zordun gisa, eta irabazi hartzekodun gisa; galdu egiten du erosle gisa, eta irabazi saltzaile gisa. Bistan da galdu egiten duela zordun gisa; esate baterako, Frantziak Holandari sos-erdi kopuru bat zor diolarik, zenbat eta sos-erdi gutxiago balio frantziar ezkutuak, ezkutu gehiago jasoko du Holandak. Estatuak galdu egiten du erosle gisa; izan ere, sos-erdi kopuru berbera behar da beti merkantzi kopuru berbera erosteko, eta, kanbioak behera egiten duenean, Frantziako ezkutu bakoitzak sos-erdi gutxiago ematen du. Arrazoi berberagatik, Estatuak irabazi egiten du saltzaile gisa: nik saltzen nuen sos-erdi berdinetan saltzen dut nire merkantzia Holandan; beraz, ezkutu gehiago izango ditut Frantzian, berrogeita hamar sos-erdirekin ezkutu bat jasotzen dudanean, ezkutu hori hartzeko berrogeita hamalau sos-erdi behar izango ditudanean baino. Horren guztiz kontrakoa gertatuko zaio beste estatuari. Holandak ezkutu-kopuru jakin bat zor badu, irabazi egingo du, eta berari zor badiote, galdu; saltzen badu, galdu egingo du; erosten badu, irabazi.

Hari honetatik jarraitu beharra dago. Kanbioa parearen azpitik dagoenean —adibidez, berrogeita hamalauan egon ordez berrogeita hamarrean dagoenean—, zera gertatu beharko luke: Frantziak kanbio bidez Holandara berrogeita hamalau mila ezkutu bidaliz gero, berrogeita hamar milari legokiokkeen jeneroa besterik ez luke erosiko; eta bestetik, Holandak Frantziara berrogeita hamar mila ezkutu bidaliz gero, berrogeita hamalau mila balioko luketen gauzak erosiko lituzke; horrek zortzi berrogeita hamalaurenen aldea osatuko luke, hau da, zapiren baten galera baino gehiago Frantziarentzat; hortaz, zazpiren bat diru gehiago bidali beharko litzateke Holandara dirutan edo merkantziatan, dirua parean legokeenean baino; eta gaitza etengabe handituko litzateke, halako zorrak are gehiago urrituko bailuke kanbioa, eta Frantziak, azkenean, hondoa joko luke. Diodanez, horrela izan behar luke, baina ez da, beste nonbait<sup>193</sup> adierazi dudana printzipioagatik: alegia, estatuek orekara jotzen dutela beti, eta zama kentzera. Horregatik, ordain dezaketena besterik ez dute hartzen mailegutana, eta

ez dute erosten saldu ahal dutena adina baizik. Eta, goiko adibideari jarraituz, Frantzian kanbioa berrogeita hamalautik berrogeita hamarrera erortzen bada, merkantziak mila ezkututan erosi eta berrogeita hamalau mila sos-erdi ordaintzen zuen holandarrek orain ez lituzke berrogeita hamar mila baino gehiago ordainduko, frantziarra ados balego. Baina Frantziaren merkantziak gora egingo du ezari-ezarian; etekina frantziarren eta holandarren artean banatuko da; izan ere, tratulari batek irabazi ahal duenean, erraz banatzen du bere etekina; hortaz, etekin-banaketa bat izango da frantziarraren eta holandarren artean. Era berean, kanbioa berrogeita hamalauan zegoenean Holandako berrogeita hamalau mila sos-erdiko merkantziak erosten zituen eta mila ezkutu ordaintzen zuen frantziarra behartua legoke lau berrogeita hamalauren gehitzera ezkutu frantsesetan, merkantzia berdina erosteko. Baina merkatarari frantsesak, galera horretaz ohartzean, gutxiago eman nahiko du Holandako merkantziagatik. Beraz, galera-banaketa bat izango da merkatarari frantsesaren eta holandarren artean; Estatua orekan jarriko da ezari-ezarian, eta kanbioaren beherape-nak ez ditu ekarriko akats beldurgarri haiek guztiak.

Kanbioa beherago dagoenean, tratulari batek, bere aberastasunak gutxitu gabe, jar ditzake bere diru-funtsak atzerrian; berriro ekartzen dituenean, berriro irabazten duelako galdutakoa; baina atzerrira handik inoiz itzuliko ez den dirua besterik bidaltzen ez duen printze batek, beti galtzen du.

Tratulariek herrialde batean negozio asko dituztenean, kanbioak gora egiten du nahitaez. Izan ere, halakoetan tratu asko egiten dira, eta merkantzia asko erosten, eta horiek ordaintzeko dirua atzerritik ateratzen da.

Printze batek bere estatuan dirutza handiak biltzen baditu, dirua urria izan daiteke errealki, eta ugaria erlatiboki; adibidez, denboraldi horretan estatu horrek merkantzia asko ordaindu beharko balitu atzerrian, kanbioak behera egingo luke, nahiz eta dirua urri izan.

Leku guztietako kanbioak proportzio batean jartzera jotzen du beti, eta hori berez dagokio gauzari. Baldin eta Irlandatik Ingalaterrarako kanbioa pareta baino beherago badago, eta Ingalaterratik Holandarakoa ere pareta baino beherago badago, Irlandatik Holandarakoa are beherago egongo da; alegia, Irlandatik Ingalaterrarakoaren eta Ingalaterratik Holandarakoaren arrazoi kon-

posatuan; izan ere, holandar bat, bere funtsak zeharka Irlandatik Ingalaterran barrena ekar ditzakeelarik, ez ditu garestia ordaindu nahiko zuzenean ekarrita. Nik diot horrela behar lukeela, baina ez da zehatz-mehatz horrela; beti izaten dira gauzak aldarazten dituzten gorabeherak, eta batetik edo bestetik aterata sortzen den etekin-aldean datza hain zuzen bankarien trebetasuna; baina hemen ez gara horretaz ari.

Estatu batek bere dirua goratzen badu —hots, hiru libera edo ezkutu bat deitzen zienei sei libera edo bi ezkutu deitzen dienean—, deitura berri horrek, ez baitio ezer gehitu ezkutuari, ez dio ekarri behar sos-erdi bakar bat ere gehiago kanbioa egiterakoan. Bi ezkutu berrien truke ez litzateke jaso behar aurreko bakarraren truke jasotzen zen sos-erdi kopuru berbera baizik, eta hori horrela ez bada, ez da igoeraren eraginez, baizik eta berritasunaren eta bat-batekotasunaren eraginez. Kanbioa martxan diren tratuen mende dago, eta denboraldi baten ondoren doitzen da.

Estatu batek, bere dirua lege batez besterik gabe goratu beharrean, txanpon indartsuagotik diru ahulagoa ateratzeko birgaldaketa egiten duenean, zera gertatzen da, eragiketak iraun bitartean bi txanpon-mota izaten direla: indartsua, zaharra alegia, eta ahula, berria; eta indartsua balioa galduta dagoenez eta Diru-etxean baino jasotzen ez denez, eta, beraz, kanbio-letrak txanpon berriaren ordaindu behar direnez, badirudi kanbioa txanpon berriaren gainean doitu beharko litzatekeela. Adibidez, Frantzian dirua erdira ahulduko balitz, eta hiru liberako ezkutu zaharrak Holandan hirurogei sos-erdi emango balitu, ezkutu berriak hogeita hamar besterik ez lituzke eman behar. Bestalde, badirudi kanbioa txanpon zaharraren gainean doitu beharko litzatekeela, dirua duen eta letrak hartzen dituen bankaria behartuta dagoelako txanpon zaharrak Diru-etxera eramatera, berriak jasoko baditu, hartara galdu egiten duelarik. Beraz, kanbioa diru berriaren balioaren eta diru zaharraren balioaren artean izango da. Diru zaharraren balioa erori egiten da, nolabait esateko, bai jadanik merkataritzan diru berria dagoelako, bai bankariak estu-estu jokatzetik ez daukalako, diru zaharra lanean jartzeko bere kutxatik lehenbailehen atera nahi badu, eta hartara behartuta dagoelako bere ordainketak egitera. Bestalde, diru berriaren balioak gora egiten du, nolabait esanda, zeren eta bankaria, diru berriarekin, oso aldeko egoeran baitago zaharra

eskuratzeko, frogatuko dugunez. Hortaz, kanbioa, esan bezala, diru berriaren eta diru zaharraren artean egingo da. Kasu horretan, bankariek etekina ateratzen dute diru zaharra estatu horretatik kanporatzean, zeren eta, hartara, diru zaharraren ganean kanbio doitu batek emango lukeen abantaila berdina lortzen baitute, hau da, sos-erdi ugari Holandan; eta gainera, itzuleran, diru berriaren eta diru zaharraren arteko kanbio-neurriak behera egin duenez, ezkutu askoren irabaziaz ematen dielako Frantzian.

Demagun diru zaharreko hiru liberak, egungo kanbioaren arara, berrogeita bost sos-erdi ematen dutela, eta ezkutu horixe Holandara eramanda hirurogei ateratzen direla; baina berrogeita bost sos-erdiko letra batekin, hiru liberako ezkutu bat lortuko da Frantzian, eta horrek, Holandara diru zahar gisa eramanda, hirurogei sos-erdi emango ditu; diru zahar guztia aterako da, beraz, birgaldaketa egiten duen estatutik, eta etekina bankarientzat izango da.

Horri erremedioa jartzeko, beste eragiketa bat egin beharko da. Birgaldaketa egiten duen estatuak diru zahar asko bidaliko du kanbioa arautzen duen naziora eta, han kreditua lortu ondoren, kanbioa igoraziko du, hala non, hiru liberako ezkutu baten truke, gutxi gorabehera, diru zaharrean hiru liberako ezkutua ateratzean lortuko liratekeen hainbat sos-erdi lortuko diren. «Gutxi gorabehera» diot, zeren eta, irabazia oso handia ez denean, ez baita dirua atera nahi izango, garraio-gastuak eta konfiskazio-arriskuak direla eta.

Honetaz ideia argia ematea komeni da. Bernard jaunak, edo estatuak enplegatzen duen beste bankariren batek, bere letrak proposatu ditu Holandara, eta egungo kanbioan baino sos-erdi bat, bi, hiru gehiagotan eman ditu. Hornizio ederra egin du atzerrian, diru zaharrak etengabe garraiatuz; hortaz, esan berri dugun punturaino jaso du kanbioa. Alabaina, letrak ematearen poderioz, diru berri guztiaz jabetu da, eta beste bankari guztiak, beren ordainketak egin behar baitituzte, diru zaharra Diru-etxera eramatera behartu ditu; eta gainera, diru guztia bereganatu duenez, beste bankariak berari letrak ematera behartzen ditu, oso kanbio altuan, eta hartara azkeneko etekinak hasierako galerak estaltzen dizkio.

Bistan da eragiketa horretan guztian, Estatuak krisi gogorra jasan behar duela. Dirua asko urrituko da, 1. depreziatu egin behar delako gehiena; 2. parte bat atzerrira eraman beharko delako; eta 3.



mundu guztiak gordeko duelako, inork ez baitio printzeari utzi nahiko berak berez lortzea espero duen etekina. Arriskutsua da eragiketa hori poliki egitea; arriskutsua da bizkor egitea ere. Espero den irabazia neurritz gainekoa den bezala, eragozpenak ere neurri horretan ugartzen dira.

Ikusi dugunez, kanbioa dirua baino baxuagoa zenean, irabazi egiten zen dirua kanporatuta; arrazoi berberagatik, dirua baino altuagoa denean, irabazi egiten da atzera ekarrita.

Kasu batean, ordea, etekina ematen du dirua kanporatzeak, nahiz eta kanbioa parean egon: atzerrira eramaten denean txanpon berria egiteko edo birgaldatzeko. Itzultzen denean, diruak etekina ematen du, dela herrialdean erabiltzen delako, dela atzerrirako letrak hartzen direlako.

Baldin eta estatu batean akzio ugari lituzkeen konpainia bat sortuko balitz, eta hilabete batzuetan akzio horiek lehen erosketatik hogeï edo hogeita bost bider balio handiagoa lortuko balute, eta estatu horrek banku bat baleuka, zeinen bileteek diruaren betekizuna leukaketen, eta bilete horien balio numerarioa izugarria balitz akzioen balio numerario izugarriari erantzuteko (horra Law-en Sistema), orduan zera gertatuko litzateke: akzio eta bilete horiek ezereztu egingo liratekeela sortu bezala. Akzioei lehen balioa baino hogeï edo hogeita bost bider balio handiagoa emateko, jende askori aberastasun handiak lortzeko bidea eman behar nahitaez paperetan; bakoitzak bere fortuna segurtatzeko bidea bilatuko luke, eta, kanbioa modu errazena denez eraldatzeko edo nahi den lekura eramateko, etengabe bidaliko lirateke efektuen parte bat kanbioa arautzen duen naziora. Atzerrira etengabe bidaltzeak jaitsiarazi egingo luke kanbioa. Demagun Sistemaren garaian, zilarrezko txanponaren legearen eta pisuaren arteko erlazioan, kanbio-tasa berrogei sos-erdi zela ezkutuko; paper-kantitate izugarria diru bihurtu ondoren, hogeita hemeretzi sos-erdi besterik ez zen eman nahiko ezkutu bakoitzeko; segidan, hogeita hemezortzi, hogeita hamazazpi, etab. Bide horretatik hain urrun iritsi zen, non zortzi sos-erdi besterik ez baitziren ematen, eta azkenean ez zen kanbiorik izan.

Kasu honetan kanbioak arautu behar zuen Frantzian diruaren eta paperaren arteko proportzioa. Demagun ezen, zilarren pisu-legearen arabera, zilarrezko hiru liberako ezkutuak berrogei sos-erdi balio

zituela, eta kanbioa paperean eginda, paperezko ezkutu horrek zortzi sos-erdi besterik ez zuela balio: aldea lau bostenekoa litzateke. Hiru liberako ezkutuak, paperean, zilarrezko hiru liberako ezkutuak baino lau bosten gutxiago balioko luke.

## XI

### *Erromatarrek beren txanponekin egin zituzten eragiketak*

Gure garaian Frantzian, txanponei dagokienez, hurrenez hurreneko bi ministroalditan agente-gehiegikeria asko egin badira ere, erromatarrek handiagoak egin zituzten, ez errepublika ustelduaren garaian ez eta anarkia baizik ez zen errepublikaren garaian ere, baizik eta, beren instituzioak indartsu zirelarik, Italiako hiriak garaitu ondoren, beren zuhurtziaz eta adoreaz kartagotarrekin norgehiagoka ari zirenean.

Gogotsu ekingo diot gai honetan sakontzeari, etsenplu ez dena etsenplutzat har ez dadin.

Lehen gerra punikoan<sup>194</sup> as delakoak, kobrezko hamabi ontzako izan behar zuelarik, bi besterik ez zuen pisatzen; eta bigarreanean, bat bakarra. Pisu galtze hori gaur egun txanponak igotzea deritzogunagatik zen. Sei liberako ezkutu bati zilarren erdia kendu eta bi egitea, edo hamabiko balioa ematea, gauza bera da.

Ez zaigu heldu erromatarrek lehen gerra punikoan beren eragiketa nola egin zuten agertzen duen agiririk, baina bigarreanean egin zutenak zuhurtzia miragarria erakusten digu. Errepublikak ezin zituen bere zorrak kitatu; as-ak kobrezko bi ontza pisatzen zuen; eta denarioak hamar as balio zuenez, kobrezko hogeitaz ontza balio zuen. Errepublikak kobrezko ontza bakarreko asak egin zituen<sup>195</sup>; erdia irabazi zien hartzekodunei; denario bat ordaindu zuen kobrezko hamar ontza haiekin. Eragiketa hark egundoko astindua eman zion estatuari. Ahalik eta astindurik txikiena izatea komeni zen, eta bidegabea zenez, ahalik eta bidegaberik txikiena. Eragiketa haren xedea errerepublikak hiritarrei zor ziena kitatzea zen, ez hiritarrek elkarri zor ziotena kitatzea. Horrek bigarren eragiketa bat ekarri zuen, eta agindu hau eman zen, denarioa, ordura arte hamar asekoa izan bazen ere, hamaseikoa

izango zela. Eragiketa bikoitz haren ondorioz, errepublikaren hartze-kodunek erdia galdu zuten<sup>196</sup>, eta partikularrenen bosten bat besterik ez<sup>197</sup>; merkantzien prezioa bosten bat besterik ez zen igotzen; txanponaren aldaketa erreala bosten batena zen bakarrik; bistan dira beste ondorioak.

Erromatarrek, bada, guk baino hobeto jardun zuten: gure eragiketetan, fortuna publikoak eta fortuna pribatuak nahastu ditugu. Hori ez da dena: ikusiko denez, haiek gurea baino abagune hobean egin zituzten eragiketa haiek.

## XII

### *Erromatarrek zein abagunetan egin zituzten txanponaren gaineko eragiketak*

Antzina oso urre eta diru gutxi zegoen Italian. Herrialde horrek urre- eta zilar-meategi gutxi edo batere ez du. Galiarrek Erroma hartu zutenean, mila libera urre besterik ez zuten aurkitu han<sup>198</sup>. Alabaina, erromatarrek hainbat hiri indartsu arpilatu, eta berenera eramanak zituzten hango aberastasunak. Aldi luze batez kobrezko diruaz baino ez ziren baliatu; Pirroren bakearen ondoren bakarrik izan zuten nahikoa zilar txanpona egiteko<sup>199</sup>. Metal horretako denarioak egin zituzten, hamar as balio zutenak<sup>200</sup>, edo kobrezko hamar libera. Orduan zilarra- ren eta kobreaken arteko proportzioa 960/1 zen; izan ere, erromatar denarioak hamar as edo kobrezko hamar libera balio zituelarik, kobrezko ehun eta hogeitaz ontza balio zituen; eta denario horrek zilarrereko ontzaren zortziren bat balio zuelarik<sup>201</sup>, esan berri dugun proportzioa ezartzen zuen horrek.

Erroma, Italiako alde horren jabe bihurturik —alegia, Grezia eta Siziliatik gertuen denaren jabe—, Erroma bi herri aberatsen artean aurkitu zen pixkanaka: greziarrak eta kartagotarrak; zilarra ugalduz joan zen bertan, eta 960/1 proportzioari eusterik ez zegoenez, Erromak hainbat eragiketa egin zituen txanponekin, ezagutzen ez ditugunak. Hauxe besterik ez dakigu, bigarren gerra punikoaren hasieran, erromatar denarioak kobrezko hogeitaz ontza baino ez zuela balio<sup>202</sup>

eta, beraz, zilarren eta kobreak arteko proportzioa 160/1 besterik ez zela. Baina gauzen izaerak eskatzen zuena baino ez zen egin, txanpontzat baliatzen ziren metalen arteko proportzioa berrezarri.

Hirugarren gerra punikoari buru eman zion bakeari esker, erromatarrek Siziliako jabe bihurtu ziren. Laster Sardinian sartu ziren, eta Espainia ezagutzen hasi: orduan zilar-kopurua ugaltzen hasi zen Erroman. Zilarrezko denarioa hogeitaz hamaseira jaitsi zuen eragiketa egin zen orduan<sup>203</sup>, eta ondorio hau izan zuen: berriz ere beren proportzioan jarri zituela zilarra eta kobrea; proportzio hori 160/1 izatetik 128/1 izatera pasatu zen.

Azter itzazue erromatarrek, eta ez dituzue inoiz aurkituko beren onak eta txarrak egin zituzteneko inguruabarrak aukeratzekoan baino garaiago.

## XIII

### *Enperadoreen garaiko txanponekiko eragiketak*

Errepublikaren garaiko txanponekin egin ziren eragiketetan, pisua murriztu zen: Estatuak bere premien berri ematen zion herriari, eta ez zuen seduzitu nahi. Enperadoreen garaian, aleakzioak egin ziren. Printze haiek, beren eskuzabaltasunak berak desesperaziora eramanez, bestelako txanponak egin beharrean aurkitu ziren; zeharkako bidea, gaitza itxuraz ukitu gabe txikiagotu egiten zuena: dohainaren parte bat erretiratu, eta eskua ezkutatzen zen; eta paga edo eskuzabaltasuna urritzea aipatu gabe, urritu egiten ziren hala ere.

Oraindik ere ikusten dira gabinetetan<sup>204</sup> domina azalberriak, kobrea estaltzen duen zilarrezko mintz bat besterik ez dutenak. Txanpon horretaz hitz egiten da Dionen LXXVII. liburuko zati batean<sup>205</sup>.

Didio Julianok ekin zion txanpona merketzeari. Karakalaren txanponak<sup>206</sup> erdia baino gehiago zeukan aleazioa; Alexandro Severorenak<sup>207</sup> bi herenak; txanpona ahulagotuz joan zen, eta Galianoren garaian<sup>208</sup> kobre zilarreztatua besterik ez zen ikusten.

Bistan da eragiketa bortxatu horiek ezin gerta daitezkeela gure garaian; printze batek bere burua engainatuko luke, ez beste inor.

Kanbioak munduko txanpon guztiak konparatzen erakutsi dio bankariari, eta beren balio doian ezartzen; txanponen legea ezin da jadanik sekretua izan. Printze batek kobrezko txanpona sartzen badu, mundu guztiak jarraitzen dio bide horretatik; diru indartsuak irten eta balioa galduta itzultzen dira. Baldin eta, erromatar enperadoreek bezala, zilarra bai baina urrea ahulduko ez balu, berehala ikusiko luke urre guztia desagertzen, eta bere zilar txarrarekin geratuko litzateke. Kanbioak, aurreko liburuan esan dudanez<sup>209</sup>, bidea itxi die aginte-kolpe handiei, edota gutxienez aginte-kolpe handiek arrakasta izateari.

## XIV

### *Nola kanbioak traba egiten dien estatu despotikoei*

Moskoviak bere despotismotik irten nahi luke, baina ezin du. Merkataritza ezartzeak kanbioa ezartzea eskatzen du, eta kanbio-eragiketak haren lege guztien kontra daude.

1745ean, tsarinak agindu bat eman zuen judutarrak kanporatzeko, atzerrira atera zutelako Siberian konfinatutakoen eta soldaduskan zeuden atzerritar guztien dirua. Inperioko sujet guztiek, esklaboen gisan, ez daukate irteterik, ez beren ondasunak ateratzerik ere, baimenik gabe. Kanbioa, beraz, dirua herrialde batetik bestera garraiatzeko bidea ematen baitu, Moskoviako legeen kontra dago.

Merkataritza bera ere hango legeen kontra doa. Herria lurrari lotutako esklaboek eta, esklaboon jaunak direlako, eliztar edo kapare deritzen beste esklabo batzuek osatzen dute. Ia ez da, beraz, jenderik hirugarren estatua osatzeko, hots, eskulangileak eta merkatariak.

## XV

### *Italiako herrialde batzuetako usadioa*

Italiako zenbait herrialdetan, beren dirua atzerrira eramateko asmoa duten sujetei lurra saltzea galarazteko legeak egin dira. Lege

horiek onak lirateke, baldin eta estatu bakoitzeko aberastasunak guztiz estatu horrenak izan eta batetik bestera eramatea oso zaila balitz. Baina kanbioaren usadioa dela medio, aberastasunak nolabait ezein estaturenak ez direnez, eta hain erraza izanik herrialde batetik bestera eramatea, lege txarra da nor bere arazoetarako bere lurrez baliatzea galarazten duen legea, diruaz baliatzea badagoelarik. Lege hori txarra da, gauza higigarriek lurrek baino abantaila gehiago dituztelako, atzeritarrei herrialdera bizitzera etortzeko gogoia kentzen dielako eta, azken batean, itzuri egin dakiokelako.

## XVI

*Estatuak bankariengandik izan dezakeen laguntza*

Bankariak dirua aldatzeko daude, ez mailegutan uzteko. Printzea dirua aldatzeko baizik baliatzen ez bada haietaz, bidaltzen dien diruagatik ematen dien irabazi txikiena handi bihurtzen da, negozio handiak besterik egiten ez dituenez, eta etekin handiak eskatzen badizkiote, seguru egon daiteke administrazio-akats bat dela tartean. Aitzitik, printzeari diru asko aurreratzen diotenean, haien antzea honetan datza: lukurreriaz salatuak izan gabe, beren dirutik etekin handia ateratzean.

## XVII

*Zor publikoez*

Zenbaitek pentsatu izan dute gauza ona zela estatu batek bere buruari zor izatea; pentsatu dute hartara ugaritu egiten zirela aberastasunak, zirkulazioa handituta.

Nik uste dut bi gauza nahastu direla: batetik, dirua ordezkatzeko duen paper zirkulatzaile bat, edo konpainia batek atera duen edo aterako duen etekinaren zeinua den paper zirkulatzailea, eta bestetik zorra ordezkatzeko duen paper bat. Lehen biek abantaila handia dakarkiotte Estatuari; azkenak, ordea, ez, eta horretatik itxaron daitekeen gauza bakarra zera da, nazioaren zorraren hartzekodunentzat bahi ona

izatea, hots, haren bidez ordainketa lortu ahal izatea. Baina hona hemen hortik datozen trabak:

1. Atzeritarrek zor bat ordezkatzeko duen paper asko badute, dirutza handia ateratzen dute urtero naziotik interesetan.

2. Beti zorretan legokeen nazio batean, kanbioak oso baxua izan behar.

3. Zorrenaren interesak ordaintzeagatik jasotako zergak kalte egiten die manufakturei, langilearen eskua garestituz.

4. Estatuaren errentak pertsona ekile edo trebeei kendu eta ezer egiten ez dutenei ematen zaizkie; alegia, lanik egiten ez dutenei lane-rako errazbideak ematen zaizkie, eta lan egiten dutenei zailtasunak.

Horra trabak; ez dut ezagutzen abantailarik. Hamar pertsonak milana ezkutuko errenta dute lur-sailetan edo industrian; horrek nazio-ari, ehuneko bostean, berrehun mila ezkutuko kapitala dakarkio. Hamar pertsona horiek beren errenten erdia, hots, bost mila ezkutu, beste batzuei mailegutan hartutako ehun mila ezkuturen interesak ordaintzeko erabiltzen badituzte, horrek berrehun mila ezkutu besterik ez dakarkio Estatuari; algebrazaleen hizkuntzan adierazita:  $200.000 \text{ ezkutu} - 100.000 \text{ ezkutu} + 100.000 \text{ ezkutu} = 200.000 \text{ ezkutu}$ .

Gauza batek gaizkiulertua sor dezake: nazio baten zorra ordezkatzeko duen papera aberastasun-zeinua izateak; izan ere, estatu aberats batek baino ezin diezaioke eutsi hainbeste paperi gainbeheran erori gabe. Eta erortzen ez bada, Estatuak aberastasun handiak eduki behar beste nonbait. Esan ohi da ez dela gaitzik gaitz horren kontrako baliabideak badirelako, eta esan ohi da gaitza ona dela, baliabideek gaitza gainditzen dutelako.

## XVIII

### *Zor publikoen ordainketaz*

Proportzioa egon behar du estatu hartzekodunaren eta estatu zordunaren artean. Estatua mugagabe izan daiteke hartzekodun, baina neurri bateraino bakarrik zordun, eta neurri hori gaindituz gero, hartzekodun titulua ezereztu egiten da.

Estatu horrek, gainera, galerarik izan ez duen kreditua badu, Europako estatu batean<sup>211</sup> arrakasta handiz egin zen zerbeit egin deza-ke: diru-kantitate handia eskuratu, eta partikular guztiei eskaini hura berreskuratzea, salbu eta interesa txikiagotu nahi ez badute. Izan ere, Estatuak dirua mailegutan hartzen duenean interesa partikularrek fin-  
katzen dutenez, Estatuak ordaindu nahi duenean ere berari dagokio  
interesa finkatzea.

Ez da aski interesa txikiagotzea, txikiagotzearen onurak amor-  
tizazio-funtsa osatu behar du urtero kapitalaren parte bat ordaintzeko;  
eragiketa hori are zori onekoagoa da, arrakasta egunetik egunera han-  
dituz doanez.

Estatuaren kreditua osoa ez denean, beste arrazoi bat da hori  
amortizazio-funtsa osatzen saiatzeko, zeren eta funts hori ezarri ondo-  
ren, konfiantza ematen baitu.

1. Estatua errepublika bada —errepublika gobernatzeak, berez,  
luzerako proiektuak burutzea eskatzen baitu—, amortizazio-funtseko  
kapitalak ez dauka oso handia izan beharrik; monarkia batean, kapital  
horrek handiagoa izan behar du.

2. Araudiek Estatuko hiritar guztiek funts horren zama neurri  
berdinean eramateko modukoak izan behar dute, denek baitute zorra-  
ren ezarpenaren zama; Estatuaren hartzekodunak bere buruari ordain-  
tzen dio ematen dituen dirutzez.

3. Estatuaren zorrak ordaintzen dituzten lau jende-mota  
daude: lurren jabeak, beren industria negozio bidez gauzatzen dute-  
nak, nekazariak eta eskulangileak, eta azkenik Estatuaren edo parti-  
kularren errentariak. Lau mota horietatik, azkenak jaso beharko luke  
laguntza gutxien, beharrean gertatuz gero, zeren eta klase guztiz  
pasiboa baita Estatuan; Estatuari beste hiru klaseen indar aktiboak  
eusten dio. Baina laugarren klase hori gehiago zamatu ezin denez  
konfiantza publikoa hautsi gabe —zeinen premia handia baitute  
Estatuak orokorki, eta hiru klase horiek bereziki—; hiritar-kopuru bati  
fedea publikoa falta bazaio, denei falta zaiela ematen baitu; hartzeko-  
dunen klasea ministroen egitasmoen arriskupean dagoenez beti —  
beti eskura eta begimenean baitute—, estatuak babes berezia eman  
behar dio, zordunek inoiz ez dezaten izan inolako abantailarik har-  
tzekodunen gainean.



## XIX

### *Interespeko maileguez*

Dirua balioen zeinua da. Argi dago zeinu horren premia due-nak mailegutan hartu behar duela, behar dituen beste gauza guztiekin egiten duen bezala. Aldea honetan datza, beste gauzak mailegatu edo erosi egin daitezkeela; dirua, berriz, gauzen prezioa denez, mailegatu bai baina ez da erosten<sup>211</sup>.

Ekintza ona da oso inori norberaren dirua interesik gabe mailegatzea, baina bistan da hori erlijio-aholku bat besterik ezin daitekeela izan, ez lege zibila.

Merkataritzan jardun ahal izateko, diruak prezio bat izan behar du, baina prezio hori handia izan gabe. Handiegia bada, tratulariak, ikusirik interesetan aterako lukeen irabazia baino gehiago ordaindu beharko lukeela, ez lioke ezeri ekingo. Diruak preziorik ez badu, berriz, inork ez du mailegutan uzten, eta tratulariak ezin dio ezeri ekin.

Oker nabil inork mailegutan utziko ez lukeela diodanean. Gizarteko aferekin aurrera egin behar dute beti; lukurreria agertzen da, garai guztietan ikusi izan diren desordenak ekarriaz hala ere.

Mahomet-en legeak nahastu egiten ditu lukurreria eta interespeko mailegua. Mahometar herrialdeetan, debekua zenbat eta zorrotzagoa izan, hainbat handiagoa lukurreria; mailegu-emaileak legea haustea dakarkion arriskuaren ordaina jasotzen du.

Ekialdeko herrialde horietan, gizon gehienek ez dute ezer segururik; ia ez dago erlazorik dirutza baten jabe izatearen eta, dirutza hori mailegutan utziz gero, berriro eskuratzeko itxaropenaren artean; beraz, lukurreria handitu egiten da ordainezintasun-arriskuaren proportzioan.

## XX

### *Itsasoko lukurreriez*

Itsas lukurreriaren handitasuna bi gauzatan oinarritzen da: itsasoko arriskuan, zeinen ondorioz dirua irabazi handiak izatekotan baidzik ez baita mailegutan ematen; eta merkataritzak mailegu-hartzailea

ri negozio handi eta ugariak bizkor egiteko ematen dion erraztasunean; lehorreko lukurreria, berriz, legez kanpo jartzen da, edota, zentzuzkoagoa dena, beren neurri egokietan uzten.

## XXI

### *Erromatarren kontratu bidezko maileguaz eta lukurreriaz*

Merkataritzarako egiten den maileguaz gainera, bada kontratu zibilez egindako mailegu moduko bat ere, zeinetatik interes bat sortzen den.

Herriak, erromatarren artean, gero eta indar handiagoa zuenez, magistratuek hura balakatzen eta bere gogokoago izango zituen legeak eginarazten saiatu ziren. Urritu egin zituen kapitalak; jaitsi interesak; debekatu haiek hartzea, kendu zorrengatik atxilotzea; azkenik, zorrak ezabatzeko aukera eztabaidatu zen tribunoren batek herriaren gogoko izan nahi zuenean.

Aldaketa etengabe haiek, dela lege bidez, dela plebiszitoen bidez, arrunt bihurtu zuten Erroman lukurreria; izan ere, hartzekodunek herria beren zordun, legegile eta epailetzat baitzeukaten, galdu egin zuten kontratuekiko konfiantza. Herriak, krediturik gabeko zordun baten antzo, ez zuen mailegu-emailerik aurkitzen, etekin handien truke ez bazen; are gehiago, legeak aldian behin etortzen baziren ere, herriaren kexuak etengabeak ziren, eta izutu egiten zituzten hartzekodunak. Horren ondorioz, mailegutuan emateko eta hartzeko bide zintzo guztiak desagertu egin ziren Erroman, eta lukurreria beldurgarria ezarri zen, beti ezabatu<sup>212</sup> eta beti berragertzen zena. Gaitzaren sorburua gauzak ondo antolatu ez izana zen. Onegiak diren legeek gaitz ezin handiagoa ekartzen dute. Diruaren prezioagatik ez ezik, legearen zigorren arriskuagatik ordaindu beharra gertatu zen.

## XXII

### *Gai beraren jarraipena*

Lehen erromatarrek ez zuten legerik interes-tasa arautzeko<sup>213</sup>. Plebeioen eta patrizioen artean sortu ziren istiluetan, Sakro mendiko

erreboltan<sup>214</sup>, alde batetik fedea eta bestetik kontratuen gogorra besterik ez ziren aipatu.

Beraz, partikularren arteko abenikoei jarraitu zitzaizkien, eta uste dut arruntena urteko ehuneko hamabikoa zela. Uste horren arrazoia haxe da, erromatarren hizkuntza zaharrean, ehuneko seiko interesari lukuruaren erdia deitzen zaiola, ehuneko hiruko interesari lukuruaren laurdena<sup>215</sup>; lukuru osoa, beraz, ehuneko hamabikoa litza-teke.

Galdetuko balitzait nolatan hain interes handia ezarri zen ia merkataritzarik ez zuen herri batean, esango dut herri horrek, maiz gerrara soldatarik gabe joatera behartua, oso maiz izaten zuela mailegutan hartzeko premia eta, espedizio arrakastatsuak etengabe egiten zituenez, maiz zuela ordaintzeko modua. Eta hori argi ageri da auzi hori dela-eta izan ziren istiluetan; inork ez zuen gaitzesten maileguemaileen askonahia, baina esaten da kexu zirenek ordaintzea edukiko zuketela jokabide arautua izan balute<sup>216</sup>.

Beraz, unean uneko balioa zuten legeak egiten ziren. Esate baterako, agintzen zen hartzekodunek ez zeukatela une hartan gerrara joateko izena ematen zutenen kontra jotzerik; preso zeudenak askatu egingo zituztela; pobreenak kolonietara eramanak izango zirela; batzuetan altxor publikoa irekitzen zen. Herria bakeratu egiten zen une hartako gaitzak arintzean, eta ondoren ezer eskatzen ez zuenez, senatua ez zen arduratzen gaitzei aurrea hartzen.

Senatuak lukurrerien alde hain setatsu jokatzeko garaian, pobrezia, neurritasuna, urritasunarekiko maitasuna oso handia zen erromatarren artean, baina konstituzioaren izaera zela medio, hiritar lehenek hartzen zituzten beren gain Estatuaren karga guztiak, eta herri xeheak ez zuen ezer ordaintzen. Nola kendu haiei beren zordunen atzetik jotzeko eta zorrak kitatzera behartzeko eskubidea, hartara errepublikaren behar premiatsuak betez?

Tazitok dio<sup>217</sup> Hamabi Tauletako legeak urteko ehuneko batean finkatu zuela interesa. Bistan da oker dabilela, eta oraintxe hizpide hartuko dudako beste lege bat hartu duela Hamabi Tauletako legeztat. Hamabi Tauletako legeak hori finkatua bazuen, nolatan ez ziren baliatu haien itzalaz, harrezkero hartzekodunen eta zordunen artean izan ziren eztabaidetan? Ez da ageri lege horren inongo aztarrenik

interespeko maileguaz, eta ez dago Erromako historian oso aditua izan beharrik zera ikusteko, halako lege bat ezin zela dezenbiroek egina izan.

Liziniar Legea, Hamabi Tauletako legea baino lauogeita bost urte<sup>218</sup> geroago egin, aipatu ditugun lege iragankor horietako bat izan zen. Zera agindu zuen, kapitaletik interesetan ordaindutakoa kenduko zela, eta beste guztia hiru ordainketa berdinetan kitatuko zela.

Erromako 398. urtean, Duelio eta Menenio tribunoek interesak urteko ehuneko batean ezartzen zituen lege bat eman zuten<sup>219</sup>. Lege hori da Tazitok<sup>220</sup> Hamabi Tauletako legearekin nahasten duena, eta erromatarrek interes-tasa finkatzeko egindako lehena da. Hamar urte geroago<sup>221</sup>, lukuru hori erdira jaitsi zen<sup>222</sup>; geroago erabat kendu zen<sup>223</sup>, eta Tito Liviok aztertu zituen zenbait autoreri sinesten badiegu, hori K. Marzio Rutilio eta K. Servilio kontsul zirelarik<sup>224</sup> gertatu zen, Erromako 413. urtean.

Lege horri legegileak gauzak muturreraino eramaten dituen bezala gertatu zitzaion: hura saihesteko modu bat aurkitu zen. Beste asko egin behar izan ziren hura berresteko, zuzentzeko, malgutzeko. Batzuetan legeak kentzen ziren, eta usadioak hartzen arautzat<sup>225</sup>; beste batzuetan, usadioak kendu eta legee jarraitzen zitzaizkien; baina kasu honetan usadioa erraz nagusitu zen. Gizon batek mailegutuan hartzen duenean, bere alde egindako legea bera du oztopo: lege horrek bere kontra ditu bai aldezen duena eta bai kondenatzen duena. Senpronio Aselo pretoreak zordunei legeen arabera jokatzeko utzi ondoren<sup>226</sup>, hartzekodunek hil egin zuten<sup>227</sup>, berriro ezineko zurruntasun bat gogora ekartzeagatik.

Hiritik alde egin eta probintziei emango diet orain begia.

Esan dut beste nonbait<sup>228</sup> erromatar probintziak gobernu-era despotiko eta gogor batek sakailatuta zeudela. Hori ez da dena: lukurreria izugarriek ere sakailatuta zeukaten.

Zizeronek dio<sup>229</sup> Salaminakoek dirua mailegutuan eskatu nahi ziotela Erromari, eta Gabiniar Legeagatik ezin zutela hori egin. Azter dezagun zer zen lege hori.

Erroman interespeko maileguak debekatu zirenean, era guztietako bideak imajinatu ziren legea saihesteko<sup>230</sup>, eta aliatuak<sup>231</sup> eta latindarren naziokoak ez zeudenez erromatarren lege zibilen mende, latin-

dar batez edo aliatu batez baliatzen ziren, hark bere izena utzi eta hartzekodun gisa azal zedin. Legeak hartzekodunak formaltasun baten mende jarri besterik ez zuen egin, eta herriak ez zuen lasaiturik.

Herria kexu zen iruzur hura zela eta, eta Marko Senpronio herri-tribunoak plebiszito bat eginarazi zuen senatuaren agintearen izenean<sup>232</sup>, zera zioena: maileguei zegokienez, bi erromatarren arteko interespeko maileguak debekatzen zituzten legeek erromatar baten eta aliatu edo latindar baten artekoak ere debeka zitzatela.

Garai hartan, aliatu deitzen zieten Arno eta Rubicon ibaietaraino hedatzen ziren Italiako herriei, alde hura ez baitzegoen erromatar probintzia gisa gobernatuta.

Tazitok dio<sup>233</sup> iruzur berriak egiten zitzaizkiela etengabe lukurreria geldiarazteko egindako legeei. Aliatu baten izenaz baliatuta maileguak eman edo hartzerik egon ez zenean, erraz ateratzen zuten probintzietako gizonen bat, bere izena uzten ziena.

Beste lege bat behar zen gehiegikeria horren kontra, eta Gabiniok<sup>234</sup>, xedetzat sufragioetako ustelkeria geldiaraztea zuen lege famatua eginez, pentsatu bide zuen hura lortzeko biderik egokiena maileguei oztopoak jartzea zela. Bi gauza horiek berez lotuta zeuden; izan ere, lukurreria ugaritu egiten zen beti hauteskunde-garaietan<sup>235</sup>, dirua behar zelako botoak irabazteko. Bistan da Gabiniar Legeak probintzietara zabaldua zuela Senproniar senatu-kontsultua, salaminatarrek, lege hori zela medio, ezin zitelako dirurik mailegutuan hartu erromatarrei. Brutok, izen faltsuez baliatuz, hileko ehuneko lauan<sup>236</sup> mailegatu zien<sup>237</sup>, eta hartara bi senatu-kontsultu lortu zituen, zeinetarik lehenengoan esaten baitzen mailegu hura ez zela hartuko legeari egindako iruzurtzat, eta Ziliziako gobernadoreak salaminatarren biletan adierazten ziren abenikoen arabera epaituko zuela<sup>238</sup>.

Gabiniar Legeak probintzietakoen eta hiritar erromatarren artean interespeko mailegurik izatea debekatu zuenez, eta erromatarrek orduan munduko diru guztia bere eskuetan zeukatenez, interes handien bidez tentatu behar izan zitzairen, askonahiaren irrikak zorra ez berreskuratzeko arriskua aherentzaraz ziezairen. Eta Erroman epaileak izutzen zituzten jende ahaltsuak zeudenez, eta legeak isilarazten zituztenez, ausartago jokatu zuten maileguak ematen, eta ausartago eskatu zituzten interes handiak. Horrek zera ekarri zuen, Erroman kreditua

zuten guztiek, hurrenez hurren, sakailatu egin zituztela probintziak, eta gobernadore bakoitzak probintzian sartzean bere ediktua egiten zuenez<sup>239</sup>, eta bertan nahi zuen tasa ezartzen baitzion interesari, asko-nahiak lagundu egiten zion legeriari, eta legeriak askonahiari.

Negozioek aurrera egin behar dute, eta estatu bat galdua da bertan goxo egiten badu. Abagune batzuetan, beharrezkoa zen hiriek, hirietako gorputz eta elkarteek eta partikularrek dirua mailegutan hartzea, eta mailegutan hartzeko premia handiegia zen, besterik ez bazen ere armaden sakailatzeak ordaintzeko, magistratuen lapurretak, tratu-larien kobraketa gaitzak eta egunero gertatzen ziren usadio txarrak ordaintzeko; izan ere, inoiz ez zen inor hain pobre edo hain aberats izan. Senatuak, botere betearazlea baitzuen, erromatar hiritarrengandik mailegutan hartzeko baimena ematen zuen, batzuetan behar hutsez, besteetan fabore gisa, eta senatu-kontsultuak egiten zituen horretarako. Baina legeak beren ospea kentzen zien senatu-kontsultu horiei; senatu-kontsultu haiek<sup>240</sup> taula berriak eskatzeko bidea eman ziezaioketen herriari, eta horrek, kapitala galtzeko arriskua areagotuz, lukurreria ere areagotu egiten zuen. Beti esango dut hau: neurritasunak gobernatzen ditu gizonak, ez gehiegikeriak.

Ulpianok dio<sup>241</sup> gutxiago ordaintzen duela beranduen ordaintzen duenak. Printzipio honek gidatu zituen legegileak erromatar errepublika suntsitu eta gero.

# HOGETA HIRUGARREN LIBURUA

Legeez, biztanle-kopuruarekin duten  
zerikusiaren aldetik

## I

*Gizaki eta animaliez, beren espezieen ugaltzearekin duten  
zerikusiaren aldetik*

Oi Venus! Oi Amodioaren ama!

Zure argizagiak dakarren lehen egun ederretik,  
Zefiroek beren hats maitasunezkoa sentiarazten dute;  
Lurrak kolore distiratsuz apaintzen du bere magala,  
Eta airea loreen urrin gozoaz betetzen da.  
Txoriak aditzen dira, zure ahalaz harrituta,  
Zure presentzia mila tonu lizunetan ospatzen;  
Txahal ederragatik, zezen suharrak ageri dira,  
Edo zabaldian saltoka, edo ibaiak zeharkatzen;  
Azkenik, baso eta mendietako biztanleak,  
Ibai, itsaso eta landalde berdeetakoak,  
Zure kariaz amodioaren eta desiraren sutan,  
Ugaltzeari ekiten diote plazerraren erakarmenez;  
Hain gogo handiz jarraitu nahi zaizkizu,  
hain da xarmanta nagusigo hori,  
arnasten duen orori edertasuna ematen diona<sup>242</sup>.

Animalien emeek ugalkortasun beti berdina dute gutxi gorabehera. Baina giza espeziean, pentsaerak, jiteak, grinek, fantasiek, apetek, edertasuna iraunarazteko asmoak, haurdunaldiko trabek, familia ugriegia izateak, mila eratan nahasten dute ugaltzea.

## II

### *Ezkontzez*

Aitak haurrei jaten emateko duen obligazio naturalak ezkontza ezarrarazi du, ezkontzak betebeharrak hori nori dagokion adierazten baitu. Ponponio Melak<sup>243</sup> aipatzen dituen herriek<sup>244</sup> antzaren arabera finkatzen zuten hori.

Zibilizatutako herrietan, aita legeek, ezkontzako zeremoniaren bidez, halakotzat deklaratu dutena da<sup>245</sup>, legeok hartan aurkitzen dutelako bilatzen duten pertsona.

Betebeharrak hori, animalien artean, amak betetzeko modukoa izan ohi da gehienetan. Baina gizakien artean zabalagoa da: haurrak arrazoiz hornituta daude, baina hori pixkanaka etortzen zaie; ez da aski seme-alabei jaten ematea, gidatu ere egin behar dira; bizitzerik izango lukete, baina ez beren buruak gobernatzerik.

Elkartze legeak kanpokoek gutxi laguntzen dute espeziea ugaltzen. Aita, haurrei jaten eman eta hezteko berezko betebeharrak daukalarik, ez dago zehaztuta; eta betebeharrak amari geratzen bazaio ere, mila oztopo ditu: lotsa, damua, bere sexuari dagokion lotura, legeen gogortasuna direla medio, gehienetan ez du bitartekorik izaten.

Prostituzio publikoari lotutako emakumeek ez daukate beren haurrak hezteko erosotasunik. Heziketa horri dagozkion nekeak haien egoerarekin bateraezinak dira, eta hain daude galduta, non ezin baitute legearen konfiantzarik izan.

Horren guztiaren ondorioa hau da, kontinentzia publikoak berez dagokiola espeziea ugaltzeari.



### III

#### *Haurren egoeraz*

Arrazoiak agintzen du ezen, ezkontza badenean, haurrak aita-ren egoerari jarraitu behar zaizkiola, eta ezkontzarik ez denean, amari baino ez dagozkiola<sup>246</sup>.

### IV

#### *Familiez*

Ia alde guztietan onartuta dago emaztea senarraren familiara pasatzen dela. Kontrakoa dago ezarrita Formosan<sup>247</sup>, inolako eragoz-penik gabe: han senarra pasatzen da emaztearen familiara. Lege horrek, familia sexu bereko pertsonen segidan finkatzen baitu, asko egiten du, lehen motiboez gainera, giza espeziea ugaltzeko. Familia jabego-modu bat da: gizon batek, familiari ondorengotza emango dion sexuko haurrik ez badu, ez du etsiko ondorengotza emango dion sexuko haurra izan arte.

Izenak, hilko ez den zerbaiten ideia ematen baitiete gizakiei, oso egokiak dira familia bakoitzari denboran zehar irauteko desira sorrarazteko. Herri batzuetan izenek familiak bereizten dituzte; beste batzuetan, berriz, pertsonak baizik ez dituzte bereizten, eta hau ez da hain ona.

### V

#### *Emazte legezkoen motez*

Batzuetan legeek eta erlijioak hainbat motatako elkartze zibila ezarri dituzte. Hori horrela da mahometarren artean, non hainbat emazte-mota baitaude, zeinen haurrak etxean jaiotzen direlako ezagutzen diren, edo kontratu zibilengatik, edo ama esklabo izan eta, ondorioz, aitak haurra beretzat hartzen duelako.

Arrazoiaren kontrakoa litzateke legeak haurrengan desohoratztea aitagan onartu duena: haur horiek guztiek izan behar dute haren oinordeko, arrazoi bereziren bat kontra ez bada, Japonian bezala, non enperadoreak emandako emaztearen haurrak bakarrik baitira oinordeko. Politikak han eskatzen du enperadoreak emandako ondasunak ez direla gehiegi zatikatu behar, zerbitzupean daudelako, behinola gure feudoak zeuden bezala.

Herrialde batzuetan legezko emazteak, etxean, gure klimetan emazte bakarrak dituen ohoreak ditu; han, ohaideen haurrak lehen emaztearen haurtzat hartzen dira. Horrela dago ezarrita Txinan. Gurasoenganako begirunea<sup>248</sup>, dolu larrizko zeremonia, ez zaio zor ama naturalari, legeak ematen duen amari baizik.

Horrelako fikzio baten laguntzaz<sup>249</sup>, ez dago sasikumerik, eta horrelako fikziorik ez den herrialdeetan, argi ageri da ohaideen haurrak legeztatzen dituen legea bortxaz egindako legea dela; izan ere, legeak nazioaren gehiengoa desohoratuko bailuke. Ez da, halaber, adulterio-haurrik herrialde horietan. Emakumeak banantzeak, itxiturak, eunukoek, sarrailek, hain zail egiten dute adulterioa, non legeak ezinezko jotzen baitu. Bestalde, ezpata berberak hilko lituzke haurra eta ama.

## VI

### *Gobernu-era desberdinetako sasikumeez*

Hala, bada, ez da ezagutzen sasikumerik poligamia onartuta dagoen herrialdeetan. Emazte bakarraren legea ezarrita dagoenetan, orde, ezagutzen dira. Herrialde horietan, ohaidetza desohoratu egin behar izan da, eta, beraz, baita hortik sortu diren haurrak ere.

Errepubliketan, ohiturek aratz izan behar baitute, sasikumeak monarkietan baino gorrotatuagoak dira.

Beharbada Erroman xedapen gogorregiak hartu ziren haien kontra. Baina instituzio zaharrek hiritar guztiak ezkontzera behartzen zituztenez, eta ezkontidea zapuzteko edo dibortziazteko baimenari esker ezkontza leunduta zegoenez, ohituren ustelkeria izugarri batek baizik ezin zezakeen ohaidetza ekar.

Azpimarratu behar da ezen, hiritartasuna demokrazietan aintzakotzat hartuta zegoenez —berekin baitzeraman botere soberanoa—, batez ere sasikoen egoerari buruzko legeak egiten zirela han, eta lege haiek zerikusi gutxiago zutela gauzarekin berarekin eta ezkontzaren onetasunarekin, errepublikaren konstituzio partikularrarekin baino. Esate baterako, herriak hiritartzat hartu izan ditu batzuetan sasikumeak<sup>250</sup>, handien aurrean bere indarra handiagotzeko. Orobat, Atenasen, herriak kendu egin zituen sasikumeak hiritarren artetik, Egiptoko herriak bidalitako garitik parte handiagoa izateko. Azkenez, Aristotelesek erakusten digunez<sup>251</sup>, hainbat hiritan, nahikoa hiritar ez zegoenean, sasikumeak oinordeko omen ziren, eta nahikoa zirenean, berriaz, ez.

## VII

### *Aitak ezkontzari baiezkua emateaz*

Aitaren onerizkoa bere boterean oinarrituta dago, hots, jabetza-eskubidean; maitasunean ere oinarrituta dago, eta arrazoian, eta haurren arrazoiaren ziurgabetasunean, adinak ezjakintasun-egoeran baitauzka, eta grinek mozkor-egoeran.

Errepublika txikietan, edota aipatu ditugun instituzio berezietan, izan daitezke magistratuei hiritarren haurren ezkontzak ikuskatzeko gaitasuna —berez aitarena dena— ematen dieten legeak. On publikoaren maitasuna hainbestekoa izan daiteke han, non beste edozein maitasunen gainetik jartzen baita. Hori dela eta, Platonek magistratuek ezkontzak arautzea nahi zuen; eta lazedemoniar magistratuek gidatu egiten zituzten.

Baina instituzio arruntetan, aitei dagokie haurrak ezkontzea; haien zuhurtzia, alde horretatik, beste edozein zuhurtziaren gainetik izango da. Naturak gurasoei haurrek ondorengoak izan ditzaten desira ematen die, haurrek berez desira hori ia sentitzen ez badute ere. Aitakotza-gradu desberdinetan, etorkizunerantz aurrera doazela ikusten dute. Baina zer gertatuko litzateke baldin eta laidoek eta asko-nahiak aiten autoritatea besterenduko balute? Ikus dezagun zer dioen Thomas Gage-k<sup>252</sup> espainiarrek Indietan izandako jokabideaz:

«Zergak ordaintzen dituztenen kopurua handitzeko, hamabost urte dituzten indiar guztiek ezkondu beharra daukate; eta hamalau urtetan ere arautu izan da indiarren ezkontza-adina, gizonezkoei dagokienez, eta hamahirutan emakumeei dagokienez. Zuzenbide kanonikoaren arau batean oinarritzen dira: maleziak adina ordezkatzeko». Errolda horietako bat egiten ikusi zuen; gauza lotsagarria izan zen, berak dioenez. Beraz, munduko gauzarik libreena behar lukeen horretan ere, indiarrek esklabo dira.

## VIII

### *Gai beraren jarraipena*

Ingalaterran, alabek maiz hausten dute legea eta beren gogara ezkontzen dira, gurasoei aholku eskatu gabe. Ez dakit usadio hori han beste leku batzuetan baino errazago onar daitekeen, arrazoi honengatik: legeek zelibato monastikorik ezarri ez dutenez, alabek ez dute ezkontza beste egoerarik hartzeko, eta ez daukate hari ezetza ematerik. Frantzian, ordea, lekaimetza ezarrita dagoelarik, neskek beti dute zelibatoaren aukera, eta gurasoen onespenera itxaroteko agintzen dien legea komenigarriagoa liteke. Alde honetatik, Italiako eta Espainiako usadioa da arrazoiz kontrakoena: ezarrita dago lekaimetza, eta bada-go ezkontzerik aitaren baimenik gabe.

## IX

### *Neska gazteez*

Neska gazteak ezkontzaren bidez baizik ez dira plazerretara eta libertatera iristen; pentsatzen ausartzen ez den espiritua dute, sentitzen ausartzen ez den bihotza, ikusten ausartzen ez diren begiak, entzuten ausartzen ez diren belarriak, eta inozo agertzeko baizik ez dira aurkeztzen; etengabe kondenatuta daude huskeria eta arauak betetzera. Horien guztien ondorioz, nahiko emanak dira ezkontzara. Mutil gazteak, berriz, adoretu egin behar dira hartarako.

## X

### *Ezkontzara bultzatzen duena*

Bi pertsonak eroso bizitzea daukaten leku bat inon baldin bada, ezkontza egiten da. Naturak horretara eramaten du, elikatzeko zailtasunak geldiarazten ez duenean.

Herri gazteak asko ugaltzen eta hazten dira. Zelibatoan bizi beharra neke handia litzateke haientzat, baina seme-alaba asko izatea ez. Kontrakoa gertatzen da nazioa osatuta dagoenean.

## XI

### *Gobernuaren gogortasunaz*

Ezertxo ere ez dutenek, eskaleek-eta, haur asko izaten dituzte. Horiek ere herri jaio berrien kasuan baitaude: aitari ez zaio batere kostatzen seme-alabei bere lanbidea ematea; izan ere, haur horiek jaiotakoan lanbide horretarako tresna izaten baitira. Jende hori, herrialde aberats edo superstiziotsu batean, ugaltu egiten da, ez daukalako gizartearen zama eraman beharrik; berak dira gizarte horren zama. Baina pobre izatea gobernu-era gogor baten mende bizi izateari zor diotenek, beren lurrak bizibide gisa ez baina irainerako aitzakia gisa ikusten dituztenek; jende horiek, diot, haur gutxi izaten dituzte. Ez dute ezta jateko ere edukitzen; nola hasiko dira inorekin partitzen? Ezin dute beren burua zaindu gaixo direnean; nola haziko dituzte etengabe gaixo dauden haurrak?; izan ere, haurtzaroa horixe baita, gaixotasun etengabea.

Hitz egiteko errazkeriak, eta aztertzeke ezinak esanarazi dute honako hau: zenbat eta pobregoa sujetak, hainbat ugariago familiak; zenbat eta zergaz zamatuago, hainbat eta errazago ordainbidea: bi sofisma horiek beti hondatu dituzte eta beti hondatuko dituzte monarkiak.

Gobernuaren gogortasunak sentimendu naturalak berak ere honda ditzake, sentimendu naturalen beren bitartez. Amerikako emakumeek<sup>253</sup> ez al zuten bada abortatzen, beren haurrek nagusi ankerrak izan ez zituzaten?

## XII

### *Herrialde desberdinetako neska eta mutilen kopuruaz*

Esan dut<sup>254</sup> European mutil gehiago jaiotzen direla neskak baino. Aipatu dut<sup>255</sup> Japonian mutilak baino neska gehixeago jaiotzen direla. Gauzak bere horretan jarraituz gero, emakume emankor gehiago izango da Japonian European baino, eta, beraz, jende gehiago.

Zenbait kontakizunek diotenez<sup>256</sup>, Bantam-en hamar neska omen daude mutil bakoitzeko; horrelako desproporzio bat gehiegizkoa litzateke: famili kopurua, beste klimetako kopuruen aldean, bat eta bost eta erdiren arteko proporzioan egotea ekarriko luke. Familiak handiagoak izan ahalko lirateke, noski, baina oso jende gutxi dago hain familia handia hazteko bezain modu onean.

## XIII

### *Itsas portuez*

Itsas portuetan, non gizakiak mila arriskutan baitaude, eta urruneko klimetan bizi edo hiltzera baitoaz, emakume baino gizonezko gutxiago dago; hala ere, beste leku batzuetan baino haur gehiago ikusten dira han. Hori bizibide errazari zor zaio. Baliteke arrainaren olio-partreak egokiagoak izatea gizakiak sortzeko behar den gai horretaz hornitzeko. Horixe litzateke Japonian<sup>257</sup> eta Txinan<sup>258</sup> —han ia arrain hutsez bizi baitira<sup>259</sup>— hainbeste eta hainbeste jende izatearen kause-tako bat. Hori horrela balitz, zenbait arau monastiko, arrainez elikatzen behartzen dutenak, arau-emailearen espirituaren kontra leudeke.

## XIV

### *Gizon gehiago edo gutxiago eskatzen duten lur-emariak*

Larre-herrialdeak gutxi populatuta daude, jende gutxi baitauka han bizibidea; gari-lurrek gizon gehiagori ematen diete lana, eta mahastiek askoz gehiago.

Ingalaterran<sup>260</sup> maiz kexatu izan dira larreak hedatzeak biztanleak gutxitzen zituela, eta Frantzian ikusten denez, mahasti-kopuru handia da biztanle-ugaritasunaren kausa lehenetako bat.

Ikatz-meategiek erregaiaz hornitzen dituzten herrialdeek abantaila hau dute besteen gainean, han ez dela basorik behar, eta lur guztiak lan daitezkeela.

Arroz-lurretan lan handiak behar dira urak erabiltzeko, eta hartara jende askok du horretan lanbidea. Are gehiago: lur gutxiago behar da familia bati bizibidea emateko, beste ale-mota batzuk produzitzen dituzten herrialdeetan baino; azkenik, lurra, beste leku batzuetan abereak bazkatzeko erabiltzen den bezala, han gizakien bizibiderako da zuzenean; beste lekuetan abereek egiten duten lana, han gizakiek egiten dute, eta hartara laborantza egundoko lantegia bihurtzen da gizakientzat.

## XV

### *Biztanleen kopuruaz, industriei dagokienez*

Lurraren lege bat dagoenean, eta lurak berdin partituta daudenean, herrialdea oso populatuta egon daiteke, nahiz eta industria gutxi izan, hiritar bakoitzak lurra lantzetik atera baitezake bizibidea, eta hiritar guztiek kontsumitzen baitituzte herrialdeko fruitu guztiak. Halaxe zen antzinako zenbait errepublikatan ere.

Baina gaur egungo estatuetan, lur-sailak desberdin banatuta daude; lurak laborariek kontsumi dezaketena baino gehiago ematen du, eta beste langintzak baztertu eta nekazaritzara mugatuz gero, herrialdea ezin da populatu. Lurra lantzen edo lanarazten dutenak, fruitu-soberakina dutenez, ezerk ez ditu behartzen hurrengo urtean lan egitera; aisian bizi den jendeak ez lituzke kontsumituko fruituak, jende horrek ez lukeelako zerekin erosi. Hala, bada, industriak ezartzea beharrezkoa da laborariek eta eskulangileek fruituak kontsumi ditzaten. Hitz batez, estatu horiek beharra dute jende askok beharrezko dena baino gehiago produzi dezaten lurretik. Horretarako, beharrezko ez dena edukitzeko gogoia sorrarazi behar zaie. Baina gogo hori eskulangileek baizik ez dute ematen.

Makinak xedetzat langintza erraztea badaukate ere, ez dira beti baliagarriak. Obra batek prezio ertaina badu, bai erosleari eta bai egileari komeni zaiena, hura egitea sinpletuko luketen makinak, hau da, langile-kopurua gutxituko luketenak, kaltegarriak lirateke; eta uretako errota noranahi zabalduak ez balira, ez nituzke joko esan ohi duten bezain baliagarritzat, beso ugari atsedenean utzi dituztelako, jende askori ura erabiltzea galarazi diotelako, eta lur askori emankortasuna galarazi dietelako.

## XVI

*Lege gileak espeziearen ugaltzeaz dituen ikuspegiez*

Hiritarren kopuruari buruzko araudiak zirkunstantzien gorabeheran daude neurri handi batean. Zenbait herrialdetan naturak dena egin du; legegileak, bada, ez dauka zereginik han. Zertan hasi jendea lege bidez ugaltzera behartzen, klimaren emankortasunak nahikoa jende sorrarazten duenean? Batzuetan klima lurraldea baino hobea izaten da: herria ugaltu egiten da, baina goseteek zafratu egiten dute: kasu horretan dago Txina. Han aita saldu egiten ditu alabak, eta abandonatu egiten ditu semeak. Kausa berberak ondorio berberak dituzte Tonkinen<sup>261</sup>, eta ez dago, bidaiari arabek egiten duten bezala —hauen berri Renaudotek eman digu<sup>262</sup>—, metenpsikosian sinetsi beharrik horretarako.

Arrazoi berberengatik, Formosako uhartean<sup>263</sup> erlijioak ez die uzten emakumeei haurrik mundura ekartzen hogeita hamabost urte bete arte; adin hori baino lehen, apaiz andreak sabela zanpatzen die, eta umea galarazten.

## XVII

*Greziaz eta hango biztanle-kopuruaz*

Efektu hori kausa fisikoei zor zaie Ekialdeko zenbait herrialdetan, baina Grezian gobernu-erak eragin zuen. Greziarrek hiriz osatutako nazio handia osatzen zuten, hiri bakoitzak bere gobernu-era eta



bere legeak zituelarik. Ez ziren Suitza, Alemania eta Holandakoak gaur egun direna baino konkistazaleago. Errepublika bakoitzean, lege-gileak hiri barruan hiritarren zoriona zuen xede, eta kanpoan auzoko hiriena bezain indar handia izatea, gutxienez<sup>264</sup>. Lurralde txikia eta zorion handia izanda, erraza zen hiritar-kopurua ugaltzea, eta zama bihurtu zen; hori dela eta, koloniak egin zituzten etengabe<sup>265</sup>; beren buruak saldu zituzten gerrarako, gaur egun suitzarrek egiten duten bezala; ez zuten ahaztu haur-gehiagiari oztopo egingo zionik ezer.

Haien artean konstituzio bereziko errepublikak zeuden. Menderatutako herriek hiritarrei bizibiderakoak hornitzera behartuta zeuden: lazedemoniarrei ilotek ematen zieten jaten; kretarrei, perieziarrek; tesaliarrei, penesteek. Gizon libreen kopuru jakin bat egon behar zuen, esklaboek haien bizibiderakoak hornitzeko moduan izateko. Gaur egun esaten dugu mugatu beharra dagoela araupeko tropen kopurua; bada, Lazedemonia nekazariak mantentzen zuten armada zen; beraz, armada hura mugatu beharra zegoen, zeren eta, hori gabe, gizon libreak, gizarteko abantaila guztiak zituztenak, etengabe ugari-tuko baitziratekeen, eta laborariak unatu egingo ziratekeen.

Greziako politikariak, bada, hiritarren kopurua arautzeari atxiki zitzaizkion. Platonek<sup>266</sup> bost mila eta berrogeitan finkatu zuen kopuru hori; eta ugaltzea geraraztea edo sustatzea gomendatzen du, premien arabera, ohoreen, lotsaren eta zaharren aholkuen bidez; ezkontzen kopurua ere arau zedin nahi zuen<sup>267</sup>, hala non herria Errepublika gehiegi zamatu gabe berri dadin.

Baldin eta herrialdeko legeak, dio Aristotelese<sup>268</sup>, haurrak abandonatzea debekatzen badu, mugatu egin beharko da bakoitzak izan ditzakeenen kopurua. Legeak zehaztutako kopurua baino haur gehiago izanez gero, fetuak bizia izan aurretik emakumeari umea galaraztea aholkatzen du<sup>269</sup>. Kretarrek haur gehiegi ez izateko erabiltzen duten bide lotsagarria Aristotelese<sup>270</sup> agertzen digu; lotsak geldiarazi nau haren berri eman nahi izan dudanean.

Zenbait lekutan, dio berriz ere Aristotelese<sup>270</sup>, legeak hiritar egiten ditu atzerritarrak edo sasikoak, edota ama hiritar batengandik jaiotakoak; baina nahikoa herritar dagoenean, ez dute horrelakorik onartzen. Kanadako basatiek erre egiten dituzte preso hartutakoak, baina haiei emateko etxola hutsak badituzte, beren naziokotzat onartzen dituzte.

Petty zaldunak atera zuen bere kalkuluetan ezen gizon batek Aljerren izango lukeen prezioa balio duela Ingalaterran<sup>271</sup>. Horrek Ingalaterrarentzat bakarrik balio du: zenbait herrialdetan gizon batek ez du ezer balio; beste zenbaitetan, ezer ez baino gutxiago.

## XVIII

*Erromatarrek baino lehenagoko herrien egoeraz*

Italia, Sizilia, Asia Txikia, Espainia, Galia eta Germania, Grezia bezalakoak ziren gutxi gorabehera: herri txikiz beteak, eta biztanlez gainezka; han ez zen legeen beharrik kopurua emendatzeko.

## XIX

*Mundua jendez gabetzea*

Errepublikak txiki haiek guztiak handi batek irentsi zituen, eta ezari-ezarian mundua jendez gabetuz joan zen; ez dago ikusi besterik zer ziren Italia eta Grezia erromatarren garaitzen aurretik eta ondoren.

«Galdetuko zait», dio Tito Livio<sup>272</sup>, «nolatan aurkitu dituzten volskoek nahikoa soldadu gerra egiteko, hain maiz garaituak izan eta gero. Populazio amaigabeak behar zuen egon paraje haietan; gaur egun, ordea, basamortu huts lirатеke, han zenbait soldadu eta zenbait esklabo erromatar ez balira». «Orakuluak amaitu dira», dio Plutarkok<sup>273</sup>, «haiek mintzatu ohi ziren lekuak suntsituta daudelako; gaur egun nekez aurkituko lirатеke hiru mila gerrari Grezian».

Honela dio Estrabonek<sup>274</sup>: «Ez ditut deskribatuko Epiroa eta inguruak, herrialde horiek mortu baitaude erabat. Jendez gabetze horrek, oso aspaldi hasiak, oraindik ere badirau, eta soldadu erromatarrek abandonatutako etxeetan dute kanpamendua». Polibioren obran aurkitzen du horren kausa. Honek dio Paulo Emiliok, bere garaitzaren ondoren, Epiroko hirurogeita hamar hiri suntsitu zituela, eta ehun eta berrogeita hamar mila esklabo eraman zituela handik.

## XX

*Erromatarrek legeak egin beharra izan zutela ugalduko baziren*

Erromatarrek, herri guztiak suntsitzean, beren burua suntsitzen zuten. Etengabe ekinean, ahaleginean eta bortxan, beti erabili ohi dugun arma bat bezala higitzen ziren.

Ez naiz mintzatuko hemen nola arduratu ziren hiritar berriak bereganatzen<sup>274</sup>, zituztenak galdu ahala; zer elkarte egin zituzten; eman zituzten hiritartasun-eskubideez, ezta esklaboen artean aurkitu zuten hiritar-haztegi neurrigabeaz ere. Nik zera esango dut, zer egin zuten, ez hiritarren galera konpontzeko, baizik eta gizaki-galera konpontzeko, eta legeak bere egitasmoekin ondoen egokitu zituen herria izan zirenez, ez da alferrikakoa izango alde horretatik egin zutena aztertzea.

## XXI

*Erromatarrek ugalketaz egin legez*

Erromako lege zaharrek ezkontzera bultzatu nahi zituzten hiritarrak. Senatuak eta herriak horretarako araudiak egin zituzten maiz, Augustok, Dionek dakarren harengan<sup>276</sup>, dioen bezala.

Dionisio Halikarnasokoak<sup>277</sup> ezin du sinetsi veiarrek hildako hirurehun eta bost fabiarren heriotzaren ondoren leinu horretatik haur bakar bat geratu izana, artean<sup>278</sup> indarrean zegoelako lege zaharra, hiritar bakoitzari ezkontzeko eta haur guztiak hazteko agintzen zuena. Legeez gainera, zentsoreek zaindu egiten zituzten ezkontzak, eta, errepublikaren premien arabera, hartara behartzen zuten<sup>279</sup> lotsaren eta zigorren bidez.

Ohiturek, usteltzen hasi baitziren, asko lagundu zuten hiritarrak ezkontzatik atzerarazten, hark penak eta nekeak besterik ez baitakartzat inozentziaren plazerretarako sentimenik ez dutenentzat. Horixe da Metelo Numidikok bere zentsore-aldian herriari egindako harengaren espiritua<sup>280</sup>. «Emazterik ez izatea posible balitz, gaitz

horretatik libratuko ginateke, baina naturak haiek gabe ez zoriontsu bizitzerik ez irauterik dagoela ezarri duenez, hobe da gure iraupenaz arduratzea, atsegin iragankorrez baino».

Ohituren usteltzeak desegin egin zuen zentsoretza, hura ere ohituren usteltzearen kontra ezarria izan arren; baina usteltze hori orokor bihurtu zenean, zentsoretzak ez zuen indarrik izan<sup>281</sup>.

Liskar zibilek, triunbiratoek, legez kanpo uzteek, aurrez egin-dako edozein gerrak baino gehiago ahuldu zuten Erroma; hiritar gutxi geratzen ziren<sup>282</sup>, eta gehienak ez zeuden ezkontuta. Azken gaitz honi erremedioa jartzeko, Zesarrek eta Augustok berriro ezarri zuten zentsore kargua, eta berak zentsore izan ziren<sup>283</sup>. Hainbat araudi egin zituzten. Zesarrek saritu egin zituen haur asko zituztenak<sup>284</sup>; berrogeita bost urtetik beherako emakumeei, senarrik eta haurrik ez bazuten, harribitxiak janzteia eta ohatilez baliatzea debekatu zien<sup>285</sup>; metodo ezin hobea zelibatoari handinahia zela medio erasotzeko. Augustoren legeak zorrotzagoak izan ziren<sup>286</sup>; zigor berriak ezarri zizkien<sup>287</sup> ezkontuta ez zeudenei, eta emendatu egin zituen ezkontuta zeudenen eta haurrak zituztenen sariak. Tazitok Juliar deitzen die lege horiei<sup>288</sup>; badirudi bateratu egin zirela senatuak, herriak eta zentsoreek egindako araudi zaharrak.

Augustoren legeak mila oztopo izan zituen, eta hogeita hamalau urte beranduago<sup>289</sup> Erromako zaldunek hura indargabetzeko eskatu zuten; alde batean ezkonduak jartzeko agindu zuen, eta bestean ezkongabeak; azken hauek ugariago agertu ziren, eta horrek harritu egin zituen hiritarrak, eta nahastu ere bai. Augusto, antzinako zentsoreen seriotasunaz, honela mintzatu zitzaien<sup>290</sup>:

«Gaixotasunek eta gerrek hainbeste hiritar eramaten dizkiguten bitartean, zer bihurtuko da hiria baldin eta ezkontza gehiago ez bada? Hiria ez da etxeak, arkupeak, plaza publikoak bakarrik; gizakiek egiten dute hiria. Ez duzue ikusiko, alegietan bezala, harrien azpitik gizakiak agertzen, zuen arazoez arduratzeko. Ez zarete bakarrik bizi ahal izateko geratu ezkongabe; zuetako bakoitzak lagunak izaten ditu hala mahaian nola ohean, eta bakea besterik ez duzue bilatzen zuen gehiegikerietan. Birjina vestaleen adibidea aipatzen ausartuko al zarete? Hala, bada, garbitasunaren eta lotsaren legeak gordezten ez badituzue, haiek bezala zigortuak behar zenukete. Hiritar gaiztoak zarete zuek ere, zuen etsenplua mundu guztiak imitatzen badu

nahiz inork jarraitzen ez badu. Nire xede bakarra errepublikak irautea da. Handitu egin ditut obeditu ez dutenen zigorrak, eta sariei dagokie-nez, hain dira handiak, non ez baitakit bertuteak inoiz hain sari handi-rik izan ote duen; badira txikiagoak, milaka lagun beren bizia arriska-tera bultzatzen dituztenak; eta honako hauek ez al zaituztete emaztea hartzera eta haurrak haztera bultzatuko?».

Bere izenaren arabera Juliarrak eta urte haren zati bateko kon-  
tsulen izenen arabera Papiar Popearra<sup>291</sup> deitu zioten legea eman zuen.  
Gaitzaren handia kontsul haien hautaketan bertan ageri zen: Dione-  
k diosku<sup>292</sup> ez zeudela ezkontuta, eta ez zutela haurrik.

Augustoren lege hori lege-kodea zen zehazkiago, gai hartaz  
egin zitezkeen araudi guztien gorputz sistematikoa. Eraberritu egin  
ziren Lege Juliarrak<sup>293</sup>, eta indar handiagoa eman zitzaien; hainbeste  
ikuspegi dituzte, hainbeste gauzaren gainean dute eragina, non erro-  
matarren lege zibilen parterik ederrena eratzen baitute.

Ulpianoren zati preziatuetan hainbat lekutan sakabanatuta aur-  
kitzen dira puskak<sup>294</sup>. Lege Papiarrez idatzi duten autoreetatik aterata-  
ko lege Digestokoetan; historialarietan eta aipatu izan dituzten beste  
autoreetan; indargabetu zituen Teodosiar kodean; legeok zentsuratu  
zituzten Elizako Gurasoetan (hauek beste bizitzako gauzetarako lau-  
dagarrria den ardura erakutsi zuten, zalantzarik gabe, baina bizitza  
honetako arazoez oso jakituria urria).

Lege horiek titulu asko zituzten, eta hogeita hamabost ezagu-  
tzen dira<sup>295</sup>. Baina nire gaiari ahalik eta zuzenen heltzekotan, Aulo  
Geliok<sup>296</sup> zazpigarrena dela dioskun atalburutik hasiko naiz: lege  
horrek dakartzan ohore eta sariei buruzkotik.

Erromatarrek, gehienak ere lazedemoniarren kolonia ziren  
latindar hirietakoak baitziren jatorriz<sup>297</sup>, eta hiri haietatik atera zituzte-  
larik beren legeetako batzuk<sup>298</sup>, begirune handia zioten zahartzaroari,  
ohore eta lehentasun guztiak emateraino. Errepublika hiritar falta  
izan zuenean, ezkontzari eta haur-kopuruari eman zitzaizkion ordura  
arte adinari emandako pribilegioak<sup>299</sup>; batzuk ezkontzari bakarrik  
erantsi zizkieten, jaio zitezkeen haurrak kontuan izan gabe: horri  
senarren eskubidea deitzen zitzaion. Beste batzuk haurrak zituztenei  
eman zitzaizkien, eta are handiagoak hiru haur zituztenei. Ez dira  
nahastu behar hiru pribilegio-mota horiek. Baziren ezkonduak beti

zituzten pribilegioak; esate baterako, eserleku jakin bat antzokian<sup>300</sup>; beste pribilegio batzuk, berriz, haurrak zituztenek, edo haur gehiago zituztenek, kentzen ez zieten bitartean izaten zituzten ezkontuek.

Pribilegio horiek oso zabaldua zeuden. Haurrik gehien zituzten ezkontuek lehentasuna zuten beti, dela ohoreak lortzeko, dela ohore horiek erabiltzeko<sup>301</sup>. Haur gehien zituen kontsula lehena zen azauak hartzen<sup>302</sup>, eta probintzia aukera zezakeen<sup>303</sup>; haurrik gehien zuen senadorearen izena beste izenen aurretik idazten zen senadoreen katalogoan, eta lehena zen senatuan bere iritzia ematen<sup>304</sup>. Adina baino lehen irits zitekeen magistraturetara, haur bakoitzeko urtebete aurrera zitekeelako<sup>305</sup>. Erroman hiru seme-alaba zituen karga pertsonal guztietatik libre zegoen<sup>306</sup>. Hiru seme-alaba zituzten emakume libreak eta lau zituzten emakume jareginak aske ziren<sup>307</sup>. Erromako lege zaharrek lotzen zituzten<sup>308</sup> tutorepeko egoera betiereko hartatik.

Baina sariak bezala, baziren zigorrak ere<sup>309</sup>. Ezkontuta ez zudenek ezin zuten ezer jaso atzeritarren testamentu bidez<sup>310</sup>; eta ezkontuta izan baina haurrik ez zutenek, erdia baino ez zuten jasotzen<sup>311</sup>. Erromatarrek, dio Plutarkok<sup>312</sup>, oinordeko izateko ezkontzen ziren, ez berek oinordekoak izateko.

Senar-emazteek elkarri testamentu bidez egin ziezazkioketen abantailak legez mugatuta zeuden. Dena eman ziezaioketen elkarri<sup>313</sup>, elkarrekin haurrak bazituzten; ez bazituzten, jarauntsiaren hamarrena jaso zezaketen ezkontzari esker; eta beste ezkontza baten ondoriozko haurrak bazituzten, haurrak hainbat hamarren eman ziezaioketen elkarri.

Senar bat bere emazteagandik urruntzen bazen<sup>314</sup>, errepublika-ko arazoengatik ez baina beste edozergatik, ezin zen haren oinordeko izan.

Legeak bi urte ematen zizkion berririo ezkontzeko ezkontidea hil eta gero bizirik geratzen zen senarrari edo emazteari<sup>315</sup>, eta urte eta erdi dibortziorik bazen. Beren seme-alabak ezkontarazi nahi ez zituzten aitak, edo alabei dotea eman nahi ez zietenak, magistratuek behartzen zituzten hartara<sup>316</sup>.

Ez zegoen ezkontitza ematerik ezkontza bi urte baino gehiagoz atzeratu behar bazen<sup>317</sup>, eta neskato batekin hamabi urte zituen arte ezkontzerik ez zegoenez, ezin zitzaion ezkontitza eman hark hamar

urte izan baino lehen. Legeak ez zuen nahi ezkonduen pribilegioez alferrik gozatu ahal izatea<sup>318</sup>, ezkontitza emanda zegoelako aitzakiaz.

Hirurogei urte zituen gizonak dekebatua zeukan berrogeita hamarrek emakume batekin ezkontzea<sup>319</sup>. Ezkonduen pribilegio handiak eman zitzaizkienez, legeek ez zuten nahi alferrikako ezkontzarik. Arrazoi horixe dela medio, Kalbisiar senatu-kontsultuak<sup>320</sup> legez kanpoko deklaratzan zuen berrogeita hamar urte baino gehiago zituen emakume bat hirurogei baino gutxiago zuen gizon batekin ezkontzea eta, beraz, berrogeita hamar urte zituen emakume batek ez zeukan ezkontzerik lege horiek hautsi gabe. Tiberiok areagotu egin zuen Lege Papiarraren gogortasuna<sup>321</sup>, eta debekatu egin zion hirurogei urteko gizon bati berrogeita hamar urte baino gutxiagoko emakume batekin ezkontzea; hartara, hirurogei urteko gizonak ez zeukan inola ere ezkontzerik legea hautsi gabe; baina Klaudiok<sup>322</sup> indargabetu egin zuen puntu honi dagokionez Tiberiok egindakoa.

Xedapen hauek guztiak hobeto egokitzen zitzaizkion Italiako klimari iparraldekoari baino, non hirurogei urteko gizon batek indarra baitu oraindik, eta berrogeita hamar urteko emakumeak gehienetan ez baitira antzu.

Egin zitekeen aukeran alferriko mugaketak saihesteko, Augustok bide eman zien senadore<sup>323</sup> ez ziren pertsona libre guztiei jareginekin ezkontzeko<sup>324</sup>. Lege Papiarrak<sup>325</sup> debekatu egiten zien senadoreei jaregin izandako emakumeekin edo antzerkian ibilitakoe-kin ezkontzea; eta Ulpianoren garaian<sup>326</sup> gizon libreek debekatuta zeukaten bizimodu txarreko emakumeekin ezkontzea, antzerkian ibilitakoe-kin edo epaiketa publikoan kondenatutakoekin. Senatu-kontsulturen batek ezarri behar izan zuen hori. Errepublikaren garaian ia ez ziren egin horrelako legeak, zentsoreek zuzentzen zituztelako alde horretatik sortzen ziren desordenak, edo ez zieten sortzen uzten.

Konstantinok<sup>327</sup> lege bat egin zuen, zeinen bidez, senadoreak ez ezik, Estatuan maila altua zutenak ere sartzen baitzituen Lege Papiarraren debekuan, beheagoko mailakoak aipatu ere egin gabe, eta horrexek osatu zuen garai hartako zuzenbidea; bakarrik Konstantinoren legean sartzen ziren gizon libreei debekatu zitzaizkien halako ezkontzak. Justinianok<sup>328</sup> Konstantinoren legea indargabetu zuen, eta era guztietako pertsonen eman zien ezkontzeko bidea: horregatik lortu dugu guk hain libertate tristea.

Argi dago ezen legeak debekatzen duenaren kontra ezkontutakoen aurkako zigorrak eta inola ere ezkontzen ez zirenen aurkakoak zigor berberak zirela. Ezkontza haiek ez zieten ematen inolako abantaila zibilik<sup>329</sup>; dotea<sup>330</sup> emaztea hiltzean iraungitzen zen<sup>331</sup>.

Augustok altxor publikoari esleitu zizkion legeok ezgaitzat jotzen zituztenen oinordekotzak eta legatuak<sup>332</sup>, eta lege horiek lege fiskalen antza hartu zuten, politiko eta zibilen antza baino gehiago. Lehendik ere astunegia zirudien kargari zioten narda areagotu egin zen fiskoaren gosearen gai zirela ikustean. Hori dela eta, Tiberioren garaian lege horiek aldatu behar izan zituzten<sup>333</sup>, Neronek gutxitu egin zituen fiskoari salaketak egiten zizkiotenen sariak<sup>334</sup>, Trajanok motzean lotu zizkien harrapaketak<sup>335</sup>, Severok aldatu egin zituen legeok<sup>336</sup>, eta juriskontsultuek gorrotagarri iritzi eta alde bat utzi zuten haien gogortasuna.

Bestalde, enperadoreek ahuldu egin zituzten lege haiek<sup>337</sup>, senarren, bi seme-alaba zituztenen eta hiru seme-alaba zituztenen eskubiak zirela-eta eman zituzten pribilegioen bidez. Gehiago egin zuten: partikularrak libre utzi zituzten lege haien zigorretatik<sup>338</sup>. Baina irudi luke denentzat baliagarri izan behar luketen arauak ez luketela salbuespenik behar.

Arrazoizkoa izan zen vestaleei seme-alabak zituztenen eskubidea ematea<sup>339</sup>, erlijioak birjintasun beharrezkoan baitzeuzkan; soldaduei ere senarren pribilegioa eman zitzaien<sup>340</sup>, ezin baitziren ezkondu. Ohitura zen enperadoreak zenbait lege zibiletatik salbuestea. Esate baterako, Augusto salbuetsia izan zen askatasuna emateko eskuduntza mugatzen zuen legetik<sup>341</sup>, eta legatzeko eskuduntza mugatzen zuenetik<sup>342</sup>. Horiek guztiak kasu partikularrak ziren, baina handik aurrera salbuespenak neurririk gabe eman ziren, eta araua bera izan zen salbuespena.

Filosofi sektek jadanik sartua zuten inperioan arazo publikoetatik urruntzeko espirituak; espiritu horrek ezin egingo zukeen aurrera errepublika-garaian<sup>343</sup>, non mundu guztiak jarduten baitzuen gerra- eta bake-antzeetan. Hala sortu zen bizitza espekulatibora daraman orori atxikitako perfektzio-ideia; hala, familiako ardura eta nekeetatik urruntzea. Erlijio kristauak, filosofiaren atzetik etorririk, finkatu egin zituen hark prestatu besterik egin ez zituen ideiak.



Kristautasunak bere jitea eman zion jurisprudentziari; izan ere, inperioak zerikusia du beti apaizgoarekin. Teodosioren kodea ikus daiteke: enperadore kristauen ordenantzen bilduma bat besterik ez da.

Konstantinoren panegirista batek<sup>344</sup> esaten dio enperadore horri: «Zure legeak bizioak zuzentzeko eta ohiturak arautzeko baizik ez dira eginak; ezabatu egin duzu antzinako legeen artifizioa, xalota-sunari trabak ezartzea beste asmorik ez baitzuten».

Egia da Konstantinoren aldaketak kristautasuna ezartzearekin zerikusia zuten ideien gainean edo haren betegintzarretik hartutako ideien gainean egin zirela. Lehen xede horretatik etorri ziren legeek hain aginpide handia eman zieten apezpikuei, non eliz jurisdikzioaren oinarria izan baitira; hortik datoz, halaber, aitaren aginpidea ahuldu zuten legeak<sup>345</sup>, aitari seme-alaben ondasunen jabegoa kenduz. Erlijio berria zabaltzeko, seme-alaben mendekotasun erabatekoa kendu behar da, haiek atxikipen txikiagoa baitute ezarritakoarekiko.

Konstantinok betegintzarre kristauaren xedez egin zituen legeak, batez ere, Lege Papiarren zigorrak kendu zituztenak izan ziren<sup>346</sup>, eta haietatik jaregin zuten hala ezkongabeak nola ezkontuta egonik seme-alabarik ez zutenak.

«Lege horiek», dio eliz historialari batek<sup>347</sup>, «giza ugaltzea gure arduren ondorio bailitzan ezarriak ziren, kopuru hori Probidentziaren ordenaren arabera hazten eta urritzen dela ikusi orde».

Erlijioaren printzipioek eragin handi-handia izan dute giza espeziearen hedaduran; batzuetan bultzatu egin dute, hala nola judutar, mahometar, gebro eta txinatarren artean; beste batzuetan kontra egin diote, hala nola kristau bilakatu ziren erromatarren artean.

Nonahi kontinentzia predikatu zen etengabe, hau da, beteginagoa den bertutea, zeren eta, den bezalakoa delako, oso jende gutxik praktikatu behar baitu.

Konstantinok ez zituen kendu lege dezimarioak. Lege horiek hedadura handiagoa ematen zieten senar-emazteek elkarri egin ziezazkioketen opariei, seme-alaben kopuruaren arabera; Teodosio gazteak indargabetu egin zituen lege horiek ere<sup>348</sup>.

Justinianok baliozko deklaratu zituen Lege Papiarrek debekatuta ezkontza guztiak<sup>348</sup>. Lege horiek jendea berriz ezkon zedin nahi zuten; Justinianok abantailak eman zizkien berriro ezkontzen ez zirenei<sup>350</sup>.

Lege zaharren arabera, bakoitzak ezkontzeko eta seme-alabak izateko duen gaitasun naturala ezin zen kendu. Esate baterako, norbaitek legatua jasotzen bazuen ez ezkontzeko baldintzapean<sup>350</sup> edo ugazaba batek bere jareginari ez zela ezkonduko zin egitera behartzen zuenean, eta haurrik ez zuela izango<sup>351</sup>, Lege Papiarrak deuseztu egiten zituen baldintza eta zinegite horiek<sup>352</sup>. Gure artean ezarritako klausulak, *alargun irautekoak*, zuzenbide zaharraren kontra doaz, enperadoreen konstituzioetatik datoz, eta betegintzarrearen ideien gainean daude eginda.

Ez dago legerik erromatarrek ezkontzei eta seme-alaben kopuruari aitortuak zizkieten pribilegio eta ohoreen indargabetzea dakarrenik, baina zelibatoak lehentasuna zuen lekuetan, ezin ohorerik izan ezkontzarentzat, eta zergen errentariak zigorren abolizioaren bitartez hainbeste abantailari uko egitera behartu ahal izan zirenez geroztik, bistan da askoz errazagoa izan zela sariak kentzea.

Zelibatoari bide eman zion espiritualtasunaren arrazoi berberak ezarri zuen laster zelibatoaren beharra. Jainkoari nahi ez dakiola ni hemen erlijioak onartutako zelibatoaren kontra mintzatzea, baina nor isil liteke galdukeriak ekarri duen zelibatoaren kontra? Izan ere, zelibato horretan, bi sexuek, sentimendu naturalak berak direla medio galbidean jarriz, ihes egiten diote hobetu egin behar lituzkeen elkartzeari, gaiztoago bihurtzen dituen hartan bizitzeko?

Naturatik ateratako araua da ezen, zenbat eta gehiago urritu egin litezkeen ezkontzen kopurua, gehiago galbideratzen direla egiten direnak; zenbat eta ezkondu gutxiago izan, leialtasun gutxiago dagoela ezkontzetan; lapur gehiago dagoenean ere, lapurreta gehiago izaten baita.

## XXII

### *Haurrak abandonatzeaz*

Lehen erromatarrek jokabide on samarra izan zuten haurrak abandonatzeaz. Romulok, dio Dionisio Halikarnasokoak<sup>354</sup>, seme guztiak eta alabetan zaharrenak hazteko beharra ezarri zien hiritar guztiei.

Haurrak deformeak eta itxuragabeak baziren, abandonatzeko baimena ematen zien, auzo hurbilenetako bosti erakutsi ondoren.

Romulok ez du uzten hiru urte baino gutxiagoko haurrik hiltzen<sup>355</sup>; hartara, bateratu egin zituen gurasoei seme-alaben gainean bizitza- eta heriotza-eskubidea ematen zien legea, eta haiek abandonatzea debekatzen zuena.

Dionisio Halikarnasokoaren obran<sup>356</sup> irakur daiteke beste hau ere: hiritarrei ezkontzeko eta seme-alaba guztiak hazteko agintzen zien legea indarrean zegoela Erromako 277. urtean; ikusten denez, usadioak murriztua zuen Romuloren legea, alaba gazteenak abandonatzeko bidea ematen zuena.

Zizeronen pasarte bati esker<sup>357</sup> bakarrik dakigu Erromako 301. urtean emandako Hamabi Tauletako legeak haurrak abandonatzeaz zioena: herriaren tribunotzaz ari dela, dio ezen, sortu eta gero, Hamabi Tauletako haur itxuragabe bat bailitzan irato zutela; beraz, itxuragabeak ez ziren haurrak gorde egiten ziren, eta Hamabi Tauletako legeak ez zien ezer aldatu aurrez ezarritakoei.

«Germaniarrek», dio Tazitok<sup>358</sup>, «ez dituzte abandonatzen beren haurrak, eta haien artean ohitura onek indar handiagoa dute beste leku batzuetan lege onek baino». Hortaz, erromatarren artean baziren usadio horren kontrako legeak, baina ez zieten men egiten. Ez da aurkitzen erromatar legerik haurrak abandonatzen uzten duenik<sup>358</sup>; hori azken garaietan sarrarazitako gehiegikeria bat izan zen ezbairik gabe, luxuak libertatea ezabatu zuenean, aberastasunak banatzeari pobrezia deitu zitzaionean, aitzak, familiari emandakoa galdutzat jota, familia hori bere jabetzakoetatik bereizi zuenean.

## XXIII

*Munduaren egoeraz, erromatarren suntsipenaz geroztik*

Erromatarrek hiritarren kopurua handitzeko egin zituzten araudiak eragina izan zuten, errepublikak, bere instituzioaren indarrean, bere ausardiaz, bere adorea, irmotasunaz, loriarekiko maitasunaz eta bertuteaz beraz egiten zituen galerak baizik ordaindu behar izan ez

zituenean. Baina laster legerik zuhurrenek ere ezin izan zuten berrezarri hilzorian zegoen errepublika batek, anarkia orokorrak, gobernu militarrek, inperio gogorrek, despotismo hantustetsuak, monarkia ahulak, gorte ergel, inozo eta superstiziotsu batek, hurrenez hurren abaildu zutena. Esan zitekeen mundua ahultzeko konkistatu zutela, eta defentsarik gabe barbaroen esku jartzeko. Nazio godo, getiar, sarrazeno eta tartariarrek zanpatu egin zituzten batak bestearen atzetik; laster herri barbaroek herri barbaroak baizik ez zituzten izan suntsigai. Hala, alegien garaian, uholde eta dilubioen ondoren, gizon armatuak irten ziren lurretik, eta elkar suntsitu zuten.

## XXIV

*Europar gertatutako aldaketak biztanle-kopuruari dagokionez*

Europa zegoen egoeran, sinestezina dirudi atzera bere onera etor zitekeenik; batez ere Karlomagnoren garaian, inperio eskerga bakar bat eratzen zuenean. Baina, orduko gobernu-eragatik, hainbat eta hainbat erresuma txikitan zatikatu zen. Eta, jaun bat bere herri edo hirian bizi zelarik, ez baitzen handi, aberats, ahaltsu, zer diot, ez baitzegoen seguru hango biztanleen kopuruari esker baizik, bakoitzak berebiziko setaz ekin zion bere herrialde txikia lorarazteari; eta hainbesteraino lortu zen hori, non, gobernuaren irregulartasunak eta guzti, gerora merkataritzari esker lortu diren ezagupenen falta eta guzti, etengabe sortu ziren gerra eta liskarren ugaria eta guzti, Europako bazter gehienetan gaur baino jende gehiago baitzegoen.

Ez dut astirik gai hau sakonean jorratzeko, baina gurutzatuen armada harrigarriak aipatuko ditut, era guztietako jende-motaz osatuak. Puffendorf-ek dio<sup>360</sup> Karlos IX.aren garaian hogeitaz milioi biztanle zirela Frantzian.

Estatu txiki askoren etengabeko batzeek ekarri dute gutxitze hau. Behinola Frantziako herri bakoitza hiriburu zen; gaur egun ez dago handi bat besterik; Estatuaren zati bakoitza botere-gune zen; gaur egun dena dago gune bakar baten mende, eta gune hori, nolabait esateko, Estatua bera da.

## XXV

### *Gai beraren jarraipena*

Egia da Europak, azken bi mende honetan, asko ugaltu duela nabigazioa; horrek biztanleak ekarri dizkio, eta biztanleak galtzea ere bai. Holandak marinel ugari bidaltzen ditu urtero Indietara, eta haien bi herenak baizik ez dira itzultzen; beste guztiak edo hil edo Indietan jartzen dira bizitzen; gauza bera gertatu behar zaie gutxi gorabehera merkataritza horretan ari diren beste nazio guztiei.

Ez da juzgatu behar Europa estatu partikular bat bailitzan, merkantzi ontziteria berak bakarrik egingo lukeen estatua. Estatu horrek ugaltu egingo luke populazioa, auzoko nazio guztiak nabigazio horretan parte hartzera etorriko liratekeelako, eta bazter guztietatik etorriko lirateke marinelak. Europa, erlijioak, itsaso zabalak eta basamortuek munduko beste alde guztietatik bereizten dutelarik<sup>360</sup>, ez da horrela berrosatzen.

## XXVI

### *Ondorioak*

Horretatik guztitik haxe ondorioztatu behar da, Europa gaur egun ere oraindik giza espeziearen ugalketari bide emango dioten legeen beharrean dela; horregatik, politikari greziarrak beti errepublika lantzen duten hiritarren kopuru handi horretaz mintzatzen zaizkigun bezala, gaur egungo politikariak kopuru hori ugaltzeko bitarteko egokiez baino ez zaizkigu mintzatzen.

## XXVII

### *Frantzia espeziearen ugaltzea bizkortzeko egindako legeaz*

Luis XIV.ak pentsio batzuk agindu zituen<sup>361</sup> hamar haur zituztenentzat, eta pentsio handiagoak hamabi zituztenentzat. Baina kontua ez zen kasu miresgarri horiek saritzea. Espeziearen ugalketa ekarriko

lukeen halako asmo orokor bat sustatzeko, sari orokorrak edo zigor orokorrak ezarri beharra zegoen, erromatarrek bezala.

## XXVIII

### *Nola erremedioa bilatu jendez gabetzeari*

Estatu bat hainbat gorabeherak, gerrak, izurrik, gosetek jendez gabetuta dagoenean, badira populatzeko baliabideak. Geratzen diren gizakiek gorde dezakete lanerako eta saiatzeko joera; beren zorigaitzak sendatzen saia daitezke, eta kaltearen beraren kariaz are trebe eta saiatuago bihurtu. Jendez gabetzeak sustrai sakonak dituenean —bere baitako bizioren bat edo gobernu txarra—, gaitz ia sendaezin gertatzen da. Gizonak gaixotasun ohartezin eta ohiko batengatik hil izan dira halakoetan: makaltasunean eta miserian jaioak, bortizkerian edo gobernuaren aurreiritzietan, nola suntsitzen zituzten ikusi izan dute, maiz suntsipenaren kausez ohartu ere egin gabe. Despotismoak sakailatutako herrialdeak, edo elizgizonak laikoen lepotik dituzten gehiegizko abantailak, dira horren bi adibide handi.

Horrela jendez gabetutako estatu bat bere lehengora ekartzeko, alferrik litzateke jaio litezkeen haurren laguntzaren zain egotea. Dagoeneko ez da horretarako garaia; gizonak, beren basamortuan, ausardiarik eta industriarik gabe daude. Herri bati jaten emateko adinako lurrekin, nekez eman ahal diote jaten familia bati. Herri xeheak, herrialde horretan, ez du parterik ezta bere miserian ere, alegia, nonahi ageri diren lur landugabeetan. Elizgizonak, printzeak, hiriak, handikiak, hiritar nagusi batzuk, lurralde osoaren jabe bihurtu dira oharkabeen; landu gabe dago, baina suntsitutako familiek larreak utzi dizkiete, eta lan egiten duen gizonak ez du ezer.

Egoera horretan, gauza bat egin behar litzateke inperioaren luze-zabal osoan: erromatarrek berenaren parte batean egiten zutena, hots, eskasiaren garaietan ugaritasun-garaietako jokabidea izan, lurak ezer ez duten familia guztiei banatu, luberritzeko eta lantzeko bitartekoak eman. Banaketa hori, hartzeko gizonik legokeen neurrian egin beharko litzateke, hartara ez litzatekeelako denborarik galduko lanik egin gabe.

## XXIX

### *Ospitaleez*

Pertsona bat ez da pobrea ezer ez duelako, lanik egiten ez duelako baizik. Ondasunik eduki ez baina lan egiten duena, lanik egin gabe ehun ezkutuko errenta duena bezain ondo dago. Ezer eduki ez baina lanbide bat duena ez da hamar itegun lurren jabe dena eta bizitzeko landu egin behar dituen baina pobreago. Bere haurrei bere lanbidea eman dien langileak beren kopuruaren proportzioan ugaltu den ondasuna utzi die. Ezin gauza bera esan bizitzeko hamar itegun izanik, haurren artean banatzen dituenaz.

Merkataritza-herrialdietan, non jende askok beren artea baino ez baitu, Estatu zaharren, gaixoen eta zurtzen beharrak hornitzera behartuta egon ohi da maiz. Ondo antolatutako estatu batek industrien beren funtsetik ateratzen du bizibide hori; batzuei egin ahal duten lana ematen die; besteei lan egiten irakasten die, eta hori bera ere lana da.

Gizon biluzi bati kale gorrian ematen zaizkion limosnek ez dituzte betetzen Estatuaren betebeharrak, Estatuak bizibide segurua zor baitie hiritar guztiei, jana, jantzi egokia eta osasunaren kontrako izango ez den bizimodua.

Aureng-Zeb-ek<sup>362</sup>, galdetu ziotelarik zergatik ez zuen ospitale-rik eraikitzen, hauxe erantzun zuen: «Hain aberats egingo dut ene inperioa, non ez baita ospitaleen beharrik izango». Hauxe esan behar zukeen: hasteko, aberats egingo dut nire inperioa, eta gero ospitaleak eraikiko ditut.

Estatu baten aberastasunek industria asko esan nahi dute. Ezinezkoa da hainbeste merkataritza-adarretan sofrituko duen baten bat ez izatea, eta ondorioz bertako langileak unerik baten beharrean ez izatea.

Orduantxe eman behar du Estatuak laguntza bizkor, dela herriak sofri ez dezan, dela errebolta ez dadin: kasu honetan behar dira ospitaleak, edo antzeko antolamenduren bat, miseria horri aurre hartuko diona.

Baina nazioa pobrea denean, bakoitzaren pobretasuna miseria orokorretik dator, eta, nolabait esateko, miseria orokorra da bera.

Munduko ospitale guztiek ezingo lukete sendatu pobretasun partikular hori; aitzitik, sorrarazten duten alferkeriarako joerak areagotu egiten du pobretasun orokorra, eta ondorioz baita partikularra ere.

Enrike VIII.ak, Ingalaterrako Eliza erreformatu nahi zuelarik, desegin egin zituen monakoak<sup>363</sup>, nazio alferra bera, eta beste batzuen alferkeriari eusten ziona, zeren eta, abegi ona praktikatzean, jende alfer, kapare eta burges askok komentutik komentura ematen baitzuten bizitza. Ospitaleak ere kendu zituen, non herri xeheak bizibidea aurkitzen baitzuen, kapareek bere monasterioetan aurkitzen zuten bezala. Aldaketa haien ondoren, merkataritzaren eta industriaren espiritua hedatu zen Ingalaterran.

Erroman ospitaleek mundu guztia bere gogara bizitzea dakarte, salbu eta lan egiten dutenek, industria dutenek, arteak lantzen dituztenek, lurra dituztenek, merkataritza egiten dutenek.

Esan dut nazio aberatsek ospitaleen beharra zutela, han zoria mila gorabeheraren mende zegoelako: baina bistan da behin-behineko laguntzak behin betikoak baino hobeak liratekeela. Gaitza une batekoa da; beraz, jite bereko laguntzak behar dira, gorabehera jakin horri aplikatzeko modukoak.



Bosgarren partea



# HOGEITA LAUGARREN LIBURUA

Legeez, herrialde bakoitzean ezarritako  
erlijioarekin duten zerikusiarren aldetik,  
berepraktiketan eta bere izatean kontsideratua

## I

*Erljioez, oro har*

Iluntasunen artean zein ez den hain handia juzga daitekeen bezala, eta amildegien artean zein ez den hain sakon, halaxe araka daiteke erlijio faltsuen artean ere ea zein atxikitzen zaion hobeto gizartearen onari: gizakiak hurrengo bizitzako zorionera eraman gabe ere, zeinek laguntzen duten hemengo honetan ahalik eta zorionsuen egiten.

Beraz, munduko erlijioak, estatu zibilari egiten dioten onaren aldetik aztertuko ditut; dela bere sustraia zeruan duen erlijioaz ari naitzelarik, dela berena lurrean dutenez.

Teologo ez naizenez, baizik eta idazle politiko, baliteke obra honetan oso-osorik egia izango ez diren zenbait gauza agertzea, ikuspegi gizatiarretik ez bada, goragoko egiekin duketen zerikusiarren aldetik kontsideratu gabe.

Benetako erlijioaz denaz bezainbatean, aski izango da ekitate pixka bat ikusteko inoiz ez dudala izan haren interesak interes politikoan mende jartzeko asmorik, batzuk eta besteak batzekoa baizik; alabaina, horiek batzeko, ezagutu egin behar dira.

Erljio kristauak, gizakiei elkar maitatzea agintzen baitie, herri bakoitzak lege politikorik onenak eta lege zibilik onenak izan ditzan nahi du zalantzarik gabe, horiek baitira, erlijioaren beraren ondoren, gizakiek egin eta jaso dezaketen onik handiena.

## II

### *Bayleren paradoxa*

Bayle jaunak<sup>1</sup> frogatu nahi izan du hobe zela atea izan idola-  
tra baino; hau da, beste hitz batzuetan, arrisku gutxiago duela inola-  
ko erlijiorik ez izateak, erlijio txarra izateak baino. «Nahiago nuke»,  
dio berak, «nitaz ez naizela esan lezaten, gizon gaiztoa naizela esan  
lezaten baino». Hori sofisma hutsa da, honetan oinarritua: gizadiari  
ez zaio batere baliagarri halako gizaki bat badela sinestea; aldiz, oso  
baliagarria zaio Jainkoa badela sinestea. Jainkorik ez delako ideiari,  
gure independentziaren ideia jarraitzen zaio; edota, horrelako ideia-  
rik eduki ezin badugu, gure erreboltaren ideia. Erlijioa ez dela moti-  
bo erreprimizailea esatea, beti ez duelako erreprimitzen, zera esatea  
da, lege zibilak ere ez direla motibo erreprimizailea. Erlijioaren  
kontra gaizki arrazoitzea da obra batean hark eragindako kalteen  
zerrenda luzea biltzea, horrekin batera hark ekarri dituen onen  
zerrenda ere egiten ez bada. Lege zibilek, monarkiak, gobernu-era  
errepublikarrak munduan eragin dituzten kalte guztiak kontatu nahi  
banitu, gauza izugarriak esango nituzke. Sujetek erlijioa izatea alfe-  
rrikakoa litzatekeenean, ez litzateke alferrikakoa printzeek erlijioa  
izatea, eta aparrez zuritzea giza legeen beldur ez direnek eduki deza-  
keten galga bakarra.

Erlijioa maite duen eta beldur dion printzea, laztantzen duen  
eskuari eta ematen duen ahotsari men egiten dion lehoia da; erlijioa-  
ri beldur eta gorroto diona, berriz, pasatzen direnen gainera oldartzea  
galarazten dien kateari ausiki egiten dioten piztiak bezalakoa da; erli-  
jiorik ez duena, bere libertatea sentitzeko zerbait xehatu eta irentsi  
behar duen animalia izugarria da.

Kontua ez da jakitea ea zer litzatekeen hobe halakok edo  
halako herri batek erlijiorik ez izatea ala daukana gehiegikeriaz era-  
biltzea, baizik eta jakitea zein den gaitzik txikiena, batzuetan erli-  
jioa gehiegikeriaz erabiltzea, ala gizakien artean batere erlijiorik ez  
izatea.

Ateismoaren izugarria gutxitzeko, gehiegi nabarmentzen da  
idolatria. Ez da egia ezen antzinakoek aldareak eraikitzen zizkiotene-  
an bizioren bati, horrek bizio hori maite zutela esan nahi zuenik; aitzí-

tik, hark esan nahi zuen gorroto zutela. Lazedemoniarrek Beldurrari kapera bat eraiki ziotenean, horrek ez zuen esan nahi nazio gerrazale hark batailan lazedemoniarren bihotzez jabe zedin eskatzen zionik. Jainko batzuei krimenik ez eragiteko eskatzen zieten, eta beste batzuei, berriz, hartaz libratzeko.

### III

*Gobernu moderatua hobeto doakiola erlijio kristauari,  
eta gobernu-era despotikoa mahometarrari*

Erlijio kristaua urrun dago despotismo hutsetik; izan ere, gozotasuna hainbestearaino gomendatzen da Ebanjelioan, non printzeak justizia egiteko eta bere ankerkeria gauzatzeko erabiliko lukeen sumin despotikoari kontrajartzen baitzaio.

Erlijio horrek debekatu egiten du emazte bat baino gehiago izatea, eta printzeak ez daude hain isolatuta, hain urrun beren sujetengandik, eta beraz gizatiarrago dira; legeak egitera emanago dira, eta dena egin ezin dutela onartzeko gaiago.

Printze mahometarrek etengabe hiltzen dute edo hilak dira; kristauen erlijioak, aldiz, ez ditu hain beldurti egiten printzeak eta, beraz, ez hain anker. Printzeak kontuan izaten ditu sujetak, eta sujetek printzea. Hona gauza miresgarria! Erljio kristauak, beste bizitzako zoriona lortzea beste xederik ez daukalarik, zoriona ekartzen digu honako bizitza honetan ere.

Erljio kristauak galarazi dio despotismoari Etioipian erroak botatzea, nahiz eta inperioa eta klimaren galga hain handia izan, eta Afrikaren erdiraino eramanez dituzte Europako ohiturak eta legeak.

Etioipiako printze oinordekoak printzerri bat du, eta maitasunaren eta obediencia-etsenplua ematen die sujetei. Handik oso hurbil, mahometismoak Sennarko erregearen seme-alabak atxilotzen dituela ikusten dugu; erregea hil eta gero, kontseiluak haiei lepoa mozteko agintzen du, tronura igo denaren mesedetan<sup>2</sup>.

Alde batetik, jar bitez begien aurrean errege eta buruzagi greziar eta erromatarren sarraski etengabeak, eta bestetik buruzagi horie-

xek, Timurrek eta Gengis Khanek, Asia errautsi baitute, suntsitutako herri eta hiriak, eta ikusiko dugu kristautasunari zor diogula, goberneran halako zuzenbide politiko bat, eta gerran halako Jende Zuzenbide bat, giza izaerak aski eskertuko ez lukeena.

Jende Zuzenbide horrixe esker, gure artean, garaileek gauza handi hauexek uzten dizkiete herri garaituei: bizia, libertatea, legeak, ondasunak, eta erlijioa beti, norbera itsutzen ez denean.

Esan daiteke Europako herriak gaur egun ez daudela sakanatuago erromatarren inperioan, despotiko eta militar bihurtu ondoren, herriak eta armadak zeudena baino, edo armadak beren artean zeudena baino: batetik, armadak elkarrekin gerran zeuden, eta bestetik hirietan arpilatutakoa ematen zitzaien, edo lurren konfiskazioa.

## IV

### *Erljio kristauaren eta erljio mahometarraren izaeraren ondorioak*

Erljio kristauaren eta mahometarraren izaerari dagokionez, beste azterketarik gabe, bata onartu eta bestea arbuiatu beharra dago; izan ere, askoz bistakoagoa baita guretzat erljio batek gizakien ohiturak leundu behar dituela, erljio bat egia dela baino.

Zoritzarra da giza izaerarentzat erljioa konkistatzaile batek ematea. Erljio mahometarrak, ezpataz baizik ez baita mintzatzen, bera sorrarazi duen espiritu suntsitzaile horrekin jarduten du gizakien gainean ere.

Sabbakon izeneko errege artzainetako baten historia<sup>3</sup>, miresgarria da. Tebasko jainkoa agertu zitzaion ametsetan, eta agindu zion Egiptoko apaiz guztiak hilarazteko. Berak ondorioztatu zuen jainkoek ez zutela atsegintzat jotzen bera errege izatea, bere ohiko borondatearen hain kontrakoak ziren gauzak agintzen zizkiotenez, eta Etiopiara erretiratu zen.

## V

*Erlijio katolikoa hobeto doakiola monarkia bati, eta protestantea  
hobeto doakiola errepublika bati*

Erlijio bat estatu batean sortzen eta eratzen denean, gehienetan sortu deneko gobernu-era horretako planari jarraituko zaio; izan ere, hura hartzen duten gizonak, eta hura harrarazten dutenek, ia ez dute beste ideiarik administrazio publikoaz, sorleku duten estatukoak baizik.

Erlijio kristauak, orain dela bi mende katoliko eta protestante-tan banatu zuen zatiketa zoritxarreko hura nozitu zuenean, iparraldeko herriek erlijio protestantea onartu zuten, eta hegoaldekoek katolikoa.

Izan ere, iparraldeko herriek hegoaldekoek ez daukaten independentzi eta libere-espíritu bat dute eta izango dute beti, eta ageriko bururik ez duen erlijio bat hobeto doakio klimaren ondoriozko independentziari, bururik baduena baino.

Erlijio protestantea ezarri zen herrialdeetan, iraultza politikoak egin ziren. Luterok printze handiak zituen bere alde, eta ezin onarraziko zien kanpotiko nagusitasuna lukeen eliz autoritaterik; eta Kalbinok, bere alde errepubliketan bizi ziren herriak zituelarik, edo zenbait monarkiatako burges ilunak, erraz asko utz zitzakeen ezarri gabe lehentasunak eta ohoreak.

Bi erlijio horietako bakoitzak bere burua beteginentzat eduki zezakeen; kalbinista Jesukristok esandakoari atxikiagoa zelakoan zegoen, eta lutertarra apostoluek egindakoari.

## VI

*Bayleren beste paradoxa bat*

Bayle jaunak, erlijio guztiei irain egin ondoren, erlijio kristauari eraso zion; ausartzen da esaten benetako kristauak ez luketela eratuko iraungo lukeen estaturik. Zergatik ez? Beren egitekoak oso

argi lituzketen hiritarrak lirateke halakoak, eta haiek betetzeko ardura handia luketenak; oso ondo ikusiko lituzkete defentsa naturalaren eskubideak; zenbat eta gehiago uste zorretan leudekeela erlijioarekin, hainbat gehiago uste izango lukete zor lioketela aberriari. Kristautasunaren printzipioak, bihotzean ondo sustraituta, askoz indartsuagoak izango lirateke monarkietako ohore izun hori baino, errepubliketako giza bertuteak baino, eta estatu despotikoetako beldur zuria baino.

Harritzekoa da gizon handi horri bere erlijioaren espiritua ez ezagutu izana egotzi ahal izatea; ez duela jakin bereizten kristautasuna ezartzeko aginduak eta kristautasuna bera, ez eta ebanjelioko aginduak eta haren aholkuak ere. Legegileak, legeak eman ordez, aholkuak eman bazituen, honexegatik jokatu du horrela: aholku horiek lege gisa agindu izan balira, bere legeen espirituaren kontrako izango liratekeela ikusi duelako.

## VII

### *Perfekziozko legeak erlijioan*

Espirituari hitz egiteko egindako giza legeek aginduak eman behar dituzte, ez aholkuak: erlijioak, bihotzari hitz egiteko egina baita, aholku onak eman behar ditu, eta agindu gutxi.

Esate baterako, arauak ematen dituenean —ez onerako, hoberenerako baizik; ez ona denerako, ezin hobe denerako baizik—, aholkuak izan daitezen komeni da, ez legeak; izan ere, gizakien eta gauzen unibertsaltasunari ez dagokio perfekzioa. Gainera, legeak badira, ezin konta ahala lege gehiago beharko dira lehenengoak betearazteko. Zelibatoa kristautasunaren aholkua izan zen; jende-mota jakin batentzako lege bihurtu zenean, lege berri gehiago behar izan ziren egunero gizonek hura bete zezaten<sup>4</sup>. Legegilea nekatu egin zen, nekatu egin zuen gizartea, gizakiei agindu bidez betearazi nahian, perfekzioa maite dutenek aholku bidez egingo zuketena.



## VIII

### *Moralaren legeen eta erlijioaren legeen arteko adostasunaz*

Jainkoak eman ez duen erlijioa edukitzeko zorigaitza daukan herrialde batean, erlijio horrek ados egon behar du beti moralarekin; izan ere, erlijioa, baita faltsua ere, gizakiek eduki dezaketen bermerik onena da gizakien zintzotasunaz.

Pegukoen erlijioaren puntu nagusiak<sup>5</sup> dira inor ez hiltzea, lapurretan ez egitea, lizunkeria saihestea, hurkoa ez nahigabetzea, aitzitik, ahalik eta onik gehien egitea. Horrekin uste dute edozein erlijio izanik ere, salbazioa lortzea badagoela; eta horri esker herri haiek, nahiz eta harroak eta pobreak izan, gozoak eta errukitsuak dira zorigaitzekoekin.

## IX

### *Eseniarrez*

Eseniarrek<sup>6</sup> gizakiekin bidez jokatzeko botoa egiten zuten; inori kalte ez egitekoa, ezta obedientziaren kariaz ere; injustuak gorrotatzekoa; mundu guztiaz fidatzekoa; apaltasunez agintzekoa; beti egiaaren alde paratzekoa; legez kontrako irabazi orotarik ihes egitekoa.

## X

### *Estoikoen sektaz*

Filosofi sektak, antzinakoen artean, erlijio-motatzat har zitezkeen. Ez da izan sektarik estoikoena baino printzipio gizakiarentzat duinagoak eta pertsona onak heitzeko egokiagoak izan dituenik; eta une batez kristaua naizela pentsatzeari utziko banio, Zenonen sekta suntsitzea gizadiaren zoritxarren artean jarriko nuke ezinbestean.

Handitasuna duten gauzak baizik ez zituen exajeratzen: plazerren eta oinazearen mesprezioa.

Hark bakarrik zekien hiritarrak egiten; hark bakarrik egiten zituen gizon handiak; hark bakarrik egiten zituen enperadore handiak.

Utz itzazue une batez bazterrean errebelatutako egiak; bila eza-zue natura osoan, eta ez duzue Antoninoak baino ezer handiagorik aurkituko; Juliano bera, Juliano (horrela erauzitako boto batek ez nau haren apostasiaren sopikun egingo): ez, haren ondoren ez da izan gizakiak gobernatzeko duinagoa zen printzerik.

Estoikoek aberastasunak, giza ohoreak, oinazea, nahigabeak, plazerrak, alferreko gauzatat zeuzkatelarik, gizakien zorionaren alde baizik ez zuten jarduten, gizarteko betebeharrak egikaritzen; bazirudien ezen, beren ustez beren baitan zeukaten espiritu sakratu hura, gizadia begiraten zuen probidentziazat hartzen zutela.

Gizarterako jaioak, denek uste zuten beren patua harentzat lan egitea zela; eta horrek are neke gutxiago zuen gizartearentzat, beren saria beren baitan baitzeuzkaten; zoriontsu beren filosofiari esker, bazirudien besteen zorionak bakarrik emenda zezakeela berena.

## XI

### *Kontenplazioaz*

Gizakiak irauteko, elikatzeko, janzteko eta gizarteko zeregin guztiak betetzeko eginak direnez, erlijioak ez die eman behar bizitza kontenplatiboegia<sup>7</sup>.

Mahometarrak espekulatibo bihurtzen dira ohituraz; egunean bost aldiz errezatzen dute, eta aldi bakoitzean zerbait egin behar dute, zeinen bidez atzera botatzen baitute mundu honetakoa den oro; horrek espekulaziora eramaten ditu. Erantsi horri patu zurrun baten dogmak ematen duen gauza guztiekiko axolagabezia.

Gainera beste kausa batzuek atxikimendurik eza areagotzen badiete —hala nola, gobernuaren gogortasunak, lurren jabetzari buruzko legeek behin-behinekotasun espiritua ematea—, galdua da dena.

Gebroen erlijioak loretan jarri zuen behinola Pertiako erresuma, arteztu egin zituelako despotismoaren ondorio txarrak; erlijio mahometarrak, berriz, suntsitu egiten du gaur egun inperio hori bera.

## XII

### *Penitentziez*

Gauza ona da penitentziak lanaren ideiarekin lotuta egotea, ez alferkeriaren ideiarekin; onaren ideiarekin, ez ohizkoaren ideiarekin; urritasunaren ideiarekin, ez askonahiaren ideiarekin.

## XIII

### *Delitu ordainezinez*

Badirudi, Zizeronek dakarren apaizburuen liburuen pasarte baten arabera<sup>8</sup>, erromatarren artean bazirela delitu ordainezinak<sup>9</sup>; horietan oinarritzen ditu Zosimok Konstantinoren kristautzearen motiboak gaiztotzeko hain egokia den kontakizuna, eta Julianok kristautze horretaz *Zesarrek* obran egiten duen trufa mikatza.

Erlijio paganoak, delitu arrunt batzuk baizik ez baitzituen debekatzen, eskua gerarazten eta bihotza abandonatzen baitzuen, eduki zitzakeen delitu ordainezinak; baina grina guztiak biltzen dituen erlijio batek; desirez eta pentsamenduez ekintzez baino gehiago arduratzen denak; katez lotuta ez gauzkanak, baizik eta ezin konta ahala hari finez; giza justizia bere atzean utzi eta beste justizia bati ekiten dionak; damutik maitasunera eta maitasunetik damura etengabe eramateko egina denak; epailearen eta gaizkilearen artean bitartekari handi bat ezartzen duenak, zintzoaren eta bitartekoaren artean epaile handi bat; halako erlijio batek ez ditu izan behar delitu ordainezinak. Baina, nahiz eta denei eman beldurra eta itxaropena, erakusten du ezen, ez bada ere berez ordainezina den deliturik, bizitza oso bat baietz, izan daitekeela; oso arriskutsua litzatekeela errukia delitu berriz eta ordaintze berriz nekatzea; zor zaharrez kezkatuta, inoiz ez bakean Jaunarekin, beldur izan behar diogula zor berriak egiteari, neurria gainditzeari, eta aitaren ontasuna amaitzen den muga hartaraino iristeari.

## XIV

### *Nola ezartzen zaion erlijioaren indarra lege zibilen indarrari*

Erljioak eta lege zibilek batez ere gizakiak hiritar on bihurtze-  
ra jo behar duten bezala, bistakoa da bietako bat xede horretatik alde-  
ratzen denean, besteak are gehiago jo behar duela harantz: zenbat eta  
gutxiago erreprimitu erlijioak, hainbat gehiago erreprimitu behar dute  
lege zibilek.

Hala, Japonian, erlijio nagusiak ia dogmarik ez daukalarik, eta  
ez paradisu-rik ez infernu-rik proposatzen duelarik, legeak, hutsunea  
betetzeko, egundoko gogortasunez egin dira, eta egundoko azkartasu-  
nez betearazten dira.

Erljioak giza ekintzak beharrezko direlako dogma ezartzen  
duenean, legeen zigorrak gogorrak izan behar dute, eta polizia  
begiraleago, zertarako-eta gizakiak, halakorik gabe utzikerian eroriko  
bailirateke, arrazoi horietan behartuak izan daitezten; baina erlijioak  
libertatearen dogma ezartzen badu, hori besterik da.

Arimaren alferkeriatik predestinazio mahometarra sortzen da,  
eta predestinazio horren dogmatik arimaren alferkeria. Esan izan da:  
hori Jainkoaren asmoetan dago, beraz, egon gaitezen lasai. Horrelako  
kasu batean, legez erretu behar dira erlijioan lokartutako gizakiak.

Erljioak lege zibilek baimendu behar dituzten gauzak konde-  
natzen dituenean, arriskutsua da lege zibilek, beren aldetik, ez bai-  
mentzea erlijioak kondenatu behar duena; gauza horietako batek zera  
adierazten baitu beti, harmonia eta doitasuna falta dela ideietan, bes-  
tera hedatzen dena.

Esate baterako, Gengis Khanen tartariarrentzat<sup>10</sup> bekata zen  
—are gehiago, delitu larria— haiztoa sutan jartzea, norbera zartailu  
baten kontra bermatzea, zaldia bridaz jotzea, hezur batez beste bat  
haustea; aitzitik, ez zuten sinesten bekatu zirenik zina haustea, inoren  
gauzak lapurtzea, inori irain egitea, inor hiltzea. Hitz batez, axolaga-  
bekoa dena beharrezkotzat harrarazten duten legez akats hori dute,  
axolagabekotzat harrarazten dutela beharrezko dena.

Formosatarrek infernu moduko batean sinesten dute<sup>11</sup>, baina  
aro jakin batzuetan biluzik joan ez direnak, sedazko jantzien ordez

ehunezko jantziak jantzi dituztenak, ostratara joan direnak, txorien kanta kontsultatu gabe jardun dutenak zigortzeko da infernu hori; eta ez daukate bekatutzat mozkorzaletasuna eta andretan ibiltzea; sinesten dute, halaber, seme-alaben gaiztakeriak atsegin zaizkiela beren jainkoei.

Erlijioak funtsezkoa ez den zerbait santutzen duenean, alferrik galtzen du gizakien artean den bitartekorik handiena. Indiarrek sinesten dute Ganges ibaiko urek ahalmen santifikatzailea dutela<sup>12</sup>: uste da ibaiaren ertzetan hiltzen direnek beste bizitzan zigorrik ez dutela izango, eta deliziaz betetako eskualde batean biziko direla; lekurik urrunenetatik, hildakoen errautsez betetako urnak bidaltzen dira, Gangesera jaurtitzeko. Berdin dio, bada, bertutetsu bizitzea edo ez bizitzea. Errautsak Gangesera bota eta kito.

Sarien gisako leku baten ideiak zigorren leku baten ideia daraberekin, derrigorrez, eta bat itxaro denean bestearen beldurrik ez bada, lege zibilek ez dute indarrik. Beste bizitzan sari segurua izango dutela sinesten duten gizonek ihes egingo diote legegileari; gehiegi mesprezatuko dute heriotza. Nola eutsi legeen bidez magistratuak ezar diezaioketen zigorrik handienak unetxo bat iraungo duela eta ondoren bere zoriona hasiko dela guztiz sinetsita dagoen gizakiari?

## XV

*Nola lege zibilek batzuetan erlijio faltsuak zuzentzen dituzten*

Gauza zaharretarako begiruneak, sinpletasunak edo superstizioak lotsaren kontra joan zitezkeen misterioak edo zeremoniak ezarri izan dituzte batzuetan, eta horren adibideak ez dira falta izan munduan. Aristotelesek<sup>13</sup> dio ezen, kasu horretan, legeak famili gurasoak tenplura joateko bidea ematen duela misterio horiek ospatzera beren emazteen eta seme-alaben alde. Hori bai lege zibil miresgarria, ohiturak erlijioaren kontra gordetzen dituen!

Augustok<sup>14</sup> debekatu egin zien bi sexuetako gazteei ezoin gauzeremoniatan izatea, adineko ahaideren batez lagunduta ez bazihoazen; eta jai luperkalak berrezarri zituenean, ez zuen nahi izan gazteek biluzik korrika egitea<sup>15</sup>.

## XVI

### *Nola erlijioaren legeek konstituzio politikoaren eragozpenak zuzentzen dituzten*

Bestalde, erlijioak estatu politikoari euts diezaioke, legeek ezin dutenean.

Hala, gerra zibilek Estatua maiz astintzen dutenean, erlijioak asko egingo du baldin eta Estatuaren parteren batek beti bakean egon behar duela ezartzen badu. Greziarren artean, elearrak, Apoloren apaiz zirenez, bakea zuten beti. Japonian<sup>16</sup>, bakean uzten dute beti Meakoko hiria, hiri santua baita; erlijioak eusten dio araudi horri, eta inperio hark, lurbira osoan bakarrik dagoela dirudienak, atzerritarrengandik ezer ez duenak eta izan nahi ere ez duenak, gerrak hondatzen ez duen merkataritza du bere mugen barruan.

Gerrak denen artean deliberatu ondoren egiten ez diren estatuetan, legeek gerrak bukatzeko edo gerrei aurea hartzeko inolako bitartekorik ez dutenean, erlijioak bake- edo tregoa-aldiak ezartzen ditu, herriak zenbait gauza egin ditzan, hala nola ereitea eta antzeko lanak, horiek gabe Estatuak ez bailuke iraungo.

Urtero, lau hilabetez, sesio oro eten egiten zen tribu arabiarren artean<sup>17</sup>; iskanbilarik txikiena ere erlijio gabetasuntzat hartzen zen. Frantzian jaun bakoitzak gerra edo bakea egiten zuenean, erlijioak ematen zituen aldi jakin batzuetan egin beharreko tregoak.

## XVII

### *Gai beraren jarraipena*

Estatu batean gorrotorako arrazoi asko daudenean, erlijioak adiskidetzeko bitarteko asko eman behar ditu. Arabiarrek, lapurherria, sarri egiten zizkieten irainak eta bidegabeak elkarri. Mahometek lege hau egin zuen<sup>18</sup>: «Inork anaiaren odola barkatzen badu<sup>19</sup>, gaizkilearen kontra jo ahal izango du kalte-ordainak eskatuz; baina gaizkileagandik kalte-ordainak jaso ondoren min egiten dionak, epai-egunean tormentu oinazetsuak jasango ditu».

Germaniarren artean, hurbilekoen gorrotoak eta etsaigoak oinordekotzan jasotzen ziren, betiko izaten ez baziren ere. Hilketa ordaintzeko, abere-kopuru jakin bat ematen zen, eta familia osoak hartzen zuen ordaina: «Gauza oso baliagarria», dio Tazitok<sup>20</sup>, «zeren eta etsaigoak arriskutsuagoak baitira herri libre batean». Uste dut erlijioaren ministroak sartzen zirela adiskidetze horietan, haien artean sinesgarritasun handia baitzuten.

Malaiarren artean<sup>21</sup>, non adiskidetzea ez baitago ezarrita, inor hil duenak, hildakoaren ahaide edo lagunek bera ere hilko dutela etsita, sumina bere buruaz jabe dadin uzten du, eta aurrean aurkitzen dituen guztiak zauritu eta hil egiten ditu.

## XVIII

*Nola erlijioaren legeek lege zibilen ondorioa duten*

Lehen greziarrak herri txikiak ziren, maiz sakabanatuak, pirata itsasoan, bidegabe-egile lehorrean, ez gizabiderik ez legerik ez zutenak. Herkules eta Teseoren ekintza ederrek erakusten dute zein egoeratan zegoen sortzen ari zen herri hura. Zer egin zezakeen erlijioak, zer egin zuen hilketez ikara zitezen? Ezarri zuen bortxaz hildako gizona hiltzailearen kontra sumintzen zela, kezkatu eta ikaratu egiten zuela, eta bera ibilitako lekuak utz ziezazkiola nahi zuela<sup>22</sup>; hiltzailea ezin zen ukitu, ez eta berarekin hitz egin ere, orbanduta edo ezgaituta geratu gabe<sup>23</sup>; hiltzailearen aurrean egotea saihestu egin behar zen hirian, eta hoben hori garbitu beharra zegoen<sup>24</sup>.

## XIX

*Dogma bat estatu zibilean gizonentzako baliagarri edo kaltegarri egiten duena ez dela dogma horren egiatasuna edo faltsutasuna, baizik eta hartaz egiten den erabilera edo gehiegikeria*

Dogmarik egiazkoenек eta santuenek oso ondorio txarrak izan ditzakete gizartearen printzipioekin lotzen ez badira; eta, alderantziz,

dogmarik faltsuenek ondorio miresgarriak izan ditzakete printzipio horien arabera ezartzen badira.

Konfuzioren erlijioak ukatu egiten du arimaren hilezkortasuna<sup>25</sup>; eta Zenonen sektak ez zuen sinesten hartan. Nork esango luke? Bi sekta horiek, beren printzipio gaiztoetatik, ondorio bidezko ez baina miresgarriak atera dituzte gizartearentzat.

Taoren eta Foëren erlijioek sinesten dute arimaren hilezkortasuna, baina hain dogma santutik ondorio lazgarriak atera dituzte.

Ia mundu guztia-erentzat, eta garai guztietan, arimaren hilezkortasunaren iritziak, gaizki ulertuta, elkar hiltzera eraman ditu emakumeak, esklaboak, sujetak, lagunak, begirunea dioten edo maite duten hori beste munduan zerbitzatzera joateko. Halaxe zen Mendebaldeko Indietan; halaxe daniarren artean ere<sup>26</sup>; eta halaxe da gaur egun oraindik ere Japonian<sup>27</sup>, Makasarren<sup>28</sup>, eta munduko hainbat bazterretan.

Ohitura horiek arimaren hilezkortasunaren dogmatik baino gehiago, gorputzen berpizkundearen dogmatik eratortzen dira; hortik ondorio hau atera baita, heriotzaren ondoren norbanakoak premia, sentipen, grina berberak izaten jarraitzen duela. Ikuspuntu horretatik, arimaren hilezkortasunaren dogmak eragin izugarria du gizakiengan, egoitza-aldaketa huts baten ideia atzeman-errazagoa baita gure gogoarentzat, eta gozoagoa gure bihotzarentzat, beste aldaketa batena baino.

Erljio batentzat ez da aski dogma bat ezartzea; horrez gainera gidatu egin behar du. Horixe egin du miresgarriki ondo erlijio kristauak hizpide ditugun dogmei dagokienez: sinesten dugun egoera baten itxaropena ematen digu, ez sentitzen edo ezagutzen dugun egoera batena; denak, are gorputzaren berpizkundeak berak ere, ideia espirtualetara garamatza.

## XX

### *Gai beraren jarraipena*

Antzinako pertsiarren liburu sakratuek<sup>29</sup> honela zioten: «Santu izan nahi baduzu, irakatsi seme-alabei, haiek egingo dituzten ekintza



on oro zuei egotziko baitzaizkizue». Goiz ezkontzeko aholkatzen zuten, zeren eta seme-alabak zubi bat bezalakoak izango baitziren judizioaren egunean, eta haurrik ez zutenek ezingo baitzuten pasatu. Dogma horiek faltsuak ziren, baina oso baliagarriak.

## XXI

### *Metenpsikosiaz*

Arimaren hilezkortasunaren dogma hiru adarretan zatitzen da: hilezkortasun hutsarena, egoitza-aldaketa hutsarena, metempsychosia-rena; alegia, kristauen sistema, esziten sistema, indiarren sistema. Mintzatu berri naiz lehen biez, eta hirugarrenaz zera esango dut, ondo eta gaizki gidatua izan denez, ondorio onak eta txarrak dituela Indietan. Gizakiei odola isurtzeko beldurra sartu dienez, oso hilketa gutxi izaten dira Indietan; eta, heriotza-zigorrik ia ematen ez bada ere, mundu guztia dago lasai han.

Beste alde batetik, ordea, emazteak erre egiten dira senarrak hiltzen direnean; errugabeek bakarrik nozitzen dute han indarkeriaz-ko heriotza.

## XXII

### *Zein arriskutsua den erlijioak izuikara eragitea gauza axolagabekoez*

Erljioaren aurreiritziek Indietan ezartzen duten halako ohore baten poderioz, kastek izuikara diote elkarri. Ohore hori erlijioan baizik ez dago oinarritua; famili bereizketa horiek ez dira bereizketa zibilak; indiarren bat desohoratua sentituko litzateke bere erregearekin jango balu.

Bereizketa-mota horiek beste gizakienganako halako higuin batekin daude lotuta; oso desberdina da hori maila-desberdintasunek —gure artean beheragokoenganako maitasuna beren baitan hartzen dutenak— sorrarazi behar dituzten sentimenduetatik.

Erljioaren legeak bizioaren mesprezioa besterik ez sorrarazten saiatuko dira, eta batez ere gizakiak beste gizakienganako maitasunetik eta errukitik ez urruntzen.

Mahometar erlijioak eta indiar erlijioak ezin konta ahala herri hartzen dituzte beren baitan; indiarrek gorroto dituzte mahometarrak, behia jaten dutelako; mahometarrek higuina diete indiarrei, hauek txerrikia jaten dutelako.

## XXIII

### *Jaiez*

Erljio batek lanari uzteko agintzen duenean, ohoratzen duen izakiaren handitasuna baino kontuanago hartu behar ditu gizakien premiak.

Atenasen<sup>30</sup> eragozpen handia zen hainbeste jai izatea. Herri menderatzaile hartan, zeinen aurrera Greziako hiri guztiek ekartzen baitzituzten beren arteko auziak, ez ziren gai auzi guztiak erabakitzeko.

Konstantinok ezarri zuenean igandean atsedean hartuko zela, hirietarako eman zuen ordenantza hori<sup>31</sup>, ez landako herrientzat: ikusten zuen hirietan lan baliagarriak zeudela, eta landetan lan beharrezkoak.

Arrazoi beragatik, merkataritzari esker bizi diren herrialdeetan, jai-kopuruak merkataritza horren arabera izan behar du. Herrialde protestanteak eta herrialde katolikoak dauden lekuetan daudenez<sup>32</sup>, lehenengoetan bigarrenetan baino lan-premia handiagoa da, Jaiak ezabatzea, beraz, gehiago komeni zitzaien herrialde protestanteei katolikoei baino.

Dampierrek<sup>33</sup> azpimarratzen du herrien atseginbideak asko aldatzen direla klimaren arabera. Klima beroek fruitu delikatu ugari ekoizten dituztenez, barbaroek, lehenik beharrezko dena aurkitzen dute, eta denbora gehiago dute atseginetarako. Herrialde hotzetako indiarrek, aldiz, ez dute hainbeste asti libre; arrantzan eta ehizan egin behar dute etengabe eta, beraz, dantza, musika eta ospakizun gutxiago dituzte; eta herri horietan kokatuko litzatekeen erlijio batek kontuan izan beharko luke hori jaiak ezartzerakoan.

## XXIV

### *Erlijio lokalen legeez*

Lege lokal asko daude erlijioetan. Eta Moktezuma hainbeste setatzen zenean esaten espainiarren erlijioa ona zela haientzat, eta Mexikokoa bertakoentzat, ez zuen burugabekeriarik esaten, zeren eta, hain zuzen, legegileek ezinbestean egin behar izan baitiote men naturak berek baino lehen ezarritakoari.

Metenpsikosiaren iritzia Indietako klimarentzat egina da. Gehiegizko beroak erre egiten ditu<sup>34</sup> landa guztiak; oso ganadu gorri gutxi haz liteke; beti daude laborantzarako aski ganadu ez izateko arriskuan; idiak ez dira gehiegi ugaltzen<sup>35</sup>; gaixotasun gehiegik jotzen ditu: haiek babestuko dituen erlijio-legea oso komenigarria da, beraz, herrialde hartako aribiderako.

Belazeak erreta dauden bezala, arroza eta lekaleak ederki hazten dira, hartarako erabil daitezkeen urei esker: elikagai hori baizik onesten ez duen erlijio-lege bat, beraz, oso baliagarria da klima haietako gizakientzat.

Abere haien okelak<sup>36</sup> ez du zaporerik; eta ateratzen dizkieten esneak eta gurinak haien elikagaien parte bat osatzen dute: behiak jatea eta hiltzea debekatzen duen legea, beraz, ez da arrazoigabea Indietan.

Atenasek ezin konta ahala biztanle zituen; lurraldea antzua zen: arau erlijioso batek ezarri zuen jainkoei eskaintzatxoak egiten zizkietenek idiak eskaintzen zizkietenek baino gehiago ohoratzen zituztela<sup>37</sup>.

## XXV

### *Erlijio bat herrialde batetik beste batera eramateko eragozpena*

Esandakotik ondorio hau ateratzen da, oso maiz eragozpen ugari izaten direla erlijio bat herrialde batetik beste batera eramateko<sup>38</sup>.

«Txerria», dio Boulainvilliers-ek<sup>39</sup>, «oso urria da Arabian, non ia ez baitago basorik, ez ezer egokirik azienda horiek hazteko; bestal-

de, uraren eta elikagaien gaziak larruazaleko gaixotasunen mende jartzen du hango jendea». Hori debekatzen duen lege lokala ez litzateke ona beste herrialde batzuetarako<sup>40</sup>, non txerriak den-denon elikagai baita, eta, beraz, beharrezkoa.

Gogoeta bat egingo dut puntu honetan. Sanktoriosek ohartu du jaten den txerriak izerdi gutxi aterarazten duela<sup>41</sup>, eta elikagai horrek beste elikagai batzuk izerdi bidez ateratzea galarazten duela oso: aurkitu du heren bateraino<sup>42</sup> gutxitzen duela; bestalde, gauza jakina da izerdi gutxi botatzeak azaleko gaixotasunak sorrarazten edo gaiztotzen dituela; txerriak, bada, debekatu beharra dago gaixotasun horien mende dauden lekuetan, hala nola Palestinan, Arabian, Egipton eta Libian.

## XXVI

### *Gai beraren jarraipena*

Chardinek dio<sup>43</sup> Pertsian ez dagoela ibai nabigagarririk, Kur ibaia izan ezik, inperioaren muturrean. Gebroen lege zaharrak, ibaie-tatik nabigatzea debekatzen baitzuen, ez zuen inolako eragozpenik sortzen herrialde hartan, baina besteren batean hondatu egingo zukeen merkataritza.

Ikuzketak asko usatzen dira klima beroetan. Horren ondorioz, lege mahometarrak eta erlijio indiarak agindu egiten dituzte halakoak. Oso merezimendu handiko ekintza da Indietan Jainkoari urlaste-rrean erreztatzea<sup>44</sup>, baina nola egin horrelakoak beste klima batzuetan?

Erljioa, klimaren gainean oinarrituta, beste herrialde bateko klimaren oso kontrakoa gertatu denean, ezin izan da egokitu bertan; eta sarrarazi badute, kanporatua izan da. Badirudi, giza mailan hitz eginez, klimak ezarri dizkiela mugak erlijio kristauari eta erlijio mahometarrari.

Hortik zera ondorioztatzen da, ia beti komeni izaten dela erlijio batek dogma partikularrak eta kultu orokorra izatea. Kultu-praktiei dagozkien legeetan, xehetasun gutxi behar dira; adibidez, nekaldiak, eta ez nekaldi jakin bat. Kristautasuna zentzuz beteta dago: abstinentsia jainkozko zuzenbideari dagokio, baina abstinentsia jakin bat ordena publikoaren zuzenbidean kokatzen da, eta aldatu egin daiteke.

# HOGEITA BOSGARREN LIBURUA

Legeez, herrialde bakoitzeko erlijioa  
ezartzearekin eta bertako kanpo-politikarekin  
duten zerikusiaren aldetik

## I

*Erljioarekiko sentipenaz*

Gizon Jainkoari atxikiak eta ateoak erlijioaz hitz egiten dute beti; batak maite duenaz hitz egiten du, eta besteak beldur dionaz.

## II

*Erljioekiko atxikimenduaren arrazoiak*

Munduko erlijioek ez diete atxikimendurako arrazoi berberak ematen beren jarraitzaileei; hori, erlijioek gizakien pentsaerarekin eta sentierarekin bat etortzeko moduaren arabera da hein handi batean.

Oso emanak gara idolatriara, eta hala ere ez gaude erlijio idolatren mende; ez gara ideia espiritualetara emanak, eta hala ere oso atxikiak gara Izaki espirituala gurtzarazten gaituzten erlijioei. Sentipen zoriontsua da, aldeaz geure baitan aurkitzen dugun bozkariotik datorrena, Jainkoa beste erlijioek jarria zuten lekutik ateratzen duen erlijioa aukeratzeko adina inteligente izan garelako. Herri baldarraren erlijiotzat daukagu idolatria, eta xedetzat izaki espirituala daukan erlijioa, berriz, herri argituen erlijiotzat.

Izaki espiritual gorenaren ideari —horrek eratzen du dogma— kultuan sartzen diren ideia sumagarriak eransten dizkiogunean,

horrek erlijioarekiko atxikimendu handia ematen digu, hizpide izan berri ditugun arrazoiak gauza sumagarrietarako dugun joera berezkoarekin lotuta daudelako. Hala, katolikoak, protestanteek baino gehiago baitute kultu-mota horretatik, askoz atxikiago daude beren erlijioari, protestanteak berenari baino, eta gehiago arduratzen dira hura zabaltzen.

Efesoko herria ikasi zuenean kontzilioko gurasoek erabaki zutela Ama Birjinari *Jainkoaren Ama* dei zekiokeela, bozkariotan jarri zen; apezpikuei eskuetan muin ematen zien, belaunak besarkatzen zizkien; aldarrika handien oihartzunak ziren nonahi<sup>45</sup>.

Erlijio intelektual batek Jainkoak egindako aukera baten ideia ematen digunean, eta hura profesatzen dutenen eta profesatzen ez dutenen arteko bereizketa batena, horrek asko atxikiagotzen gaitu erlijio horrekin. Mahometarrak ez lirateke hain musulman onak, batetik herri idolatrarik ez balitz, halakoek berak Jainkoaren batasunaren mendekatzailleak direla pentsarazten baitiete, eta bestetik kristauak ez balira, hauek Jainkoaren begien aurrean lehenak direla pentsarazten baitiete haiei.

Praktika ugariz zamatutako erlijio batek<sup>46</sup> hain zamatua ez den beste batek baino gehiago atxikiarazten du: gehiago lotu ohi gara etengabeko arreta eskatzen diguten gauzetara; horren froga, mahometarren<sup>47</sup> eta judutarren seta setatsua, eta herri barbaroek eta basatiek erlijioz aldatzeko duten erraztasuna; izan ere, ehizaz edo gerraz baka-rrik arduratzen direnez, ez dira kezkatzen erlijio-praktikez.

Gizonak oso emanak dira itxarotera eta beldur izatera, eta ez infernurik ez paradisu-rik ez lukeen erlijio bat ez litzateke haien gogoko izango. Horren froga, erlijio arrotzak Japonian zein erraz kokatu diren, eta zein arretaz eta maitasunez hartu dituzten han<sup>48</sup>.

Erlijio batek jendea beregana dezan, moral garbia izan behar du. Gizakiak, gauza txikietan bilauak badira ere, oso jende zintzoa dira orokorrean; moralak maite dute, eta hain gai larriaz ari ez banintz, esango nuke hori ezin hobeto ikusten dela antzerkietan: gauza segurua da herriari atsegin gertatzea moralak onesten dituen sentimenduen bidez, eta gauza segurua da hura gogaitzea gaitzesten dituenen bidez.

Kanpoko kultuak handitasuna duenean, balakatu egiten gaitu eta atxikimendu handia ematen digu erlijioarekiko. Tenpluen eta eliz-

gizonen aberastasunek zirrara handia egiten digute. Hala, herrien miseria bera herriok erlijioarekiko lotzen dituen arrazoi bat da, miseria ekarri dietenek aitzakia gisa erabili duten erlijioarekiko, hain zuzen.

### III

#### *Tenpluez*

Ia herri zibilizatu guztiak bizi dira etxeetan. Hortik berez sortu da Jainkoari etxe bat eraikitzekeo ideia, bertan hura gurtzeko eta bel-durrean eta itxaropenetan harengana jotzeko.

Hain zuzen, ezer ez da kontsolagarriagorik gizakientzat, Jainkoa presenteago sumatzeko eta denak bilduta beren ahulezia eta beren miseria adierazteko leku bat baino.

Baina hain ideia naturala lurra lantzen duten herriek izaten dute bakarrik, eta ez da ikusiko etxeak ez dituztenek tenplua eraikitzen dutenik.

Horrexegatik mesprezatzen zituen hainbeste Gengis Khanek mezkita<sup>49</sup>. Printze hark<sup>50</sup> galderak egin zizkien mahometarrei; onartu egin zituen haien dogma guztiak, salbu eta Mekara joatera behartzen duena; ezin zuen ulertu Jainkoa nonahi gur ez zitekeenik. Tartariarrek, etxeetan ez baitziren bizi, ez zituzten ezagutzen tenpluak.

Tenplurik ez duten herriek atxikimendu urria dute erlijioaren alderako: horra zergatik tartariarrak hain toleranteak izan diren betidanik<sup>51</sup>; horra zergatik inperio erromatarra konkistatu zuten herri barbaroek ez zuten inolako zalantzarik izan kristautasuna onartzeko; zergatik Amerikako basatiek hain atxikimendu eskasa duten beren erlijioaren alderako; eta zergatik, gure misiolariak Paraguan elizak erai-kiarazi dizkietenez geroztik, hain arretatsuak diren gurearekiko.

Jainkoa zorigaitzekoen babesa denez, eta gaizkileak baino jende zorigaitzekoagorik ez dagoenez, berez pentsatu izan da tenpluak haientzako babeslekua zirela, eta ideia hori are naturalagoa iruditu zitzairen greziarrei, non hiltzaileek, beren hiritik eta gizakien presentziatik baztertuak, tenpluak beste etxerik ez zutela baitzirudien, jainkoak beste babeslerik ez zutela.

Hori borondatez kontrako hilketei zegokien hasieran; baina gaizkile handiak ere barne hartu zirenean, oso kontraesan zakarrean erori ziren: gaizkileok gizakiei irain egin bazieten, are arrazoi gehiagoz iraindu zituzten jainkoak.

Babesleku haiek ugaltu egin ziren Grezian: tenpluak, dio Tazitok<sup>52</sup>, zordun kaudimengabez eta esklabo gaiztoz beteta zeuden; magistratuek zailtasunak zituzten beren egitekoa betetzeko; herriak babestu egiten zituen gizakien delituak, jainkoen zeremoniak bezala; senatua haietariko asko ezabatzeraz behartu zuten.

Moisesen legeak oso zuhurak izan ziren. Borondatez kontrako hiltzaileak errugabeak ziren, baina alde egin behar zuten hildakoaren ahaideen bistatik; beraz, babes bat ezarri zuen haientzat<sup>53</sup>. Delitugile handiek ez dute merezi babesik, eta ez zuten halakorik izan<sup>54</sup>. Judutarrek tabernakulu eramangarri bat besterik ez zeukaten, eta eten-gabe aldatzen zuten lekuz; horrek kanpo uzten zuen babesaren ideia. Egia da tenplu bat eduki behar zutela, baina alde guztietatik bertara joandako gaizkileek oztopatu egin zezaketen Jainkoaren zerbitzua. Hiltzaileak herrialdetik kanporatuak izan balira, greziarren artean bezala, jainko arrotzak gurtzen hasteko arriskua zegoen. Kontsidero horien guztien ondorioz sortu ziren babes-hiriak, non geratu behar baitzuten apaizburu gorena hil arte.

## IV

### *Erlijioaren ministroez*

Lehen gizonek, dio Porfiriok, belarra baino ez zuten sakrifikatzen. Hain kultu sinplerako, nor bere familiako apaizburu izan zitekeen.

Jainkoari atsegin egiteko gogo naturalak ugaltu egin zituen zeremoniak, eta horrek ekarri zuen gizakiak, nekazaritzara emanak, denak burutzeko gai ez izatea, eta xehetasunak kontuan izatea.

Leku bereziak eskaini zitzaizkien jainkoei; beharrezko izan ziren ministroak haietaz arduratzeke, hiritar bakoitza bere etxeaz eta etxeke arazoez arduratzen den bezala. Horregatik, apaizik ez duten



herriak barbaroak izan ohi dira gehienetan. Halakoak ziren behinola pedaliarrak<sup>55</sup>, eta halakoak dira egun ere wolguskyarrak<sup>56</sup>.

Jainkoari sagaratutako pertsonak ohoratu beharra zegoen, batez ere gorputz-araztasunaz ideia bat eratua zuten herrietan. Araztasun hori beharrezkoa zen jainkoentzat atseginenak ziren lekue-tara hurbiltzeko, eta jokamolde jakin batzuen mende zegoen.

Jainkoen gurtzak etengabeko arreta eskatzen zuenez, herririk gehienek talde berezi bihurtu zuten apaizeria. Hala, egiptoarren, judutarren eta pertsiarren artean<sup>57</sup>, familia batzuk jartzen ziren jainkoen zerbitzuan, eta belaunaldiz belaunaldi betierekotzen ziren. Zenbait erlijiotan, elizgizonak negozioetatik urruntzeaz gainera, familiaren traba kendu nahi izan zaie, eta horixe da lege kristauaren adar nagusiaren jokamoldea.

Ez naiz mintzatuko hemen zelibatoaren legearen ondorioez; bistan da kaltegarria gerta litekeela elizgizonen taldea oso handia balitz, eta ondorioz laikoena aski ez balitz.

Giza adimenaren izaeraz, erlijio-kontuetan ahalegina eskatzen duen oro maite dugu, moral-kontuan zorroztasun-itxura daukan oro maite dugun bezala. Zelibatoa atsegin izan zaie ustez gutxien komeni zitzaien herriei, zeinentzat ondorio txarrenak izan baitzitzakeen. Europa hegoaldeko herrialdeetan, non, klimaren izaeragatik, zelibatoaren legea zailagoa baita gordetzen, iraun egin du; iparraldekoetan, non grinak ez baitira hain biziak, indargabetu egin dute. Are gehiago: biztanle gutxiko herrialdeetan, onartu egin dute; asko direnetan, arbuia. Bistan da gogoeta hauek guztiak zelibatoaren hedapen handiegia dagozkiola, ez zelibatoari berari.

## V

### *Legeek elizgizonen aberastasunei ezarri behar dizkieten mugez*

Familia partikularrak iraungi egin daitezke; hortaz, ondasunak ez dituzte betiko. Elizgizonak iraungi ezin den familia dira: beraz, ondasunak betiko dituzte, eta ezin dira haiengandik irten.

Familia partikularrak ugaltu egin daitezke: beraz, beharrezko da haien ondasunek ere hazi ahal izatea. Elizgizonak ugaltu ezin daitekeen familia da: beraz, ondasunek mugatuta behar dute.

*Lebitarren*eko xedapenak gorde ditugu elizgizonen ondasunez, salbu eta ondasun horien mugei buruzkoak; hori dela eta, inoiz ezin-go dugu jakin zein neurritaraino duen zilegi komunitate erlijioso batek ondasunak bereganatzea.

Etengabeko bereganatze horiek hain arrazoiz kontrako iruditzen zaizkie herriei, non haien alde hitz egin nahiko lukeen edonor ergeltzat hartuko bailukete.

Lege zibilek oztopoak aurkitzen dituzte batzuetan ezarritako gehiegikeriak aldatzerakoan, errespetatu behar dituzten gauze-kin lotuta daudelako: kasu horretan, zeharkako xedapen bat lege-gilearen asmo onaren froga hobe da gauzari zuzenean helduko liokeena baino. Elizgizonen eskuratzak debekatu ordeztu, haie-alden daitezten saiatu behar da; eskubidea utzi, eta egintza ezereztu.

Europako herrialde batzuetan, jaun- eskubideak aintzako- tzat hartuz, esku hiletakoek erosten zituzten higiezin- gainean indemnizazio- eskubide bat ezarri da jaun haien alde. Printzearen interesak amortizazio- eskubidea eskarazi dio kasu berean. Gaztelan, non ez baita horrelako araurik, elizgizonek dena inbadi- tu dute; Aragoi- n, non bai baita amortizazio- zerga zerbait, gutxiago eskuratu dute; Frantzian, non zerga hori eta indemnizazioko- a eza- rritu baitaude, are gutxiago eskuratu du; eta esan daiteke estatu horren aberastasuna, aldeztu, bi aukera horiek erabiltze- ari zor zaio- la. Gehi itzazue zerga horiek, eta gera itzazue esku hilak, ahal bada.

Egin ezazue sakratu eta bortxaezin elizgizonen ondare antzina- ko eta beharrezkoa; finko eta betierekoa izan dadila, haiek bezala; baina utzi beste ondasun berriak haren eskuetatik irteten.

Utz ezazue araua hausten, araua gehiegikeria bihurtu denean; paira ezazue gehiegikeria, arauan sartzen denean.

Erroman beti gogoratu ohi dira elizgizonekin izandako sesio batzuk zirela- eta bidalitako memoria batez: «Elizgizonek Estatuaren kargetan parte izan behar dute, nahiz Itun Zaharrak besterik esan». Hortik atera zen memoriaren egileak hobeto ulertzen zuela zergen hiz- kuntza, erlijioarena baino.

## VI

### *Monasterioez*

Zentzu-apur bat aski da ikusteko azkenik gabe betierekotzen diren talde horiek ez dituztela saldu behar beren lurrak, ez eta biziarteko maileguak eman ere, ahaiderik ez duten guztien eta eduki nahi ez duten guztien oinordeko bihur ez daitezen nahi badugu. Jende horrek herriaren kontra jokutzen du, baina beren kontra dituzte bankuak.

## VII

### *Superstizioen luxuaz*

«Jainkoen begirunerik ez dute», dio Platonek<sup>58</sup>, «haiek badirela ukatzen dutenek; edo badirela onartu arren, haiek hemen beheko gauzeekin ez direla nahasten diotenek; edota, azkenik, sakrifizioak eskainita erraz bakeratzen direla diotenek; hiru iritzi horiek kaltegarriak dira hirurak ere». Hor Platonek inoiz adimen naturalak erlijio-kontuetan esan dituen gauzarik zuhurrenak esaten ditu.

Kanpo-kultuaren handitasunak zerikusi handia du Estatuaren konstituzioarekin. Errepublikan onetan, handikeriaren luxua ez ezik, superstizioarena ere erreprimitu da. Erlijioan aurrezteko legeak egin izan dira. Horrelakoak dira Solonen zenbait lege; horrelakoak, Platonek hiletez emandako zenbait lege, Zizeronek onartuak; horrelakoak, azkenik, Numak<sup>59</sup> sakrifizioez emandako zenbait lege.

«Txoriak eta egun batean egindako pinturak», dio Zizeronek, «dohain oso jainkozkoak dira».

«Gauza arruntak eskaintzen ditugu», zioen espartar batek, «egunero izan dezagun jainkoak ohoratzeko modua».

Gizakiek Jainkoari kultua eskaintzeko izan behar duten ardura kultu horren handitasunaren oso desberdina da. Ez diezazkiogun eskaini gure altxorrak, ez badiogu erakutsi nahi hark guk mesprezatzea nahi lukeen gauzak zenbat estimatzen ditugun.

«Zer pentsatu behar dute jainkoek erlijio-gabeez?», dio miresgarri Platonek, «izan ere, gizon zintzo bat gorritu egingo litzateke gizon gaizto batengandik opariak jasotzean».

Erljioak ez dio eskatu behar herriari, dohainen aitzakiaz, Estatuaren premiek utzi diotena; eta Platonek dioenez<sup>60</sup>, gizon garbi eta jainkozaleek beren antza duten dohainak eskaini behar dituzte.

Erljioak ez lituzke sustatu behar hiletetako gastuak ere. Zer da naturalagorik, fortuna guztiak berdintzen dituen gauza eta une batean fortuneen arteko aldeak ezabatzea baino?

## VIII

### *Apaizburutzaz*

Erljioak ministro asko dituenean, naturala da haiek buruzagia izatea, eta apaizburutza ezarrita egotea. Monarkian, non ahalik eta gehien bereizi behar baitira Estatuko ordenak, eta non ez baitira buru baten gainean bildu behar botere guztiak, ona da apaizburutza eta botere politikoa bereizita egotea. Behar hori ez dago gobernu despotikoan, honen izaera buru baten gainean botere guztiak biltzea baita. Baina kasu horretan, gerta liteke printzeak erljioa bere legeak bezala hartzea, bere borondatearen ondorio gisa. Eragozpen horri aurrea hartzeko, erljioaren monumentuak egon behar dute; adibidez, hura finkatzen eta ezartzen duten liburu sakratuak. Pertiako erregea erljioiburua da; baina Koranak arautu egiten du erljioa; Txinako enperadorea apaizburu gorena da, baina badira liburuak, mundu guztiaren eskuetan daudenak, eta hark ere men egin behar die haiei. Alferrik indargabetu nahi izan zituen enperadore batek; garaitu egin zitzaizkion tiraniari.

## IX

### *Tolerantziaz erljio-kontuetan*

Hemen politikoak gara, ez teologoak; eta, teologoentzat ere, alde handia dago erljio bat toleratzearen eta onartzearen artean.

Estatu bateko legeek erljio-aniztasuna onartu behar dutela ezarri ditenean, erljio horien arteko tolerantzia ere bermatu behar dute. Printzipioa da erreprimittuta dagoen erljio oro erreprimittzaile bihur-

tzen dela; izan ere, zapalkuntzatik irteterik daukanean, bera erreprimitu duen erlijioari eraso egiten dio, ez erlijio den aldetik, tirania gisa baizik.

Beraz, garrantzitsua da legeek erlijio desberdin horiei, Estatuari oztoporik ez jartzea ez ezik, elkarri oztoporik ez jartzea exijitzea. Hiritar batek, legeak behar bezala betetzeko, ez du aski Estatuaren gorpuztea ez astintzea; horrez gainera, beharrezko du beste edozein hiritar ez asaldatzeari.

## X

### *Gai beraren jarraipena*

Beste leku batzuetara hedatzeko gogo handia dutenak erlijio intoleranteak baizik ez direnez —zeren eta beste erlijioak onar ditzakeen erlijioa ez baita gehiago hedatzen saiatzen—, Estua ados bada go jadanik ezarrita dagoen erlijioarekin, oso lege zibil ona izango da besteren bat ezartzea ez onartzea<sup>61</sup>.

Hona hemen, beraz, lege politikoen printzipio funtsezkoa, erlijioaz denaz bezainbatean: Estatu batean beste erlijio bat onartzeko edo ez onartzeko aukera dagoenean, ez da onartu behar; lehendik ezarrita dagoenean, ordea, toleratu egin behar da.

## XI

### *Erlijio-aldaketaz*

Printze batek, bere estatuan nagusi den erlijioa suntsitzea erabakitzen duenean, arrisku handia hartzen du. Bere gobernu-erapotentzia bada, iraultza jasateko arriskua handiagoa du beste edozein tiranokeriagatik baino, hori ez baita gauza berria estatu-mota horretan. Iraultza etortzen da, estatu bat ezin delako erlijioz, ohituraz eta manieraz aldatu istant batean, printzeak beste erlijio bat ezartzen duen ordenantza jakinarazi bezain laster.

Gainera, erlijio zaharra estatuaren izaerarekin lotuta egon ohi da, eta berria ez; hura bat etorri ohi da klimarekin, eta berriak maiz kontra egiten dio. Are gehiago: hiritarrek narda hartzen dute legeeki-ko; erdeinua sortzen zaie ezarritako gobernu-eraz; bi erlijioen kontra-ko susmoen orde, bietako baten aldeko fede irmoa sortzen da; hitz batez, Estatuari, aldi baterako behinik behin, hiritar txarrak eta eliztar txarrak sortzen zaizkio.

## XII

### *Lege penalez*

Erljioaz denaz bezainbatean, saihestu egin behar dira lege penalak. Beldurra sorrarazten dute, egia da, baina erlijioak ere beldurra ematen duten lege penalak dituenez, beldur batek bestea ezabatzen du. Bi beldur desberdin horien artean, arimak anker bihurtzen dira.

Erljioak hain mehatxu handiak ditu, hain promesa handiak, non, gure espirituaren present direnean, nahiz eta magistratuak eginahalak egin hura abandona dezagun, bai baitirudi ez digutela ezer uzten hura kentzen digutenean, eta ez digutela ezer kentzen hura uzten digutenean.

Hala, bada, arima beldurrez beteta, garrantzirik handiena hartu behar dion une hartara hurbilduta, ez da lortzen erlijiotik alden dadin; gauza seguruagoa da erlijioari faboreen bidez, bizitzako erosotasunen bidez, aberastasunaren itxaropenaren bidez eraso egitea; ez sumintzen duten gauzen bidez, baizik eta epelkeria kutsatzen dutenen bidez, gure ariman beste grina batzuek dihardutenean, eta erlijioak sustatzen dituenak isilik daudenean. Arau orokorra: erlijioa aldatzeaz denaz bezainbatean, gonbitak penak baino indartsuagoak dira.

Giza espirituaren izaera, erabili izan dituen zigorren zer-nola-koetan bertan agertu izan da. Gogora bitez Japoniako pertsekuzioak<sup>62</sup>: suplizio ankerren kontra oldartu ziren, zigor luzeen kontra baino gehiago. Hauek, asaldatu baino gehiago, nekatu egiten dute, zailagoak dira jasaten, hain zailak ematen ez dutelako.

Hitz batez, historiak ondo asko irakasten digu lege penalek inoiz ez dutela suntsipena beste ondoriorik izan.

### XIII

#### *Erregu guztiz umila Espainiako eta Portugalgo inkisidoreei*

Lisboan azken fede-autoan erre zuten hemezortzi urteko neska judutar bat idaztitxo baten sorburu eta mintzagai izan zen. Uste dut inoiz idatzi den idaztirik alferrikakoena dela. Izan ere, hain argi dauden gauzak frogatu behar direnean, gauza segurua da ez dela inor konbentzituko.

Egileak aitortzen du ezen, nahiz eta judua izan, errespetatzen duela erlijio kristaua, eta kristau ez diren printzeei hari jazartzeko aitzakiarik ez onartzeko adina maite duela.

«Xexu zarete», diotse inkisidoreei, «Japoniako enperadoreak su hilean errearazten dituelako haren estatuetan diren kristau guztiak; baina hark honela erantzungo dizue: ‘Guk zeuek zeuen federik ez dutenak tratatzen dituzuen bezala tratatzen zaituztegu guk bezala sinesten ez duzuenok; ez daukazue kexatzerik zeuen ahuleziaz ez bada, gu sarraskitzeko oztopo baitzaizue, eta guk zuek sarraskitzeko bidea ematen baitigu’.

«Baina aitortu behar da zuek enperadore hori baino askoz ankerragoak zaretela. Zuek sinesten duzuen sinesten ez dugunok, hil egiten gaituzue, zuek sinesten duzuen guztia sinesten ez dugulako. Dakizuenez, gu behinola Jainkoaren gogoko zen erlijio bati jarraitzen gatzazkio; uste dugu Jainkoak oraindik ere maite duela, eta zuek uste duzue ez duela maite; eta iritzi hori duzuelako, burdinatik eta sutatik pasarazten dituzue hain barkagarria den errore horretan daudenak, alegia Jainkoak oraindik ere maite duela lehenago maite izan zuena<sup>63</sup>.

«Guri dagokigunez ankerrak bazarete, askoz ankerrago zarete gure hurrei dagokienez; erre egiten dituzue, lege naturalak eta herri guztien legeek jainko gisa errespetatzen irakatsi dietenen irakaspenei jarraitzen zaizkielako.

«Mahometarren gainean duzuen abantailarik gabe geratzen zarete: haiek beren erlijioa ezartzeko moduagatik duzuen abantailarik gabe, alegia. Beren jarraitzaileen kopuruaz harrotzen direnean, esaten diezue indarrez lortu dituztela, eta burdinaz hedarazi dutela beren erlijioa: hortaz, zergatik ezartzen duzue zeuena suaz?

«Erakarri nahi gaituzuenean, guk erantzuten dizuegu zein jatorri loriosetatik zatozten. Erantzuten diguzue zuen erlijioa berria dela, baina jainkozkoa; eta paganoen pertsekuzioez eta martirien odolaz hazi dela esanez frogatzen duzue hori; baina gaur egun Dioklezianoren egitekoa hartu duzue, eta zeuen lekuan jartzen gaituzue.

«Konjuratzen zaituztegu, ez zuek eta guk zerbitzatzen dugun Jainko ahaltsuaren izenean, baizik eta giza izaera hartu omen zuen Kristoren izenean, jarraitzeko moduko adibideak izan ditzazuen; konjuratzen zaituztegu zuek gurekin hark berak jokatu lukeen bezala jokatzera, oraindik Lurrean balitz. Kristau izan gaitezen nahi duzue, eta zeuek ez duzue izan nahi.

«Baina zeuek kristau izan nahi ez baduzue, izan zaitezte gutxienez gizon: trata gaitzazue tratatuko gintuzkezuen bezala baldin eta, naturak ematen dizkigun justizi errainu ahul horiek baizik ez izanik, ez bazenute erlijiorik zeuen gidaritzat, eta errebelaziorik argibidetzat.

«Zeruak egia ikusarazteko adina maite bazaitue, grazia handia eman dizue; baina aitaren oinordekotza jaso duten seme-alabei, jaso ez dutenak gorrotatzea al dagokie?

«Egia hori baduzue, ez iezaguzue ezkuta proposatzen diguzuen moduaren bidez. Egiaren izaera bihotzen eta espirituen gaineko garaitza da, ez zuek aitortzen duzuen ezin hori, suplizioen bidez eman nahi diguzuenean.

«Arrazoizko bazarete, ez gaituzue hil behar engainatu nahi ez zaitugulako. Zuen Kristo Jainkoaren semea bada, espero dugu sarituko digula haren misterioak profanatu nahi ez izana; eta sinesten dugu zuek eta guk zerbitzatzen dugun Jainkoak ez gaituela zigortuko behinola eman zigun erlijio batengatik heriotza jasan dugulako, zeren eta sinesten baitugu oraindik ere ematen digula.

«Argi naturala inoiz baino biziagoa den mende batean bizi zarete: filosofiak espirituak argitu ditu, zuen Ebanjelioaren moralara ezagunagoa da, gizakiek elkarrekiko dituzten eskubideak, kontzientzia batek beste kontzientzia baten gainean duen ahala, hobeto ezarrita daude. Hala, bada, ez badituzue zuen aurreiritzi zaharrak uzten, alegia, zuen grinak —horixe baitira—, aitortu beharko da ez daukazuela konponbiderik, ez zaretela gai argi eta irakaspen orotarako; eta nazio guztiz zorigaitzekoa da zuek bezalako gizakiei agintea ematen diena.



«Nahi duzue argi eta garbi azal diezazuegun gure pentsamen-  
dua? Zuen etsai gisa ikusten gaituzue, zuen erlijioaren etsai baino  
gehiago; izan ere, zuen erlijioa maite izango bazenute, ez zenukete  
usteltzen utziko ezjakintasun baldar batez.

«Gauza bat jakinarazi behar dizuegu: geroan inor inoiz ausartzen  
bada esaten ezen bizi garen mendean Europako herriak zibilizatuak  
zirela, zuen kasua aipatuko diote barbaroak zirela frogatzeko, eta zuetaz  
izango duten iritzia halakoa izango da non zuen mendearen izena belz-  
tuko baitu, eta gorrotoa eramango zuen garaikide guztien gainera».

## XIV

### *Zergatik den hain gorrotagarria erlijio kristaua Japonian*

Mintzatu naiz<sup>64</sup> arima japoniarren izate izugarriaz.  
Magistratuek oso arriskugarri iritzi zioten kristautasunak ematen duen  
irmotasunari, fedea ukatzeari dagokionez: ausardia areagotu egiten  
zuela uste izan zuten. Japoniako legeak larri zigortzen zuen desobe-  
dientziarik txikiena. Erlijio kristauari uko egiteko agindu zuten. Ez  
ukatzea, desobeditzea zen; zigortu egin zen delitu hori, eta desobe-  
dientziaren iraupenak beste zigor bat merezi zuela iruditu zitzaien.

Zigorrak, japoniarren artean, printzeari egindako irainaren  
mendekutzat hartzen dira. Gure martirien alaitasun-kantek printzea-  
ren kontrako atentatua ziruditen; martiri tituluak, haien espirituan,  
errebelde esan nahi zuen, eta ikaratu egin zituen magistratuak; ahal  
zuten guztia egin zuten inork halako titulurik lor zezan galarazteko.  
Orduan arimak sumindu egin ziren, eta egundoko borrokak ikusi ziren  
kondenatzen zituzten tribunalen eta sofritzen zuten akusatuen artean,  
lege zibilen eta erlijio-legeen artean.

## XV

### *Erljioaren hedapenaz*

Ekialdeko herri guztiek, mahometarrek salbu, uste dute erlijio  
guztiak berez berdinak direla. Gobernu-eraren aldaketa gisa baizik ez

diote beldur beste erlijio bat ezartzeari. Japoniarren artean, non hainbat sekta baitaude, eta non Estatuak hain denbora luzean eliz buruzagia izan baitu, ez da inoiz eztabaidarik erlijioaz<sup>65</sup>. Gauza bera siamdarren artean ere<sup>66</sup>. Kalmukek<sup>67</sup> are gehiago egiten dute: kontzientzi arazoa da haientzat erlijio guztiak onartzea. Calicuten estatu-araua da erlijio oro ona dela<sup>68</sup>.

Baina horrek ez du esan nahi oso herrialde urrun batetik — klima, lege, ohitura eta manera guztiz desberdinekotik — ekarritako erlijioak bere santutasunari zor zaion arrakasta guztia izango duela. Hori egia da batez ere inperio despotiko handietan: onartu egiten dira atzerritarrak, ez zaiolako arretarik eskaintzen printzearen boterea zauritzen ez duela dirudienari; gauza guztien ezjakintasun erabatekoan daude halako lekuan. Europar bat atsegin egin dakieke eskaintzen dizkien zenbait jakintzari esker; hori gauza ona da hasierarako. Baina arrakasta pixka bat eduki eta gero, eztabaidarik sortzen bada, interesen bat izan dezaketenak ohartzen badira; estatu horrek, berez, lasaitasuna eskatzen duenez batez ere, eta zerik mendrenak hankaz gora bota baitezake, legez kanpo uzten da erlijio berria eta hura iragartzen dutenak; predikatzen dutenen arteko eztabaidak eztanda egindakoan, erdeinua sortzen du erlijio horrek, proposatzen dutenak berak ere ez baitatoz bat.

# HOGETA SEIGARREN LIBURUA

Legeez, arautzen dituzten gauzen  
ordenarekin eduki behar duten  
zerikusiaren aldetik

## I

*Liburu honen ideia*

Gizakia hainbat lege-motak gobernatzen dute: zuzenbide naturalak; zuzenbide jainkozkoak, hots, erlijioarenak; eliz zuzenbideak, hau da, kanonikoak, zeinek erlijioa gobernatzen baitu; Jende Zuzenbideak, zein munduko zuzenbide zibiltzat har baitaiteke, herri bakoitza hiritartzat hartuz gero; zuzenbide politiko orokorrak, zeinek gizarte guztiak sortu dituen giza zuhurtzia hori baitu xedetzat; zuzenbide politiko partikularrak, gizarte bakoitzari dagokionak; konkista-zuzenbideak, herri batek beste bati egin nahi, ahal edo behar izan dion indarkerian oinarrituak; gizarte bakoitzaren zuzenbide zibilak, zeinen bidez hiritar batek bere ondasuna eta bizia defenda baititzake beste edozein hiritarren kontra; azkenik, zuzenbide domestikoak, zein gizarte bat familiatan banatuta egotetik baitator, familia horiek gobernu partikular baten premia dutelarik.

Hala, bada, lege-ordena desberdinak daude, eta giza arrazoia-  
ren bikaintasuna honetan datza: arautu beharreko gauzak zein ordena-  
ri dagozkion jakitean, eta gizakiak gobernatu behar dituzten printzi-  
pioetan nahasterik ez sortzean.

## II

### *Jainkozko legeez eta giza legeez*

Jainkozko legeen bidez ez da arautu behar giza legeen bidez arautu behar dena, ez eta giza legeen bidez ere jainkozko legeen bidez arautu behar dena.

Lege-mota horiek desberdinak dira jatorriz, xedez eta izaeraz.

Mundu guztiak onartzen du giza legeak erlijioaren legeak ez bezalakoak direla, eta hori printzipio handia da, baina beste batzuen mende dago, eta horiek bilatu behar dira.

1. Giza legeen izaera gerta daitezkeen gorabehera guztien mende egotea da, aldatzea gizakien borondateak aldatu ahala; aitzitik, erlijioaren legeen izaera inoiz ez aldatzea da. Giza legeek on denaz arautzen dute; erlijioak hoberena denaz. On denak beste xede bat izan dezake, on asko daudelako; baina hoberena bat bakarra baizik ez da eta, beraz, ezin da aldatu. Legeak aldatu egin daitezke, ontzat bakarrik jotzen ditugulako, baina erlijioaren instituzioak hoberentzat jotzen dira.

2. Estatu batzuetan legeak ez dira ezer, edo ez dira soberanoaren borondate apetatsu eta iragankorra baizik. Baldin eta, estatu horietan, erlijioaren legeak giza legeak bezalakoak balira, ez lirateke ezer: baina gizarteak beharrezko du zerbait finko egon dadin, eta erlijioa da hain zuzen gauza finko hori.

3. Erlijioaren indar nagusia hartan sinestean datza; giza legeen indarra haiei zaien beldurrean. Antzinatasuna komeni zaio erlijioari, zeren eta maiz gehiago sinesten baitugu gauzetan zenbat eta urrunagokoak izan; izan ere, ez ditugu buruan izaten garai horretako beste ideia batzuk, haiei kontra egiteko modukoak. Giza legeek, aitzitik, etekina ateratzen dute beren berritasunetik, legegileak haiek betearazteko duen arreta berezia eta egunekoa adierazten baitu.

## III

### *Lege naturalaren kontrakoak diren lege zibilez*

«Baldin eta esklabo batek», dio Platonek<sup>69</sup>, «gizon libre bat hiltzen badu bere buruaren defentsan, parrizidatzat hartu behar da». Horra defentsa naturala zigortzen duen lege zibil bat.

Enrike VIII.aren erregealdian, gizaki bat lekukoak aurrez aurre jarri gabe kondenatzen zuen legea defentsa naturalaren kontrakoa zen; hain zuzen, kondenatu ahal izateko, lekukoek jakin behar dute, norbait kontra deklaratzeko dutenean, norbait hori akusatua dela, eta honek hau esan ahal izan behar du: ez zara nitaz ari.

Erregealdi hartantxe, gizonezkoren batekin harreman gaiztoak izan eta erregeari berarekin ezkondu aurretik aitortzen ez zion neska kondenatzen zuen legeak lotsa naturalaren defentsa bortxatzen zuen: neska bati aitortzen hori egiteko eskatzea gizon bati bere bizia defende da ez dezala eskatzea bezain arrazoiaren kontrako da.

Enrike III.aren legea —haurra hil zaion neska heriotzara kondenatzen duena baldin eta magistratuari haurdun zegoela aitortu ez badio—, ez da defentsa naturalaren aldekoago. Askari litzateke ahaide hurbilenetako bat jakinaraztera behartzea, haurraz ardura zedin.

Beste zein aitortzen egin lezake neskak lotsa naturalaren suplikio horretan? Hezkuntzak areagotu egin dio lotsa hori gordetzearen ideia, eta une horietan akordatu ere ez litzateke egingo bizia galtzeaz.

Askari hitz egin izan da Ingalaterrako lege batez<sup>70</sup>: zazpi urteko neskato bati senarra aukeratzeko bidea ematen ziona. Lege hori sumingarria zen bi erataraz: ez zituen inolaz ere aintzakotzat hartzen ez naturak espirituari eman dion heldutasun-denbora, ez gorputzari eman diona.

Aita batek, erromatarren artean, behartu zezakeen alaba senarra zapuztera, nahiz eta ezkontza berak onetsia izan<sup>71</sup>. Baina naturaz kontrakoa da dibortzioa hirugarren baten esku uztea.

Dibortzioa naturaren arabera izateko, bi aldeek, edota gutxienez batek, onartu behar dute; eta ez bata ez besteak onartzen dutenean, munstrokeria da. Azkenik, dibortziatzeko ahalmena ezin zaie eman ezkontzen deserosotasunak dituztenei baizik, eta deserosotasunak amaituko diren une egokia ikusten dutenei.

## IV

### *Gai beraren jarraipena*

Gundebaldok<sup>72</sup>, Borgoniako erregeak zera agindu zuen: lapurreta egin zuenaren emazteak edo semeak delitua jakinarazten ez

bazuten, esklabo bihur zitezela. Lege hura naturaz kontrakoa zen. Nola sala zezakeen emazteak senarra? Nola izan zitekeen semea aitaren salatzaile? Ekintza kriminala mendeatzeko, are kriminalagoa zen beste ekintza bat agintzen zuen.

Rezesvintoren legeak bide ematen zien emazte adulteroaren haurrei, edota senarrarenei, hura salatzeke eta etxeko esklaboak torturapean jartzeko<sup>73</sup>. Lege zitala zen; izan ere, ohiturak gordetzeko, natura hankazgoratzen zuen, ohituren jatorria naturan dagoelarik.

Atseginez ikusten dugu gure antzokietan heroi gazte batek bere amaginarrebaren delituaren berri izatean hainbesteko lastura erakustea, delituari ziona hainbatekoa; bere ustekabean, salatua, epaitua, kondenatua, legez kanpo utzia eta izena guztiz belztua, ia ez du egiten gogoeta batzuk besterik Fedrak zainetan duen odol gaitzesgarriaz; gehien maite duena utzi, gauzarik samurrena, bihotzari hitz egiten dion oro, sumin dezakeen oro, eta merezi izan ez duen jainkoen mendekua nozitzea onartzen du. Naturaren ezaugarriek eragiten dute plazer hori; bera da ahots guztietan eztieta.

## V

*Zuzenbide zibilaren printzipioen arabera juzga daitekeen kasua,  
zuzenbide naturalaren printzipioak aldatuz*

Atenasko lege batek pobrezia gorrian eroritako gurasoak elikatzera behartzen zituen seme-alabak<sup>74</sup>; salbuetsi egiten zituen emakume publiko batengandik jaiotakoak, hartu-eman higuingarriez lotsa galbi-dean jarria zien aitaren haurrak<sup>75</sup>, bizitza ateratzeko lanbiderik eman ez zien aitaren haurrak<sup>76</sup>.

Legeak kontsideratzen zuen ezen lehen kasuan, aita segurua ez zelarik, badaezpadako bihurtu zuela bere betebeharrak naturala; bigarren, haurrari izena belztu ziola, eta seme-alabei egin ziezaiekeen kalterik handiena egin ziela: beren ospea kendu; hirugarren kasuan, jasan ezin bihurtu ziela hainbeste nekez zeramaten bizitza. Legeak bi hiritar gisa hartzen zituen aita eta semea, arauak ikuspegi politiko eta zibil hutsez emanez; kontsideratzen zuen ezen, errepublika batean, batez ere ohiturak behar direla.

Uste dut Solonen legea ona zela lehen bi kasuetan, dela naturak semeari aita nor duen jakitea galarazten dionean, dela hura ez eza-gutzeko agintzen diola dirudienean; baina ez nuke onartuko hirugarrenean, non aitak araudi zibil bat besterik ez baitzuen hautsi.

## VI

*Ondorengotza-ordena zuzenbide politikoaren edo zibilaren mende  
dagoela, eta ez zuzenbide naturalaren printzipioen mende*

Lege Vokoniarrak ez zuen uzten emakume bat oinordeko izendatzen, ezta alaba bakarra izanda ere. Ez zen izan, dio San Agustinek<sup>77</sup>, lege bidegabeagorik. Markulforen formula batek<sup>78</sup> erlijioaren kontraktatzat jotzen du alabak beren aitaren oinordeko izatea galarazten duen ohitura. Justinianok<sup>79</sup> barbaro deitzen dio gizonezkoak emakumezkoen kaltetan oinordeko izateko eskubideari. Ideia horiek iritzi honetan dute sorburua: seme-alabek lege naturalaren ondorio gisa dutela aitaren oinordeko izateko eskubidea; baina hori ez da horrela.

Lege naturalak bere haurrak elikatzeko agintzen dio aitari, baina ez bere oinordeko egiteko. Ondasunen banaketa, banaketa horiei buruzko legeak, banaketa horretan parte jaso duena hil ondorengo oinordekotza: horiek denak gizarteak baizik ezin ditu arautu eta, beraz, lege politiko edo zibilek.

Egia da ordena politikoak edo zibilak seme-alabak aitaren oinordeko izatea agintzen duela maiz, baina ez du beti exijitzen hori horrela izan dadin.

Gure feudoetako legeek beren arrazoiak izango zituzten agian semeetan zaharrenak, edo gizonezkoen bidetik ahaiderik hurbilenak, dena jaso zezaten, eta alabek ezer ez; eta lonbardiarren legeek<sup>80</sup> ere izango zituzten beren arrazoiak arrebak, haur naturalak, beste ahaideak eta, horien ezean, fiskoa, alabekin lehia zitezen oinordekotzan.

Txinako dinastia batzuetan araututa zegoen enperadorearen anaiak izatea oinordeko, eta ez haurrak. Printzeak esperientzia izatea

nahi bazen, adin txikitasunari beldur bazitzaion, eunukoek bata bestearen atzetik haurrak tronuan jartzea nahi ez bazen, zuzen asko ezarri zen horrelako oinordekotza-ordena bat; eta idazle batzuek<sup>81</sup> anaia horiek usurpatzailetzat jo dituztenean, aurreiritziz juzgatu dituzte herrialde horretako legeak.

Numidiako ohituraren arabera<sup>82</sup>, Delsaze anaiak jarraitu zion tronuan Gelari, ez Masinisa semeak. Eta gaur egun ere<sup>83</sup>, Berberiako arabiarren artean, non herrixka bakoitzak bere buruzagia duen, osaba aukeratzen da ohitura zahar horren arabera, edota beste edozein ahai-de, haren ondorengo izateko.

Badira hautabide hutsezko monarkiak; eta argi dagoenez oinordekotzen ordenak lege politiko edo zibiletatik etorri behar duela, haiei dagokie zein kasutan dioen arrazoiak oinordekotza hori seme-alabei uzteko, eta zein kasutan eman behar zaion beste norbaiti.

Poligamia ezarrita daukaten herrialdeetan, printzeak haur asko ditu; kopurua handiagoa izaten da herrialde batzuetan beste batzuetan baino. Estatu batzuetan<sup>84</sup>, herriak ezingo lituzke erregearen haurrak elikatu; han ezarri da erregearen haurrak ez, baizik eta erregearen arrebarenak izango direla haren oinordeko.

Haur-kopuru izugarriak gerra zibil beldurgarrien arriskuan jarriko luke Estatua. Koroak arrebaren hurrei ematen dien oinordekotza-ordenak, kopuru hori ez bailitzateke izango emazte bakar bat lukeen printze baten haurrena baino handiagoa, aurea hartzen die arazo horiei.

Zenbait naziotan, estatu-arrazoiek edo erlijio-arauren batek eskatu izan dute familia jakin bat izan zedila beti erregetzan; hala-koxe arrazoia da Indietan<sup>85</sup> kastaren ardura eta hartatik behera egiteko beldurra. Pentsatu izan da ezen, beti errege-odoleko printzeak edukitzeko, erregearen arrebarik zaharrenaren haurrak hartu behar zirela.

Arau orokorra: norberaren haurrak elikatzea zuzenbide naturaleko betebeharrak bat da; haiei oinordekotza ematea, zuzenbide zibileko edo politikoko betebeharra. Hortik datoz munduko herrialdeetan diren sasikumei buruzko xedapenak; herrialde bakoitzeko lege zibilei edo politikoei jarraitzen zaizkie.



## VII

*Ez dela erlijioako aginduen arabera erabaki behar,  
hori lege naturalekoei badagokie*

Abisiniarrek berrogeita hamar eguneko garizuma gogorra dute, eta hainbeste ahultzen dituen, non denbora luzean ezin izaten baitute ezer egin; turkiarrek garizuma horren ondoren erasotzen dituzte beti<sup>86</sup>. Erlijioak mugak jarri behar lizkieke ohitura horiei, defentsa naturalaren mesedetan.

Sabat-a agindu zitzaien judutarrei, baina ergelkeria izan zen nazio horrentzat defendatu ezina<sup>87</sup>, etsaiek egun hori aukeratzen zutelako hari eraso egiteko.

Kanbisesek, Peluze setiatuta zeukala, lehen lerroan jarri zituen egiptoarrek sakratutzat zeuzkaten animalia asko: goarnizioko soldaduak ez ziren ausartu haiei tiratzen. Nork ez du ikusten defentsa naturala agindu horien guztien gainetik dagoela?

## VIII

*Zuzenbide zibilaren printzipioen arabera araututako gauzak ez direla  
arautu behar kanoniko deritzan zuzenbidearen arabera*

Erromatarren zuzenbide zibilaren arabera<sup>88</sup>, leku sakratu batek gauza pribatu bat hartzen duena lapurreta-delituagatik baizik ez da zigortua izango; zuzenbide kanonikoaren arabera<sup>89</sup>, sakrilegio-delituagatik zigortuko dute. Zuzenbide kanonikoak lekuari erreparatzen dio; zuzenbide zibilak, berriz, gauzari. Baina lekuari baizik ez erreparatzea, gogoeta ez egitea da, ez lapurretaren izaeraz eta definizioaz ez sakrilegioaren izaeraz eta definizioaz.

Senarrak emaztearen infidelitasunaren kariaz, honengandik banatzea eska dezakeen bezala, emazteak ere eskatu ohi zuen behinola senarraren infidelitasunarengatik<sup>90</sup>. Usadio hori, lege erromatarren xedapenaren kontrakoa<sup>91</sup>, eliz auzitegietan sartua zen<sup>92</sup>, non ez baitziren ikusten zuzenbide kanonikoko arauak baizik; eta hain zuzen,

ezkontza ideia espiritual hutsen argitan eta beste bizitzako gauzei dagokienean baizik ez ikustera, lege-haustura berbera da. Baina ia herri guztien lege politikoei eta zibilei bereizi egin dituzte, arrazoiz, bi gauza horiek. Emakumeei gizonezkoei eskatzen ez zaien eratasun-eta kontinentzi maila eskatu diete, lotsaren hausketak bertute guztiak ukatzea esan nahi duelako emakumeengan; emakumea, ezkontzako legeak haustean, irten egiten delako bere mendekotasun naturaleko egoeratik; naturak zeinu nabarmenez markatu duelako emakumeen infidelitasuna, emaztearen adulteriozko haurrak senarrarenak izatera eta senarraren kargura pasatzeaz gainera; aldez, senarraren adulteriozko haurrak ez dira emakumearenak, ez emakumearen kargu.

## IX

*Zuzenbide zibilaren printzipioen arabera arautu beharreko gauzak oso gutxitan arau daitezkeela erlijioaren legeen arabera*

Lege erlijiosoak goitarragoak dira; lege zibilak, zabalagoak.

Erlijiotik ateratako perfekziozko legeek men egiten dien giza-kiaren ontasuna dute xedetzat, ez men egiten zaieneko gizartearena; lege zibilek, aitzitik, gizaki guztien ontasun moralak dute xedetzat, ez norbanakoena.

Hala erlijiotik sortzen diren ideiak oso errespetagarriak izanik ere, ez dira lege zibilaren printzipio gisa erabili behar, zeren eta lege hauek beste printzipio bat baitute, gizartearen on orokorra.

Erromatarrek araudiak egin zituzten errepublikan emakumeen ohiturak gordetzeko: instituzio politikoak ziren. Monarkia ezarri zenean, lege zibilak egin zituzten gai berberaz, eta gobernu-era zibilaren printzipioen arabera egin ere. Erljio kristaua sortu zenean, egin ziren lege berriek zerikusi gutxiago eduki zuten ohituren ontasun orokorra-ekin ezkontzaren santutasunarekin baino; bi sexuek egoera zibilean bat egitea baino, egoera espiritualean bat egitea hartu zuten aintzakotzat.

Hasieran, lege erromatarraren arabera<sup>93</sup>, adulterio-kondenaren ondoren emaztea berriro etxean hartzen zuen senarra, zigortu egiten zuten emaztearen gehiegikerien sopikun gisa. Justinianok<sup>94</sup>, beste pen-

tsabide batez, agindu zuen bi urteren ondoren senarra joan zitekeela emaztearen bila monasterio batera.

Emakume batek senarra gerran eduki eta haren berri ez bazuen, lehen garaian erraz ezkon zitekeen berriro, bere esku zuelako dibortziazteko ahala. Konstantinoren legeak<sup>95</sup> agindu zuen hark lau urtez itxaron behar zuela, eta denboraldi horren ondoren dibortzio-libeloa bidal ziezaiokeela buruzagi militarri, eta senarrak, itzultzen bazen, ez zeukan emaztea adulterioz salatzerik. Baina Justinianok<sup>96</sup> ezarri zuen ezen, senarra joan ondoren zeinahi denbora iragan eta gero ere, emaztea ezin zela ezkondu berriz, salbu eta, buruzagiaren aitortza eta zinaren bidez, senarraren heriotza frogatzen bazuen. Justinianok ezkontzaren hautsi ezina zeukan gogoan, baina esan daiteke gehiegi zeukala kontuan. Froga positiboa eskatzen zuen, froga negatiboa aski zelarik; oso gauza zaila eskatzen zuen urrun joandako gizon baten patuaren berri emateko, hainbeste ezbeharren mende egonik; delitu bat susmatzen zuen, hau da, senarraren desertzioa, haren heriotza susmatzea hain naturala izanik. On publikoaren kontra zihoan, emazte bat senarrik gabe utzita; interes partikularren kontra zihoan, hura mila arriskuren mende utzita.

Justinianoren legea<sup>97</sup>, dibortziorako kausen artean senarrak eta emazteak monasterioan sartzeko emandako baimena jartzen zuelarik, erabat urruntzen zen lege zibilen printzipioetatik. Bidezkoa da dibortzioaren kausen jatorria ezkontza aurretik aurreikusi ezin diren zenbait eragozpenetan egotea, baina kastitatea gordetzeko desira hori aurreikusi egin daiteke, gudan dagoelako. Lege horrek iraunkortasunik ezaren alde egiten du berez iraunkorra den egoera batean; dibortzioaren printzipio funtsezkoenaren kontra doa, alegia, ezkontza baten haustea beste baten itxaropenagatik baizik ez onartzea; azkenik, ideia erlijiosoei jarraitzera ere, Jainkoari sakrifiziorik gabe biktimak eman besterik ez du egiten.

## X

*Zein kasutan jarraitu behar zaion baimentzen duen lege zibilaria,  
eta ez debekatzen duen lege erlijiosoari*

Poligamia debekatzen duen erlijio bat poligamia baimenduta dagoen herrialde batean sartzen denean, ez dugu uste, politikoki hitz

eginez, herrialde horretako legeak hainbat emazte dituen gizon bati erlijio hori hartzen utzi behar dionik, salbu eta magistratuak edo senarrak kalte-ordainak emazteei ematen ez badizkie, nola edo hala haiei egoera zibila berritzuliz. Bestela, haien egoera deitoragarria litzateke; legeak obeditu besterik ez egin, eta gizarteko abantaila handienez gabetuak aurkituko lirateke.

## XI

*Giza epaimahaiak ez direla arautu behar beste biziari dagozkion  
epaimahaien arauen arabera*

Inkisizioko epaimahaia, monako kristauek penitentziaren epaimahaiaren ereduz osatua, gobernu on ororen kontrakoa da. Nonahi oldartu zaizkio, eta amore eman beharko zien kontraesanei, baldin eta hura ezarri nahi zutenek kontraesan horietatik abantailarik atera ez balute.

Epaimahai hori jasanezina da gobernu-era guztietan. Monarkian, salatariak eta traidoreak besterik ezin du sortu; errepubliketan, borondate txarreko jendea; estatu despotikoan, gobernu-era hori bezain suntsitzailea da.

## XII

*Gai beraren jarraipena*

Epaimahai horren gehiegikerietako bat zera da, delitu berberaz akusatutako bi pertsonetatik, ukatzen duenari heriotza-zigorra ematen zaiola, eta aitortzen duenak saihestu egiten duela suplizioa. Hori monakotzako ideietatik dator, non ukatzen duena damurik gabe eta kondenatu ageri baita, eta aitortzen duena damututa eta salbu dagoela baitirudi. Baina horrelako bereizketa bat ez dagokie giza epaimahaiei; giza justiziak, ekintzak baizik ez baititu ikusten, itun bat besterik ez du gizonekin, errugabetasunarena; jainkozko justiziak, aldiz, pentsamenduak ikusten baititu, bi itun ditu, errugabetasunarena eta damuarena.

### XIII

*Zein kasutan jarraitu behar zaien, ezkontzaz denaz bezainbatean,  
erlijioarenle geei, eta zein kasutan lege zibilei*

Herrialde eta garai guztietan gertatu da erlijioa ezkontza-kontuetan sartzea. Zenbait gauza zikintzat edo bidegabetzat jo, eta hala ere beharrezkoak zirenez geroztik, erlijiora jo behar izan da, kasu batean haiek zilegiztatzeko, eta besteetan gaitzesteko.

Beste alde batetik, ezkontzak, giza ekintza guztien artean, gizarteari gehien interesatzen zaizkionak izanik, beharrezkoa zen lege zibilek arautzea.

Ezkontzaren izaerari dagokion guztia —forma, ezkontzeko era, ugalkortasuna, zeinen ondorioz benedizione berezi baten hartzaile zela ulertu baitute herri guztiek, eta seme-alabak izatearen benedizio-ne hori ezkontzarekin beti lotuta egon gabe ere, goragoko grazia batzuen mende zegoela—, hori dena, erlijioaren esparrukoa da.

Bategite horrek ondasunei dagokienez dituen ondorioak, elkarrentzako abantailak, familia berriarekin zerikusia duen guztia, jatorri duen familiarekin eta sortuko denarekin, hori dena lege zibilei dagokie.

Ezkontzaren xede nagusietako bat bategite ezlegezkoen ziurgabetasun guztiak ezabatzea denez, erlijioak bere ezaugarria ezartzen dio, eta lege zibilek ere berea eransten diote, ahalik eta benetakotasun handiena izan dezan. Hala, erlijioak ezkontza baliozkoa izan dadin eskatzen dituen baldintzez gainera, lege zibilek beste batzuk eska ditzakete.

Ezaugarri horiek elkar osatzen dutelako, ez elkarren kontra daudelako, dute lege zibilek botere hori. Erlijioaren legeak zenbait zeremonia eskatzen ditu, eta lege zibilek gurasoen baimena eskatzen dute; horretan zerbait gehiago eskatzen dute, baina ez kontrakoa den ezer.

Hortik hauxe ondorioztatzen da, erlijioaren legeari dagokiola erabakitzea lotura hori hautsezina izango den ala ez; izan ere, erlijioaren legeek lotura hautsezina ezarriko balute, eta lege zibilek hauts daitekeela arautuko balute, bi gauza elkarren kontrako lirateke horiek.

Batzuetan, lege zibilek ezkontzari erantsitako ezaugarriak ez dira erabat beharrezko; halakoxeak dira, esate baterako, ezkontza hau-tsi ordeztu ezkontideak zigortzea askiesten duten legeek ezarritakoak.

Erromatarren artean, Lege Papiarrek bidegabatzat jo zituzten debekatzen zituzten ezkontzak, eta zigorrak besterik ez zizkieten ezarri<sup>98</sup>; eta Marko Antonino enperadorearen hitzaldiaren ondotik bildutako senatu-konsultuak baliogabe deklaratu zituen; ez zen ezkontzarik, ez emazterik, ez doterik, ez senarrik<sup>99</sup>. Lege zibilak inguruabarren arabera erabakitzen du; batzuetan arreta gehiago eskaintzen dio gaitza zuzentzeari, beste batzuetan gaitzari aurre hartzeari.

## XIV

*Ahaide arteko ezkontzetan, zein kasutan arautu behar den naturaren legeen bidetik; zein kasutan arautu behar den lege zibilen bidetik*

Ahaideen arteko ezkontza debekatzeari dagokionez, oso gauza delikatu da ondo zehaztea noraino iritsi behar duten naturaren legeek, eta non hasi behar duten lege zibilek. Horretarako, printzipioak ezarri behar dira.

Semea amarekin ezkontzeak gauzen egoera nahasten du: semeak begirune mugagabea zor dio amari, emazteak begirune mugagabea senarrari; ama semearekin ezkontzeak hankaz gora jarriko luke baten-gan eta bestearengan bien egoera naturala.

Are gehiago: naturak aurreratu egin die emakumeei haurrak izateko denbora; atzeratu egin die gizonezkoei; eta, arrazoi berbera-gatik, emakumeak lehenago galtzen du gaitasun hori, eta gizonezkoak beranduago. Ama-semeen arteko ezkontza zilegi balitz, ia beti gerta-tuko litzateke ezen, senarra naturaren bideetan ibiltzeko gai izan arren, emaztea ez izatea.

Aitaren eta alabaren arteko ezkontza naturaz kontrakoa da aurrekoa bezala; baina ez hura bezain kontrako, ez dituelako bi ozto-po horiek. Hala, tartariarrak, alabekin ezkon badaitezke ere<sup>100</sup>, ez dira inoiz ezkontzen amarekin, *Kontakizunak*-en ikus dezakegunez<sup>101</sup>.

Aitari berez zegokion gauza izan da beti haurren lotsa babes-tea. Haiei bizibidea eman behar zietenenez, gorputzik perfektuena eta arimarik gutxien ustelduena gorde behar izan diete; desirak ondoen sorraraz ditzakeen, eta samurtasuna emateko egokiena den guztia. Haurren ohiturak gordetzen beti saiatutako aita berez urrundu behar izan du haiek galbidera zitzakeen orotarik. Ezkontza ez da galbidea, esango zait; baina ezkondu baino lehen, hitz egin behar da, maitatu egin behar da, seduzitu egin behar da; sedukzio horrek sorrarazi behar zuen laztura.

Beraz, beharrezko zen hesi iraganezina hezkuntza eman behar zutenen eta hartu behar zutenen artean, bai eta edozein eratako galbidea saihestea ere, are zilegizko arrazoirik bazenean ere. Zergatik galarrastzen diete aitek alabekin ezkonduko direnei, hain kontu handiz, haiei konpainia egitea eta haiekin tratu arrunta izatea?

Neba-arreben arteko intzestuekiko erdeinuak jatorri berbera duke. Aski da aita-amek seme-alaben eta etxeko ohiturak garbi gorde nahi izatea, seme-alabei sexuz elkartzera eraman litzakeen orekiko erdeinua irakasteko.

Lehen graduako lehengusu-lehengusinen arteko ezkontzen debekuak ere jatorri berbera du. Lehen garaian, alegia, garai santuetan, luxua ezagutzen ez zenean, haur guztiak geratzen ziren etxean<sup>102</sup>, eta han jartzen ziren bizitzen; izan ere, oso etxe txikia behar zen familia handi batentzat. Bi anaiaren haurrak, edo lehengusu-lehengusinak, anai-arrebatzat hartzen ziren, eta halaxe hartzen zuten elkar<sup>103</sup>. Ezkontzarakoan anai-arreben artean zegoen urruntasun berbera zegoen lehengusu-lehengusinen artean ere<sup>104</sup>.

Kausa hauek hain dira sendoak eta naturalak, non ia lurbira osoan izan baitute eragina, nahiz alde batekoek bestekoekin harremanik ez izan. Erromatarrek ez zieten erakutsi Formosako biztanleei<sup>105</sup> laugarren graduako ahaideekin ezkontzea intzestua zenik; erromatarrek ez zieten arabiarrei esan hori<sup>106</sup>; Maldivetan ere ez zuten hori irakatsi<sup>107</sup>.

Herri batzuek ez dietela uko egin gurasoen eta seme-alaben, neba-arreben arteko ezkontzei? Lehen liburuan ikusi genuen izaki adimendunak ez zaizkiela beti jarraitzen beren legee. Nork esan behar zuen! Ideia erlijiosoek erorrarazi dituzte maiz gizakiak erokeria

horietan. Asiriarrak eta pertsiarrek amarekin ezkondu baziren, lehenek Semiramisekiko begirune erlijiosoagatik jokatu zuten horrela, eta bigarrenek Zoroastroren erlijioak lehentasuna ematen zielako ezkontza horiei<sup>108</sup>. Egiptoarrak beren arrebeekin ezkondu baziren, hori ere hango erlijioaren eldarnioa izan zen, Isisen ohoretan sagaratu baitzitu en ezkontza horiek. Erlijioaren espiritua saiatzearen poderioz gauza handi eta zailak eginaraztea denez, ez da juzgatu behar gauza bat, erlijio faltsu batek sagaratu duela-eta, naturala denik.

Aita-alaben, neba-arreben arteko ezkontzak etxean behar den lotsa naturala gordetzeko debekatuta daudelako pritzipioak balioko digu jakiteko zein diren lege naturalak debekatzen dituen ezkontzak eta zein lege zibilak bakarrik debeka ditzakeenak.

Haurrak aitaren etxean bizi ohi direnez, edo han bizi direla jotzen denez —eta, beraz, suhia amaginarrebarekin, aitaginarreba errainarekin edo emaztearen alabarekin—, haien arteko ezkontza lege naturalak debekatzen du. Kasu horretan, irudiak errealitatearen efektu berbera du, kausa berbera duelako; lege zibilak ezin ditu baimendu eta ez ditu baimendu behar ezkontza horiek.

Zenbait herritan, esan bezala, lehengusu-lehengusinak anai-arrebatzat hartu ohi dira, etxe berean bizi ohi direlako; bada usadio hori ezagutzen ez den parajerik ere. Lehenengoetan, lehengusu-lehengusinen arteko ezkontza naturaz kontrakotzat jo behar da; besteetan, berriz, ez.

Baina naturaren legeak ezin dira izan lege lokalak. Hala, ezkontzak debekatuta edo baimenduta daudenean, lege zibil batek baimentzen edo debekatzen ditu, inguruabarren arabera.

Ez da beharrezko koinatu-koinatak etxe berean bizi izatea. Beraz, horien arteko ezkontza debekatuta badago ere, ez dago debekatuta etxeko lotsa gordetzeko; eta hori debekatzen edo baimentzen duen legea ez da naturako legea, lege zibila baizik, zirkunstantzien arabera arautzen dena, eta herrialde bakoitzeko usadioen mende dagoena: kasu horietan legeak ohituren eta maneren mende daude.

Lege zibilek, herrialde batean onartutako usadioak direla-eta, naturaren legeek debekatzen dituzten ezkontzen inguruabar berberetan daudenean, debekatu egiten dituzte ezkontzak; eta ezkontzak ez daudenean kasu horretan, baimendu egiten dituzte. Naturaren legeen debekua



aldaezina da, gauza aldaezin baten mende dagoelako: aita, ama eta haurrak etxe berean bizi ohi dira nahitaez. Baina lege zibilen debekuak aldakorrak dira, inguruabar aldakor baten mende daudelako, lehengusu-lehengusinak eta beste batzuk ez dira beti nahitaez etxe berean bizi.

Horren argitan ulertzen da Moisesen legeek, egiptoarren<sup>109</sup> eta beste zenbait herritakoek koinatu-koinaten arteko ezkontza baimentzea, eta ezkontza horiek beste nazio batzuetan debekatuta egotea.

Indietan arrazoi naturala dago ezkontza-mota horiek onartze-ko. Han osaba aitatzat hartu ohi da, eta ilobak elikatzero eta haietaz arduratzera behartuta dago, beren seme-alabak balira bezala: hori herri horren izaeratik dator, ona eta gizabidetsua baita. Lege edo usadio horrek beste bat sorrarazi du. Senar batek emaztea galdu badu, haren ahizparekin ezkontzen da<sup>110</sup>; eta hori oso naturala da; izan ere, emazte berria ahizparen seme-alaben ama bilakatzen da, eta hartara han ez da amaordeko bidegaberik.

## XV

*Zuzenbide zibilaren printzipioen mende dauden gauzak ez direla  
zuzenbide politikoaren printzipioen arabera arautu behar*

Gizakiek, lege politikoen mende bizi izateko, beren berezko burujabetasunari uko egin diotenez, uko egin diote ondasunen jabetza komunari ere lege zibilen mende bizi izateko.

Lehen lege horiek libertatea ematen diete; bigarrenek, berriz, jabetza. Libertatearen legeen bidez —izan ere, esan bezala, libertatea hiriaren nagusitasuna besterik ez baita— ez da erabaki behar jabetzari dagozkion legeen bidez erabaki behar dena. On partikularrak on publikoaren atzetik geratu behar duela esatea paralogismoa da: hori hiriaren nagusitasunari dagozkion kasuetan bakarrik gertatzen da, hau da, hiritarraren libertateari dagozkionetan; ez da gertatzen ondasunen jabetzari dagozkion kasuetan, zeren eta on publikoa beti lege zibilek norberari ematen dioten jabetza gordetzean baitatza.

Zizeronek zioen lege agrarioak kaltegarriak zirela, hiria bakoitzak bere ondasunak kontserba zitzan egina zelako.

Beraz, eman dezagun arautzat ezen, on publikoaz denaz bezainbatean, on publikoa ez dela sekula partikular bati bere ondasuna kentzea, ezta zatirik txikiena ere, lege edo araudi politiko batengatik. Kasu honetan, estu-estu jarraitu behar zaio lege zibilari, horixe baita jabetzaren bermea.

Hala, Estatuak partikular baten lurren premia duenean, inoiz ez da jardun behar lege politikoaren gogortasunetik; lege zibilak atera behar du garaile, partikular bakoitzari hiri osoari bezala begiratu, amaren begiz bezala.

Baldin eta magistratu politikoak eraikin publikoren bat edo bide berriren bat egin nahi badu, kalte-ordainak eman behar ditu; Estatua, alde horretatik, partikular batekin ari den beste partikular bat da. Aski da hiritar bati bere orubea sal diezaion behartu ahal izatea, eta lege zibilaren arabera daukan pribilegio handi hori kendu ahal izatea, alegia bere ondasun bat besterentzera behartzekoa.

Erromatarrak suntsitu zituzten herriek beren konkistetan gehiegikeriak egin eta gero, libere-espirituak ekitate-espiritura ekarrarazi zituen; eskubiderik barbaroenak, neurritz erabili zituzten; eta horretaz zalantzarik izanez gero, aski da Beaumanoir-en lan miresgarria irakurtzea: XII. mendean jurisprudentziaz idatzi zuena.

Garai hartan berregokitu egiten ziren bideak, gaur egun bezala. Autore honek dioenez, errepide nagusiren bat ezin konpon zitekeenean, beste bat egiten omen zen, ahalik hurbilen zaharretik; baina kalteak ordaintzen omen zitzaizkien jabeei, bidetik onuraren bat ateratzen zutenen lepotik<sup>113</sup>. Garai hartan lege zibilaren arabera jarduten zuten; gaur egun lege politikoaren arabera jarduten da.

## XVI

*Ez dela zuzenbide zibilaren arabera erabaki behar kontua zerbait zuzenbide politikoaren arauetz erabakitzea denean*

Hiriaren jabetzatik datozen arau guztiak hiriaren libetateetik sortzen direnekin nahasten ez badira, arazo hauen guztien funtsa ikusiko da.

Estatu baten funtsak eta jabetzak besterengarriak dira ala ez? Arazo hau lege politikoaren arabera erabaki behar da, ez lege zibilaren arabera. Ez da lege zibilaren arabera erabaki behar, zeren eta, Estatuak iraungo badu, funtsak eta jabetzak izatea Estatuan ondasunen erabilera arautzen duten lege zibilak izatea bezain beharrezkoa baita.

Beraz, funts eta jabetzak besterentzen badira, Estatua beste funts bat sortzera behartuta egongo da beste jabetza batzuk izateko. Baina baliabide horrek ere hankaz gora jartzen du gobernu politikoa, zeren eta, gauzaren izaeragatik, ezarriko den jabetza bakoitzeko, sujetak gehiago ordainduko baitu beti, eta erregeak gutxiago jasoko baitu beti; hitz batez, Estatuaren jabetzak beharrezkoak dira, eta besterentzea ez.

Ondorengotza-ordena, monarkietan, Estatuaren onean oinarritzen da. Estatuak eskatzen du ordena hori finkoa izan dadila, despotismoan gertatzen diren zorigaitzak gerta ez daitezen, han, dena arbitrarioa denez, dena baita ziurgabea.

Ondorengotza-ordena ez dago ezarrita errege-familiarentzat, baizik eta Estatuarentzat interesgarria delako errege-familia bat izan dadin. Partikularren ondorengotza arautzen duen legea lege zibila da, xedetat partikularren interesa duena; monarkiaren ondorengotza arautzen duena lege politikoa da, eta Estatuaren ona eta iraupena ditu xedetat.

Hortik zera dator, lege politikoak estatu batean ondorengotza-ordena bat ezarri duenean, eta ordena hori amaitzen bada, zentzugabea dela oinordekotza beste edozein herriren lege zibilari jarraituz erreklamatzea. Gizarte batek ez ditu beste gizarte batentzat egiten legeak. Erromatarren lege zibilak ez dira beste edozein lege zibil baino aplikagarriagoak; haiek ere ez zituzten aplikatu erregeak juzgatu zituztenean; eta erregeak juzgatzeko erabili zituzten arauak hain higuigarriak ziren, non ez baitira inola ere berpiztu behar.

Beste zerbait ere badator hortik: lege politikoak familiaren bati oinordekotzari uko eginarazi dionean, zentzugabea dela lege zibiletik ateratako lehengoratzak erabili nahi izatea. Lehengoratzak legean daude, eta onak izan daitezke legeen mende bizi direnen kontra, baina ez dira onak legeak ezarri dituenentzat eta legearentzat bizi direnentzat.

Irrigarria da erresumen, nazioen eta munduaren eskubideen gainean erabaki nahi izatea partikularren artean erreten baten eskubideaz erabakitzeko erabiltzen diren arau berberez, Zizeronen esamoldea<sup>112</sup> nire eginez.

## XVII

*Gai beraren jarraipena*

Ostrazismoa lege politikoaren arauetz aztertu behar da, ez lege zibilaren arauetz; eta usadio hori, herri-gobernuari ospe txarra eman ordezt, aitzitik, oso egokia da haren gozotasuna frogatzeko; eta horixe ikusiko genukeen, baldin eta, gure artean atzerriratzea zigorra izanik, ostrazismoaren eta zigorraren ideiak bereizi ahal izan bagenitu.

Aristotelesekin dioskunez<sup>113</sup>, mundu guztiak onartzen du ohitura horrek baduela gizatiarretik eta herri-kutsutik. Epai hori erabiltzen zen garai eta lekuetan, ez bazuten gorrotagarritzat jotzen, guri ote dagokigu, gauzak hain urrunetik ikusten ditugularik, salatzaileek, epaileek eta akusatuak berak ez bezala pentsatzea?

Eta kontu eginez gero herriaren epai horrek ospez betetzen zuela epaia jasotzen zuena; eta Atenasen merezimendurik gabeko gizon baten kontra gehiegikeriaz erabili zenean<sup>114</sup>, une hartantxe utzi ziotela erabiltzeari<sup>115</sup>; ondo asko ikusiko da ideia izuna hartu dela, eta lege miresgarria zela hiritar baten ospeak eragin zitzakeen ondorio txarrei aurea hartzeko, beste ospe batez betetzen zuena.

## XVIII

*Aztertu beharra dagoela ustez elkarren kontra doazen legeak ildo berekoak al diren*

Erroman senarrak baimenduta zeukan emaztea inori uztea. Plutarkok diosku hori hitzez hitz<sup>116</sup>. Jakina da Katonek Hortensiori utzi ziola emaztea<sup>117</sup>, eta Katon ez zen bere herriko legeak hausten zituen gizona.

Bestalde, emaztearen lizunkeriak onartzen zituen senarra, epai-  
leen aurrera eramaten ez zuena, edo kondenaren ondoren berriro etxe-  
an hartzen zuena, zigortu egiten zuten<sup>118</sup>. Lege horiek elkarren kontra  
daudela dirudi, baina ez da hala. Erromatar bati emaztea inori uztea  
baimentzen zion legea, bistan da, lazedemoniar jatorrikoa da, errepu-  
blikari ezpal oneko haurrak emateko ezarria, horrela esaterik baneu-  
ka; besteak ohiturak gordetzea zuen xedetzat. Lehena lege politikoa  
zen; bigarrena, berriz, lege zibila.

## XIX

*Ez dela lege zibilen bidez erabaki behar lege domestikoen bidez  
erabaki beharreko gauzarik*

Bisigodoen legeak zioen esklaboek lotu egin behar zituztela  
adulterioan harrapatzen zituzten gizona eta emakumea<sup>119</sup>, eta senarra-  
ren eta epailearen aurrera eraman behar zituztela: lege izugarria, men-  
deku publiko, etxeko eta partikularren ardura pertsona mesprezaga-  
rrien eskuetan jartzen zuena.

Lege hura ez litzateke ona Ekialdeko haremetan baizik, non  
klausuraren ardura duen esklaboak prebarikatu egiten baitu inork pre-  
barikatu orduko. Delitugileak atxilotzen ditu, ez epai ditzaten, bera  
epai dezaten baizik, eta hartara zera lortzeko, ekintzaren zer-nolakoe-  
tan argi eginez bere arduragabezia susmoa ezaba dadila.

Baina emakumeak gordeta ez dauden herrialdeetan, zentzuga-  
bea da lege zibilak esklaboen miagai jartzea etxea gobernatzen duena.

Miaketa hori, zenbait kasutan gehienez ere, etxeko lege parti-  
kularra litzateke, inoiz ez lege zibila.

## XX

*Ez dela lege zibilen printzipioen bidez erabaki behar Jende  
Zuzenbideari dagokion gauzarik*

Libertatea inork norbera legeak agintzen ez duen zerbait egite-  
ra behartzerik ez izatean datza batez ere, eta egoera horretan bagaude,

lege zibilen bidez gobernatuta gaudelako da soil-soilik; beraz, lege zibilen mende bizi garelako gara libre.

Hortik zera dator, printzeak, ez baitira lege zibilen mende bizi, ez direla libre, bortxaz gobernatuta daudela; noiznahi bortxa dezakete, edo noiznahi izan daitezke bortxatuak. Hortik dator, halaber, bortxaz egin dituzten itunak borondatez egindakoak bezain bete beharrekoak izatea. Gu, lege zibilen mende bizi baikara, legeak exijitzen ez duen kontraturen bat egitera behartzen gaituztenean, bortxa horren kontra jo genezake legean babes harturik; baina printze batek, beti ere egoera horretan dagoelarik —hots, edo bortxatzaile- edo bortxatu-egoeran—, ez dauka kexu izaterik bortxaz eginarazi zaion itun bat dela eta. Hori bere egoera naturalagatik kexu balitz bezalako da; beste printzeen printze izan nahiko balu bezala, eta beste printzeak beraren hiritar izan litezen; alegia, gauzen izatearen kontra joatea da hori.

## XXI

*Ez dela lege politikoen bidez erabaki behar Jende Zuzenbideari  
dagokion gauzarik*

Lege politikoez pertsona oro bera dagoen herrialdeko auzitegi kriminal eta zibilen mende egon dadin eskatzen dute, eta soberanoaren gaitzirikzkoaren mende.

Jende Zuzenbideak nahi izan du printzeek elkarri enbaxadoreak bidaltzea: eta arrazoiak, gauzari berez dagokionez, ez du biderik eman enbaxadore horiek, non enplegatuta egon, bertako soberanoaren edo honen epaimahaiaren mende egon daitezken. Bidali dituen printzearen hitza dira, eta hitz horrek libre behar du. Ezein oztopok ez die galarazi behar ekitea. Maiz ez dira gogoko gertatuko, gizon independente baten izenean mintzatzen direlako. Delituak egotziko lizkiekete, delituengatik zigortuak izan ahal balitez; zorrak egotziko lizkiekete, zorrengatik atxilotuak izan ahal balitez. Hala izanez gero, berezko harrotasuna duen printze batek denari beldur izango liokeen gizon baten ahotik hitz egingo luke. Beraz, enbaxadoreei dagokienez, Jende

Zuzenbidetik ateratako arrazoiei jarraitu beharra dago, ez zuzenbide politikotik datozenei. Beren ordezkatzaille-izaeraz abusatuko balute, kargua utziaraziko zaie atzera etxera bidaliz; haiek beren nagusiaren aurrean salatzea ere badago, eta hartara hau haien epaile edo sopikun bihurtuko litzateke.

## XXII

*Atahualpa inkaren zoritxarra*

Adierazi berri ditugun printzipioak ankerki bortxatu zituzten espainiarrek. Atahualpa inka Jende Zuzenbidearen arabera baizik ezin zen epaitu<sup>120</sup>: haiek, ordeza, lege politikoen eta zibilen bidez epaitu zuten. Bere sujet batzuk hilarazteaz salatu zuten, emazte asko eduki izanaz, etab. Eta hona ergelkeriaren ergelkeria, ez zuten kondenatu bere herriko lege politiko eta zibilen arabera, baizik eta epaileen beren lege politiko eta zibilen izenean.

## XXIII

*Edozein inguruabar dela eta, lege politikoak Estatua suntsitzen badu, Estatua iraunarazten duen eta batzuetan Jende Zuzenbide bihurtzen den lege politikoaren bidez erabaki behar dela*

Lege politikoa, Estatuan halako ondorengotza-ordena jakin bat ezarri duelarik, bera sortu duen gorputz politikoaren suntsitzaile bihurtzen denean, beste lege politiko batek aldatu egin dezake ordena hori, zalantzarik gabe; eta lege hori ez da lehenaren kontra egongo; aitzitik, azken batean erabat ados egongo da, biak ere printzipio honen mende baitaude: herriaren osasuna da lege gorena.

Esan dut<sup>121</sup> estatu handi bat beste baten osagarri bihurtuz gero ahuldu egiten zela, eta are estatu nagusia ere ahuldu egiten zuela. Gauza jakina da Estatuak burujabe izateko interesa duela, diru publikoak ondo administratuta egon daitezen, bere dirua ez dadin irten

beste herrialde bat aberasteko. Garrantzitsua da gobernatu behar duena atzerriko arauak erabat bereganatuta ez egotea; ezarrita dauden arauak baino gutxiago komeni dira hauek; bestalde, gizakiak harrigarriro atxikitzen zaizkie beren lege eta ohiturei; hauek dira nazio bakoitzaren zorionaren egile; haiek aldatuz gero, nekez saihestuko dira nahasmendu eta odol-isurtze handiak, herrialde guztien historiek erakusten digutenez.

Hortik ondorio hau atera daiteke: estatu handi batek beste estatu handi bateko nagusia badu oinordeko, lehen estatuak arrazoi osoz utz dezake hura oinordekotzatik kanpo, bi estatuei komeni baitzaie ondorengotza-ordena aldatzea. Esate baterako, Errusiako legeak —Isabelen erreginaldiaren hasieran egina— kanpo uzten du, oso zuhur, beste monarkia lukeen edozein oinordeko; halaxe Portugalgo legeak ere, ukatu egiten du odol-eskubidez koroara deitua litzatekeen arrotz oro.

Nazio batek inor oinordekotzatik kanpo utz badezake, are arrazoi beteagoz dauka edonori uko eginarazteko eskubidea. Baldin eta beldur bada ezkontza batek bere independentzia galartziko dioten ondorio txarrak izango ote dituen, edota zatiketa-arriskuan jarriko ote duen, arrazoi osoz eginaraziko die uko ezkontzen direnei eta haiengandik jaioko direnei, dituzketen eskubide guztiei; eta uko egiten duena nahiz uko eginarazten zaiona ezin kexatuko dira, Estatuak legea egin baitzezakeen haiek ondorengotzatik kanpo uzteko.

## XXIV

*Ordena publikoko araudiak lege zibilak ez bezalakoak direla*

Magistratuak zigortu egiten ditu delitugile batzuk; beste batzuk zuzendu egiten ditu. Lehenak legearen ahalaren mende daude, besteak legearen autoritatearen mende; lehenak gizartetik bereiziak dira, eta bigarrenak gizarte-arauen barruan bizi izatera behartzen dira.

Ordena publikoko ekintzetan, magistratuak zigortzen du, ez legeak; delituak epaitzerakoan, aldez, legeak zigortzen du, ez



magistratuak. Ordena publikoko gaiak une bakoitzeko gauzak dira, eta gauza txikiak izan ohi dira; beraz, ia ez dira behar formalitateak. Ordena publikoko ekintzak bizkorrak dira, eta eguneroko gauzen gainean ezartzen dira: hortaz, zigor handiak ez dira egoki. Ordena publikoa xehetasunez arduratzen da beti: hortaz, etsenplu handiak ez dira harentzat eginak. Araudiak ditu, legeak baino gehiago. Haren mende daudenak magistratuaren begipean daude etengabe eta, beraz, honen errua izango da haiek gehiegikerian erortzen badira. Hortaz, ez dira nahastu behar lege-hauste handiak eta ordena publikoaren hauste hutsa: gauza hauek maila desberdinetakoak dira.

Hortik zera ondorioztatzen da, Italiako errepublika horretan<sup>122</sup> ez zaizkiola egokitu gauzen izaerari, non suzko armak eramatea krimen larri gisa zigortzen den, eta non haiek gaizki erabiltzea ez baita okerragoa haiek eramatea baino.

Hortik beste hau ere ondorioztatzen da, enperadore haren ekintza guztiz laudatu hura, okin bat iruzur egiten harrapatu eta paldoan sartzea, sultan baten ekintza dela, justua izatearren justizia bera baino harantzago iritsi baitzen.

## XXV

*Ez dagoela zuzenbide zibileko xedapen orokorrei jarraitu beharrik, beren izaeratik bertatik ateratako arau partikularren mende egon behar duten gauzei dagokienez*

Lege ona al da itsas bidaia batean marinelen artean sortutako betebeharrak zibil guztiak baliogabe jotzen dituen? François Pyrardek dioskunez<sup>123</sup>, portugesez ez zioten men egiten garai batean, baina frantsesez bai. Denbora laburrean elkarrekin daudenek, premiarik ez dutenek —printzea arduratzen baita horietaz—, xede bakar bat baizik eduki ezin dezaketenek —bidaiarena, alegia—, gizartean ez daudenek —itsasontziko hiritar izaki—, ez dituzte bere gain hartu behar gizarte zibilaren kargei eusteko baizik ez diren betebeharrak. Espiritu horren haritik, hain zuzen, rodastarren legeak, beti itsasbazterretik nabigatu

ohi zen garaian egindakoa izaki, zera agintzen zuen, enbata zenean  
itsasontzian geratzen zirenak itsasontziaren eta kargaren jabe bihur-  
tzea, eta itsasontzia abandonatutakoek, berriz, ezer ez jasotzea.

Seigarren partea



# HOGETA ZAZPIGARREN LIBURUA

## KAPITULU BAKARRA

*Erromatarrek ondorengotzez zituzten legeen jatorriaz eta aldaketez*

Gai hau antzina-antzinako instituzioez ari da eta, sakoneraino iristeko, onar bekit erromatarren lehen legeetan arakatzea; ez dut uste orain arte inork halakorik egin duenik.

Gauza jakina da Romulok bere erresuma txikiko lurak banatu zituela hiritarren artean<sup>1</sup>; iruditzen zait hortik datozela Erromako ondorengotzei buruzko legeak.

Lurren banaketaren legeak agintzen zuen familia bateko ondasunak ez zirela pasatu behar beste familia batera eta, ondorioz, bi motatako oinordekoak baizik ez zituen ezartzen legeak<sup>2</sup>: seme-alabak eta aitaren autoritatearen mende bizi ziren ondorengo guztiak, zeini oinordeko baitzeritzen; eta, halakorik ezean, gizonezkoen bidetiko ahaiderik hurbilenak, zeini agnatu baitzeritzen.

Beste ondorio bat ere etorri zen hortik: emakumeen bidetiko ahaideek, zeini koinatu deitu baitzeritzen, ez zeukaten oinordeko izaterik, beste familia batera eramango zituzketelako ondasunak; eta horrelaxe ezarri zen.

Beste ondorio bat: seme-alabak ez ziren amaren oinordeko izan behar, ez eta ama seme-alabena ere; izan ere, horrela egitera, ondasunak familia batetik beste batera aldatuko ziratekeen. Hortaz, oinordetzatik kanpo ageri dira Hamabi Tauletako legean<sup>3</sup>; lege horrek agna-

tuak baizik ez zituen oinordetzara deitzen, eta ama-semeak ez ziren elkarren oinordeko.

Baina berdin zion oinordekoa —edo, oinordekorik ez izanez gero, agnatu hurbilena— gizonetzkoa edo emakumezkoa izatea, zeren eta, amaren aldetiko ahaideak oinordeko ez zirenez, nahiz eta emakume oinordeko bat ezkondu, ondasunak beti familia berean geratzen baitziren. Horrexegatik ez zen bereizten Hamabi Tauletako legean oinordekoa gizonetzko ala emakumezko izatea<sup>4</sup>.

Horrek zera ekarri zuen, semearen aldetiko bilobak aitonaren oinordeko izatea, baina alabaren aldetiko bilobak ez; izan ere, ondasunak beste familia batera ez pasatzeko, agnatuak haien aurretik zeuden. Hortaz, alaba izan zen aitaren oinordeko, baina ez haren seme-alabak<sup>5</sup>.

Beraz, lehen erromatarren artean, emakumeak oinordeko ziren hori lurren banaketaren legearekin bat zetorrenean; eta ez ziren oinordeko, lege haren kontra bazihoan.

Halakoxeak izan ziren ondorengotza-legeak lehen erromatarren artean; eta berez konstituzioaren mende zeudenez, eta lurren banaketatik eratortzen zirenez, bistan da ez zirela jatorri arrotzekoak, eta ez zeudela Greziako hirietara bidalitako ordezkariak ekarri zituztenen artean.

Dionisio Halikarnasokoak<sup>6</sup> dioskunez, Servio Tuliok, indargabetuta aurkitu baitzituen Romulok eta Numak lurren banaketaz egin legeak, berrezarri egin zituen, bai eta berriak egin ere zaharrei pisu berezia emateko. Beraz, ez dago zalantzan jartzerik hizpide izan ditugun legeak, lurren banaketa horren ondorio zirenez, Erromako hiru errege legegile horien emaitza direla.

Ondorengotza-ordena lege politiko baten ondorioz ezarrita zegoenez, hiritar batek ezin zuen aldatu bere borondate partikularra zela eta; hau da, Erromako lehen garaietan ezin bide zen egin testamenturik. Hala ere, gogorregia izango zen hori, bizitzako azken uneetan ondasunen gainean erabakitzeak aukerarik ez izatea.

Bide bat aurkitu zen alde horretatik legeak eta partikularren borondatea bateratzeko. Baimendu egin zen herri-batzar batean norberaren ondasunez erabakiak hartzea; eta testamentu bakoitza, nola-bait, botere legegilearen ekintza bat izan zen.

Hamabi Tauletako legeak baimentzen zion testamentua egiten zuen edonori oinordekotzat berak nahi zuen hiritarra aukeratzea. Lege erromatarrek oinordeko *ab intestato* izan zitezkeen kopurua hainbeste murrizteko arrazoia lurren banaketaren legea izan zen; eta testamentua egiteko ahalmena hainbeste hedatzeko arrazoia, berriz, zera izan zen: aitak seme-alabak saltzea bazeukanez<sup>7</sup>, are arrazoi gehiagoz ken ziezazkiekeen bere ondasunak. Beraz, ondorio desberdinak ziren, printzipio desberdinetatik eratortzen zirelako; eta horixe da lege erromatarren espiritua, honi dagokionez.

Atenasko lege zaharrek ez zioten uzten hiritarrari testamentua egiten. Solonek uzten zuen<sup>8</sup>, seme-alabak zituztenei izan ezik; eta Erromako legegileek, aitaren boterearen ideia bereganatuta, seme-alaben kaltetan ere testamentua egiteko bidea eman zuten. Aitortu behar da Atenasko lege zaharrak Erromakoak baino bereari atxikiagoak zirela. Testamentua egiteko baimen mugagabeak, erromatarren artean adostu bezala, hondatu egin zuen pixkanaka lurren banaketari buruzko xedapen politikoa; berak sartu zuen, beste ezerk baino gehiago, aberastasunen eta pobreziaaren arteko alde zorigaitzekoa; lur-sail asko pilatu ziren nor bakar baten esku; zenbait hiritarrek gehiegi zeukaten, eta beste askok eta askok ez zeukaten ezer. Hartara, herriak, bere banaketaz behin eta berriz gabetua, etengabe eskatu zuen beste lurbanaketa bat. Eskatu zuen neurritasunak, zuhurtasunak eta pobrezia erromatarren izaera berezia osatzen zutenean, eta eskatu zuen luxua gehiegikerietara iritsi zen garaietan.

Testamentuak, berez, herriaren batzarrean egindako lege bat ziren, eta armadan zeudenek ez zuten testamentua egiteko egokierarik. Herriak hori egiteko ahalmena eman zien soldaduei<sup>9</sup>. Herriak soldaduei beraren aurrean egingo zituzketen xedapenak beren kideetako batzuen aurrean egiteko ahalmena eman zien<sup>10</sup>.

Herriaren batzar handiak ez ziren egiten urtean bitan baizik; bestalde, herria ugaritua zen, eta arazoak ere bai. Pentsatu zen kome-nigarria zela hiritar guztiei beren testamentua egiten uztea herriaren gorputzaren ordezkari gisa hartutako zenbait erromatar puberren aurrean<sup>11</sup>: bost hiritar hartu ziren<sup>12</sup>, eta horien aurrean oinordekoak bere familia erosten zion testamentugileari, hau da, bere jarauntsia<sup>13</sup>; beste hiritar batek balantza bat eramaten zuen prezioa pisatzeko; izan ere, artean erromatarrek ez zuten dirurik<sup>14</sup>.

Badirudi bost hiritar horiek herriko bost klaseak ordezkatzzen zitutela, eta ez zela kontuan hartzen seigarrena, ezer ez zutenena.

Ez da esan behar, Justinianok bezala, salmenta haiek alegiazkoak zirenik; gerora horrelako bihurtu ziren, baina hasieran ez ziren. Handik aurrera testamentuak arautu zituzten lege gehienek salmenta horietan dute jatorria; horren froga Ulpianoren *Zatiak* obran aurki daiteke<sup>15</sup>. Gorrak, mutuak, hondatzaileak ez zeukaten testamentua egiterik: gorrak, familiaren eroslearen hitzak entzun ezin zituelako; mutuak, izendatzeko hitzak esan ezin zituelako; hondatzaileak, zeren eta, arazoen kudeaketa oro debekatua zuenez, ez baitzeukan bere familia saltzerik. Ez dut beste adibiderik emango.

Testamentuak herri-batzarrean egiten zirenez, zuzenbide politikoko ekintzak ziren zuzenbide zibilekoak baino gehiago; zuzenbide publikokoak, zuzenbide pribatukoak baino gehiago; hortik ondorio hau dator, aitak ezin ziola testamentua egiten utzi bere potestatepean zegoen semeari.

Herri gehienetan, testamentuak ez daude lotuta kontratu arruntak baino formalitate handiagoetara, zeren eta batzuk zein besteak ez baitira kontratua egiten duenaren borondatearen adierazpen baizik, eta zuzenbide pribatuari dagozkio. Baina erromatarren artean, testamentuak zuzenbide publikoari zegozkionez, beste ekintzek baino formalitate handiagoak zituzten<sup>16</sup>; eta hori horrela da oraindik ere zuzenbide erromatarraren arabera ari diren Frantziako lurraldeetan.

Testamentuak, esan bezala, herriaren legea izanik, agindu baten indarrez egin behar ziren, eta *zuzen* eta *aginduzko* zeritzen hitzen bidez. Hortik arau bat atera zen: ezingo zen norberaren jarauntsirik eman edo transmititu aginduzko hitzen bidez ez bazen<sup>17</sup>; ondorioz, zenbait kasutan aldaketa egin zitekeen<sup>18</sup>, eta jarauntsia beste oinordeko bati pasa zekiola agindu; baina inoiz ezin zen fideikomisorik egin<sup>19</sup>, alegia norbaiti enkargatu, erreku gisa, jarauntsia edo jarauntsiaren parte bat beste norbaiti itzultzeko.

Aitak ez semea izendatzen ez oinordetzaz gabetzen zuenean, testamentua hautsi egiten zen; baina balioa zuen, nahiz eta aitak alaba ez oinordetzaz gabetu edo izendatu. Ikusten dut horren arrazoia. Semea oinordetzaz gabetzen edo izendatzen ez zuenean, kalte egiten zion bilobari, hura aitaren oinordeko izango baitzatekeen *ab intestato*;



baina alaba ez izendatuz edo oinordetzaz gabetuz, ez zitzairen inolako kalterik egiten alabaren haurrei, hauek ezin izango baitziratekeen beren amaren oinordeko izan *ab intestato*<sup>20</sup>, ez zirelako ez oinordeko ez agnatu.

Lehen erromatarrek oinordekotzaz egindako legeek, lurren banaketaren espirituaren ildotik joateko asmoa besterik ez baitzuten, ez zituzten aski mugatu emakumeen aberastasunak, eta hortik ate irekia utzi zioten luxuari, zein beti ere aberastasunetatik bereiztezina baita. Bigarren eta hirugarren gerra punikoen artean, gaitzak nabaritzen hasi ziren; Lege Vokoniarra egin zen<sup>21</sup>. Eta pisuzko arrazoiengatik egin zenez, haren aztarna gutxi batzuk besterik geratu ez zaizkigunez, eta orain arte hartaz oso modu nahasian mintzatu direnez, argitu egingo dut.

Zizeronek zati bat gorde digu, zeinetan emakume bat oinordeko izendatzea debekatzen baita, ezkontuta egon nahiz ez<sup>22</sup>. Tito Liviorene *Epitomea*-k, non lege horretaz hitz egiten baita, ez dio gehiagorik<sup>23</sup>. Zizeronen<sup>24</sup> eta San Agustinen<sup>25</sup> arabera, badirudi debeku horrek alaba ere hartzen zuela, are alaba bakarra.

Katon Zaharra bere ahalmen osoaz saiatu zen lege hori onar zedin<sup>26</sup>. Aulo Geliok abagune hartan hark egindako harengaren zati bat aldatzen du<sup>27</sup>. Emakumeei oinordeko izatea debekatzean, luxuaren kausei aurre hartu nahi izan zien, Lege Opiarraren defentsa hartu zue-nean luxua bera geldiarazi nahi izan zuen bezala.

Justinianoren<sup>28</sup> eta Teofiloren<sup>29</sup> *Instituzioak*-en, Lege Vokoniarraren kapitulu batez hitz egiten da, zeinetan oinordetzan uzteko gaitasuna murrizten baitzen. Autore horienak irakurtzean, nork ez du pentsatuko kapitulu hori jarauntsia legatuen bidez agor ez zedin egina dela?; izan ere, hala gertatuz gero, oinordekoak uko egin zie-zaiokeen. Baina ez zen hori Lege Vokoniarraren espiritua. Ikusi berri dugu haxe zuela xede: emakumeei edozein jarauntsi jasotzea galarratzea. Legatzeko gaitasuna mugatzen zuen lege horren kapituluak xede horri ekiten zion: izan ere, nahi bezala legatu ahal izan balitz, emakumeek legatu gisa hartu ahalko zuten jarauntsi gisa jaso ezin zutena.

Lege Vokoniarra emakumeen aberastasun handiegiei aurrea hartzeko egin zen. Horretaz, jarauntsi handiei hartu behar zitzairen

aurrea, ez luxuari eusterik ez zeukatenei. Legeak diru-kopuru bat ezartzen zuen jarauntsiaz gabetzen zien emakumeei emateko. Zizeronek, hau jakinarazten digularik<sup>30</sup>, ez digu esaten zenbatekoa zen kopuru hori, baina Dionek dio<sup>31</sup> ehun mila sestertzio zirela.

Lege Vokoniarra aberastasunak arautzeko egina zen, ez pobrezia arautzeko; Zizeronek diosku<sup>32</sup>, halaber, lege hura ez zela ari erroldan izena emanda zeudenez baino.

Horrek aitzakia bat eman zuen legeari izkin egiteko. Gauza jakina da erromatarrak oso formazaleak zirela; eta esan dugu lehenago errepublikaren espiritua legearen letrari jarraitzea zela. Zenbait aitek ez zuten izena eman erroldan, beren jarauntsia alabari utzi ahal izateko; eta pretoreek juzgatu zuten hala eginda letra bortxatzen ez zenez, ez zela Lege Vokoniarra bortxatzen.

Anio Aselio izeneko batek bere alaba zeukan ezarrita oinordeko bakar. Bazeukan hori egitea, dio Zizeronek: Lege Vokoniarrak ez zion galarazten, ez zegoelako erroldan<sup>33</sup>. Verresek, orde, pretore zelarik, jarauntsiaz gabetu zuen alaba hura: Zizeronek dio Verres ustelkerian erorita zegoela, zeren eta bestela ez baitzuen aldatuko beste pretoreek men egindako ordena.

Zer ziren, bada, erroldan ez zeuden hiritar horiek, erroldak hiritar guztiak biltzen bazituen? Izan ere, Servio Tulioren arauen arabera —Dionisio Halikarnasokoak ematen digu horren berri<sup>34</sup>—, erroldan izena ematen ez zuen hiritarra esklabo bihurtzen zen; Zizeronek berak ere dio halako batek libertatea galtzen zuela<sup>35</sup>; Zonarok ere gauza bera. Beraz, alderen bat egon behar zuen Lege Vokoniarraren arabera erroldan ez egotearen eta Servio Tuliok araututakoaren espirituaren arabera ez egotearen artean.

Lehen bost klaseetan izena eman ez zutenak, non ondasunen zenbatekoaren arabera ezartzen baitziren<sup>36</sup>, ez zeuden erroldan Lege Vokoniarraren espirituaren arabera; sei klaseen artean izena eman ez zutenak, edo zentsoreek *aerarii* izenekoen artean jartzen ez zituztenak, ez zeuden erroldan Servio Tulioren insituzioen arabera. Hainbestekoa zen naturaren indarra, non aita batzuk, Lege Vokoniarrari izkin egiteko, prest baitzeuden seigarren klasekoen artekotzat hartuak izatearen lotsa jasateko —alegia, proletarioekin eta kapitazioaren arabera tasatuta zeudenekin—, edota are Zeriteen taule-

tan sartuak izateko arriskuan jartzeko<sup>37</sup>. Esan dugu erromatarren jurisprudentziak ez zuela onartzen fideikomisorik. Lege Vokoniarrari itzuri egiteko itxaropenak sortu zituen halakoak: legez jarauntsia jasotzeko gai zen norbait oinordeko izendatzen zen, eta erregutzen zitzaion jarauntsia legeak onartzen ez zuen norbaiti itzultzeko. Bide berri horrek oso bestelako ondorioak izan zituen. Batzuek itzuli egin zuten jarauntsia. Sexto Peduzeok egina<sup>38</sup> nabarmengarria izan zen: jarauntsi handia eman zioten eta munduan ez zen inor hura itzultzeko eskatua zitzaiola zekienik; joan zen testamentugilearen alargunagana eta senarraren ondasun guztiak eman zizkion.

Beste batzuek beretzat gorde zuten jarauntsia, eta P. Sextilio Ruforen etsenplua ere ospetsu egin zen, Zizeronek epikureoen kontrako eztabaidetan darabilelako<sup>39</sup>. «Gaztetan», dio, «Sextiliok lagun batzuen etxera lagun niezaiola eskatu zidan, haiengandik jakiteko ea Kinto Fadio Galoren jarauntsia haren alaba Fadiari itzuli behar zion. Zenbait gazte zeuzkan bilduta, beste pertsonaia larri batzuekin batera, eta inor ez zen iritzi hartakoa izan, alegia Fadiari Lege Vokoniarraren arabera zegokiona eman ziezaiola. Sextiliok jarauntsi handia jaso zuen, eta ez zukeen sestertzio bakar bat ere izango, baldin eta abantaila haren aurretik bidezko eta zuzen zena jarri izan balu». «Pentsa dezaket», eransten du Zizeronek, «zuek jarauntsia itzuli egingo zenuketela; pentsa dezaket Epikurok ere itzuli egingo zukeela, baina hala eginda ez zintzaizkieten zuen printzipioei jarraituko». Gogoeta batzuk egingo ditut puntu hau dela eta.

Giza izaeraren zorigaitz bat da legegileak sentimentu naturalen kontrako legeak egin behar izatea: halakoxea izan zen Lege Vokoniarra. Izan ere, legegileek gizarteari buruz arautzen dute, hiritarrari buruz baino gehiago, eta hiritarrari buruz, gizakiari buruz baino gehiago. Lege hark hiritarra eta gizakia sakrifikatzen zituen, eta errepublika baizik ez zuen gogoan. Gizon batek eskatzen zion lagun bati jarauntsia alabari itzul ziezaiola: legeak mesprezatu egiten zituen testamentugilearen sentimendu naturalak; mesprezatu egiten zion alabari aitaganako maitasuna; ez zen inolaz ere arduratzen jarauntsia itzuli behar zuen hartaz, eta hau izugarritzko gorabeheretan sartzen zen. Itzultzen bazuen, hiritar gaiztoa zen; beretzat gordetzen bazuen, gizon gaiztoa zen. Berez on zirenak baizik ez zuten pentsatzen legeari itzuri egitea; jende zintzoa besterik ezin zen aukeratu legeari itzuri egite-

ko; izan ere, garaipen larria baita beti askonahiaren eta gutizien gainetik izatea; eta jende zintzoak baizik ez du lortzen halako garaipenik. Agian gogorregia litzateke haiek hiritar gaiztotzat hartzea. Baliteke legegileak bere xedearen parte handi bat lortzea, berak egindako legeak jende zintzoa baizik ez behartzean lege hari itzuri egitera.

Lege Vokoniarra egin zen garaian, ohiturek artean gordetzen zuten beren jatorrizko araztasuna. Kontzientzia publikoa legearen alde jarri zen batzuetan, eta hari men egingo zitzaiola zin egitea lortu zen<sup>41</sup>, hartara, nolabait esan, zintzotasuna zintzotasunaren kontra jartzen zelarik. Baina azken garaietan, ohiturak usteldu egin ziren eta fideikomisoek indar gutxiago behar izan zuten Lege Vokoniarrari izkin egiteko, lege horrek men egin ziezaioten zuen indarra baino.

Gerra zibilek hiritar ugariri ekarri zieten heriotza. Erroma, Augustoren garaian, ia jenderik gabe geratu zen; birpopulatu beharra zegoen. Lege Papiarrak egin ziren, non ez baitzen ahaztu hiritarrak ezkontzera eta haurrak izatera bultzatuko zituen ezer<sup>42</sup>. Bitarteetako bat zera izan zen, legearen xedeak betetzeko prest zeudenei oinordeko izateko esperantzak emendatzea, eta legeari uko egiten ziotenei urritzea; eta Lege Vokoniarrak emakumeak oinordeko izateko ezgai bihurtu zituenenez, Lege Papiarrak kendu egin zuen debeku hori kasu batzuetan.

Emakumeak<sup>43</sup>, batez ere haurrak zituztenak, senarraren testamentuaren ondorioz jarauntsia jasotzeko gai bihurtu ziren; haurrak zituztenean, arrotzen testamentuaren ondorioz ere jarauntsia jasotzeko gai bihurtu ziren; hori dena, Lege Vokoniarraren xedapenaren kontra, baina aipatzekoa da ez zela erabat baztertu lege horren espirituua. Adibidez, Lege Papiarrak<sup>44</sup> arrotz baten testamentuaren ondorioz jarauntsi osoa jasotzeko gaitzen zuen haur bat zuen gizona<sup>45</sup>; emakumeari, hiru seme-alaba zituenean baino ez zion ematen grazia bera<sup>46</sup>.

Azpmarratu behar da Lege Papiarrak arrotzen testamentuaren ondorioz baino ez zituela egiten jarauntsia jasotzeko gai hiru haur zituzten emazteak, eta gurasoen oinordetzari zegokionez, lege zaharrak eta Lege Vokoniarra<sup>47</sup> indar osoan utzi zituela. Baina honek ez zuen iraun.

Erroma, nazio guztien aberastasunek hondatua, ohituraz aldatua zen; jadanik kontua ez zen emakumeen luxua geldiaraztea. Aulo

Geliok, Adrianoren garaian bizi baitzen<sup>48</sup>, diosku bere denboran Lege Vokoniarra ia deuseztatuta zegoela; hiriaren oparotasunak estalita. Hala, Pauloren *Sententziak* obran<sup>49</sup> —Nigerren garaian— eta Ulpianoren *Zatiak* obran<sup>50</sup> —Alexandro Severoren garaian— ikus daitekeenez, aitaren aldetiko arreba-ahizpak oinordeko izan zitezkeen, eta bakarrik ahaide urrunagoei ezartzen zitzaien Lege Vokoniarraren debekua.

Erromako lege zaharrak gogorrak iruditzen hasi zitzaizkien hiritarrei. Pretoreak ekitate, urritasun eta begirunezko arrazoiek bakarrik hunkitzen zituzten.

Ikusi dugunez, Erromako lege zaharren arabera, amak ez zuen parterik bere seme-alaben jarauntsian. Lege Vokoniarrak beste arrazoi bat gehiago eman zuen haiek baztertzeko. Baina Klaudio enperadoreak seme-alaben oinordekotza eman zion amari, galera horrengatik kontsolamendu gisa; senatu-kontsultu tertulianoak, Adrianoren garaian<sup>51</sup>, hiru seme-alaba zituztenean eman zien, jaiotzaz libre baziren; edo lau zituztenean, jareginak baziren. Argi dago senatu-kontsultu hori Lege Papiarraren luzapen bat besterik ez zela; honek, kasu berean, arrotzek ematen zizkieten jarauntsiak eman zizkien emakumeei. Azkenik, Justinianok<sup>52</sup>, zenbat-nahi haur zituztelarik eman zien ondorengotza.

Emakumeei oinordeko izatea galarazten zien legea estuarazi zuten arrazoi berberak aldarazi zuten, pixkanaka, emakumeak ahaideen oinordeko izatea galarazi zuen legea. Lege horiek guztiz bat zetozen errepublika on baten espirituarekin, non sexu horretakoak, luxurako, ez beren aberastasunez ez aberastasunen itxaropenaz balia daitezzen lortu behar baita. Aitzitik, monarkia bateko luxuak ezkontza garesti bihurtzen duenez, hartara gonbidatu behar da, bai emakumeek ekar ditzaketen aberastasunen bidez, bai lor ditzaketen oinordetzen itxaropenaren bidez. Hala, Erroman monarkia ezarri zenean, oinordetzen sistema osoa aldatu zen. Pretoreek emakumeen aldetiko ahaideei deitu zieten, gizonezkoen ahaiderik izan ezean; lege zaharren arabera, ordea, emakumeen aldetiko ahaideak inoiz ez ziren deituak. Senatu-kontsultu Orfiziarrak haurrak deitu zituen amaren oinordeko izatera; eta Valentiniano<sup>53</sup>, Teodosio eta Arkadio enperadoreek alabaren aldetiko bilobei deitu zieten aitonaren oinordeko izateko. Azkenik, Justiniano enperadoreak<sup>54</sup> zuzenbide zaharreko oinordetzen azken

aztarna ezabatu zuen: hiru oinordeko-mota ezarri zituen, ondorengoak, aurrekoak eta zehar-ahaideak, gizonezkoen eta emakumeen artean inolako bereizketarik egin gabe, ez eta emakumeen aldetiko eta gizonezkoen aldetiko ahaideen artean ere, eta horri zegokionez geratzen ziren lege guztiak indargabetu zituen. Izadiari jarraitzen zitzaiola uste zuen, jurisprudentzia zaharraren nahasmendutzat zeuzkanetatik aldenduz.

# HOGETA ZORTZIGARREN LIBURUA

## Frantsesen lege zibilen jatorriaz eta aldaketez

In nova fert animus mutatas dicere formas  
Corpora.....

Ovidio, Metam., I. l., I. b.

### I

*Herri germaniarren legeen izaera desberdinaz*

Frankoak beren herritik irten zirenean, lege salikoak idatzarazi zizkieten<sup>54</sup> beren nazioko jakintsuei. Rhin aldeko frankoen tribuak Klodoveoren garaian franko saliarrenekin bat egin zuelarik<sup>55</sup>, bere usadioak gorde zituen, eta Teodorikok<sup>56</sup>, Austrasiako erregeak, idatziz jarrazazi zituen. Bere erresumaren mende zeuden bavariarren eta alemanen usadioak ere bildu zituen<sup>57</sup>. Izan ere, Germania, hainbeste herrik alde egin ondoren oso ahul geratu zelarik, frankoek, beren konkistetan aurrera egin ondoren, atzerapausoa egin zuten, eta arbasoen basoetara eraman beren nagusitasuna. Badirudi turingiarren kodea<sup>58</sup> Teodorikok berak eman zuela, turingiarrak ere mendeko baitzituen. Frisiarrak Karlos Martelek eta Pepinek menderatu zituztenez, haien legea ez da printze horiek baino lehenagokoa<sup>59</sup>.

Karlomagno izan zen lehena saxoniarrak bezatzen, eta ezagutzen dugun legea eman zien. Nahikoa da azken bi kodeok irakurtzea garaileen eskuetatik irten direla ikusteko. Bisigodoek, burgundiarrek eta lonbardiarrak beren erresumak sortu zituztenean, idatziz jarri zituzten beren legeak, ez menderatutako herriei beren usadioak ezartzeko, baizik eta berentzat.

Lege saliko eta erriparioetan, alemanen, bavariarren, turingiarren eta frisiarren legeetan, sinpletasun miresgarria dago; jatorrizko zakartasuna aurkitzen da han, beste espirituren batek ahuldu

gabeko espiritua. Gutxi aldatu ziren, herri haiek —frankoak ez bezala— Germanian geratu zirelako. Frankoek ere han sortu zuten bere inperioaren parte handi bat; eta hartara haien legeak germaniarrak izan ziren denak. Ez zitzairen gauza bera gertatu bisigodoen, lonbardiarren eta burgundiarren legeei: hauek beren izaeraren parte handi bat galdu zuten, zeren eta herriok, beste eskualde batzuetara aldatu zirelarik, beren izaeraren parte handi bat galdu baitzuten.

Burgundiarren erresumak ez zuen iraun herri garailearen legeek aldaketa handirik jaso ahal izateko adina. Gondebaldo eta Segismundo, usadioak bildu zituztenak, ia azken erregeak izan ziren. Lonbardiarren legeek eranskinak jaso zituzten aldaketak baino gehiago: Rotarisenen ondotik Grimoaldorenak, Luitprandorenak, Ratxisenak, Aistulforenak; baina ez zuten beste forma bat hartu. Ez zitzairen gauza bera gertatu bisigodoen legee<sup>60</sup>: haien erregeek eraberritu egin zituzten, eta kleroari eraberriarazi zizkioten.

Lehen dinastiako erregeek kendu egin zieten lege saliko eta erriparioei kristautasunarekin bat etorri ezin zena; baina funtsezko guztia bertan utzi zuten<sup>61</sup>. Ez dago gauza bera esaterik bisigodoen legez.

Burgundiarren legeek, eta batez ere bisigodoenak, onartu egiten zituzten gorputz-zigorak. Lege saliko eta erriparioek, ordea, ez zituzten onartu<sup>62</sup>, eta hobeto gorde zuten beren izeata.

Burgundiarrak eta bisigodoak, probintziak arrisku handian baitzituzten, bertakoekin adiskidetzen saiatu ziren, eta lege zibil inpartzialenak ematen<sup>63</sup>; baina errege frankoek, beren botereaz seguru, ez zuten halako damurik izan<sup>64</sup>.

Saxoniarrak, frankoen mende bizi zirelarik, hezkaitzak ziren, eta behin eta berriz oldartzen ziren. Haien legeetan<sup>65</sup> garailearen gogortasuna aurki daiteke, barbaroen legeen beste kodeetan ageri ez den bezalakoa.

Germaniarren legeen espiritua diru-zigorretan ageri da, eta garailearena zigor afliktiboetan.

Beren herrialdean egiten dituzten delituak gorputzean zigortzen dira, eta lege germaniarren espiritua beren lurraldetik kanpo egiten dituzten delituen zigorretan ageri da bakarrik.



Zera adierazten da legeotan, beren delituengatik inoiz ez dute-la bakerik izango, eta elizetako babesa ere ukatu egiten zaie.

Apezpikuek sekulako boterea izan zuten bisigodoen gortean; arazorik garrantzitsuenak kontzilioetan erabakitzen ziren. Bisigodoen kodeari zor dizkiogu egungo inkisizioaren arau, printzipio eta ikuspegi guztiak; eta monakoek behinola apezpikuek juduen kontra egindako legeak kopiatu besterik ez dute egin.

Bestela, Gondebaldok burgundiarrei eman legeek zuhur samarrrak dirudite; Rotarisek eta beste printze lonbardiarrak emandakoak, are zuhurragoak. Baina bisigodoen legeak, Rezesvinto, Txindasvinto eta Egigarenak, funtsgabeak, okerrak, burugabeak dira; ez dute helburua lortzen; erretorikaz beteak eta zentzuz hutsik, azalekoak funtsezko gauzei dagokienez, eta egundokoak estiloan.

## II

### *Barbaroen legeak pertsonalak izan zirela denak*

Barbaroen lege hauen ezaugarri bat hauxe da: ez ziren lurralde jakin bati atxikiak. Frankoa frankoen legeak epaitzen zuen, alemana alemanenak, burgundiarra burgundiarren legeak, erromatarra lege erromatarrak; eta garai hartan herri konkistatzaileek legeak bateratzeko batere asmorik ez izateaz gainera, ez zuten izaten ezta herri garai-tuaren legebile bihurtzeko gogorik ere.

Horren jatorria germaniar herrien ohituretan ikusten dut. Nazio haiek paduraz, aintziraz eta basoz bananduta zeuden; Zesarren obran<sup>66</sup> ikusten da are elkarretarik bananduta egotea maite zutela. Erromatarrei zieten beldurak elkarrenganatu zituen; gizon bakoitza, nahastutako nazio haietan, bere nazioko ohitura eta usadioen arabera epaitu behar zen. Herri haiek guztiak, elkarretarik bereiz bizi zirenean, libreak eta beregainak ziren, eta nahastu zirenean ere beregain iraun zuten. Aberria denena zen, eta errepublika partikularra; lurraldea berbera zen, nazioak desberdinak. Lege pertsonalen espiritua, beraz, beren lurretatik irten baino lehenagotik zuten herri haiek, eta berekin eraman zuten beren konkistetan.

Usadio hori ezarrita ageri da Markulforen formuletan<sup>67</sup>, barbaroen legeen kodeetan —batez ere erripuarioen legean<sup>68</sup>— lehen dinastiako erregeen dekretuetan<sup>69</sup>, nondik atera baitziren bigarren dinastian egin ziren kapitularrak<sup>70</sup>. Haurrak aitaren legeari jarraitzen zitzaizkion<sup>71</sup>, emazteak senarrarenari<sup>72</sup>, alargunak beren legera itzultzen ziren<sup>73</sup>, jareginek ugazabarena zuten<sup>74</sup>. Hori ez da dena: bakoitzak nahi zuen legea har zezakeen; Lotario I.aren konstituzioak aukera hori publiko egin zedila exijitu zuen<sup>75</sup>.

### III

#### *Desberdintasun handi bat lege salikoen eta lege bisigodo eta burgundiarren artean*

Esan dut<sup>76</sup> burgundiarren legea eta bisigodoena inpartzialak zirela; baina lege salikoa, ordea, ez: bereizketarik mingarrienak ezarri zituen frankoen eta erromatarren artean. Inork franko bat, barbaro bat edo lege salikopean bizi zen gizon bat hiltzen zuenean<sup>77</sup>, berrehun sos ordaintzen zizkien ahaideei; baina ehun besterik ez zituen ordaintzen erromatar jabe bat hiltzen zuenak<sup>78</sup>, eta berrogeita bost besterik ez, erromatar zergapeko bat hiltzen zuenak; erregearen sujet zen franko bat hiltzeagatik seiehun sos ordaindu behar ziren<sup>79</sup>; eta erregeren<sup>80</sup> mahaiko<sup>81</sup> zen erromatar bat hiltzeagatik, hirurehun besterik ez. Hortaz, desberdintasun ankerra ezartzen zuen jaun frankoaren eta jaun erromatarraren artean, eta maila apalagoko frankoaren eta erromatarraren artean.

Hori ez da guztia: zenbait lagun franko bati bere etxean erasotzeko bildu<sup>82</sup>, eta hiltzen bazuten, lege salikoak seiehun sos ordaintzeko agintzen zuen; baina erromatar bati edo jaregin bati eraso eginez gero<sup>83</sup>, erdia baizik ez zen ordaintzen. Lege beraren arabera<sup>84</sup>, erromatar batek franko bat kateatzen bazuen, hogeita hamar sos zor zituen; baina franko batek erromatarra kateatuz gero, hamabost besterik ez. Franko batek hirurogeita bi sos eta erdi jasotzen zituen lapurreta egin zion erromatarragandik; eta erromatar batek, berriz, hogeita hamar besterik ez lapurreta egindako frankoagandik. Horrek guztiak oso gogorra izan behar zuen erromatarrentzat.

Hala ere, autore ospetsu batek<sup>85</sup> sistema bat eraikitzen du *Frankoak Galietan Kokatu zirenekoa* obran, frankoak erromatarren lagunik onenak zirelako aieruaren gainean. Frankoak erromatarren lagunik onenak, elkarri kalte izugarriak egin zizkiotelarik<sup>86</sup>? Frankoak erromatarren lagun, armez menderatu ondoren, beren legeez odol hotzean zanpatu zituztelarik? Txina konkistatu zuten tartariarrak txinatarren lagun ziren bezala ziren haiek Erromatarren lagun.

Zenbait apezpiku errege ariarrak suntsitzeko katoliko frankoez baliatu zirelako, hortik atera al daiteke herri barbaroen mende bizi nahi izan zutela? Eta ondoriozta al daiteke hortik frankoek begiramen berezia izan zutela erromatarrekin? Nik oso bestelako ondorioak ateratzen ditut: zenbat eta seguruago egon frankoak erromatarrez, hainbat begiramen gutxiagoz tratatu zituzten.

Baina Dubos abadeak historialari batentzat okerrak diren iturrietara jo du: poeta eta hizlarietara; sistemak ezin dira oinarritu arrandiazko obretan.

## IV

*Nola galdu zen zuzenbide erromatarra frankoen mendeko lurraldean, eta nola iraun zuen godoen eta burgundiarren mendeko lurraldean*

Esan ditudanek orain arte ilun egon diren beste batzuk argituko dituzte.

Gaur egun Frantzia deritzan herrialdea lege erromatarren edo Teodosiar kodearen arabera eta bertan bizi izan ziren barbaroen<sup>87</sup> legeen arabera gobernatua izan zen lehen dinastian.

Frankoen mendeko lurraldean, lege salikoa zegoen frankoen-tzat, eta Teodosiar kodea<sup>88</sup> erromatarrentzat. Bisigodoen mendekoan, Teodosiar kodearen bilduma batek<sup>89</sup>, Alarikoren aginduz eginak, arautzen zituen erromatarren arazoak. Nazioaren ohiturak Eurikok<sup>90</sup> jarra-razi zituen idatziz, eta bisigodoen arazoetan erabakitzen zuten. Baina zergatik izan zuten lege salikoeak aginpide ia orokorra frankoen lurraldean? Eta zergatik galdu zen pixkanaka erromatar zuzenbidea? Bisigodoen mendeko lurretan, aldiz, erromatar zuzenbidea hedatu zen, eta aginpide orokorra iritsi zuen.

Nik hauxe diot: frankoek erromatar zuzenbidea erabiltzeari utzi bazioten, franko, barbaro edo lege salikopeko gizona izateak abantaila handiak zituelako utzi zioten<sup>91</sup>; mundu guztiak utzi zuen erromatar zuzenbidea, lege salikoaren azpian bizitzeko. Elizgizonek baizik ez zioten eutsi<sup>92</sup>, haiek ez zutelako bestera aldatzeko interesik. Maila- eta egoera-desberdintasunak kalte-ordainen tamainan zeuden bakarrik, beste nonbait erakutsiko dudanez. Alabaina, lege partikular batzuek<sup>93</sup> frankoek zeuzkatenak bezain kalte-ordain aldekoak eman zizkieten; hortaz, erromatar zuzenbidea gorde zuten. Ez zuten inolako desabantailarik horregatik, eta komeni egiten zitzaien, enperadore kristauen obra zelako.

Beste alde batetik, bisigodoen ondasunetan, lege bisigodoak<sup>94</sup> bisigodoei erromatarren gainean inolako abantailarik ematen ez zenez, erromatarrek ez zuten inolako arrazoirik beren legepean bizitzeari utzi eta beste baten mende bizi izateko: beraz, beren legeak gorde zituzten, bisigodoenak hartu gabe.

Hori berretsi egiten da aurrera egin ahala. Gondebaldoren legea oso inpartziala izan zen, eta ez zen burgundiarrentzat erromatarrentzat baino aldekoago. Lege horren hitzaurrearen arabera, badi-rudi burgundiarrek egin zutela, eta erromatarren eta burgundiarren artean sor zitezkeen arazoak arautzeko egin ere; eta halakoetan, epai-mahaia erdibana osatzen zen. Halaxe izatea eskatzen zuen garai hartako antolamendu politikoak<sup>95</sup> arrazoi partikularrengatik. Erromatar zuzenbideak iraun egin zuen Borgonian, erromatarrek beren artean izan zitzaieten arazoak arautzeko. Ez zuten beren legea uzteko arrazoirik, frankoen herrialdean bezala; izan ere, Borgonian ez zen ezarria lege salikoa, Agobardok Luis Errukitsuari egin gutun ospetsuan ageri denez.

Agobardok<sup>96</sup> Borgonian lege salikoa ezartzeko eskatu zion printze hari; beraz, ez zegoen ezarrita. Horregatik, erromatar zuzenbideak iraun egin zuen, eta oraindik ere badirau behinola erresuma haren mende zeuden hainbat probintzian.

Lege erromatarrak eta lege godoak iraun egin zuten godoak bizitzen jarritako lurraldeetan ere: han ez zuten inoiz hartu lege salikoa. Pepinek eta Karlos Martelek sarrazenoak bota zituztenean, printze haien mende geratu ziren hiri eta probintziek<sup>97</sup> beren legeak gordetzea eskatu zuten, bai eta lortu ere; eta horrek, garai hartako usa-

dioaren kontra —lege guztiak pertsonalak baitziren—, zuzenbide erromatarra lurralde haietan lege erreal eta lurraldeko gisa hartzea ekarri zuen.

Hori Karlos Burusoilaren ediktuak frogatzen du; Pistesen eman zuen 864. urtean, eta bereizi egiten ditu erromatar zuzenbidearen arabera gobernatutako lurraldeak<sup>98</sup> eta bestela gobernatutakoak.

Pistesko ediktuak bi gauza frogatzen ditu: bat, herrialde batzuetan lege erromatarraren arabera epaitzen zela, eta beste batzuetan ez zela lege horren arabera epaitzen; bestea, lege erromatarraren arabera gobernatutako lurralde horiek, hain zuzen, egun ere lege horri jarraitzen zaizkiola, ediktu horretantxe ageri denez<sup>99</sup>. Hortaz, usadioen arabera gobernatutako eskualde frantziarren eta zuzenbide idatzia-  
ren arabera gobernatuen arteko bereizketa egina zen jadanik Pistesko ediktuaren denboran.

Esan dudanez, monarkiaren hasieretan lege guztiak pertsonalak ziren; esate baterako, Pistesko ediktuak erromatar zuzenbidea zuten erromatarrak eta ez zutenak bereizten ditu, eta horrek zera esan nahi du, zuzenbide erromatarreko ez ziren lurraldeetan hainbeste jendeak aukeratua zuela herri barbaroen legeen esanera bizitzea, non eskualde haietan ez baitzegoen ia inor lege erromatarraren arabera bizitzea aukeratu zuenik; eta lege erromatardun lurraldeetan, berriz, jende gutxi zegoela herri barbaroen legeen mende bizitzea aukeratutakoa.

Badakit hemen gauza berriak esan ditudala, baina egia badira, oso zaharrak dira. Zer axola dio, hortaz, gauza horiek nik, Valoisek edo Bignonek esateak?

## V

### *Gai beraren jarraipena*

Gondebaldoren legeak denbora askoan iraun zuen burgundia-  
rren artean, lege erromatarrarekin batera; artean erabiltzen zen Luis Errukitsuaren garaian; Agobardoren gutunak ez du horretaz inolako zalantzatarako biderik ematen. Orobat, nahiz eta Pistesko ediktuak

bisigodoek hartutako lurraldeari erromatar legearen lurralde deitu, bisigodoen legeak beti iraun zuen han, eta hori Troyesko sinodoak frogatzen du: Luis Totela errege zelarik, 778. urtean, hau da, Pistesko ediktua baino hamalau urte geroago.

Ondoren, lege godoak eta burgundiarrak desagertu egin ziren beren lurraldean bertan, herri barbaroen lege pertsonalak desagerrarazi zituzten kausa orokorrengatik<sup>100</sup>.

## VI

### *Nola iraun zuen erromatar zuzenbideak lonbardiarren mendeko lurraldean*

Dena dator bat nire printzipioekin. Lonbardiarren legea inpartziala zen, eta erromatarrek ez zuten izan batere interesik berena utzi eta hura hartzeko. Italian ez zuten Frankoen mendeko erromatarrek lege salikoa aukeratzeraz bultzatu zituen arrazoia eta, beraz, erromatar zuzenbideak lonbardiarrenarekin batera iraun zuen.

Gertatu zen honek lekua utzi ziola erromatar zuzenbideari; nazio nagusiaren lege izateari utzi zion, eta, noble gehienek legea izaten jarraitu bazuen ere, hiri gehienak errepublika bihurtu ziren, eta noblezia hura erori egin zen, edota desegin egin zuten<sup>101</sup>. Errepublika berrietako hiritarrek ez zuten hartu behar izan lehia judizialaren usadioa ezartzen zuen lege bat, zeinen instituzioak zalduneriaren ohitura eta usadioei oso atxikita baitzeuden. Elizgizon ia guztiak, hain indartsuak garai hartan Italian, erromatar legearen mende bizi zirenez, lonbardiarren legeari men egiten ziotenen kopurua urrituz joan bide zen.

Bestalde, lonbardiarren legeak ez zuen erromatar zuzenbidearen dotorezia hura, Italiari lurbera osoan nagusi izana zela gogorarazten ziona; ez zeukan haren hedadura ere. Lonbardiarren legeak eta erromatar legeak errepublika bihurtu ziren hirien estatutuak ordezkatzeko baino ez zuten balio; eta zeinek ordezkatzeko zituen hobeto: lonbardiarren legeak, kasu batzuk soilik arautzen baitzituen, ala erromatar legeak, denak barne hartzen baitzituen?

## VII

### *Nola galdu zen erromatar zuzenbidea Espainian*

Gauzak bestela gertatu ziren Espainian. Bisigodoen legea atera zen garaile, eta erromatar zuzenbidea galdu egin zen. Txindasvintok<sup>102</sup> eta Rezesvintok<sup>103</sup> debekatu egin zituzten erromatar legeak, eta ez zuten utzi ezta haiek aipatu ere egitea epaitegietan. Rezesvintok, gainera, godoen eta erromatarren arteko ezkontzen debekua kentzeko legea egin zuen<sup>104</sup>. Argi dago bi lege horiek espiritu berbera zutela: errege hark ezabatu egin nahi zituen godoak eta erromatarrak banatzen zituzten arrazoi nagusiak. Eta uste zen horrexek banatzen zituela gehien: beren artean ezkontzeko debekuak, eta lege desberdinen mende bizi ahal izateak.

Baina nahiz eta errege bisigodoek erromatar zuzenbidea debekatu, iraun egin zuen Galiaren hegoaldean zituzten lurraldeetan. Lurralde horiek, monarkiaren erdigunetik urrun, independentzia handian bizi ziren<sup>105</sup>. Wambaren historiak erakusten duenez (672. urtean tronuratu zen), bertakoak nagusituak ziren<sup>106</sup>, eta erromatar legeak lege godoak baino itzal handiagoa zuen. Espainiar legeak ez zitzaizkien komeni ez haien manerei, ez garaiko egoerari; beharbada herria bera atxiki zitzaion erromatar legeari, hartan bere askatasunaren ideia ikusirik. Are gehiago: Txindasvinto eta Rezesvintoren legeek juduen kontrako xedapen beldurgarriak zituzten; baina judu haiek indartsuak ziren hegoaldeko Galian. Wamba erregearen historiaren autoreak juduen *pros-tituzio-etxea* deitzen die probintzia haiei. Sarrazenoak probintzia haietara etorri zirenean, norbaitek deituta etorri ziren; eta nork deituko zien judutarrak edo erromatarrak izan ezik? Godoak izan ziren lehen zapalduak, nazio nagusia zirelako. Prokopiok erakusten digunez<sup>107</sup>, beren zorigaitzean *Galia Narbonensis* -etik Espainiara erretiratu ziren. Zalantzarik gabe, zoritxar hartan, artean borrokan ari ziren Espainiako bazterretan bilatu zuten babesa, eta hegoaldeko Galian bisigodoen legepean bizi zirenen kopurua asko urritu zen.

## VIII

### *Kapitular faltsua*

Benito Levita bildumari zorigaitzekoak ez zuen bada erromatar zuzenbidea debekatzen zuen lege bisigodoa gerora Karlomagnori egotzi zitzaion kapitular bihurtu?<sup>108</sup> Lege partikular bat lege orokor bihurtu zuen, erromatar zuzenbidea mundu osoan zehar desegin nahi izan balu bezala.

## IX

### *Nola galdu ziren barbaroen legeen kodeak eta kapitularrak*

Lege salikoak, erripararioak, burgundiarrek eta bisigodoak desagertu egin ziren pixkanaka erabileratik frantsesen artean. Hona hemen nola.

Feudoak oinordetzazko bihurtu eta azpifeudoak hedatu zirelarik, lege horiek aplikatu ezin zitzaizkien usadio asko agertu ziren. Espirituari, bai, eutsi zitzaion; alegia, arazo gehienak isunen bidez konpontzea. Baina balioak aldatu zirenez, isunak ere aldatu egin ziren; eta agiri<sup>109</sup> askotan ikus daiteke jaunek finkatzen zituztela beren epaimahai txikietan ordaindu beharreko isunak. Hala, legeari berari jarraitu gabe, legearen espirituari jarraitu zitzaizkion.

Bestalde, Frantzia ezin konta ahala jaurerri txikitan banatuta zegoenez, eta mendekotasun politikoa ez baina mendekotasun feudala onartzen zutenez, oso zaila zen lege bakar batek izatea aginpidea. Izan ere, ezinezko gertatuko zatekeen hura errespetaraztea. Jadanik ez zegoen probintzietara ofizial bereziak<sup>110</sup> bidaltzeko ohitura, justizi administrazioaren eta arazo politikoen begirale. Badirudi, agirien arabera, feudo berriak finkatzen zirenean, erregeek galdu egiten zutela ofizial horiek hara bidaltzeko eskubidea. Hartara, dena feudo bihurtu zenean, erregeak ezin izan zituen erabili ofizial haiek; ez zen gehiago lege komunik izan, inork ezin zezakeelako lege komuna betearaz.

Lege salikoak, burgundiarrek eta bisigodoak, beraz, asko galdu ziren bigarren dinastiaren azkenaldian, eta hirugarrenaren hasieran ia ez ziren aipatu ere egiten.



Lehen bi dinastietan maiz bildu zen nazioa, jaunak eta apezpi-kuak alegia, artean jende xehea ez baitzen aipatzen. Batzar haietan elizgizonak araupean jartzen saiatu ziren, talde hura, nolabait esan, konkistatzaileen azpian eratzen baitzen, eta bere pribilegioak ezartzen baitzituen. Batzar haietan egindako legeak dira guk kapitular deitzen diegunak. Lau gauza gertatu ziren: feudoen legeak ezarri ziren, eta Elizaren ondasunen parte handi bat feudoen legeen arabera gobernatua izan zen; elizgizonak gehiago bereizi ziren, eta ez zieten kasu egin erreformako legeei<sup>111</sup>, berak ez baitziren izan erreformatzaile bakar-rak; kontzilioetako<sup>112</sup> kanonak eta aita santuen dekretalak bildu ziren; eta apaizeriak iturri garbiago batetik baletoz bezala jaso zituen lege horiek. Feudo handiak eratu eta gero, esan bezala, erregeek ez zuten izan beren mandataririk probintzietan berek emandako legeak gorde eta betearazteko; hortaz, hirugarren dinastian ez zen gehiago hitz egin kapitularrez.

## X

### *Gai beraren jarraipena*

Zenbait kapitular erantsi zitzaizkien Ionbardiarren legeari, lege salikoei, bavariarren legeari. Horren arrazoia bilatu izan da; gauzan bertan aurkitu behar da. Kapitularrak hainbat motatakoak ziren. Batzuek gobernu politikoarekin zuten zerikusia, beste batzuek gobernu ekonomikoarekin, gehienek gobernu eklesiastikoarekin, eta batzuek gobernu zibilarrekin. Azken mota horretakoak lege zibilarri erantsi zitzaizkion, hau da, nazio bakoitzaren lege pertsonalei: horrexegatik esaten da kapitularretan ez dagoela ezer xedaturik erromatar legearen kontra<sup>113</sup>. Hain zuzen, gobernu ekonomikoaz, eklesiastikoaz edo politikoaz arduratzen zirenek ez zuten zerikusirik lege horrekin; eta gobernu zibilaz ari zirenek lege barbaroen legeekin bakarrik zuten zerikusia: haiek argitu, zuzendu, erantsi eta kendu egiten zituzten. Baina kapitular horiek lege pertsonalei eransteak kapitularren gorputza bera baztertzea ekarri zuen, nire ustez. Ezjakintasunaren garaietan, obra baten laburpenak obra bera erortzea ekarri ohi du maiz.

## XI

*Lege barbaroen kodeen, erromatar zuzenbidearen eta kapitularren  
erorketaren beste kausa batzuk*

Nazio germaniarrek erromatar inperioa konkistatu zutenean, idazkeraren erabilera aurkitu zuten bertan; eta erromatarrek bezala, berek ere idatziz jarri zituzten beren usadioak<sup>114</sup>, eta kodeak egin zituzten. Karlomagnoen ondorengo erregealdi zorigaitzekoek, normandiarren inbasioek, barne-gerrek, atzera ere hasierako iluntasunean murgilarazi zituzten nazio garaileak; ahaztu egin zitzairen irakurtzen eta idazten. Horrek Frantzian eta Alemanian idatzitako lege barbaroak, erromatar zuzenbidea eta kapitularrak ahaztea ekarri zuen. Idazkeraren usadioa hobeto gorde zen Italian, han aita santuak eta enperadore grekoak baitziren nagusi, eder eta jori hiriak, eta garai hartan ia-ia antxe bakarrik jarduten zen merkataritzan. Italiaren hurbiltasun horrek ekarri zuen erromatar zuzenbidea hobeto gordetzea behinola godoen eta burgundiarren mende egondako bazterretan; izan ere, zuzenbide hura lurralde-legea eta pribilegio modukoa baitzen. Badirudi idazten ez jakiteak ekarri zuela Espainian lege bisigodoak erortzea. Eta hainbeste lege erortzean, ohiturak sortu ziren nonahi.

Lege pertsonalak erori egin ziren. Kalte-ordainak eta *fredum* izenekoa<sup>115</sup> ohituraren arabera arautu ziren, lege haien testuaren arabera baino. Beraz, monarkia ezarri zenean usadioetatik lege idatzietara pasatu ziren bezala, handik mende batzuetara berriz ere lege idatzietatik usadio idatzi gabeetara itzuli ziren.

## XII

*Tokian tokiko ohiturak; herri barbaroen eta erromatar zuzenbidea -  
ren aldaketa*

Hainbat agiritan ikusten denez, lehen eta bigarren dinastian baziren tokian tokiko ohiturak. *Bertako ohitura*<sup>116</sup>, *lege zaharra*<sup>117</sup>, *usadioa*<sup>118</sup>, *legeak* eta *ohiturak*<sup>119</sup> aipatzen dira agiriotan. Autore batzuek

uste izan dute ohitura deitutakoak herri barbaroen legeak zirela, eta lege deitutakoa erromatar zuzenbidea zela. Nik frogatuko dut hori ezin dela horrela izan. Pepin erregeak agindu zuen legerik ez zen lekuetan ohiturari jarraitu behar zitzaizkiola; baina ohitura ez zedila legearen aurretik jar<sup>120</sup>. Alabaina, erromatar zuzenbidea barbaroen legeen kodeen aurretik jarri zela esatea agiri zahar guztiak baliogabetzea da, eta batez ere barbaroen legeen kode horiek, beti kontrakoa baitiote.

Herri barbaroen legeak ez ziren usadioak, inola ere; aitzitik, lege horiek sartu zituzten usadioak, lege pertsonalak ziren aldetik. Lege salikoa, adibidez, lege pertsonala zen; baina franko saliarrek bizi ziren lekuetan, lege saliko hori, denik eta pertsonalena izanda ere, lurralde-lege bihurtzen zen franko saliarrei zegokienean; eta beste nonbait bizi ziren frankoentzat baizik ez zen lege pertsonal. Hortaz, lege salikoa lurraldeko lege zen toki batean, zera gertatu bide zen, burgundiar, aleman, edo erromatar batzuek maiz arazoak izatea, eta beren herrietako legeez erabaki bide ziren; eta lege horietako batzuen arabera epaiketa askok usadio berriak ezarriko zituzketen lurraldean. Eta horrek ondo argitzen du Pepinen konstituzioa. Bidezkoa zen usadio horiek eragina izatea bertako frankoen artean ere, lege salikoren arabera erabakitzen ez ziren kasuetan; baina ez zen bidezkoa lege salikoaren aurretik jartzea.

Hortaz, leku bakoitzean lege nagusi bat zegoen, eta hartutako usadioak lege nagusi horren osagarri ziren, haren kontra ez bazihoazen.

Gerta zitekeen usadioak lurraldeko ez zen lege baten osagarri ere izatea; eta, adibide beretik jarraituz, baldin eta lege salikoa lurraldeko zen toki batean burgundiar bat burgundiarren legearen arabera epaitzen bazuten, eta kasua ez bazen ageri lege haren testuan, toki hartako ohituraren arabera epaituko zen ezbairik gabe.

Pepin erregearen garaian, eratu ziren usadioek legeek baino indar gutxiago zuten; baina laster usadioek legeak desegin zituzten, eta araudi berriak beti gaitzen bat dela adierazten duten erremedioak direnez, sinets liteke ezen, Pepinen garaian, jadanik hasiak zirela usadioak legeen aurretik hobesten.

Esan dudanak argitzen du nola erromatar legea, lehen garaietatik bertatik, lurraldeko lege bihurtzen hasi zen, Pistesko ediktuan

ikusten denez; eta nola lege godoak indarrean iraun zuen, aipatu dudan Troyesko sinodoan<sup>121</sup> ageri denez. Lege erromatarra lege pertsonal orokor bihurtua zen, eta lege godoa lege pertsonal partikular; eta ondorioz, lege erromatarra zen lurraldeko legea. Baina nola liteke ezjakintasunak herri barbaroen lege pertsonalak alde guztietan erorraztea, eta probintzia bisigodoetan eta burgundiarretan erromatar legeak irautea? Nire erantzuna hauxe da: erromatar legeari berari ere beste lege pertsonalei gertatu zitzaiena gertatu zitzaiola; hori gabe, oraindik ere Teodosiar kodea izango genukeen erromatar legea lurraldeko lege zen probintzietan, Justinianoren legeen ordeztu. Probintzia horiei «erromatar zuzenbideko» edo «zuzenbide idatziko lurralde» izena besterik ez zitzaien geratu, herriek legeari dioten atxikimendu bat besterik ez, batez ere pribilegiotzat hartzen dutenean, eta zuzenbide erromatarraren xedapen batzuk, gizakien oroimenean gordeta geratu zirenak. Baina aski izan zen hori ondorio hau izateko: Justinianoren bilduma agertu zenean, godoen eta burgundiarren mendeko probintzietan lege idatzi gisa hartu zuten, eta frankoen mende izandako lurraldean, berriz, arrazoi idatzi gisa hartu zuten soilik.

### XIII

*Lege saliko edo franko saliarrenaren eta franko erriparario eta beste herri barbaroen legearen arteko alde*

Lege salikoak ez zuen onartzen frogak negatiboak erabiltzerik. Alegia, lege salikoaren arabera, eskaera edo salaketa egiten zuenak frogatu beharra zeukan zioena, eta salatuak ez zuen aski ukatzea. Hori bat dator ia mundu osoko nazioen legeekin.

Franko erripararioen legeak beste espiritu bat zuen; askietsi egiten zituen frogak negatiboak; eta inori auzia jartzen edo salaketa egiten bazioten, ia beti zeukan bere burua zuzitzea, lekuko-kopuru jakin batekin zin eginez ez zuela egin berari egozten zitzaiona. Zin egin behar zuten lekukoaren kopurua<sup>123</sup> handiagoa zen zenbat eta garrantzi handiagoa izan arazoak; batzuetan hirurogeita hamabi ere baziren<sup>124</sup>. Alemanen, bavariarren, turingiarren, frisiarren, saxoniarren, lonbar-

diarren eta burgundiarren legeak erriparioen molde beraren gainean egin ziren.

Esan dut lege salikoak ez zituela onartzen froga negatiboak. Hala ere, kasu batean bai, onartzen zituen<sup>125</sup>; baina kasu horretan ez zituen horiek bakarrik ametitzen, froga positiboak ere behar ziren. Auzi-jartzaileak bere testigantza adierazten zuen auzia ezartzeko<sup>126</sup>; salatutakoak bereak adierazten zituen bere burua zurrizteko; eta epaileak egia bilatzen zuen testigantza batzuen eta besteen artean<sup>127</sup>. Jardunbide hori lege erriparioen eta beste lege barbaroen guztiz bestelakoa da, non salatu batek errudun ez zela zin eginez zurrizten baitzuen bere burua, eta ahaideei egia esan zuela zin eraginez. Lege horiek herri sinple eta berez xalo zen batentzat bakarrik ziren egokiak. Hala ere, legegileek aurrea hartu behar izan zieten gehiegikeriei, aurki ikusiko dugunez.

## XIV

### *Beste desberdintasun bat*

Lege salikoak ez zuen uzten buruz buruko borroka bidezko froga; erriparioen legeak<sup>128</sup> eta ia herri barbaro guztienek, ordea, onartzen zuten<sup>129</sup>. Iruditzen zait borrokaren legea froga negatiboak eskatzen zituen legearen ondorio naturala eta erremedioa zela. Auzi bat jartzen zenean, eta salatzaileak ikusten bazuen salatuak zinegite batez bidegabe ihes egingo ziola, zer geratzen zitzaion gudari bati, ikusiz nahastu egingo zutela, egiten zitzaion bidegabearen eta are gezurrezko zinegilearen arrazoia eskatzea baizik<sup>130</sup>? Lege salikoak, ez baitzuen onartzen froga negatiboak erabiltzea, ez zuen borrokaren bidezko frogaren beharrik, eta ez zuen onartzen; baina erriparioen legeak eta beste herri barbaroenek<sup>131</sup>, froga negatiboak erabiltzea onartzen zuten<sup>132</sup>, borroka bidezko froga ezarri beharra izan zuten.

Irakur bitez, arren, Gondebaldo, Borgoniako erregearen<sup>133</sup> bi xedapen ospetsuak, gai honetaz; ikusiko da gauzen berezko ondorio direla. Barbaroen legeen hizkuntzaren arabera, zina kendu egin behar zen hura gaizki erabil zezakeen gizon baten eskuetatik.

Lonbardiarren artean, Rotarisen legeak onartzen zuen, kasu batzuetan, zinaren bidez defendatua zen norbait borrokara ez behar-tzea. Usadio hori hedatu egin zen<sup>134</sup>: segidan ikusiko dugu zer gaitz etorri ziren hortik, eta nola itzuli behar izan zuten ohitura zaharrera.

## XV

### *Gogoeta*

Ez dut esango barbaroen legeen kodeari egindako aldaketetan, haiei erantsitako xedapenetan, eta kapitularren gorputzean ezin dela aurkitu berez borrokaren froga froga negatiboaren ondorio den testu-rik. Mendeetan zehar, hainbat gorabehera partikularrek lege partiku-larrak ezarri bide zituzten. Ni germaniarren legeen espiritu orokorraz ari naiz, haien izaeraz eta jatorriaz; herri horien usadio zaharrez ari naiz, lege horiek adierazi edo ezarritakoez; horretaz ari gara hemen.

## XVI

### *Lege salikoak ezarritako ur irakinaren frogaz*

Lege salikoak<sup>135</sup> ur irakinaren frogaren usadioa onartzen zuen; eta froga hori oso ankerra zenez, legeak leundu egiten zuen, gogortasuna kentzeko<sup>136</sup>. Ur irakinaren froga egitera deitutakoari hartaz libratzea onartzen zion, beste alderdiak ondo iritziz gero. Salatzaileak, legeak ezartzen zuen diru-kopuru bat hartuta, zenbait lekukoren zina askietsi zezakeen, salatuak delitua egin ez zuela aitortzen bazuten. Kasu partikular horretan, lege salikoak froga negatiboa onartzen zuen.

Froga hori abenikoa zen, legeak onartu bai baina agintzen ez zuena. Legeak kalte-ordain bat ematen zion salatzaileari, honek salatuari froga negatibo baten bidez defendatzea onartzen zionean; salatzailearen esku zegoen salatuaren zina onartzea, kaltea edo iraina bar-katzea haren esku zegoen bezala.

Legea leundu egiten zen<sup>137</sup>, zertarako eta, epaiketaren aurretik bi alderdiak, bata froga izugarri baten beldurrez, bestea kalte-ordain-

txo bat hartzeko moduz, beren gorabeherei eta gorrotoei amaia emateko. Bistan denez, froga negatibo hori burutu ondoren, ez zegoen besteren beharrik, eta borroka ezin izan zitekeen lege salikoaren xedapen partikular horren ondorio bat.

## XVII

### *Gure gurasoen pentsaera*

Harrituko gara ikustean hartara gure gurasoek ohorea, aberastasuna eta bizia, arrazoiaren arabekoak baino gehiago, zoriaren arabekoak ziren gauzen mende jartzen zituztela; ezer frogatzen ez zuten frogak erabiltzen zituztela etengabe, ez errugabetasunarekin ez delituarekin lotuta zeudenak.

Germaniarrak, inoiz ez baitziren inoren mende egon<sup>138</sup>, independentzia ezin handiagoan bizi ziren. Familiak gerran zebiltzan batzuk besteekin, hilketak, lapurretak, irainak zirela kausa<sup>139</sup>. Ohitura hori aldatu egin zen gerra horiek araupetu zirenean; handik aurrera ordenaz egin ziren, eta magistratuaren ardurapean<sup>140</sup>. Hobe zen hori elkarri kalte egiteko libertate orokorra baino.

Gaur egun turkiarrek, beren gerra zibiletan, lehen garaipena Jainkoaren epaitzat hartzen duten bezala, halaxe germaniar herriek ere, beren arazo partikularretan, Probidentziaren dekretu gisa hartzen zuten borroka, hura delitugilea edo usurpatzailea zigortzeko beti erne zegoelakoan.

Tazitok dio germaniar nazio batek beste batekin gerran hasi nahi zuenean, baten bat preso hartzen saiatzen zela, beretar batekin borroka zedin; eta borroka horren arabera ondorioztatzen omen zuten gerraren arrakasta. Herri haiek buruz buruko borrokak arazo publikoak arautuko zituela uste bazuten, pentsa zezaketen partikularren gorabeherak ere konpon zitzakeela.

Gondebaldo<sup>141</sup>, Borgoniako erregea, errege guztien artean borrokaren usadioa gehien baimendu zuen erregea izan zen. Printze hark legean bertan ematen du lege horren zertarakoa: «Gure sujetek arazo ilunez zin egin ez dezaten, eta egintza egiazkoez gezurretan zin egin ez dezaten da legea». Hortaz, elizgizonek borroka onartzen zuen

legea erlijioaren kontrakotzat deklaritzen zuten bezala<sup>142</sup>, burgundiarren legeak zina ezartzen zuena sakrilegiotzat hartzen zuen.

Buruz buruko borrokaren bidezko frogak esperientzian zuen bere izateko arrazoia. Gerrari hutsa zen nazio batean, koldarkeria beste bizio batzuekin batera doala jotzen da: frogatzen du jasotako heziketari buru egin zaiola, ez dela ohorearekiko sentiberatasuna erakutsi, eta ez dela jokatu beste gizakiak gobernatzen dituzten printzipioen arabera; erakusten du ez dagoela besteen mesprezioaren beldurrik, eta koldarrari bost axola zaiola haien estimua. Ondo jaiotako edonork edukiko du gehienetan indarrarekin batera joan behar duen abilezia, eta ausardiarekin batera joan behar duen indarra; zeren eta, ohorea ardura izanez gero, bizitza osoan jarduten baita hura lortzeko ezinbesteko diren gauzetan. Gainera, nazio gerrari batean, non indarra, ausardia eta suhertasuna ohoragarri diren, deliturik gorrotagarrienak doilorkeriatik, trikimailutik eta maltzurkeriatik sortzen dira.

Suaren bidezko frogari dagokionez, salatuak eskua burdina gori baten gainean jarri edo ur irakinetan sartu ondoren, eskua zorro batez bildu eta zorroa zigilatu egiten zen; baldin eta handik hiru egunera ez bazen erredura-markarik ageri, errugabe deklaritzen zuten. Nork ez du ulertuko ezen, armak erabiltzen ohitutako herri hartan, larruazal zakar eta maskurrez betetakoak ez zuela jasoko burdina goriaren edo ur irakinaren nahikoa markarik, handik hiru egunera agertu ahal izateko adinakoa? Eta ageri bazen, froga egiten zuena emagizona zen. Gure nekazariak, beren esku maskurrez beteekin, nahi bezala erabiltzen dute burdina goria. Eta emakumeei dagokienez, lan egiten zutenen eskuek jasan zezaketen burdina goria; damei, berriz, ez zitzaien falta defendatuko zituen aldezkariak<sup>143</sup>; eta luxurik ez zuen nazio batean, ez zegoen ezer tartean.

Turingiarren legearen arabera<sup>144</sup>, adulterioz salatutako emakume bat ez zuten ur irakinaren frogara kondenatzen, salbu eta haren defendatzailerik aurkezten ez bazen. Erripararioen legeak nork bere burua zuritzeko lekukoak aurkitzen ez zituenean baizik ez zuen onartzen froga hori<sup>145</sup>. Baina emakume batek bera defendatuko zuen ahaidetik aurkitzen ez bazuen, gizon batek bere zintzotasunaren lekukotzarik erakutsi ezin bazuen, errudun ziren horrexetatik.

Hortaz, hauxe diot: garai hartan, borroka bidezko froga eta burdina goriaren eta ur irakinaren froga erabiltzen ziren gorabeheretan,



hain zetozen bat legeak ohiturekin, non legeok ez baitzuten bidegabe askorik egin, nahiz berez bidegabeak izan; ondorioak kausak baino errugabeagoak izan zirela; ekitatearen kontra zihoazela, baina eskubi-deak zapaldu gabe; zentzugabeak izan zirela, tiranikoak baino gehiago.

## XVIII

### *Nola hedatu zen borrokaren froga*

Agobardok Luis Errukitsuari egin gutunetik ondorio hauxe atera liteke, alegia borrokaren bidezko froga ez zela erabiltzen frankoen artean, zeren eta, printze hari Gondebaldoren legearen gehiegi-keriak aurkeztu eta gero, Borgonian arazoak frankoen legearen arabera epaitzeko eskatzen baitu<sup>146</sup>. Baina gauza jakina denez garai hartan lehia judiziala erabili egin ohi zela Frantzian, halako nahasmendu bat sortu da. Nik esan dudanak argitzen du hori: franko saliarren legeak ez zuen onartzen froga hori, eta franko erriparioenak, berriz, bai<sup>147</sup>.

Baina elizgizonen protestak eta guzti, lehia judizialaren usadioa hedatuz-hedatuz joan zen Frantzian. Nik zera frogatuko dut segidan, elizgizonek berek ekarri zituztela gauza horiek, hein handi batean.

Lonbardiarren legeak ematen digu horren froga. «Ohitura gorrotagarria sartua zen aspaldidanik (esaten da Oton II.aren konstituzioaren sarreran): jarauntsiren baten titulua izuntzat jotzen bazen, aurkezten zuenak ebanjelioen gainean zin egin behar zuen egiazkoa zela; eta beste epaiketarik gabe, zinegilea jarauntsiaren jabe bihurtzen zen; hartara, zinausleak seguru zeuden ondasunak bereganatuko zituztela»<sup>148</sup>. Oton I.a enperadorea Erroman koroatu zutenean<sup>149</sup>, Joan XII.a aita santuak Kontzilioa bilduta zeukalarik, Italiako jaun guztiek arrenka eskatu zuten enperadoreak lege bat egin zezala gehiegikeria lotsagarri hura zuzentzeko<sup>150</sup>. Aita Santuak eta enperadoreak erabaki zuten arazoa handik laster Ravenan izatekoa zen kontzilioan aztertu behar zela<sup>151</sup>. Han, jaunek eskaera berberak egin zituzten, beren aldarriak berretuz; baina zenbait pertsona falta zirelako aitzakiaz, berriro atzeratu zen arazo hura. Oton II.a eta Konrado<sup>152</sup> Borgoniako erregea Italiara iritsi zirenean, Italiako jaunekin<sup>153</sup> elkarriketatu ziren

Veronan<sup>154</sup>; eta haiek arren eta arren eskatzen ziotenez, enperadoreak, denen oniritziz, lege bat egin zuen, hauxe agintzen zuena: jarauntsiak zirela-eta auziak sortzen zirenean, eta bi alderdietako bat jabetza-titulu batez baliatu nahi eta besteak hura izuntzat joz gero, arazoa borroka bidez erabakiko zen; arau berberari jarraituko zitzaizkiola feudo-kontuetan ere; elizak ere lege horren mende egongo zirela, eta beren aldezkarien bidez borrokatuko zirela. Ikusten denez, nobleek borroka bidezko froga eskatu bazuten, elizetan sartutako frogarengatik eskatu zuten; noble haien kexuak kexu, gehiegikeria hark justizia eskatu arren, eta Otonen autoritatea eta guzti, Italiara nagusi gisa hitz egiteko eta jarduteko joana zelarik, elizgizonek bereari eutsi zioten bi kontziliotan; nobleek eta printzeek bat egitean elizgizonek amore eman behar izan zuten, eta lehia judizialaren usadioa nobleen pribilegiotzat hartu behar izan zen, injustiziaren kontrako harresitatzat, eta bere jabetzen bermetzat; eta handik aurrera, ohitura hura zabaldu egin bide zen. Eta hori enperadoreak handiak eta aita santuak txikiak ziren garai batean egin zen, Otondarrak Italiara inperioaren duintasuna berrezartzera etorri ziren garaian.

Esan berri dudana berretsiko duen gogoeta bat egingo dut, alegia, froga negatiboak ezartzeak borrokaren jurisprudentzia zekarrela ondotik berekin. Otondarrei kexu artean azaldu zieten gehiegikeria hura honetan zetzan: jabetza-titulu izuna zela esaten zioten gizon bat froga negatibo baten bidez defenda zitekeela, ebanjelioen gainean zin eginez. Zer egin zen trenkatutako lege baten gehiegikeria zuzentzeko? Borrokaren usadioa berrezarri zen.

Oton II.aren konstituzioaz hitz egitera behartu naiz, garai hartan elizgizonen eta laikoen artean ziren gorabeheren ideia argia emateko. Aurrez Lotario I.aren konstituzio bat<sup>155</sup> izan zen. Honek, gorabehera berdinen eta kexu berdinen aurrean, ondasunen jabetza bermatu nahiz, agindu zuen notarioak zin egin zezala jabetza-titulua ez zela izuna; eta hura hilda bazegoen, sinatua zuten lekukoei zin eginaraziko zitzaiea; baina kalteak iraun egin zuen, eta hizpide izan dudan erre-mediara jo behar izan zen.

Honen guztiaren aurretik, Karlomagnok deitutako batzar nagusietan, nazioak azaldu zion<sup>156</sup> ezen, gauzak zeuden bezala egonik, oso zaila zela salatzaileak edo salatuak zin faltsua ez egitea, eta hobe zela lehia judiziala berrezartzea; eta horixe egin zuen hark.

Lehia judizialaren usadioa hedatu egin zen burgundiarren artean, eta zinarena mugatu. Teodorikok, Italiako erregeak, kendu egin zuen buruz buruko borroka ostrogodoen artean<sup>157</sup>; badirudi Txindasvinto eta Rezesvintoren legeek ideia bera ere ezabatu egin nahi izan zutela. Baina lege horiek hain eragin txikia izan zuten *Galia Narbonensis*-ean, non borroka godoen pribilegiotzat hartzen baitzen han<sup>158</sup>.

Lonbardiarrak, Italia konkistatu baitzuten greziarrek ostrogodoak suntsitu ondoren, borrokaren usadioaren berri eman zuten; baina haien lehen legeek mugatu egiten zuten<sup>159</sup>. Karlomagnok<sup>160</sup>, Luis Errukitsuak, Otondarrek zenbait konstituzio orokor egin zituzten. Lonbardiarren legeetan txertatuta daude, eta lege salikoei erantsita; konstituzio horiek hedatu egin zuten dueloa, lehenik auzi penaletara, eta ondoren zibiletara. Ez zekiten nola asmatu: zinaren bidezko frogak negatiboak eragozpenak zituen, borroka bidezkoak ere bai, eta aldatu egiten zen batetik bestera, orain eragozpen batzuk, orain besteak kontuan hartuz.

Alde batetik, elizgizonak pozik zeuden ikusten baitzuten arazo sekular guztietan elizetara eta aldareetara jotzen zela<sup>161</sup>; eta bestetik, noble harroek beren eskubideak ezpataz defendatzea zuten gogoko.

Ez diot elizgizonek sartu zutela nobleen kexuak sorrarazi zituen usadioa. Ohitura hura barbaroen legeen espiritutik, eta frogak negatiboak ezartzetik sortua zen. Baina jardunbide hark hainbeste delitugile zigorrik gabe utz zitzakeen, elizen santutasunaz baliatu beharra bururatu zitzaizen errudunak harritzeko eta gezurrez zin egiten zutenak kokiltzeko, eta elizgizonek eutsi egin zioten usadioari eta berarekin lotutako jarduerari. Bestetik, ordea, frogak negatiboen kontra zeuden. Beaumanoirren obran ikus dezakegunez<sup>162</sup>, frogak horiek inoiz ez ziren onartu eliz epaitegietan, eta horrek, zalantarik gabe, asko lagundu zuen haiek baztertzeko eta, beraz, barbaroen legeen kodeetan horretaz zegoen xedapena ahultzeko.

Horrek erakutsiko du, halaber, frogak negatiboen usadioaren eta mintzagai izan dudana lehia judizialaren arteko lotura. Auzitegi laikoek bata eta bestea onartu zituzten, eta eliz epaitegiek biak errefusatu zituzten.

Borroka bidezko frogak aukeratzean, nazioak bere ezpal gerrazaleari eusten zion; izan ere, borroka Jainkoaren epaitzat hartzen zela-

rik, ezabatu egiten ziren gurutzearen, ur hotzaren eta ur irakinaren bidezko frogak, hauek ere Jainkoaren epaitzat hartu izan arren.

Karlomagnok agindu zuen ezen, bere semeen artean konponezinik sortzen bazen, gurutzearen epaiketaren bidez erabaki zedila. Luis Errukitsuak<sup>163</sup> elizako arazoetara mugatu zuen epaiketa-modu hori; haren seme Lotariok ezabatu egin zuen kasu guztietan; ur hotzaren bidezko froga ere ezabatu egin zuen<sup>164</sup>.

Nik ez diot ezen, denek onartutako hain usadio gutxi zeuden garai batean, froga haiek ez zirela egingo zenbait elizatan; are gehiago, Felipe-Augustoren gutun batek<sup>165</sup> ere aipatzen du hori; nik diot gutxi erabili zirela. Beaumanoirrek<sup>166</sup>, San Luisen garaian eta pixka bat geroago bizi izan baitzen, froga-moten zerrenda ematen duelarik, lehia judiziala aipatzen du, baina ez besteak.

## XIX

### *Lege salikoak, lege erromatarrak eta kapitularrak ahaztearen beste arrazoi bat*

Azaldu ditut lege salikoen, erromatarren eta kapitularren aginpidea galtzea ekarri zuten arrazoiak. Zera erantsiko dut, honen kausa nagusia borrokaren froga asko hedatu izana izan zela.

Lege salikoak, ez baitzuten onartzen usadio hori, alferriko bihurtu ziren nolabait, eta desagertu egin ziren; lege erromatarrek ere ez zituzten onartzen, eta berdin desagertu ziren. Hortaz, lehia judizialaren legea eratzea beste asmorik ez zen izan, eta jurisprudentzia ona osatzea. Kapitularren xedapenak ere besteak bezain alferrikako bihurtu ziren. Hortaz, lege askok galdu zuten beren aginpidea, baina ezin da esan zein unetan galdu zuten; ahaztu egin ziren, eta ez zen etorri lege berririk haien lekua betetzera.

Halako nazio batek ez zeukan lege idatzien premiarik, eta haien lege idatziak erraz eror zitezkeen ahazturan.

Bi alderen arteko eztabaidaren bat zenean, borroka agintzen zen. Horretarako, ez zen behar arrazoi askorik.

Ekintza zibil eta kriminal guztiak egintza dira azken buruan. Egintza horien gainean borrokatzen ziren; eta borrokaren bidez, arazoaren mamia ez ezik, gorabeherak eta interlokutoriak ere epaitzen ziren, Beaumanoirrek adibide eta guzti dioenez<sup>168</sup>.

Hirugarren dinastiaren hasieran, jurisprudentzia prozeduretara mugatzen zen osorik; ohoreak gobernatzen zuen dena. Epaileari ez obedituz gero, honek berari egin irainaren ordaina hartzen zuen. Bourges-en<sup>168</sup>, probestuak norbaiti deitu eta hau etortzen ez bazen, honela esaten zuen: «Zure bila bidali dut norbait eta ez zara etorri; esaidazu, zer dela-eta mesprezio hori»; eta lehiatu egiten zen. Luis Gizenak eraberritu egin zuen ohitura hori<sup>169</sup>.

Lehia judiziala indarrean zegoen Orleansen zorrengatiko auzi guztietan<sup>170</sup>. Luis Gazteak deklaratu zuen ohitura hura zorra bost sose-tik gorakoa zenean baizik ez zela beteko. Ordenantza hura lege loka-la zen; izan ere, San Luisen garaian<sup>171</sup>, aski zen hamabi denario baino gehiagokoa izatea. Beaumanoirrek<sup>172</sup> entzuna omen zion basailuen jaun bati behinola Frantzian bazela ohitura gaizto bat, alegia bazego-ela aldi baterako aldezkari bat alokatzea norberaren arazoen alde borrokatzeko. Lehia judizialaren usadioak, hortaz, izugarri hedatuta egon behar zuen.

## XX

### *Ohorearen jatorria*

Lege barbaroen kodeetan badira enigmak. Frisiarren legeak sos erdia besterik ez dio ematen kalte-ordainetan makilakadak jaso ditue-nari<sup>173</sup>; edozein zauritxorengatik ematen zen gehiago, denik eta txikie-na izanik ere. Lege salikoaren arabera, jaiotzaz libre zenak hiru maki-lakada jotzen bazizkion jaiotzaz libre zen beste bati, hiru sos ordain-tzen zituen; odola isurarazi bazion, burdinaz zauritu balu bezala zigor-tzen zuten, eta hamabost sos ordaintzen zituen; zigorra zaurien tamai-naren arabera neurtzen zen. Lonbardiarren legeak<sup>174</sup> kalte-ordain des-berdinak ezartzen ditu kolpe bat, bi, hiru, laurengatik. Gaur egun kolpe batek ehun mila balio du.

Karlomagnoren konstituzioa lonbardiarren legean txertatua dago<sup>175</sup>, eta hauxe dio, duelua egitea badaukatenak makilaz borrokatu behar direla. Baliteke hori elizgizonak kontuan hartuz egindako konponketa izatea; baliteke, halaber, borroken usadioa hedatzean, hain odoltsu izan ez zitezen nahi izatea. Luis Errukitsuaren kapitularrak<sup>176</sup> aukera ematen du makilaz edo armez borrokatzeko. Handik hara jopuak baizik ez ziren borrokatu makilaz<sup>177</sup>.

Dagoeneko hasia zait agertzen gure ohorearen artikuluko partikularrak nola sortu eta eratu ziren. Salatzaileak deklaratzeko epailearen aurrean halakok hau eta hau egin zuela; eta honek erantzuten zion hark gezurra zioela<sup>178</sup>; ondoren, epaileak dueloa agintzen zuen. Arau hau ezarri zen, alegia norbaiti gezurra egozten zitzaionean, borrokatu beharra zegoela.

Gizon batek borrokatu egingo zela deklaratzeko zuenean, ez zeukan atzera egiterik; atzera egiten bazuen, zigorra ezartzen zitzaion<sup>179</sup>. Hortik arau hau aterata zen, gizon batek hitza ematen zuenean, ohoreak ez ziola onartzen hitz hori jatea.

Kapareak zaldi gainean eta beren armez borrokatzen ziren<sup>180</sup>; eta bilauak oinez eta makilaz<sup>181</sup>. Hortik, zera ondorioztatu zen, makila tresna iraingarria zela<sup>182</sup>, makilatutako gizona bilauak bezala tratatua zelako.

Bilauak bakarrik borrokatzen ziren aurpegia agerian<sup>183</sup>; beraz, haiek bakarrik jaso zitzaizkien kolpeak aurpegian. Belarrondokoa irain bihurtu zen, eta odolez garbitu behar zen, belarrondokoa hartutako gizona bilau gisa tratatua zelako.

Germaniar herriak gu bezain sentiberak ziren ohoreari dago-kionez; are sentiberago. Ahaide urrunenek parte zuten irainetan; eta haien kode guztiak horretan oinarritzen dira. Lonbardiarren legeak dio inork, beretarrez lagunduta, oharkabea dagoen norbaiti eraso egiten badio, lotsaz eta barrengarri gera dadin, hilko balu ordaindu behar-ko lukeenaren erdia ordaindu behar duela<sup>184</sup>; eta arrazoi berberagatik lotzen badu, isun berdinarekin hiru laurdenak ordain ditzala<sup>185</sup>.

Esan dezagun, bada, gure arbasoak oso sentiberak zirela laido-ekiko; baina artean ez zituztela ezagutzen mota jakin bateko laidoak, alegia, tresna jakin batez gorputzaren alde jakin batean emandako kolpeak, eta modu jakin batez emanak. Hori dena makilatua izatearen lai-

doaren barruan sartzen zen; eta kasu horretan, gehiegikerien handiak jartzen zien tamaina irainei.

## XXI

*Beste gogoeta bat germaniarren arteko ohoreaz*

«Germaniarrentzat», dio Tazitok<sup>186</sup>, «irain handia zen guduan ezkutua uztea; eta batzuk, halako zorigaitzaren ondotik, beren burua hiltzeraino iristen ziren». Horregatik, lege saliko zaharrak hamabost soseko kalte-ordaina ezartzen dio norbait bere ezkutua utzi duela esanez iraintzen duenari<sup>187</sup>.

Karlomagnok, lege salikoa zuzendu zuenean<sup>188</sup>, hiru sos besterik ez zituen ezarri kasu horretan kalte-ordain gisa. Pentsaezina da printze hark ahuldu egin nahi izan zuenik diziplina militarra; argi dago aldaketa hori armen aldaketatik etorri zela, eta armen aldaketa horri zor zaio hainbat usadioren jatorria.

## XXII

*Borrokei buruzko ohiturez*

Emakumeekin dugun lotura zorionean eta zentzuen plazerrean oinarrituta dago, maitatzeko eta maitatua izateko xarmaren gainean, bai eta haien begien aurrean atsegin azaltzeko desiran ere, zeren eta haiek oso epaile argiak baitira merezimendu pertsonala osatzen duten zenbait gauzatan. Atsegin agertzeko desira orokor horrek dakar kortesia. Hau ez da maitasuna, baizik eta maitasunaren gezur ezti, leun, betierekoa.

Nazio bakoitzeko eta mende bakoitzeko inguruabarren arabera, maitasuna hiru gauza horietarik batekin beste biek baino lotuago egoten da. Eta nik diot gure borroka hauen garaian kortesiaren espiritua egongo zela indarrean.

Lonbardiarren legean<sup>189</sup> aurkitzen dudanez, aldezkarietarik batek sorginkerietarako belarrak balitu, epaileak kendu egingo lizkioke, eta zin eginaraziko lioke gehiago ez duela. Lege hori iritzi arruntean baino ezin zen oinarritua egon; beldurrak, hainbeste gauzaren asmatzaile omen den beldurrak, imajinarazi izan ditu halakoak. Borroka partikularretan aldezkariak beren pieza guztiez armatuta zeudenez, eta sendotasun eta indar jakin bateko arma astunek, hala defentsarako nola erasorako, egundoko abantaila ematen zutenez, jende askori sartuko zitzaion buruan borrokalari batzuen arma sorginduen iritzia.

Hortik zalduneriaren sistema miragarria sortu zen. Espiritu guztiek onartu zituzten ideia haiek. Eleberrietan, paladinak, nigromanteak, maitagarriak, zaldi hegodun edo adimendunak, gizon ikus-tezin edo zauriezinak, pertsonaia handien jaiotzaz edo hezkuntzaz arduratzen ziren sorgin eta aztiak, jauregi sorgindu eta desorginduak. Gure munduan, mundu berria agertu zen, eta izadiko gauza arruntak gizon arruntentzat bakarrik geratu ziren.

Paladinek, beti armatuta gazteluz, gotorlekuz eta lapurrez betetako eskualde batean, bidegabea zigortzen eta ahulak defendatzen aurkitzen zuten ohorea. Hortik etorri zen, halaber, gure eleberrietan, maitasunaren ideian oinarritutako kortesia, indarraren eta babesaren ideiekin batera.

Halaxe sortu zen kortesia, gizaki neurritz gainekoak imajinatu zituztenean, bertutea edertasunarekin eta ahuleziarekin batera ikusi eta haien alde arriskutan sartzan ausartu zirenak, eta bizitzako ekintza arruntetan hari atsegin ematen.

Gure zalduneri eleberriek areagotu egin zuten atsegin agertze-ko gogo hori, eta kortesia-espíritu hori eman zioten Europako alde bati, lehenagokoek ezagutzen ez zutena, inondik ere.

Erromako hiri eskerga hartako luxu harrigarriak zentzuen plazerren ideia haizatu zuen. Greziako landaldeetako lasaitasunaren halako ideia batek maitasun-sentimenduak deskribarazi zituen<sup>190</sup>. Emakumeen bertutearen eta edertasunaren babesle ziren paladinen ideiak, berriz, kortesiaren ideia ekarri zuen.

Espiritu horrek iraun egin zuen torneoen usadioari esker; izan ere, adorearen eta maitasunaren eskubideak bateratuta, are garrantzi handiagoa eman zioten kortesiari.



## XXIII

### *Lehia judizialaren jurisprudentziaz*

Beharbada lehia judizialaren usadio izugarri hau printzipiotara bihurtua ikusteko jakinmina izango duzue, eta hain jurisprudentzia bitxiaren gorputza ikusteko. Gizakiek, azken buruan arrazoiz jokatzeko baitute, beren aurreiritziak berak ere araupean jartzen dituzte. Ez zegoen lehia judiziala baino gauza zentzu onaren kontrakoagorik; baina puntu hori ezarritik, halako zuhurtzia batez burutu zen.

Garai hartako jurisprudentziaz jabetzeko, arretaz irakurri behar dira San Luisen araudiak, oso aldaketa handiak egin baitzituen alderdi judizialean. Printze haren garaikide zen Défontaines; Beaumanoirrek geroago idatzi zuen<sup>191</sup>, eta besteak harrezkero bizi izan dira. Beraz, ohitura zahar hori beraren gainean egindako zuzenketetan bilatu beharra dago.

## XXIV

### *Lehia judizialean ezarritako arauak*

Zenbait salatzaile zirenean<sup>192</sup>, bat aukeratu beharra zeukaten auziari hark bakarrik ekin ziezaion; eta ados jarri ezin baziren, auzia noren aurrean aurkeztu zen, hark izendatzen zuen haietako bat auzia aurrera eraman zezan.

Kapare batek bilau bati erronka egiten zionean<sup>193</sup>, oinez aurkeztu behar zuen, ezkutua eta makila hartuta; eta zaldi gainean, eta kapare baten armez etortzen bazen, kendu egiten zitzaizkion zaldia eta armak; alkandora hutsean geratzen zen, eta horrela borrokatu behar zuen bilauaren kontra.

Borrokaaren aurretik, justiziak hiru bando ematen zituen<sup>194</sup>. Lehenaren bitartez, bi alderdien ahaideei aldebat geratzeko agintzen zitzaien; bigarrenaren bitartez, herritarrei isilik egoteko jakinarazten zitzaien; hirugarrenaren bitartez, alderdietako bati laguntzea debekatzeko zen, zigor handien pean, are heriotza-zigorren pean, baldin eta borrokalarietako bat laguntza horri esker garaitua bazen.

Justizi agenteek zaintzen zuten borroka-lekua<sup>195</sup>; eta bi alderdietako batek bakea aipatzen bazuen, arreta handiz ikusten zuten une horretantxe zein egoeratan zeuden biak, bakea egiten ez bazen egoera berdinerara itzul zitezen<sup>196</sup>.

Krimenagatik edo epai izunagatik bahiak onartzen zirenean, ez zegoen bakerik egiterik jaunaren baimenik gabe; eta bi alderdietako batek galtzen zuenean, ez zegoen bakerik egiterik kondearen oniritzirik gabe<sup>197</sup>, eta horrek zerikusia zuen gure indultu-zedulekin.

Baina delitua larria izan eta jaunak, opariz erosia, bakea onartzen bazuen, hirurogei liberako isuna ordaintzen zuen, eta gaizkilea zigortzeko zuen eskubidea kondeagana pasatzen zen<sup>198</sup>.

Askok ez zeukaten ez borroka eskaintzerik ez hartzerik. Halakoetan, arrazoia ezagutuz gero, aldezkari bat hartzeko baimena ematen zitzaien; eta hark bere alderdiaren alde ahalik eta interes handienaz egin zezan, ukabila mozten zitzaion galtzen bazuen<sup>199</sup>.

Joan den mendean dueloen kontrako lege oinarrizkoak egin zirenean, agian aski zatekeen gerrari bati bere gerrari-izaera kentzea eskua balduta, gizonentzat ez baitago ezer tristeagorik beren izaera balduta bizirik jarraitzea baino.

Delitu larri batean<sup>200</sup>, borroka aldezkarien bitartez egiten zenean, borroka ikusi ezin zuten lekuan jartzen zituzten bi auzilariak; bakoitza bere supliziorako sokaz lotuta, aldezkariak galtzen bazuen.

Borroka galtzen zuenak ez zuen beti galtzen auzipean zegoen gauza. Esate baterako, interlokutorio batengatik borrokatzen baziren, interlokutorioa besterik ez zen galtzen<sup>201</sup>.

## XXV

### *Lehia judizialari jartzen zitzaizkion mugak*

Borroka-bahiak garrantzi gutxiko arazo zibil batengatik hartuak baziren, jaunak erretiratzera behartzen zituen bi alderdiak.

Egintza bat agerikoa bazen<sup>202</sup> —esate baterako, gizon bat merkatuan hiltzen bazuten—, ez zen agintzen ez lekukoen bidezko froga

ez borroka bidezko froga; epaileak agerikotasunaren arabera erabakitzen zuen.

Jaunaren epaitegian maiz berdin epaitzen bazen, eta, beraz, usadioa ezaguna bazen<sup>203</sup>, jaunak ukatu egiten zien borroka bi auzilari, borroken emaitzen gorabeherek ohiturak alda ez zitzaizten.

Norberaren izenean, edo norberaren leinukoren baten nahiz norberaren jaunaren izenean baizik ezin zen borroka eskatu<sup>204</sup>.

Salaturen bat absolbitua izan ondoren<sup>205</sup>, salatzailearen beste ahaide batek ezin zuen borroka eskatu; bestela auziak ez baitziren inoiz bukatuko.

Ahaideek norbaiten heriotzaren ordaina hartu nahi eta hura agertzen bazen, ez zen borrokarik; gauza bera, baldin eta, absentsia nabarmenen batengatik, egintza ezinezkoa bazen<sup>206</sup>.

Gizon bat hiltzen zutenean<sup>207</sup>, hark, hil baino lehen, salatura errugabea zela adierazten bazuen, eta beste norbait aipatzen bazuen, ez zen borrokarik; baina inor aipatzen ez bazuen, haren adierazpena heriotzagatiko barkamentzat baizik ez zen hartzen, eta auziak aurrera egiten zuen. Kapareen arteko gerra ere egin zitekeen.

Gerra zenean, eta ahaide batek borroka-bahiak ematen edo hartzen bazituen, gerra-zuzenbidea amaitu egiten zen, bi auzilariak justiziaren bide arruntari jarraitu nahi zitzaizkiolakoan; eta gerran segitzen zuena kalteak ordaintzera kondenatzen zuten.

Hortaz, lehia judizialaren ohiturak abantaila hau zuen, auzi orokor bat auzi partikular bihur zezakeela, indarra epaitegiei itzultzen ziela eta egoera zibilean jartzen zituela jendeen zuzenbideaz bakarrik gobernatzen zirenak.

Badira gauza zuhur asko oso modu eroan eramaten direnak; badira, halaber, oso modu zuhurrean eramaten diren erokeriak ere.

Delitu batengatik erronka jasotako gizon batek<sup>208</sup> argi eta garbi frogatzen bazuen salatzailea bera zela delitugilea, ez zen borroka-bahirik; izan ere, ez da borroka zalantzazkoa zigor segurua baino nahiago ez duen errudunik.

Ez zen borrokarik arbitroen edo eliz epaitegien bitartez erabakitzen ziren auzietan<sup>209</sup>; ez eta emakume alargunak tartean ziren auzietan ere.

«Emakumea», dio Beaumanoirrek, «ezin da borrokatu». Emakume batek norbaiti bere aldezkaria izendatu gabe borroka-erronka egiten bazion, ez ziren jasotzen borroka-bahiak. Horrez gainera, emakumeak bere baroiaren baimena behar zuen<sup>210</sup> —senarrarena, alegia— inori erronka egiteko; baina jaso, baimen hori gabe ere jaso zezakeen inoren erronka.

Erronka egiten edo jasotzen zuena hamabost urte bete gabea bazen<sup>211</sup>, ez zen borrokarik. Tutorepekoen auzietan, ordea, egin zitekeen borroka, baldin eta tutoreak edo administrazioa zuenak prozedura horren arriskuak bere gain hartzen bazituen.

Uste dudanez, jopu bati honako kasu hauetan onartzen zitzaion borrokatzea: beste jopu baten kontra; jaregin baten kontra eta are kapare baten kontra ere bai, baldin eta honek erronka egiten bazion; baina berak egiten bazion<sup>212</sup>, kapareak ezezkoa eman ziezaiokeen; eta jopuaren jaunak ere hura epaitegitik baztertzeko eskubidea zeukan. Jopua, jaunaren agiri baten bidez<sup>213</sup>, edo usadioz, edozein pertsona jareginen kontra borroka zitekeen, eta Elizak eskubide hori eskatzen zuen bere zerbitzarientzat<sup>214</sup>, berarekiko begirunearen adierazgarri gisa<sup>215</sup>.

## XXVI

### *Auzi-alderdi baten eta lekuko baten arteko lehia judizialaz*

Beumanoirrek dioenez<sup>216</sup>, gizon batek ikusten bazuen lekuko batek beraren kontra deklaratu behar zuela, beste baten deklarazioa saihesten zezakeen, epaileei esanez kontrakoak lekuko faltsu eta kalumniatzailea aurkezten zuela<sup>217</sup>; eta lekukoak auzian aurrera egin nahi bazuen, borroka-bahiak ematen zituen. Eten egiten zen ikerketa; izan ere, lekukoa garaitua bazen, erabakita zegoen auzilari batek lekuko faltsua aurkeztu zuela, eta galdu egiten zuen prozesua.

Ez zitzaion utzi behar bigarren lekukoari zin egiten; izan ere, hark lekukotza eman ondoren, auzia bukatu egingo zen bi lekukoren testigantza ondoren. Baina bigarrena gerarazita, lehenaren lekukotza alferrikakoa zen.

Bigarren lekukoa horrela errefusatuta, kontrako alderdikoak ezin zituen aurkeztu beste batzuk, eta galdu egiten zuen prozesua; baina borroka-bahirik ez zegoenean<sup>218</sup>, aurkez zitezkeen beste lekuko batzuk.

Beaumanoirrek dio<sup>219</sup> lekukoak haxe esan ziezaiokeela bere aldeko auzilariari, lekukotza eman aurretik: «Ez dut nire burua behartzen zure auziagatik borrokatzera, ez berorren defentsan ateratzera; baina zuk defendatu nahi banauzu, gogo onez esango dut nire egia». Auzilaria behartuta geratzen zen lekukoaren alde borrokatzera; eta garaitzen bazuten, ez zuen auzia galtzen, baina lekukoa errefusatu egiten zen.

Nire ustez, hori ohitura zaharraren aldaketa zen, eta honexek pentsarazten dit horrela: lekukoei erronka egiteko usadio hori ezarritako dagoela bavariarren<sup>220</sup> eta burgundiarren<sup>221</sup> legeetan, inolako mugarik gabe.

Hitz egin dut Gondebaldoren konstituzioaz, zeinen kontra Agobardo<sup>222</sup> eta San Abito<sup>223</sup> hainbeste sumindu baitziren. Honela dio printze horrek: «Salatuak, berak delitua egin ez duela adierazteko, lekukoak aurkezten dituenean, salatzaileak borrokarako erronka egin ahalko dio lekukoetako bati; izan ere, bidezkoa da zin egiteko prest agertu denak, eta egia zekiela deklaratu duenak, oztoporik ez jartzea borrokatzeari, bere hitzari eustearren». Errege hark ez zien uzten inolako ihesbiderik lekukoei borroka saihesteko.

## XXVII

*Auzilari baten eta jaunaren pare baten arteko lehia judizialaz.*

*Epaiketa izunagatiko apelazioa*

Borroka bidezko erabakiaren zertarakoa auziari behin betiko amaia ematea delarik, eta beste epaiketarik eta auzi berririk ametitzen ez duenez<sup>224</sup>, apelazioa, lege erromatarrek eta lege kanonikoek ezartzen duten bezala, hots, goragoko epaitegi batera jotzea, ez zen eza gutzen Frantzian.

Ohoreak bakarrik gobernatutako nazio gerrari batek ez zuen ezagutzen jardunbide hori; eta betiko espiritu berari jarraituz, epaile-

en kontra ere auzilarien kontra erabil zitzakeen bideak hartzen zituen<sup>225</sup>.

Apelazioa, nazio hartan, armaz borrokatzeko erronka egitea zen, ez lumazko auzi horretara gonbidatzea, eta borrokak odolez bukatu behar zuen; lumazko auzia gerora ezagutu zen.

Horregatik dio San Luisek, bere *Establezimenduak* obran<sup>226</sup>, apelazioak saldukeria eta gaiztakeria dauzkala. Beaumanoirrek ere zera diosku, gizon batek jaunak beraren kontra egindako zerbaitez kexatu nahi bazuen<sup>227</sup>, jakinarazi behar ziola haren feudotik alde egiten zuela; eta horren ondoren goragoko jaunaren aurrean erronka egiten zion, eta borrokarako bahiak eskaintzen zituen. Era berean, jaunak uko egiten zion omenaldiari, kondearen aurrean bere mendeko gizon bati erronka egiten bazion.

Jaunaren kontra epaiketa faltsuagatik apelatzea, epaiketa falsuki eta gaiztoz egina zela esatea zen; eta halako hitzak jaunaren kontra esatea leialtasunaren kontra joatea modukoa zen.

Hortaz, epaimahaia ezartzen eta arautzen zuen jaunari epaiketa faltsuagatik erronka egin ordez, epaimahaia osatzen zuten pareei egiten zitzaien erronka; hartara ez zen egiten gaiztakeria deliturik; pareei egiten zitzaien irain, haiei bai baitzegoen ordainbidea ematerik.

Arrisku handitan sartzea zen pareen epaiketa faltsutzat jotzea<sup>228</sup>. Epaia eman arte itxaronez gero, denen kontra borrokatzera behartuta zegoen bat, epaiketa zuzena egitea eskaintzen zutenean<sup>229</sup>. Erronka epaile guztiek beren iritzia eman aurretik egiten bazen, iritzi berekoak ziren guztien kontra borrokatu beharra zegoen<sup>230</sup>. Arrisku hori saihesteko, erregutzen zitzaion jaunari<sup>231</sup> pare bakoitzak ozenki esan zezala bere iritzia; eta lehenak berea eman ondoren, eta bigarrenak ere gauza bera egin baino lehen, esaten zitzaion faltsua, gaiztoa eta kalumniatzailea zela; eta haren kontra bakarrik borrokatu beharra zegoen.

Défontainesek<sup>232</sup> zioen faltsutzat jo aurretik<sup>233</sup>, hiru epaileri beren iritzia ematen utzi behar zitzailela; eta ez du esaten hiruren kontra borrokatu behar zenik, eta are gutxiago zenbait kasutan iritzi bereko azaldutako guztien kontra borrokatu beharra zegoenik. Desberdintasun horien zergatikoa hauxe da, garai hartan ia ez zegoela alde guztietarako balio zuen usadio komunik. Beaumanoirrek

Clermont-eko konderrian gertatzen zenaren berri ematen du; Défontainesek, berriz, Vermandoisen egin ohi zenaren berri.

Feudoko pare edo gizon batek epaiketari eusten ziola adierazten zuenean<sup>234</sup>, epaileak borroka-bahiak emateko agintzen zuen, eta gainera apelatzaileagandik bere apelazioari eutsiko ziolako hitza jasotzen zuen. Baina apelazioa egin zitzaion pareak ez zuen eman behar bermerik, zeren eta, jaunaren gizona izanik, apelazioaren alde egin behar baitzuen, edota bestela hirurogei liberako isuna ordaindu jaunari.

Apelatzen zuenak epaia okerra zela frogatzen ez bazuen, hirurogei liberako isuna ordaintzen zion jaunari<sup>235</sup>, isun berdina apelazioa egindako pareari<sup>236</sup>, eta beste hainbeste epaia agerian eman zutenetako bakoitzari.

Heriotza-zigorra merezi zuen delitu baten susmagarri zen norbait atxitu eta kondenatzen zutenean, ez zeukan epaiketa faltsuagatik apelatzerik<sup>237</sup>; izan ere, bestela apelatu egingo baitzukeen beti, dela bizia luzatzeko, dela bakeak egiteko.

Inork epaia faltsua eta gaiztoa zela esaten bazuen<sup>238</sup>, eta bere hitzari eusteko —hots, borrokatzeko— prest ez bazegoen, hamar soseko isuna ezartzen zitzaion kapare bazen, eta bost sosekoa jopu bazen, esandako hitz doilorrengatik.

Garaituak izandako epaile edo pareek<sup>239</sup> ez zuten galdu behar ez bizia ez gorputz-atalak; baina apelazioa jartzen zienari heriotza-zigorra ematen zitzaion auzia larria zenean<sup>240</sup>.

Feudoko gizonari apelazioa jartze hau, epai faltsua egin zutela eta, jaunari berari ez egiteko bide bat zen. Baina jaunak parerik ez bazuen<sup>241</sup>, edo aski ez bazuen, goragoko jaunarengandik har zitzakeen pareak bere dirutik ordainduta<sup>242</sup>. Pare haiek ez zeuden epaitzera behartuta, nahi ez bazuten; beren aholkua ematera bakarrik etorriak zirela esan zezaketen eta, kasu partikular horretan<sup>243</sup>, jaunak berak epaitu eta epaia eman ondoren, epai faltsuagatik apelazioa jartzen bazioten, berak eutsi behar zion apelazioari.

Jauna oso pobrea izan<sup>244</sup> eta bere goragoko jaunagandik pareak hartzerik ez bazeukan, edo eskatzea ahazten bazitzaion, edo hark eman nahi ez bazizkion, jaunak, berak bakarrik epaitzerik ez zeukanez, eta inor ez zegoenez epaia ematerik ez zeukan epaimahai baten aurrean jardutera behartuta, auzia goragoko jaunaren epaitegira eramaten zen.

Uste dut horixe izan zela justizia feudotik bereiztearen arrazoi nagusietako bat, nondik eratu baita juriskontsultu frantsesen araua: «Feudoa da bat, eta justizia bestea». Zeren eta, ezin konta ahala zirenez beren mende inor ez zeukaten gizon feudoetakoak, ezin zuten epaitegirik eduki, eta auzi guztiak goragoko jaunaren epaitegira eramaten ziren. Justizia-eskubidea galdu zuten horrela, hura erreklamatzeko ez ahalmena ez borondatea zeukatelako.

Epaiketan parte hartutako epaile guztiek<sup>245</sup> bertan egon behar zuten epaia ematean, bereari eusteko eta faltsutzat jotzen zituenari *oïl* esan ahal izateko; izan ere, dio Défontainesek<sup>246</sup>, «kortesia eta leialtasun-arazoa baita, eta ez dago ez aitzakiarik jartzerik ez atzerapenik izaterik». Uste dut pentsaera horretatik sortu dela oraindik ere egun Ingalaterran duten usadioa, alegia zinpeko guztiek iritzi berekoak izan behar dutela heriotza-zigorra emateko.

Hortaz, gehiengoaren iritziaren alde egin beharra zegoen; eta hainbana bazeuden, akusatuaen alde egiten zen delitu-kasuetan; zor-kasuetan, zordunaren alde; oinordekotza-kasuetan, auziperatuaeren alde.

Pare batek, dio Défontainesek<sup>247</sup>, ezin zuen esan ez zuela epaituko lau besterik ez baziren<sup>248</sup>, edo denak ez bazeuden, edo zuhurrenak bertan ez baziren; hori zera esatea bezalakoa zen, gudu batean ez ziola jaunari lagunduko, bere gizonen parte bat baizik ez zuela-eta. Baina jaunari zegokion bere epaitegiari ohore egitea, eta gizonik adotsuenak eta zuhurrenak aukeratzea. Hau honexegatik diot, mende-koen betebeharra borrokatzea eta epaitzea zela ikusarazteko, eta bete-behar hori hainbestekoa zela, non epaitzea borrokatzea baitzen.

Jaun bat bere epaitegian mendeko baten kontra ari<sup>249</sup>, eta kon-denatua bazen, zin egite faltsuz sala zezakeen bere gizonetako bat. Baina honek emandako fedeagatik jaunari zor zion begirunearen kariaz, eta jaunak mendekoari hartutako fedeagatik zor zion onginahiaren kariaz, bereizketa bat egiten zen: edo jaunak esaten zuen epaiketa orokorrean faltsua eta gaiztoa zela<sup>250</sup>, edota bere gizonari prebarikazio pertsonalak egozten zizkion<sup>251</sup>. Lehen kasuan, bere epaitegia iraintzen zuen, eta neurri batez bere burua ere bai, eta ezin zen borroka-bahirik izan han; bigarreanean, ordea, izan zitekeen, bere mendekoaren ohorea erasotzen baitzuen; eta bietarik garaitua zenak bizia eta ondasunak galtzen zituen, bake publikoa izan zedin.



Bereizketa hori, derrigorrezkoa kasu partikular horretan, hedatuz joan zen. Beaumanoirrek dio ezen, epaiketa faltsua argudiatzen zuenak gizonetako bat egozpen pertsonalen bidez erasotzen bazuen, borroka izaten zela; baina epaiketa bera besterik erasotzen ez bazuen, apelazioa jasotako pareak bazeukala aukera egitea: auzia borroka bidez edo zuzenbidez garbitzea<sup>252</sup>. Alabaina, Beaumanoirren garaian pentsabide nagusia lehia judizialaren usadioari mugak jartzea zen, eta apelazioa jasotako pareari emandako askatasun hori ere —alegia, bere epaia borroka bidez edo bestela defendatzekoa— garai hartan nagusi ziren ohoreari buruzko ideien eta jaunari epaitegia defendatzeko zor zitzaion betebeharraren kontra zihoan; beraz, uste dut Beaumanoirren bereizketa hori jurisprudentzia berria zela frantsesen artean.

Ez diot epai faltsuagatiko dei guztiak borroka bidez erabakitzen zirenik; apelazio harekin beste guztiekin bezala gertatzen zen. Gogora bitez XXV. kapituluari mintzagai izan ditudan salbuespenak. Kasu honetan goragoko epaimahaiari zegokion borroka-bahiak kendu behar ziren ala ez aztertzea.

Ezin ziren faltsutzat jo erregeren epaitegian emandako epaiak; izan ere, erregeak bere berdineko inor ez zeukanez, inork ezin zion apelaziorik egin; eta goragokorik ere ez zuenez, inork ezin zuen haren epaitegia baino gorago jo.

Oinarrizko lege horrek, lege politiko gisa beharrezko izateaz gainera, lege zibil gisa urritu egiten zituen garai hartako praktika judizialaren gehiegikeriak. Jaun bat beldur bazen inork bere epaitegia faltsutzat joko ote zuen<sup>253</sup>, edo ikusten bazuen norbait aurkezten zela faltsutzat jotzera, justiziaren onerako bazen halakorik egin ez zedin, erregeren epaitegiko gizonak eska zitzakeen, haien epaia ez baitzegoen faltsutzat jotzerik. Felipe erregeak, dio Défontainesek<sup>254</sup>, bere kontseilu osoa bidali omen zuen Corbieko abadearen epaitegian auzi bat epai zezan.

Baina jaunak erregeren epailerik lortu ezin bazuen, erregerenean jar zezakeen bere epaitegia, baldin eta zuzenean haren mende baze goen; eta tartean beste jaun batzuk baziren, goragoko jaunarengana jotzen zuen, eta hala, jaunez jaun, erregeaganaino iritsi arte.

Hortaz, nahiz eta garai hartan egungo apelazioen ideia bera ere ez eduki, bazegoen erregeagana jotzerik, hura baitzen ibai guztien iturri eta itsaso, abiaburu eta helmuga.

## XXVIII

### *Zuzenbidezko akatsagatikko apelazioaz*

Zuzenbidezko akatsagatikko apelazioa, jaun baten epaitegian alderdiei justizia egitea atzeratzen, saihesten edo ukatzen zenean egiten zen.

Bigarren dinastian, kondeak zenbait ofizial zituen, eta hauen pertsona haren mende zegoen, baina jurisdikzioa ez. Ofizal haiek, beren auzi, audientzia edo xedapenetan, kondeak berak bezala epaitzen zuten azken buruan. Aldea jurisdikzioaren partiketan zetzan; esate baterako, kondeak heriotza-zigorra eman zezakeen, askatasunaz eta ondasunak itzultzeaz epai zezakeen<sup>255</sup>, eta zenturioiak ezin zuen halakorik egin.

Arrazoi berberagatik, baziren erregearentzat gordetzen ziren kausa nagusiak<sup>256</sup>, ordena politikoari zuzenean zegozkionak, hain zuzen. Halakoxeak ziren apezpikuen, abadeen, kondeen eta beste handien arteko eztabaidak; haiek, erregeak epaitzen zituen, bere basailu nagusiekin<sup>257</sup>.

Autore batzuek diotenak, hots, kondearen kontra erregeren mandatariaren —alegia, *missus dominicus* delakoaren— aurrean apelatzen zela, ez du funtsik. Kondeak eta *missus*-ak jurisdikzio berdina eta elkarrengandik independentea zeukaten<sup>258</sup>. Alde guztia honetan zetzan: *missus*-ak urtean lau hilabetez izaten zituen bere irizpenak, eta kondeak beste zortzietan<sup>259</sup>.

Norbaitek<sup>260</sup>, audientzia batean kondenatua izan ondoren<sup>261</sup>, berriro epai zezatela eskatzen bazuen, eta epai hura ere galtzen bazuen, hamabost soseko isuna ordaindu beharra zeukan, edo hamabost kolpe jasotzen zituen arazoa erabaki zuten epaileen eskutik.

Kondeak edo erregeren mandatariak nahikoa indartsu sentitzen ez baziren handikiak arrazoipean jartzeko, hitz emanarazten zieten erregeren epaitegian aurkeztuko zirela<sup>262</sup>: auzia epaitzeko, alegia, ez berrepaitezko. Metz-eko kapitularrean<sup>263</sup>, ezarrita aurkitzen dut epai faltsuagatik erregeren epaitegira apelatzea, eta beste apelazio guztiak legez kanpo eta zigortuta.

Eskabinoen<sup>264</sup> epaiarekin bat ez zetorrena<sup>265</sup>, erreklamatzeko ez bazuen, kartzelaratu egiten zuten harik eta epaia onartu arte; eta erre-

klamatuz gero, erregeren aurrera eramaten zuten, eta arazoa haren epaitegian eztabaidatzen zen.

Ez zegoen zuzenbide-akatsa zela-eta apelatzerik. Izan ere, garai hartan, kexuak ez ziren sortzen kondeek eta audientzia izateko eskubidea zuten beste batzuek beren epaitegian ez zutelako zehaztasunez jokatzeko; aitzitik, zehatzeziak zirelako ziren kexuak<sup>266</sup>; eta nonahi ageri dira konde eta bestelako justizi ofizialei urtean hiru audientzia baino gehiago izatea debekatzen zieten ordenantzak. Haien utzikeria zuzendu baino, haien jarduera mugatu beharra zegoen.

Baina ezin konta ahala jaurerri eratu zirenean, basailutza-gradu desberdinak ezarri zirenean, zenbait basailuk bere epaitegia edukitzeko axolarik ezak sorrarazi zituen apelazio-mota horiek; are gehiago, goragoko jaunak isunengatik dirutza handiak jasotzen zituelarik.

Lehia judizialaren usadioa gero eta gehiago hedatu zelarik, zenbait leku, kasu eta garaitan zaila zen pareak biltzea eta, ondorioz, justizia banatzeari utzi zitzaion. Zuzenbide-akatsagatik apelazioa agertu zen orduan, eta apelazio-mota horiek gure historiako egintza nabarmenak ekarri dituzte maiz, garai hartako gerrarik gehienak zuzenbide politikoa bortxatzeagatik sortzen zirelako, gaur egungo gerrek kausatzat, edo aitzakiatzat, jendeen zuzenbidea bortxatzea duten bezala.

Beaumanoirrek dio<sup>268</sup> zuzenbide-akatsa zenean inoiz ez zela borrokarik izaten; hona hemen horren arrazoiak. Ez zegoen jaunari berari borrokara deitzerik, zor zitzaion begiruneagatik; ez zegoen jaunaren parei deitzerik, gauza argi zegoelako, eta atzeratzeak edo beste epe batzuk zenbatzea besterik egin behar ez zelako; ez zegoen epairik, eta ezer faltsutzat jotzekotan, epaia behar zen. Azkenik, pareen delituak auzilaria bezainbat iraintzen zuen jauna, eta ordenaz kontrakoa zen jaunaren eta pareen artean borroka izatea.

Baina goragoko epaimahaiaren aurrean akatsa lekukoen bidez frogatzen zenez, bazegoen lekukoei borrokara deitzerik<sup>269</sup>, eta hartara ez zitzairen irain egiten ez jaunari ez haren epaimahaiari.

1. Akatsa jaunaren gizonen edo pareen aldetik zetorrenean — justizia egitea atzeratu zutelako, edo epeak agortu eta gero epaiketa egitea saihestu zutelako —, soberanoaren aurrera deitzen zitzairen jaunaren parei zuzenbide-akatsagatik; eta haiek galtzen bazuten, isuna

ordaintzen zioten beren jaunari<sup>270</sup>. Honek ezin zien inolako laguntzarik eman; aitzitik, feudoa bahitzen zien, harik eta bakoitzak hirurogei liberako isuna ordaindu arte.

2. Akatsa jaunarena zenean —alegia, aski gizon ez zuenean epaitegian epaiketa egiteko, edo bere gizonak biltzen ez zituenean, edo bere ordezkariak izendatu ez zuenean haiek biltzeko—, auzia goragoko jaunaren aurrera eramaten zen; baina jaunari zor zitzaion begiruneagatik, beste alderdiari jartzen zitzaion eguna, ez jaunari<sup>271</sup>.

Jaunak auzia jartzen zion bere epaitegiari goragoko epaimahaiaren aurrean; eta irabazten bazuen, itzuli egiten zitzaion auzia, eta hirurogei liberako isuna ordaintzen zitzaion<sup>272</sup>; baina zuzenbide-akatsa frogatuta geratzen bazen, hari ezartzen zitzaion zigorra auzia epaitzeko eskubidea galtzea zen, eta auziaren funtsa goragoko epaimahaiaren aurrean epaitzen zen<sup>273</sup>; hain zuzen, horretarakoxe jartzen zen zuzenbide-akatsagatik auzia.

3. Jaunari bere epaitegian jartzen bazitzaion auzia<sup>274</sup> —feudoari zegozkion arazoetarako bakarrik izaten zen hori—, epe guztiak iragaiten utzi ondoren, jende zintzoaren aurrean errekeritzen zen jauna<sup>275</sup> eta goragoko jaunaren bidez errekeritu ere, zeinengandik baimena jaso behar baitzen. Ez zen pareen bidez deitzen, pareek ezin baitzioten beren jaunari deirik egin, baina bazeukaten jaunaren izenean deitzea<sup>276</sup>.

Batzuetan, zuzenbide-akatsagatik apelazioaren ondoren, epai faltsuagatik apelazioa izaten zen<sup>277</sup>, jaunak, nahiz eta zuzenbide-akatsa egin, epaia ematen zuenean.

Jaunari zuzenbide-akatsagatik arrazoirik gabe deitzen zion basailua<sup>278</sup>, jaunak berak nahi zuen isuna ordaintzera kondenatzen zuten.

Gantekoek<sup>279</sup> zuzenbide-akatsagatik deitu zioten Flandesko kondeari erregearen aurrera, hark bere epaitegian justizia egitea atzeratu zuela eta. Argitu zen herrialdeko ohiturak ematen zuen epea baino denbora laburragoa hartua zuela. Gantekoak bere jaunarengana bidaliak izan ziren, eta honek hirurogei mila liberako balioa hartu zien beren ondasunetatik. Haiek atzera erregeren epaitegira jo, isuna leuntzeko; erabaki zen kondeak bazeukala isun hura hartzea, bai eta gehiago ere, nahi bazuen. Beaumanoir epaiketa haietan izan zen.

4. Jaunak basailuaren kontra izan zitzakeen auzietan, honen gorputza nahiz ohorea nahiz feudokoak ez ziren ondasunak zirela-eta, ez zegoen zuzenbide-akatsagatik deitzerik, ez baitzen jaunaren epaitegian epaitzen, baizik eta haren gaineko jaunarenean; izan ere, dio Défontainesek<sup>280</sup>, gizonek ez dute beren jauna epaitzeko eskubiderik.

Gauza hauetaz ideia argia ematen saiatu naiz; izan ere, garai hartako autoreen lanetan oso nahasi eta ilun datoz, eta dautzan anabasa hartatik ateratzea haiek lehen aldiz aurkitzea bezalakoa da.

## XXIX

### *San Luisen erregealdiaren garaia*

San Luisek kendu egin zuen lehia judiziala bere lurraldeetako epaimahaietatik, hartaz egin zuen ordenantzak<sup>281</sup> eta *Establezimenduak* obrak<sup>282</sup> frogatzen dutenez.

Baina ez zuen kendu bere barioen epaitegietan<sup>283</sup>, epaiketa faltsuzko apelazio kasuetan izan ezik.

Ez zegoen norberaren jaunaren epaitegia faltsukeriaz salatzerik<sup>284</sup>, epaia eman zuten epaileen kontra lehia judiziala eskatu gabe. Baina San Luisek borrokarik gabe faltsukeriaz salatzeko usadioa sartu zuen<sup>285</sup>, eta aldaketa hori iraultza modukoa izan zen.

Deklaratu zuen<sup>286</sup> ezin izango zirela faltsutzat jo bere mendeko jaurerrietan emandako epaiak, hori traizio-delitua zela-eta. Hain zuzen, jaunaren kontrako traizio-delitua bazen, are arrazoi gehiagoz zen erregeren kontrakoa. Baina epaitegietan emandako epaien aldaketa<sup>287</sup> eskatu ahal izatea agindu zuen; ez faltsuki edo gaiztoz emanak zirelako, baizik eta kalteren bat egiten zutelako<sup>288</sup>. Aitzitik, zera agindu zuen, inor barioen epaitegietako epaien kexu izanez gero, haiek faltsutzat jotzera behartua zegoela<sup>289</sup>.

Establezimenduen arabera, ez zegoen erregeren mendeko epaitegiak faltsutzat jotzerik, esan berri dugunez. Auzitegi beraren aurrean eskatu behar zen aldaketa, eta bailiak aldaketa egin nahi ez bazuen, erregeak onartzen zuen bere epaitegira jotzea<sup>290</sup>, edota Establezimenduak hitzez hitz interpretatuz, galde edo eskea<sup>291</sup> aurkeztea.

Jaunen epaitegiei dagokienez, San Luisek, haiek faltsutzat jotzea onartzean, auzia erregeren edo goragoko jaunaren epaitegira<sup>292</sup> eramatea nahi izan zuen, ez han borroka bidez erabaki zedin<sup>293</sup>, baizik eta lekukoen bidez, berak arautu zuen prozeduraren arabera<sup>294</sup>.

Hortaz, faltsutzat jotzerik bazegoen —jaunen epaitegietan bezala— nahiz ez bazegoen —bere mendeko epaitegietan bezala—, zera ezarri zuen, borroka-arriskurik gabe egin zitekeela apelazioa.

Défontainesek<sup>295</sup>, berak ikusitako lehen bi adibide lehia judizialik gabekoen berri ematen digu: bat, Saint-Quentino epaitegian erabakitako auzi bat, zein erregeren mende baitzegoen; eta bestea, Ponthieuko epaitegian, non kondeak, bertan baitzen, jurisprudentzia zaharra argudiatu baitzuen; bi auzi horiek zuzenbidez epaitu ziren.

Galdetuko zait agian zergatik agindu zuen San Luisek jardunbide bat bere baroien epaitegietarako, eta beste bat bere mendeko epaitegietarako. Hona hemen arrazoiak: San Luisek, bere mendeko epaitegietarako arautzean, ez zuen trabarik izan bere asmoak aurrera ateratzeko; baina jaunekin kontuz ibili behar izan zuen, antzinako pribilegio hori baitzuten, alegia auziak inoiz ez zirela beren epaitegietatik ateratzen, salbu eta faltsutzat joak izateko arriskua izanez gero. San Luisek eutsi egin zion faltsutzat jotzeko usadio horri; baina hori borrokarik gabe egin ahal izan zedila nahi izan zuen; alegia, aldaketa hain nabaria izan ez zedin, gauza kendu eta hitzak bere hartan utzi zituen.

Hori ez zuten jaun guztien epaitegietan onartu. Beaumanoirrek dio<sup>296</sup> bere garaian bi era zeudela epaitzeko: bat *Erregeren Establezimenduen* arabera, eta bestea antzinako ohituraren arabera, eta jaunek batari zein besteari jarraitzeko eskubidea zutela; baina auzi batean bat aukeratuz gero, ez zegoela atzera egin eta bestera pasatzetik. Zera eransten du, Clermont-eko kondea ohitura berriari jarraitzen zitzaiola<sup>297</sup>, eta haren basailuak zaharrari; baina nahi zuenean berrezar zezakeela zaharra, bestela bere basailuek baino aginte gutxiago izango baitzukeen.

Esan behar da garai hartan Frantzian batetik erregeren mendeko lurraldeak zeudela<sup>298</sup>, eta bestetik baroien lurraldeak, baroi-barrutiak; eta San Luisen Establezimenduetako hitzez baliatzeko, erregeren esaneko lurraldeak eta erregeren esanez kanpoko lurraldeak. Erregeek

beren mendeko lurraldeetarako ordenantzak egiten zituztenean, beren agintea besterik ez zuten erabiltzen; baina beren baroien lurraldeetarakoak ere egiten zituztenean, haiekin ados jarrita egiten zituzten, hots, baroiek zigilatuta edo sinatuta<sup>299</sup>; hori gabe, baroiek onartzen zituzten edo ez zituzten onartzen, beren jaurrei on egin ala ez, iruditzen zitzaienaren arabera. Basailuen basailuak ere kasu bereberean zeuden beren jaunekiko. Alabaina, Establezimenduak ez ziren eman jaunaren onespenez, nahiz eta haientzat oso garrantzitsuak ziren gauzak arautu; baina beren mesederako zirela uste zutenek bakarrik hartu zituzten. Robert, San Luisen semeak, onartu egin zituen Clermont-eko konderrian; eta haren basailuek ez zuten uste izan haiek praktikan jarzea komeni zitzaienik.

### XXX

#### *Apelazioei buruzko oharra*

Ulertzekoa da apelazioak, borrokarako erronkak baitziren, berehala egitekoak izatea. «Epaitegitik apelatu gabe alde eginez gero», dio Beaumanoirrek<sup>300</sup>, «galdu egiten da apelazioa, eta ontzat ematen da epaia». Horrek iraun egin zuen, are lehia judizialaren usadiao mugatu ondoren ere<sup>301</sup>.

### XXXI

#### *Gai beraren jarraipena*

Bilauak ez zeukan bere jaunaren epaitegia faltsutzat jotzerik; hala dio Défontainesek<sup>302</sup>; eta *Establezimenduak* obrak berretsi egiten digu hori<sup>303</sup>. «Honela», dio Défontainesek<sup>304</sup>, «Jainkoa beste epailerik ez da zu jaunaren eta zure bilauaren artean».

Lehia judizialaren ohiturak kendu zien bilauei beren jaunaren epaitegia faltsutzat jotzeko ahalbidea; eta hori hain da egia, non, agiriz edo usadioz<sup>305</sup> borroka-eskubidea zuten bilauek, beren jaunaren

epaitegia faltsutzat jotzeko eskubidea ere bai baitzuten, are epaile jardundako gizonak zaldun izanik ere<sup>306</sup>; eta Défontainesek<sup>307</sup> zenbait proposamen egiten ditu eskandalu hori gerta ez zedin; alegia, bilaua, epaia faltsutzat jota, zaldun baten kontra borroka ez zedin.

Lehia judizialen ohitura desagertzen eta apelazio berrien usadioa agertzen hasi zenean, pentsatu zuten ez zela arrazoizkoa jareginek bide bat izatea beren jaunen epaitegiko injustiziaren kontra, eta bilauek ez izatea, eta parlamentuak jareginenak bezala hartu zituen hauen apelazioak.

## XXXII

### *Gai beraren jarraipena*

Jaunaren epaimahaia faltsutzat jotzen bazen, hura goragoko jaunaren aurrera etortzen zen bere epaimahaiaren erabakiaren alde egiteko. Orobat<sup>308</sup>, zuzenbide-akatsagatiko apelazio-kasua zenean, goragoko jaunaren aurrera deitutako alderdiak bere jauna eramaten zuen berekin, akatsa frogatzen ez bazen, hark berriz ere bere epaitegia berreskura zezan.

Gerora, bi kasu partikular besterik ez zirenak arazo guztietara orokortu zirenean, era guztietako apelazioak agertu zirenez, harrigarria iruditu zitzaien jaunek bizitza osoa ematea berena ez zen beste epaimahaietan, eta bereak ez ziren beste auziengatik. Felipe Valoiskoak agindu zuen bailiak bakarrik izango zirela delituak<sup>309</sup>. Eta apelazioen usadioa are ohikoago bihurtu zenean, alderdien arazo bihurtu zen apelazioaren alde egitea; epailearen egintza alderdiaren egintza bilakatu zen<sup>310</sup>.

Esan dut<sup>311</sup> zuzenbide-akatsagatiko apelazioan jaunak auzia bere epaitegian epaitzeko eskubidea besterik ez zuela galtzen. Baina jauna bera erasotzen bazuten alderdi gisa<sup>312</sup> —eta oso ohiko bihurtu zen hori<sup>313</sup>—, hirurogei liberako isuna ordaintzen zion erregeari, edota apelazioa jaso zuen goragoko jaunari. Hortik, apelazio guztiak onartuak izan zirenean, usadio bat sortu zen, jaunari isuna ordainaraztea beraren epailearen epaia aldatzen zenean; usadio horrek denbora



askoan iraun zuen, eta Roussillongo ordenantzak berretsi egin zuen, gero bere zentzurik ezak desagerrarazi badu ere.

### XXXIII

#### *Gai beraren jarraipena*

Lehia judizialaren ohituran, faltsutzaileak auzia gal zezakeen borrokaren bidez<sup>314</sup>, eta ez zeukan irabazterik. Izan ere, epaia bere alde zeukan alderdiak ezin zuen galdu beste baten egintzaz. Hortaz, irabazitako faltsutzaileak, horrez gainera, beste alderdiaren kontra borrokatu behar zuen, ez epaia ona ala txarra zen jakiteko; kontua ez zen epai hura, borrokak ezereztu egin baitzuen; baizik eta zera erabakitzeko, ea eskaria legezkoa zen ala ez; eta hori erabakitzeko egiten zen borroka. Hortik datorke sententziak esateko gure era: «Epaimahaiak ezereztu egiten du apelazioa; Epaimahaiak ezereztu egiten ditu apelazioa eta apelazio-gaia». Izan ere, epai faltsuagatik apelatu zuena garaitua bazen, apelazioa ezereztu egiten zen; irabazten zuenean, epaiketa ezereztu egiten zen, eta apelazioa bera ere bai; beste epaiketara bat egin behar zen.

Hori hain da egia, non, auzia ikerketa bidez epaitzen zenean, esamolde hori ez baitzen erabiltzen. De la Roche-Flavin-ek diosku<sup>315</sup> azterketen ganbarak ezin zuela erabili esamolde hori sortu ondorengo lehen garaietan.

### XXXIV

#### *Nola auzibidea sekretu bihurtu zen*

Dueloek auzibidea publiko izateko era bat sartua zuten; eraso eta defentsa, ezagunak ziren biak. «Lekukoek», dio Beaumanoirrek<sup>316</sup>, «denen aurrean esan behar dute beren testigantza».

Boutillierren iruzkingileak dio legegizon zaharrendik eta eskuizkribu zahar batzuetan jaso zuela ezen antzina Frantzian auzi kri-

minalak publikoak zirela, eta erromatarren epaiketa publikoen ez oso desberdinak. Hori idazten ez jakiteagatik zen horrela, garai hartan gauza arrunta baitzen idazten ez jakitea. Idazketak finkatu egiten ditu ideiak, eta berari esker ezar daiteke sekretua; baina usadio hori ez denean, auzibidearen publikotasunak bakarrik finka ditzake ideia horiek.

Eta gizakiek epaitutakoaz<sup>317</sup> edo gizakien aurrean auzitan erabilitakoaz segurantzarik eza gerta zitekeenez, oroimen-bidea erabil zitekeen epaimahaia biltzen zen guztietan, *par record* izeneko auzibideaz<sup>318</sup>, eta kasu horretan ez zegoen lekukoak borrokara deitzerik; izan ere, hala auziak inoiz ez baitziratekeen amaituko.

Gerora, auzibide sekretua agertu zen. Ageriko zen dena, ezkurtuko bihurtu zen; galdeketak, argiketak, frogaketak, aurrez aurrekoak, alderdi publikoaren konklusioak; eta horixe da egungo jardunbidea. Lehen jardunbidea egokia zen garai hartako gobernu-erarako, eta berria ere bai gerora ezarri zen gobernu-erarako.

Boutillierren iruzkingileak 1539ko ordenantzan jartzen du aldaketa horren garaia. Nik uste dut pixkanaka egin zela, eta jaurerriz jaurerri hedatu zela, jaunek epaitzeko ohitura zaharrari uko egin ahala, eta San Luisen *Establezimenduak* obratik hartutakoa hobetu ahala. Hain zuzen, Beaumanoirrek dioenez<sup>319</sup>, borroka-bahiak eman ahal zirenean bakarrik entzuten zitzairen jendaurrean lekukoei; beste kasuetan, sekretuan entzuten zitzairen, eta idatziz jartzen ziren haien adierazpenak. Beraz, prozedurak borroka-bahirik izan ez zenean bihurtu ziren sekretu.

## XXXV

### *Eralkiak ordaintzeaz*

Antzina, Frantzian ez zen eralkiak ordaintzeko kondenarik epaitegi laikoan<sup>320</sup>. Galtzen zuen alderdiak nahikoa zigor zuen jaunari eta haren pareei isunak ordaintzeko kondenekin. Lehia judizialaren bidezko jardunbidearen arabera, delitu-kasuetan, galtzen zuen alderdiak bizia eta ondasunak galtzen zituen, ahalik eta zigorrik handiena jasotzen zuen; eta lehia judizialaren beste kasuetan, batzuetan isun finkoak izaten ziren, eta beste batzuetan jaunaren nahiaren arabera-

ak, eta aski beldurgarri bihurtzen zuten auziaren emaitza. Orobat borroka bidez bakarrik erabakitzen ziren auzietan ere. Jauna baitzen etekin handienak ateratzen zituen, bera zen gastu hadienak egiten zituen ere, dela pareak biltzeko, dela haiek epaitzen jartzeko. Bestalde, auziak tokian bertan eta ia beti berehala amaitzen zirenez, eta gerora ikusi izan diren idazti amaiezin horiek guztiak gabe, ez zegoen eralkiak alderdiei eman beharrik.

Apelazioen usadioak sartu zuen eralkiak ordaintzekoa. Hala, Défontainesek dio<sup>321</sup> ezen, lege idatziz apelatzen zenean, hau da, San Luisen lege berriei men egiten zitzaientean, eralkiak izaten zirela; baina usadio arruntean, ez baitzuen apelatzeko biderik ematen faltsutzat jo gabe, ez zegoen halakorik; isun bat eta auzigai izandako gauzaren jabetza urtebete eta egun baterako besterik ez zen lortzen, baldin eta auzia berriro jaunari itzultzen bazitzaion.

Baina apelatzeko erraztasun berriek apelazio-kopurua handitu zutenean<sup>322</sup>, epaimahai batetik besterako apelazio horiek hain sarri erabiltzeagatik, alderdiak etengabe joan behar izan zutenean bizi ziren lekutik kanpora; prozeduraren antze berriak auziak ugaritu eta betierekotu egin zituztenean; eskaerarik bidezkoenak saihesteko zientzia findu zenean; auzilari batek esetsia izateko plazer hutsagatik ihes egiten ikasi zutenean; eskaria garestia eta defentsa, berriz, lasaia izan zirenean; arrazoiak hitzez eta idatziz betetako liburuetan galdu zirenean; dena justiziarik egin behar ez zuten justizi alguazilez bete zenean; fede txarrak aholkuak aurkitu zituztenean, babesa aurkitzen ez zuen lekuan; orduan, auzilariak eralkien beldurrez gerarazi behar izan ziren. Ordaindu egin behar izan zituzten erabakiaren eta erabakia saihesteko erabilitako bitartekoen truke. Karlos Ederrak ordenantza orokorra egin zuen horretaz<sup>323</sup>.

## XXXVI

### *Alderdi publikoaz*

Lege saliko eta erripuarioren arabera, eta herri barbaroen beste legeen arabera, delituen zigorrak diruzkoak zirenez, garai hartan ez zegoen, gero gure artean bezala, delituak esesteaz arduratzen zen

alderdi publikorik. Hain zuzen, dena mugatzen zen kalte-ordainetara; eginbide oro, nolabait, zibila zen, eta norbanako bakoitzak egin zeza-keen. Beste alde batetik, erromatar zuzenbideak bazituen delituak esesteko herri-erak, alderdi publikoaren eginkizunarekin bat etortze-rik ez zeukatenak.

Lehia judizialen usadioa ere ideia horren kontra zegoen; izan ere, nork izan nahiko zukeen alderdi publiko, eta denen kontra denen aldezkari bihurtu?

Muratori jaunak lonbardiarren legeetan sartu zuen formula-bil-duma batean, esaten da bigarren dinastian bazela alderdi publikoaren *abokatu* bat<sup>324</sup>. Baina formula horien bilduma osoa irakurritz gero, iku-siko da erabateko aldea zegoela kargudun horien eta guk egun alderdi publikoa deritzogunaren —hots, gure prokuradore nagusien, errege-ren edo jaunaren prokuradoreen— artean. Lehenak administrazio politiko eta domestikorako ziren alderdi publikoaren agenteak, ez administrazio zibilerako. Hain zuzen, ez da ageri formula horietan haiek delituak esesteaz arduratzen zirenik, ez eta adin-txikikoei, elizei edo pertsonen egoerari zegozkien auziez ere.

Esan dut alderdi publiko bat ezartzea lehia judizialaren usadio-aren guztiz kontra zihoala. Formula horietako batean, ordea, alderdi publikoaren abokatu bat ageri da, borrokatzeko askatasuna duena. Muratorik Enrike I.aren konstituzioaren<sup>325</sup> ondoren jarri zuen, konsti-tuzio hartarako egina baitzen. Konstituzio horretan esaten denez, «inork bere aita, anaia, iloba edo beste ahaideren bat hiltzen badu, galdu egingo du harengandiko jarauntsia, eta hau beste ahaideengana pasatuko da, eta hiltzailearena Fiskoarena bihurtuko da». Alabaina, alderdi publikoko abokatuak, eskubideen alde egiten baitzuen, Fiskoarena bihurtutako jarauntsi hori erreklamatzeko zeukan, hain zuzen, borrokatzeko askatasuna; kasu hori arau orokorrean sartzen zen.

Formula horietan, alderdi publikoko abokatua jardunean ageri zaigu: lapur bat harrapatu eta kondearen aurrera eraman ez zuenaren aurka<sup>326</sup>; kondearen kontrako errebolta edo bilera egindako baten aurka<sup>327</sup>; kondeak gizon bat hiltzeko agindu eta gero, gizon hari bizia salbatu zionaren aurka<sup>328</sup>; elizen abokatuaren aurka<sup>329</sup>, kondeak lapur bat bere aurrera eramateko agindu eta obeditu ez ziolako; erregeren sekretua arrotzei jakinarazi zienaren aurka<sup>330</sup>; enperadorearen manda-

taria armaz esetsi zuenaren aurka<sup>331</sup>; enperadorearen gutunak mesprezatu zituenaren aurka<sup>332</sup>, enperadorearen abokatuak edo enperadoreak berak esesten zutelarik; printzearen txanpona hartu nahi izan ez zuenaren kontra<sup>333</sup>; azkenik, abokatu horrek legeak Fiskoari ematen zizkion gauzak eskatzen zituen<sup>334</sup>.

Baina delituak esestean ez zen alderdi publikoko abokaturik, ezta dueloak erabiltzen zirenean ere<sup>335</sup>; ezta sutea zenean ere<sup>336</sup>, ezta epailea epaimahaian hiltzen zutenean ere<sup>337</sup>; ezta pertsonen egoerari<sup>338</sup>, askatasunari eta joputzari<sup>339</sup> buruzko auziren bat zenean ere.

Formula horiek, lonbardiarren legeentzat ez ezik, erantsitako kapitularrentzat egin ziren; hortaz, gai hauei buruz bigarren dinastiako jardunbidea ematen digute zalantzarik gabe.

Argi dago alderdi publikoko abokatu horiek desagertu egin zirela bigarren dinastian, erregeren mandatariak probintzietan bezala; izan ere, desagertu egin ziren bai lege orokorra eta bai fisko orokorra; eta probintzietan ez zen izan konderik auziak erabakitzeke eta, ondorioz, ezta kondearen aginpidetari eusteko eginkizun nagusia zuen ofizialik ere.

Borroken usadioak, hirugarren dinastian ohikoagoa bihurtu arren, ez zuen biderik eman alderdi publikoa ezartzeko. Boutillierrek ere, bere *Landako bilduma*-n, justizi ofizialez ari delarik, ez ditu aipatzen bailiak, gizon feudalak eta sarjentuak baizik. Ikus *Establezimenduak*<sup>340</sup> eta Beaumanoir<sup>341</sup>, garai hartan eginbideak burutzeke moduz.

Jaime II.a Mallorcako erregearen legeetan<sup>342</sup> erregeren prokuradore postuaren sorkuntza ageri da, egun gurek dituzten funtzioekin<sup>343</sup>. Argi dago gure artean forma judiziala aldatu eta gero bakarrik sortu zirela.

## XXXVII

*Nola San Luisen Establezimenduak ahazturan erori ziren*

*Establezimenduak*-en patua oso denbora laburrean jaio, zahartu eta hiltzea izan zen.

Gogoeta batzuk egingo ditut hemen horretaz. *San Luisen Establezimenduak* izenaz daukagun kodea inoiz ez zen egin erresuma guztiaren lege izateko, nahiz eta hala esaten den kodearen hitzaurrean. Bilduma hori kode orokorra da, eta arazo zibil guztiak, testamendu bidezko edo bizien arteko ondasunen xedapenak, doteak eta emakumeen abantailak, feudoen etekinak eta pribilegioak, gobernu-arazokak eta abar arautzen ditu. Alabaina, garai hartan hiri, burgo edo herri bakoitzak bere ohitura zuelarik, lege zibilen gorputz orokorra ematea, lege partikular guztiak une batean aldatu nahi izatea zen, erresumako toki bakoitzean haien arabera bizi zirelarik. Ohitura partikular guztiez ohitura orokor bat osatzea zentzugabekeria litzateke baita gaur egun ere, printzeek nonahi obediencia besterik jasotzen ez duten garai honetan. Izan ere, egia izanik ezer ez dela aldatu behar eragozpenak abantailak adina direnean, are gutxiago abantailak txikiak eta eragozpenak izugarriak direnean. Hortaz, erresuma garai hartan nola zegoen erreparatzen badiogu, non bakoitza bere soberanotasunaz eta botereaz mozkortzen baitzen, bistan da aurrekoengandik jasotako lege eta usadioak alde guztietan aldatu nahi izatea gobernatzen zutenen pentsabidearekin bat ez zetorren zerbait zela.

Esan berri dudanak frogatzen du, halaber, *Establezimenduak* izeneko kode hura ez zutela onartu parlamentuan erresumako baroiek eta lege-gizonek, Ducange-k aipatzen duen Amiensko udaltxeko eskuizkribu batean esaten den bezala. Beste eskuizkribuetan ikusten da kode hori 1270ean eman zuela San Luisek, Tunisiara abiatu aurrean. Hori ere ez da egia; izan ere, San Luis 1269an abiatu zen, Ducangek nabarmendu bezala, eta hortik ondorioztatzen du kode hori hura kanpoan zelarik argitaratu zela. Baina nik diot hori ezinezkoa dela. Nola hartuko zuen San Luisek kanpoan zen denboraldia ezin konta ahala nahasmendu sorraraziko zituzkeen gauza bat egiteko?, aldaketak ez ezik, iraultzak eta erreboltak ekar zitzakeen gauza bat? Halako eginkizun batek, beste edozeinek baino gehiago, hurbiletik segitzea eskatzen zuen, eta ez zen erregeordetza ahul baten eginkizuna, are gehiago erregeordetza hori osatzen zutenek halako gauza bat aurrera atera ez zedin nahi zutelarik. Hona hemen erregeordetza osatzen zutenak: Mateo, Saint-Denisko abadea. Simon Clermontekoa, Nesleko kondea; eta, horiek hilez gero, Felipe, Evreuxko apezpikua, eta Joan, Ponthieuko kondea. Hemen

ikusi dugunez<sup>345</sup>, Ponthieuko kondeak kontra egin zion bere jaure-  
rrian agindu judizial berri bat betetzeari.

Hirugarrenez, nik diot, itxura guztien arabera, daukagun kodea  
ez dela San Luisen ordena judizialari buruzko *Establezimenduak*; ale-  
gia, Establezimenduei buruzko lan bat dela, ez *Establezimenduak*.  
Gainera, Beaumanoirrek, maiz aipatzen baititu San Luisen  
*Establezimenduak*, ez ditu aipatzen printze haren establezimendu par-  
tikularrak baizik, ez *Establezimenduak* izeneko bilduma.  
Défontainesek<sup>346</sup> printze haren garaian idatzi zuen, eta aspaldiko gauza  
balitz bezala hitz egiten digu *Establezimenduak* agindu judizialez  
betearazi ziren lehen bi aldiez. San Luisen *Establezimenduak*, hortaz,  
hizpide dudan bildumaren aurrekoak ziren. Bilduma hau, ezjakinen  
batzuek hasieran jarritako hitzaurre okerrekin, San Luisen bizitzako  
azken urtean agertuko zen, edota are printze hura hil eta gero.

## XXXVIII

### *Gai beraren jarraipena*

Zer da, beraz, San Luisen *Establezimenduak* izeneko bilduma  
hori? Zer da kode ilun, nahasi eta anbiguo hori, non etengabe nahas-  
ten baita jurisprudentzia frantsesa erromatarrekin; non legegileak  
hitz egiten baitu, eta juriskonsultua ageri baita; non jurisprudentzi  
gorputz osoa baitator kasu guztiez, zuzenbide zibileko puntu guztiez?  
Garai hartan kokatu beharra dago.

San Luisek, bere garaiko jurisprudentziaren gehiegikeriak iku-  
siz, herria hartatik apartatzen saiatu zen; zenbait araudi egin zituen  
bere mendeko auzitegientzat, eta bere baroienentzat; eta hainbesteko  
arrakasta izan zuen, non Beaumanoirrek<sup>347</sup>, printze hura hil eta denbo-  
ra gutxira idatzi baitzuen, dioskun San Luisek ezarritako epaitzeko era  
jaunen epaitegi askotan erabiltzen zela.

Horrela, printze hark bere helburua lortu zuen, nahiz eta jau-  
nen epaimahaietarako egin zituen araudiak ez izan erresumako lege  
orokorra izateko eginak, baizik eta bakoitzak jarrai zezakeen —are  
gehiago, jarraitzea interesatzen zitzaion— adibide gisa. Gaitza ken-

tzeko, hobeia zena ikusarazi zuen. Haren epaimahaietan eta jaunenetan jarduteko modu naturalagoa, arrazoizkoagoa, moralarekin, erlijioarekin, lasaitasun publikoarekin, pertsonaren eta ondasunen segurtasunarekin adosago zegoena ikusi zutenean, hura hartu eta zaharra baztertu zuten.

Gonbidatu, behartzerik komeni ez denean: gidatu, agintzerik komeni ez denean; horra abilezia gorena. Arrazoiak berezko agintea du; are aginte tiranikoa ere badu; kontra egingo diote, baina horixe da haren garaipena; denbora pixka baten buruan, hartara itzuli behar.

San Luisek, jurisprudentzia frantsesarekiko erdeinua sarrarazteko, erromatar zuzenbideko liburuak itzularazi zituen, bere garaiko legegizonek ezagut zitzaten. Défontainesek<sup>348</sup>, geure jarduera praktikoko lehen autoreak, asko erabili zituen erromatar legeak; haren obra, neurri batean, jurisprudentzia frantses zaharraren, San Luisen lege edo Establezimenduen eta lege erromatarraren emaitza da. Beaumanoirrek gutxi erabili zuen erromatar legea; baina jurisprudentzia frantses zaharra San Luisen araudiekin bateratu zuen.

Bi obra horien, eta batez ere Défontainesenaren eraginpean, egin zuen baili batek, nik uste, *Establezimenduak* deitzen diegun jurisprudentzi lana. Obra horren tituluan esaten da Paris eta Orléansko eta baroi-epaitegietako usadioaren arabera egina dela; eta hitzaurrean, erresuma guztiko, eta Anjouko eta baroi-epaitegietako usadioez ari dela. Bistan da obra hori Paris, Orléans eta Anjourako egin zela, Beaumanoir eta Défontainesen obrak Clermont eta Vermandoisiko kondeentzat egin ziren bezala. Bestalde, Beaumanoirrek dioenetik, San Luisen lege asko baroitza-epaitegietan sartu zirela ateratzen da, eta biltzaileak badu arrazoirik bere obrak baroitzako epaitegiak kontuan zituela dioenean<sup>349</sup>.

Argi dago obra hori egin zuenak herrialdeko ohiturak ere bildu zituela legeekin eta San Luisen *Establezimenduak*-ekin. Obra hori oso baliosa da, Anjouko ohitura zaharrak eta San Luisen *Establezimenduak* garai hartan erabiltzen ziren bezalaxe dakartzalako, eta, azkenik, baita jurisprudentzia frantses zaharretik erabiltzen zena ere.

Obra honek alde hauxe du Défontaines eta Beaumanoirrekin, bertan aginduak ematen direla, legegileek bezala, eta hori ohitura idatzien eta legeen bilduma bat zelako izan zitekeen horrela.



Akats bat zuen bilduma hark: bitariko kodea osatzen zuen, jurisprudentzia frantsesa erromatar legearekin nahastuta baitzegoen; erlaziorik ez zuten gauzak elkarren ondoan jartzen ziren, maiz elkarren kontrakoak izan arren.

Ondo asko dakit gizonen edo pareen auzitegi frantsesak, beste auzitegi batera jotzerik ez zegoeneko epaiak, «nik kondenatzen dut» edo «nik absolbitzen dut»<sup>350</sup> hitzak erabiltzea, horiek denak bat zeto- zela erromatarren herri-epaiekin. Baina gutxi erabili zen jurispruden- tzia zahar hori; enperadoreek geroago sartu zutena erabili zen, bildu- ma hartan bete-betean, jurisprudentzia frantsesa arautu, mugatu, zuzendu eta hedatzeko.

## XXXIX

### *Gai beraren jarraipena*

San Luisek sartutako forma judizialak ez ziren gehiago erabili. Printze hark, gauza bera —hots, epaitzeko modurik onena— baino, epaitzeko modu zaharra ordezkatzeko modurik onena izan zuen kon- tuan. Lehen helburua jurisprudentzia zaharrekiko erdeinua sortzea zen, eta bigarrena berria eratzea. Baina honen eragozpenak agertzean, beste bat etorri zen laster.

Hortaz, San Luisen legeek, jurisprudentzia frantsesa aldatu baino gehiago, hura aldatzeko bitartekoak eman zituzten; auzitegi berriak ireki zituzten, edo haietara iristeko bide berriak; eta aginte nagusia zuenarengana iristea erraza gertatu zenean, epaiek, aurrez jaurerri partikular bateko usadioak besterik eratzen ez bazituzten ere, jurisprudentzia unibertsala eratu zuten. *Establezimenduak*-en inda- rrez, erabaki orokorrak izatera iritsi ziren, erresuman erabat falta zire- nak; batimendua eraiki zenean, aldamioak erortzen utzi ziren.

Hala, bada, San Luisek egin zituen legeek legegintzako maisu- lan batetik espero ez izateko moduko ondorioak izan zituzten. Batzuetan mendeak behar izaten dira aldaketei bidea prestatzeko; ger- taerak ondu eta umotu egiten dira, eta orduan, horra iraultzak.

Parlamentuak erresumako ia auzi guztiak epaitu zituen azken instantzia gisa. Aurrez duke, konde, baroi, apezpiku, abadeen arteko-

ak epaitzen zituen<sup>351</sup>, edota erregearen eta mendekoen artekoak<sup>352</sup>, batez ere alderdi politikoan zituzten harremanen aldetik, alderdi zibilean zituztenetik baino gehiago. Gero, parlamentua sedentario bihurtu eta beti bilduta eduki beharra egoan zen; azkenik, zenbait parlamentu sortu ziren, auzi gutzietan aurre egin ahal izateko.

Parlamentua gorputz finkoa izan orduko, biltzen hasi ziren haren epaiak. Jean Monluc-ekoak, Felipe Ederraren erregealdian, egun *Olim* erregistroak deritzen bilduma egin zuen<sup>353</sup>.

## XL

### *Nola hartu ziren dekretaleko forma judizialak*

Baina zer dela eta ordura arteko forma judizialak baztertutakotan zuzenbide kanonikorenak hartzea, eta ez erromatar zuzenbidearenak? Eliz epaimahaiak beti begien aurrean zituztelako, zuzenbide kanonikorena formei atxikitzen zitzaizkienak, eta ez zutelako ezagutzen erromatar zuzenbidearen formei atxikitzen zitzaiezen ezein epaimahai. Gainera, eliz jurisdikzioaren eta sekularren mugak oso gutxi ezagutzen ziren garai hartan; batzuek<sup>354</sup> bi epaimahaietan jartzen zituzten auziak<sup>355</sup>, eta zenbait gaitan gauza bera egiten zen. Badirudi<sup>356</sup> jurisdikzio laikoak ez zuela beretzat gorde feudoen arazoei eta laikoek egindako delituei —baldin eta erlijioaren kontrakoak ez baziren— zegokiena epaitzea baizik<sup>357</sup>. Izan ere, abenikoak eta kontratuak zirela-eta, justizia laikora jo beharra zenean ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, jo zezaketen eliz epaimahaietara. Hauek justizia laikoaren epaia betearaztera behartzeko eskubiderik ez bazuten ere, eskomiku bidez behartzen zuten obeditzera<sup>358</sup>. Beraz, epaimahai laikoetan prozedura aldatu nahi izan zenean, elizgizonena hartu zen, ezaguna zelako, eta ez erromatar zuzenbidearena, ezezaguna zelako; izan ere, erabilera-kontuan, erabili ohi dena baizik ez da ezagutzen.

## XLI

### *Eliz jurisdikzioaren eta jurisdikzio laikoaren atzera-aurrerak*

Botere zibila hainbat eta hainbat jaunaren eskuetan izaki, erraza gertatu zitzaion eliz jurisdikzioari egunetik egunera hedatuz joatea;

baina, eliz jurisdikzioak jaunen jurisdikzioa ahuldu zuen bezala, eta hartara errege-jurisdikzioa indartzen lagundu, errege-jurisdikzioak mugatu egin zuen pixkanaka eliz jurisdikzioa, eta honek atzera egin zuen. Parlamentuak, bere prozedurarako elizgizonen epaimahaienak zituen gauza on eta baliagarri guztiak hartuak baitzituen, laster ez zituen ikusi haren gehiegikeriak baizik; eta errege-jurisdikzioa gero eta indartsuagoa zenez, gehiegikeria horiek zuzentzeko moduan egon zen. Izan ere, onartezinak ziren, baina denen zerrenda eman gabe, jo bedi Beaumanoir, Boutillier eta erregeen ordenantzeta<sup>359</sup>. Zuzenean altxor publikoari dagozkionez mintzatuko naiz bakarrik. Gehiegikeria horiek, zuzendu zituzten xedapenengatik ezagutzen ditugu. Ezjakintasun astunak zituen ezarriak, eta halako argitasun bat agertu zenean, ezereztu egin ziren. Elizgizonen isiltasunetik atera daitekeen, berak ere prest zeuden zuzenketarako eta horrek, giza espirituaren izaera ikusirik, goraipamenak merezi ditu. Elizari bere ondasunen zati bat eman gabe hiltzen zen gizon orori —aitortzarik gabe hiltzea deitzen zitzaion horri— jaunartzea eta hilobia ukatzen zitzaizkion. Testamentua egin gabe hiltzen bazen, ahaideek zera lortu behar zuten, apezpikuak, berekin batera, arbitroak izenda zitzala, hildakoak testamentua egin izan balu eman beharko zukeena zehazteko. Ez zegoen ezkondu ondorengo lehen gauean elkarrekin oheratzerik, ez eta hurrengo bietan ere, Elizaren baimena erosi gabe; ondo aukeratuta zeuden lehen hiru gau horiek, besteen truke ez baitzen diru askorik emango. Parlamentuak hori dena zuzendu zuen. Ragueauren *Zuzenbide frantsesaren glosarioa*-n<sup>360</sup> parlamentuak Amiensko apezpikuaren kontra egindako dekretua ageri da<sup>361</sup>.

Atzera kapituluaren hasierara itzuliko naiz. Mende batean, edo gobernu-era batean, Estatuaren atalak zein bere autoritatea handitu nahian ageri zaizkigunean, eta batzuk besteen gainetik zenbait abantaila hartu nahian, oker legoke jardun hori haien ustelkeriaren adierazgarri segurutzat ikusiko lukeena. Giza izaerari dagokion zorigaitz baten kariaz, gizon handi neurrizkoak oso bakanak dira; eta errazagoa denez beti nork bere indarrari jarraitzea hura geldiaraztea baino, beharbada, goi-mailako pertsonen klasean ere errazagoa da oso pertsona bertutetsuak aurkitzea, oso pertsona zuhurrak baino.

Hain atsegin zaio arimari beste arimak menderatzea, on dena maite dutenek hainbeste maite dituzte beren buruak, non ez baita

haien asmo onez mesfidatzeko bezain zorigaitzeko den inor; eta, egia esan, gure ekintzak hainbeste gauzari lotuta daude, non mila bider errazagoa baita on egitea, ondo egitea baino.

## XLII

*Erromatar zuzenbidearen berpizkundea, eta horren ondorena.*

*Aldaketak epaimahaietan*

Justinianoren *Digestoa* 1137. urtean aurkitu zutelarik, bazirudien erromatar zuzenbidea bigarren aldiz jaio zela. Italian eskolak sortu ziren hura irakasteko; bazituzten Justinianoren Kodea eta *Novelak*. Esan dudanez, zuzenbide horrek halako indarra hartu zuen, non lonbardiarren legeari itzal egin baitzion.

Italiar doktoreek Frantziara eraman zuten Justinianoren zuzenbidea, han Teodosiar Kodea baizik ez baitzen ezagutzen<sup>362</sup>, zeren eta barbaroak Galian ezarri eta gero egin baitziren Justinianoren legeak<sup>363</sup>. Zuzenbide horrek izan zituen kontrakoak, baina iraun egin zuen, nahiz eta aita santuek, beren kanonak babesteko, eskomikatu<sup>364</sup>. San Luisek ospea eman nahi izan zion Justinianoren obrak itzularaziz; oraindik ere eskuizkribuetan ditugu itzulpenok gure liburutegietan; eta esana dut asko erabili zirela *Establezimenduak* obran. Felipe Ederrak<sup>365</sup> Justinianoren legeak arrazoi idatzi gisa bakarrik irakastea agindu zuen, ohiturez gobernatutako Frantziako eskualdeetan; eta legetzat onartu ziren, erromatar zuzenbidea lege zen eskualdeetan.

Esan dut gorago lehia judizialaren bidetik jarduteko erak gaitasun gutxi eskatzen zela epaitzen zutenei; toki bakoitzeko auziak, toki horretako usadioaren arabera erabakitzen ziren, eta tradizioz jasotzen ziren ohitura sinple batzuen arabera. Beaumanoirren garaian<sup>366</sup> justizia emateko bi era zeuden: toki batzuetan pareen bidez epaitzen zen; beste batzuetan, bailien bidez<sup>367</sup>. Lehen eraren arabera, pareek beren jurisdikzio-barrutiko usadioaren bidetik epaitzen zuten<sup>368</sup>, bigarrenaren arabera, bitartekariak edo zaharrek adierazten zioten bailiari usadio bera. Horrek guztiak ez zuen eskatzen letratua izaterik, ez gaitasunik, ez ikasketarik. Baina *Establezimenduak* kode iluna eta jurisprudentziako beste obra batzuk agertu zirenean, erromatar zuzenbidea

itzuli zenean, hura eskoletan irakasten hasi zirenean, prozeduraren halako antze bat eta jurisprudentzia bat eratzen hasi zirenean, legegizonak eta juriskontsultuak agertzen hasi zirenean, pareak eta bitartekariak ez ziren gauza izan epaitzeko. Pareak erretiratzen hasi ziren jaunaren epaimahaietatik, jaunak ez ziren saiatu haiek biltzen. Are gehiago, epaiketak, ekintza distiratsua, nobleentzat atsegina, gerrajendearentzat interesgarria izan ordez, ezagutzen ez zuten eta ezagutu nahi ez zuten praktika bihurtu ziren. Pareen bidez epaitzeko ohitura gero eta gutxiago erabili zen<sup>369</sup>; bailien bidez epaitzekoa hedatu egin zen. Bailiek ez zuten epaitzen<sup>370</sup>; izapideak egiten zituzten, eta bitartekarien epaia esaten zuten, baina bitartekariak epaitu ezin bazuten, bailiek berek epaitzen zuten.

Hori are errazago egin zen eliz epaileen ohitura begien aurrean zutelarik; zuzenbide kanonikoak eta zuzenbide zibil berriak, bien artean indargabetu zituzten pareak.

Halaxe galdu zen monarkian etengabe gordetako usadioa, epaile batek bakarrik inoiz ez epaitzea, lege salikoen, kapitularren eta hirugarren dinastiako lehen legegizon idazleen bidez ikusten denez<sup>371</sup>. Kontrako gehiegikeria justizia lokaletan baizik ez zen gertatzen, eta leundu egin zen, eta nola edo hala zuzendu, leku askotan epaile-lotinanta ezarriz; epaileak kontsulta egiten zion, eta antzinako bitartekarien ordezkoa zen. Halaber, zigor afliktiboa, merezi zuten kasuetan, leundu egin zen, bailiak bi gizon letratu hartzeko zuen betebeharraren bidez, eta azkenik, apelazioak egiteko erraztasun handiari esker eze-reztu zen.

## XLIII

### *Gai beraren jarraipena*

Hortaz, ez zien lege batek debekatu jaunei beren epaitegia edukitzea; ez zituen lege batek ezereztu pareek han zituzten funtzioak; ez zen izan bailiak sortzea agintzen zuen legerik; hauek ez zuten lege baten bidez hartu epaitzeko eskubidea. Hori guztia pixkanaka etorri zen, berez. Erromatar zuzenbidea, epaitegien sententziak eta berriro idatzitako usadio-gorputzak ezagutzeak, ikasketa eskatzen zuen, eta nobleak eta letrarik gabeko herritarrek ez ziren horretarako gai.

Gai honetaz daukagun ordenantza bakarra jaunak beren bailiak laikoen artean aukeratzera behartzen zituena da. Ordenantza hori bailien sortze-legetzat hartu izan da, oker; legeak dioena dio, eta ez besterik. Gainera, agintzen duena agintzeko arrazoia ematen du: «Bailiak beren prebarikazioengatik zigortu ahal izateko aukeratu behar dira laikoen artean»<sup>373</sup>. Ezagunak dira elizgizonek garai hartan zituzten pribilegioak.

Ez da sinetsi behar jaunek behinola zituzten eskubideak —eta egun ez dituztenak— usurpazio bidetik kendu izan zaizkienik; esku-bide horietako asko utzikieriaz galdu dituzte, eta beste batzuk baztertu egin dira, zeren eta, mendeetan zehar hainbat aldaketa jasan ondoren, ez baitzeukaten aldaketa horiekin irauterik.

## XLIV

### *Lekukoen bidezko frogaz*

Epaileak, ez baitzuten usadioak beste araurik, lekukoen bitartez informatzen ziren agertzen zitzaizen arazo bakoitzean.

Lehia judiziala gero eta gutxiago erabili zelarik, ikerketak idatziz egin ziren. Baina idatziz jarritako ahozko froga batek ahozko froga izaten dirau; horrek auzibidearen gastuak gehitu besterik ez zuen egiten. Araudiak egin ziren, eta alferrikako bihurtu zituzten inkesta horiek gehienak<sup>374</sup>; erregistro publikoak ezarri ziren, eta bertan ageri ziren datu gehienak frogatuta zeuden: nobletasuna, adina, legezketasuna, ezkontza. Idazkera hondatzen zaila den lekukoa da. Ohiturak idatziz jarri ziren. Hori guztia oso arrazoizkoa zen: errazagoa da bataio-erregistroetara jotzea Petiri Pauloren seme den jakiteko, hori inkesta luze baten bidez frogatzea baino. Herrialde batean usadio ugari direnean, errazagoa da denak kode batean idaztea, norbanakoak usadio bakoitza frogatzera behartzea baino. Azkenik, ordenantza ospetsu bat egin zen, alegia ehun liberatik gorako zorren kasuetan lekuko bidez froga onartzea debekatzen zuena, salbu eta froga hori idatziz jarrita bazegoen.

## XLV

### *Frantziako ohiturez*

Frantzian, esan dudanez, idatzi gabeko ohiturek agintzen zuten, eta jaurerri bakoitzeko usadio partikularrek osatzen zuten zuzenbide zibila. Jaurerri bakoitzak zuen bere zuzenbide zibila, Beaumanoirrek dioenez<sup>275</sup>; hain zuzenbide partikularra, non autore horrek, garai hartako argi nagusitzat har daitekeenak, zera baitio, ez duela uste erresuma osoan lege berberaz gobernatzen ziren bi jaurerri zeudenik.

Askotariko izate harrigarri horrek lehen sorburu bat eta bigarren sorburu bat zituen. Lehen sorburuari dagokionez, gogora bedi ohitura lokalen kapituluan esan dudana<sup>376</sup>; bigarrena, berriz, lehia judizialen emaitzen askotarikoa da: ustegabeko kasuek usadio berriak sorraraziko zituzten, ezbairik gabe.

Ohitura haiek zaharren oroimenean gordetzen ziren, baina pixkanaka lege edo ohitura idatzi bihurtu ziren.

1. Hirugarren dinastiaren hasieran<sup>377</sup>, erregeek agiri partikularrak eman zituzten, bai eta orokorrak ere, lehenago azaldu dudak bezala; halakoak dira Felipe Augustoren Establezimenduak eta San Luisek egin zituenak. Era berean, basailu handiek, beren mende zituzten jaunekin ados jarrita, agiri edo establezimendu batzuk eman zituzten beren dukerri edo konderrietako auzitegietan, inguruabarren arabera; halakoxeak izan ziren Godofredo, Britainiako kondearen ezarpenak, nobleen partiketei buruz; Normandiako ohiturak, Raul dukeak emanak; Champagneko ohiturak, Teobaldo erregeak emanak; Simon, Montfort-eko kondearen legeak, eta beste batzuk. Horrek lege idatziak ekarri zituen, eta ordura artekoak baino orokorragoak.

2. Hirugarren dinastiaren hasieran, ia herritar xehe guztiak ziren jopu. Hainbat arrazoik behartu zituzten errege eta jaunak haiek askatzera.

Jaunek, jopuei askatasuna ematean, ondasunak eman zizkieten, eta lege zibilak eman behar izan ziren ondasun horien erabilera arautzeko. Jaunek, beren jopuei askatasuna ematean, beren ondasunak galdu zituzten; hortaz, arautu beharra zegoen jaunek ondasun haien truke hartzen zituzten eskubideak. Gauza bata eta bestea askatze-agi-

riek arautu zituzten; agiri horiek gure ohituren parte bat osatzen zuten, eta parte hori idatzita geratu zen.

3. San Luisen erregealdian eta ondorengoetan, legegizon abilek, hala nola Défountaines, Beaumanoir eta beste batzuek, idatziz jarri zituzten beren barrutietako ohiturak. Haien helburua prozedura judiziala azaltzea zen batez ere, beren garaian ondasunen erabileraz zeuden usadioak baino gehiago. Baina denetarik dago haien obretan, eta autore horiek, nahiz eta esaten zutenaren egitasun eta publikotasunagatik bakarrik izan sinesgarri, ez dago zalantzan jartzerik balio handikoak izan zirela gure zuzenbide frantsesa berpizteko. Halakoxea zen garai hartan gure ohitura-zuzenbide idatzia.

Hona hemen garai handia. Karlos VII.ak eta ondorengoek idatziz jarrazti zituzten, erresuma osoan, ohitura lokalak, eta haiek idazterakoan gorde beharreko formaltasunak ezarri zituzten. Alabaina, idazkuntza hori probintziak egin zenez, eta jaurerri bakoitzetik probintziaren batzar nagusira etorri ohi zirenez leku bakoitzeko usadio idatziak zein idatzi gabeak lagatzera, ohiturak orokortzen saiatu ziren, hori partikularren interesen kaltetan ez zen heinean, hauek ere babes-tu egin baitziren<sup>378</sup>. Beraz, gure ohiturek hiru ezaugarri hartu zituzten: idatzita jarri ziren, orokorrago bihurtu ziren, erregeren autoritatearen zigor jaso zuten.

Ohitura haietako batzuk berriro idatzi zirenean, zenbait aldaketa egin ziren, dela garaiko jurisprudentziarekin bat ez zetorren guztia kenduz, dela jurisprudentzia hartatik hartutako zenbait gauza erantsiz.

Nahiz eta gure artean ohiturazko zuzenbidea erromatar zuzenbidearen kontrakotzat hartu ohi den, hala non bi zuzenbideok lurraldeak bereizten baitituzte, egia da, hala ere, erromatar zuzenbidearen hainbat xedapen gure ohituretan sartu zirela, batez ere idazketa berriak egin zirenean, hain urruti ere ez ditugun garaietan: zuzenbide hori enplegu zibiletan aritzen ziren guztiek ezagutzen zuten garaietan; jakin behar dena ez jakiteaz eta jakin behar ez dena jakiteaz harrotzen ez ziren garaietan; jeinu azkarrak, lanbidean jarduteko baino gehiago, lanbidea ikasteko balio zuen garaian; eta dibertsio etengabeak ezta emakumeen kontua ere ez ziren garaian.

Liburu honen azkenean gehiago luzatu beharko nukeen; eta xehetasun gehiagotan sartuta, apelazioak sortu zirenetik, gure juris-



prudentzia frantsesaren gorputz handia eratu duten aldaketa ia ohar-  
kabe guztien berri eman beharko nituzkeen. Baina obra handi baten  
barruan obra handi bat paratuko nukeen horrela. Ni antigoaleko gau-  
zen saltzaile hura bezalakoa naiz: abiatu zen bere herrialdetik, iritsi  
zen Egiptora, eman zien begirada bat piramideei, eta itzuli egin zen<sup>379</sup>.



# HOGETA BDERATZIGARREN LIBURUA

## Legeak egiteko eraz

### I

#### *Legegilearen espirituaz*

Hauxe diot, eta iruditzen zait hauxe frogatzeko bestetarako ez dudala idatzi obra hau: urritasun-espirituak legegilearena izan behar du; on politikoa, on morala bezala, bi mugaren artean dago beti. Eta hona hemen adibide bat.

Justiziaren formalitateak beharrezkoak zaizkio askatasunari. Baina horien kopurua hain izan liteke handia non beroriek ezarri dituzten legeen helburuaren kontra joango bailitzateke: auziak amaiezinak lirateke; ondasunen jabetza ez litzateke segurua; alderdi bati bestearen ondasunak emango litzaizkioke, azterketarik gabe, edo biak hondatuko lirateke aztertzearen poderioz.

Hiritarrek askatasuna eta segurantzaz galduko lituzkete, salatzailak ez lukete konbentzitzeko bitartekorik, ez eta salatuek ere beren burua zuritzekorik.

### II

#### *Gai beraren jarraipena*

Zezipilio, Aulo Gelioren obran<sup>380</sup>, Hamabi Tauletako lege batez ari dela —hartzekodunari ordaintzerik ez zeukan zorduna zehatzeko

bidea ematen zionaz—, bere izugarrikeriagatik beragatik justifikatzen du, nork bere ahala baino gehiago mailegutuan hartzea galarazten baitzuen<sup>381</sup>. Hortaz, legerik ankerrenak ote dira onenak? Ona gehiegikeria ote da, eta gauzen erlazio guztiak suntsitu egingo ote dira?

### III

*Lege gilearen asmoetatik ustez urruntzen diren legeak harekin bat  
etorri ohi direla maiz*

Solonen lege bat —sedizio batean alderdirik hartzen ez zutenak izengabe deklaritzen zituen— harrigarria iruditu izan zaie denei; baina Grezia garai hartan zein egoeratan zegoen erreparatu behar da. Hiru estatu oso txikitik banatuta zegoen; beldur izatekoa zen ezen, liskar zibilez jositako errepublika batean, zuhurrenek bizitza publikotik erretiratu egingo zirela, eta hartara gauzak gehiegikeriaraino iritsiko zirela.

Estatu txiki haietan gertatzen ziren sedizioetan, hiritarren gehienak liskarrean sartzen ziren, edota liskarra sortzen zuten. Gure monarkia handietan, alderdiak jende gutxiz osatuta daude, eta herriak ezer egin gabe bizi nahi luke. Kasu honetan, albarazaleak hiritarren gehiengora erakartzea da bidezkoena, ez hiritarren gehiengoa albarazaleengana; bestean, berriz, pertsona zuhur eta lasai urriak albarazaleen artera sartu beharra dago; izan ere, halaxe geraraz daiteke likore baten hartzidura ere, beste baten tanta bakar batez.

### IV

*Lege gilearen asmoen kontra doazen legeez*

Lege batzuk hain gutxi pentsatu ditu legegileak, non haren asmoaren kontra baitoaz. Frantziarren artean, eliz opide bat eskuratu nahi zuten bietako bat hilez gero ondasuna bestearena izan dadila ezarri dutenek, auziak ezereztu nahi izan dituzte ezbairik gabe. Baina

kontrako ondorioa ateratzen da hortik: ikus daiteke nola borrokatzen diren eta elkarri erasotzen dioten elizgizonek, dogo ingelesek bezala, heriotza arte.

## V

### *Gai beraren jarraipena*

Hizpide izango dudan legea Eskinesen bidez iritsi zaigun zinegite honetan dago<sup>382</sup>: «Zin egiten dut inoiz ez dudala suntsituko anfiktioien hiririk, eta ez dudala desbideratuko haien ur-korronterik; inork horrelakorik egin baleza, gerra deklaratuko diot, eta hiriak suntsituko dizkiot». Lege horren azken atala, lehena berresten duela badirudi ere, haren kontra dago, egon. Anfiktioneek hiri grekoak ez suntsitzea nahi zuen, baina lege horrek bidea irekitzen dio hiri horien suntsiketari. Greziarren artean Jende Zuzenbide ona ezartzeko, pentsarazi behar zitzairen izugarrikeria zela hiri grekoa suntsitzea; beraz, zuzenbide horrek ez zituen suntsitzaileak berak ere suntsitu behar. Anfiktionen legea bidezkoa zen, baina ez zen zuhurra. Nolako desmasiaz erabili zen ikustean, frogatuta geratzen da hori. Filipok ez al zuen beretzat hartu hiriak suntsitzeko ahalmena, hiriak greziarren legeak hautsi zituztelako aitzakiaz? Anfiktioneek bazeukan beste zigor batzuk ezartzeara: esate baterako, hiri suntsitzaileko zenbait magistraturi, edo armada suntsitzaileko buruzagi batzuei, heriotza-zigorra emateko agintzea; herri suntsitzaileak aldi batez greziarren pribilegioak gal zitzala; isun bat ordain zezala hiria berreraiki arte. Legeak okerra zuzentzeari begiratu behar zion batez ere.

## VI

### *Berdinak diruditen legeek ez dutela beti ondorio berbera izaten*

Zesarrek<sup>383</sup> debekatu egin zuen etxean hirurogei sestertzio baino gehiago gordetzea. Lege hura oso egokitzen jo zen Erroman zordunak

eta hartzekodunak adosteko, zeren eta, aberatsak pobreei mailegutan uztera behartzean, hauek haiei ordaintzeko moduan jartzen baitzituen. Frantzian, Sistemaren garaian egindako lege bat oso kaltegarria izan zen, egin zeneko inguruabarrak beldurgarriak zirelako. Dirua kokatzeko bitarteko guztiak kendu ondoren, norberaren etxean gordetzeko aukera bera ere kendu zen, eta hori indarrez egindako lapurreta baten parekoa zen. Zesarrek dirua herritarren artean ibil zedin egin zuen bere legea; Frantziako ministroak, ordea, dirua esku bakarrean jartzeko egin zuen berea. Lehenak lur-funtsak eman zituen diruaren truke, edo partikularren zamarako hipotekak; bigarrenak, berriz, baliorik ez zuten gauzak proposatu zituen diruaren truke, berez baliorik eduki ezin zutenak, haren legeak behartu egiten baitzuen haiek hartzera.

## VII

*Gai beraren jarraipena. Legeak ondo egiteko premia*

Ostrazismoaren legea Atenasen, Argosen eta Sirakusan jarri zen indarrean<sup>384</sup>. Sirakusan mila kalte egin zituen, zuhurtziarik gabe egin zelako. Hiritar lehenek elkar erbesteratzen zuten, eskuan pikondo-hosto bat hartuta<sup>385</sup>, eta, ondorioz, merezimenduren bat zutenek arazo publikoak utzi zituzten. Atenasen, han legegileak ikusiak baitzituen legeari eman beharreko hedadura eta mugak, ostrazismoa gauza miresgarria izan zen: pertsona bakar bati ezartzen zitzaion; hainbeste boto behar ziren, non zaila baitzen kanporatu behar ez zen inor erbesteratzea.

Bost urtez behin baino ezin zen inor erbesteratu; izan ere, ostrazismoa herrikideak ikaratzen zituen pertsonaia handi baten kontra baizik erabili ezin zenez, ez zen eguneroko kontua.

## VIII

*Berdinak diruditen legeek ez dutela beti zio berbera izan*

Frantzian onartu egiten dira erromatarrek ordezkapenez egin ia lege guztiak, baina ordezkapenek erromatarren artean zutenaren guztiz bestelako zioa dute. Erroman, oinordekotza oinordekoak egin

beharreko zenbait sakrifiziori lotuta zihoan, eta pontifizeen zuzenbideak arautzen zituen sakrifiziook<sup>385</sup>. Ondorioz, desohoretzat hartzen zuten oinordekorik gabe hiltzea, esklaboak hartu zituzten oinordekotzat, eta ordezkapenak asmatu zituzten. Horren froga handia ordezkapen arrunta da, asmatu zen lehena eta izendatutako oinordekoak oinordekotza onartzen ez zuenean bakarrik gertatzen zena. Helburua ez zen oinordekotza izen bereko familia batean betierekotzea, baizik eta oinordekotza onartuko zuen norbait aurkitzea.

## IX

*Lege grekoek eta erromatarrek zio berbera izan gabe zigortu dutela  
suizidioa*

Platonek dioenez<sup>387</sup>, gizon batek bere oso hurbileko norbait —hots, bere burua— hil badu, ez magistratuaren aginduz, ez eta desohorea saihesteko ere, baizik eta ahuleziaz, zigortua izango da. Lege erromatarrek zigortu egiten zuen ekintza hori, ez arimaren ahuleziagatik, ez bizitzaz aspertuta egoteagatik, ez oinazea eraman ezinagatik, baizik eta delituren batek eragindako desesperazioagatik egiten zenean. Lege erromatarrek barkatu egiten zuen grekoak kondenatzen zuen kasuan, eta kondenatu egiten zuen besteak barkatzen zuen kasuan.

Platonen legea instituzio lazedemoniarren gainean eratua zen, non magistratuaren aginduak erabatekoak baitziren, non desohorea zorigaitzik handiena baitzen, eta ahulezia deliturik handiena. Erromatar legeak aldebat uzten zituen ideia eder horiek guztiak; lege fiskal hutsa zen.

Errepublika garaian, Erroman ez zen beren burua hiltzen zutenak zigortzen zituen legerik; ekintza hori, historialarien obretan, onetsi egiten da, eta inoiz ez da ageri halakorik egin zutenen kontrako zigorririk.

Lehen enperadoreen garaian, epaiketek etengabe sakailatu zituzten Erromako familia handiak. Beraz, nork bere burua hilez kondenari aurea hartzeko ohitura zabaldu zen. Abantaila handi bat aurkitzen zitzaion horri. Hilobiaren ohorea lortzen zen, eta testamen-

tuak betearazi egiten ziren<sup>388</sup>; hori Erroman beren burua hiltzen zutenentzat lege zibilik ez zegoelako zen horrela. Baina enperadoreak lehenago ankerrak bezain zikoitz bihurtu zirenean, ez zieten utzi, baztertu nahi zituztenei, beren ondasunak kontserbatzen, eta beste delitu baten damuagatik norberaren buruaz beste egitea delitua zela deklaratu zuten.

Enperadoreen motiboaz diodana hain da egia, non onartu egin baitzuten beren buruaz beste egindakoen ondasunak<sup>389</sup> ez konfiskatzea, heriotza eragin zien delituari konfiskaziorik ez zegokionean.

## X

*Elkarren aurkako diruditen legeak maiz espiritu beretik  
sortzen direla*

Gaur egun, gizon baten etxera joan ohi dira epaiketara deitze-ra; hori ez zegoen egiterik erromatarren artean<sup>390</sup>.

Epaiketara deitzea ekintza bortitza zen<sup>391</sup>, atxitzea bezalakoa<sup>392</sup>, eta ez zegoen gizon baten etxera joaterik epaiketara deitzera, egun ere norbaiten etxera hura atxilotzera joaterik ez dagoen bezala, zor zibilak dituela-eta.

Erromatar legeek<sup>393</sup> eta gurek onartzen dute printzipio hau, hiritar bakoitzak babesleku duela bere etxea, eta han ez duela inolako bortizkeriarik jasan behar.

## XI

*Nola konpara daitezkeen bi lege desberdin*

Frantzian, lekuko faltsuen kontrako zigorra larria da; Ingalaterran, ordea, ez. Bi lege horietan hoberena zein den epaitzeko, haxe erantsi behar da: Frantzian, tortura erabiltzen da delitugileen aurka, eta Ingalaterran ez; eta beste haxe ere erantsi behar da:



Frantzian, akusatuak ez ditu ekartzen bere lekukoak, eta oso arraroa da egintza justifikatzaileak deritzenak onartzea; Ingalaterran, berriz, alde bateko eta besteko lekukoak onartzen dira. Hiru lege frantsesek sistema oso lotu eta oso bateratua osatzen dute; hiru lege ingelesek ere beste hainbeste. Ingalaterrako legeak, ez baitu ezagutzen delitugileen kontrako torturarik, itxaropen gutxi du akusatuari bere delituaren aitorpena ateratzeko; beraz, besteen lekukotzak bilatzen ditu alde guztietatik, eta ez da ausartzen haiek heriotza-zigorraren bidez adoregabetzen. Lege frantsesak, baliabide bat gehiago baitu, ez du lekukoak izutzeko erreparorik; aitzitik, arrazoiak agintzen du haiek izutzea; alderdi bateko lekukoei aditzen die bakarrik<sup>394</sup>; alderdi publikoak aurkezten dituenei; eta akusatuaren patua bere lekukotzaren mende dago bakarrik. Baina Ingalaterran bi alderdietako lekukoak onartzen dira, eta auzia, nolabait esan, haien artean eztabaidatzen da. Testigantza faltsua, hortaz, ez da hain arriskutsua han; akusatuak baliabide bat du testigantza faltsuaren kontra; lege frantsesak, aldiz, ez du halakorik. Hortaz, lege horietako zein den arrazoizkoago erabakitzeko, ez da konparatu behar lege bat beste batekin; denak batera hartu behar dira, eta denak batera konparatu.

## XII

*Berdinak diruditen legeak batzuetan desberdinak izaten direla, izan*

Lege grekoek eta erromatarrek zigortu egiten zituzten bai lapurreta estaltzen zuena eta bai lapurra bera<sup>395</sup>; gauza bera egiten du lege frantsesak. Haiek arrazoizkoak ziren; hau, berriz, ez. Greziarren eta erromatarren artean, lapurrari diru-zigorra ezartzen ziotenez, zigor berbera ezarri beharra zegoen estaltzaileari; izan ere, kalteren bat egitean nola edo hala parte duen edonork, lagundu egin behar du haren ordaina ematen. Baina gure artean, lapurretaren zigorra larria denez, ezin izan da zigortu estaltzailea lapurra bezala, gauzak aldrebestuko ez baziren. Lapurretaren etekina jasotzen duenak ezjakinean jaso dezake mila kasutan; lapurra, ordea, beti da errudun; bata, jadanik egindako delitu bat frogatzea galarazten du; besteak egin egiten du delitu hori; batengan dena da pasiboa, eta besteagan ekintza bat da;

lapurrak eragozpen gehiago gainditu behar ditu, eta haren arima denbora luzeagoan jarkitzen zaie legeei.

Juriskontsultuak harantzago iritsi dira: estaltzailea lapurra baino gorrotagarriagotzat jo dute<sup>396</sup>; izan ere, hura gabe, diote, lapurreta ezin ezkutatuko zen denbora luzean. Hori, esan dezagun berriz ere, ona bide zen zigorra diruzkoa zenean; kaltea zegoen, eta estaltzailea gauza izan ohi zen haren ordainak emateko; baina zigorra larri bihurtu ondoren, beste printzipio batzuen arabera jokatu beharra zegokeen.

### XIII

*Ez direla bereizi behar legeak eta beren zertarakoa. Lapurretari buruzko lege erromatarrak*

Lapurra lapurtutakoa ezkutalekura eraman baino lehen harrapatzen zutenean, horri ageriko lapurreta deitzen zioten erromatarrek; geroago harrapatzen zutenean, ez-ageriko lapurreta zen hura.

Hamabi Tauletako legeak ageriko lapurra zigorkatzea agintzen zuen, eta joputzan jartzea, puber bazen; edota zigorkatzea besterik ez, puber ez bazen. Ez-ageriko lapurra, lapurtutako gauzaren bikoitza ordaintzera kondenatzen zuen bakarrik.

Lege Portziarrak hiritarrak zigorkatzeko eta jopu bihurtzeko usadioa ezabatu zuenean, ageriko lapurra lau aldiz gehiago ordaintzera zigortu zuten<sup>397</sup>, eta lapur ez-agerikoa lapurtutakoaren bi halako ordaintzera zigortzen segitu zuten.

Harrigarria dirudi lege horiek halako aldea ezartzea bi delitu horien artean eta ematen zieten zigorrean; hain zuzen, lapurra lapurtutakoa berak nahi zuen lekura eraman aurretik edo ondoren harrapatua izateak ez zuen ezertan aldatzen delituaren izaera. Ez daukat bate-re zalantzarik erromatar legeen teoria guztia lege lazedemoniarretatik aterata dagoela. Likurgok, bere hirikideak trebe, zuhur eta ekile izan zitezen, haurrak lapurretan iaioitzeko eta harrapatzen zituztenak gogor zigorkatzeko agindu zuen; ondorioz, greziarrek —eta geroago erromatarrek— garbi bereizi zituzten lapurreta agerikoa eta ez-agerikoa<sup>398</sup>.

Erromatarren artean, lapurretan egiten zuen esklaboa Tarpeiar haitzetik botatzen zuten. Han instituzio lazedemoniarrek ez zuten zereginik; Likurgoren legeak, lapurretari buruz, ez ziren esklaboentzat eginak; haiei men egitea zen puntu horretan haietatik aldentzea.

Erroman, adin gutxiko bat lapurretan harrapatzen zutenean, pretoreak nahi adina zigorkarazten zuen, Lazedemonian bezala. Hau guztia urrunagotik zetorren. Lazedemoniarrek kretarrengandik hartuak zituzten usadio horiek, eta Platonek<sup>399</sup>, kretarren instituzioak gerrarako eginak zirela frogatu nahi duelarik, honako hau aipatzen du: «Borroka partikularretan eta ezkutatzera behartzen zuten lapurretetan oinazea jasateko gaitasuna».

Lege zibilak, gizarte batentzat eginak baitira beti, lege politikoan mende daudenez, on litzateke, lege zibil bat nazio batetik beste batera eraman nahi denean, aurrez biek instituzio berbera eta zuzenbide politiko berbera ote dituzten azter ledin.

Horregatik, lapurretari buruzko legeak kretarrengandik lazedemoniarrengana pasatu zirenean, gobernu-erarekin eta konstituzioarekin berarekin pasatu zirenez, lege haiek herri batentzat bezain zuhurrak ziren bestearentzat ere. Baina Lazedemoniatik Erromara eraman zituztenean, han konstituzio berbera aurkitu ez zutenez, arrotz gertatu ziren beti, eta ez zuten izan inolako loturarik erromatarren lege zibilekin.

## XIV

*Legeak ez direla bereizi behar eginak direneko inguruabarretatik*

Atenasko lege batek zera agintzen zuen: hiria setiatuta zegoenean, alferreko jende guztia hiltzeko<sup>400</sup>. Lege politiko ezin gaitzesgarriagoa zen, Jende Zuzenbide ezin gaitzesgarriagoaren ondorio. Greziarren artean, hartutako hiri bateko biztanleek libertate zibila galtzen zuten, eta esklabo gisa saltzen zituzten; hiri bat hartzeak erabat suntsitzea esan nahi zuen, eta hortik sortu dira, defentsa setatsuak eta ekintza basatiak ez ezik, batzuetan egiten ziren lege izugarriak.

Lege erromatarrek<sup>401</sup> sendagileak beren utzikeriagatik edo trebetasun faltagatik zigortuak izan zitezela agintzen zuten. Kasu horre-

tan, deportazioarekin zigortzen zuten sendagile goi-mailakoa, eta heriotzarekin maila apalagokoa. Gure legeen arabera, bestela da. Erromanako legeak ez ziren gureen inguruabarretan eginak: Erroman, nahi zuena aritzen zen medikuntzan; gure artean, ordea, sendagileak behartuta daude ikasketak egitera eta graduatzera eta, beraz, beren antzea ezagutzen dutela jotzen da.

## XV

### *Batzuetan on dela lege batek bere burua zuzentzea*

Hamabi Tauletako legeak onartu egiten zuen gau-lapurra hiltzea<sup>402</sup>, bai eta egunezkoa ere, ihesi zihoalarik aurka egiten bazuen; baina zera agintzen zuen, lapurra hiltzen zuenak oihu egitea eta hiritarrei dei egitea<sup>403</sup>; eta hori beti exijitu behar dute nork bere justizia egitea onartzen duten legeek. Errugabetasunaren oihua da, ekintzaren unean, lekukoei, epaileei dei egiten diena. Herriak ekintzaren berri izan behar du, eta burutzen den unean bertan gainera; dena mintzatzen den unean: airea, aurpegia, grinak, isiltasuna..., eta hitz bakoitzak kondenatzen edo justifikatzen duen unean. Hiritarren segurantzaren eta askatasunaren hain kontrako bihur daitekeen legea hiritarren aurrean egikaritu behar da.

## XVI

### *Legeak egiterakoan kontuan hartu behar diren gauzak*

Beren nazioari edo beste bati legeak emateko adinako azkartasuna dutenek zenbait gauza izan behar dituzte kontuan haiek eratzeko moduaz.

Estiloak zehatza izan behar du. Hamabi Tauletako legeak zehaztasun-eredu dira: haurrek buruz ikasten zituzten<sup>404</sup>. Justiniano-ren *Novelak* hain dira zehaztugabeak, non laburtu egin behar izan baitziren<sup>405</sup>.

Legeen estiloak sinplea izan behar du; adierazpen zuzena adierazpen bihurria baino hobeto ulertzen da beti. Ez da handitasunik Behe Inperioko legeetan; printzei erretorikoen gisan hitz eginarazten zaie. Legeen estiloa puztua bada, arrandiazko lan gisa hartu ohi dira bakarrik.

Ezinbestekoa da legeen hitzek ideia berberak piztea gizon guztien gain. Richelieu kardinalak zioen bazegoela ministro bat erregearen aurrean salatzea<sup>406</sup>, baina salatzaila zigortua izan zedila nahi zuen, baldin eta frogatzen zituen gauzak aintzakotzat hartzeko modukoak ez baziren, eta horrek mundu guztia atzerarazten zuen beraren kontra edozein egia esatetik, aintzakotzat hartzeko modukoa oso gauza erlatiboa baita; izan ere, norbaitentzat aintzakotzat hartzeko modukoa dena, beste batentzat agian ez.

Honorioren legeak heriotza-zigorra ezartzen zuen jaregin bat jopu gisa erosten edo artekatzen zuenari<sup>407</sup>. Ez zatekeen hain adierazpide lausoa erabili beharko: gizon bati eragiten zaion artegatasuna haren sentiberatasunaren arabera izaten da.

Legeak zerbait finkatuta utzi behar duenean, saihestu egin behar da, ahal den neurrian, diru-prezioa ezartzea. Mila gauzak aldatzen dute diruaren balioa; eta izen berarekin ez da gauza bera izendatzen. Ezaguna da Erromako lotsagabe haren istorioa<sup>408</sup>: zaplatekoa ematen zien aurrean aurkitzen zituen guztiei, eta gero Hamabi Tauletako hogeita bost sosak ematen zizkien.

Lege batean gauzen ideiak ondo finkatu direnean, ez dago adierazpen lausoetara jo beharrik. Luis XIV.aren ordenantza kriminalean<sup>409</sup>, errege-kasuen zerrenda zehatza egin ondoren, hitz hauek eranstean dira: «Eta errege-epaileek beti epaitu izan dituzten gauzak»; horrela, arbitrariotasunetik atera berriak ginelarik, berriz ere bertara sartzen gara.

Karlos VII.ak<sup>410</sup> dio jakin duela alderdiek juizioa izatetik hiru, lau eta sei hilabetera apelatzen dutela, erresumako ohituraren kontra, aztaren arabera gobernatutako herrialdean; berehala apelatzea agintzen du, salbu eta prokuradorearen iruzurra edo atzipea bada<sup>411</sup>, edota apelatzaila aldatzeko arrazoi handi eta nabarmenen bat bada. Lege horren azkenak hasiera desegiten du; eta hain ondo desegin ere, non, handik hara, hogeita hamar urte igaro ondoren ere apelatu baitzen<sup>412</sup>.

Lonbardiarren legeak debekatu egiten du lekaime-jantzia hartu duen emakumea, nahiz eta botoak egina ez izan, ezkondu ahal izatea<sup>413</sup>; «izan ere», dio lege horrek, «baldin eta senar batek, emakume bat eratzun huts batez berekin lotuz gero, ez badauka beste batekin ezkontzerik, are arrazoi gehiagoz Jainkoaren edo Ama Birjina santuaren esposak...». Nik diot legeetan errealitatea errealitatearekin konparatuz arrazoitu behar dela, ez errealitatea irudiarekin, edo irudia errealitatearekin.

Konstantinoren lege batek dio apezpikuaren testigantza, besterik gabe, beste lekukorik aditu gabe aski dela<sup>414</sup>. Printze hark oso bide laburra hartu zuen: auziak pertsonen arabera epaitzen zituen, eta pertsonak karguaren arabera.

Legeek ez dute izan behar sotil-bihurriak; adimen kaxkarreko jendearentzat eginak dira; ez dira logika-antze bat, baizik eta familia-buru sinple baten arrazoia.

Lege batean, salbuespenak, mugak, aldaketak, beharrezko ez direnean, askoz hobe da horrelakorik ez jartzea. Horrelako xehetasunek beste xehetasun batzuetara eramaten baitute.

Lege batean ez da aldaketarik egin behar horretarako arrazoiarik ez bada. Justinianok agindu zuen emazteak senarra zaputuz zezakeela horregatik dotea galdu gabe, baldin eta bi urtez ezkontza kontsumatu ezin izan bazuen<sup>415</sup>. Aldatu egin zuen bere legea, eta hiru urte eman zizkion zorigaitzekoari<sup>416</sup>. Baina horrelako kasu batean, berdin dio bi urte edo hiru izatea, hiru urte ez dira bi baino gehiago.

Lege baten arrazoia ematen denean, arrazoi horrek legearen mailakoa izan behar du. Erromatar lege batek erabakitzen du itsu batek ez daukala auzitara jotzerik, ez dituelako magistratuen ornamentuak ikusten<sup>417</sup>. Berariaz ere ezin daiteke hain arrazoi eskasa eman, hainbeste on izanda.

Paulo juriskontsultuak dio haurra betegina jaiotzen dela zazpi-garren hilabetean, eta Pitagorasen zenbakien arrazoiak frogatzen duela hori<sup>418</sup>. Gauza bitxia horrelakoez Pitagorasen zenbakien bidez juzgatzea.

Zenbait juriskontsultu frantsesek esan dutenez, erregeak herrialderen bat bereganatzen zuenean, elizak erregalia-eskubideen mende geratzen ziren, erregearen koroa biribila delako. Ez ditut ezta-

baidatuko hemen erregearen eskubideak, eta kasu honetan lege zibil edo elizakoaren arrazoiak lege politikoaren arrazoiari eman behar ote dion lehentasuna, baina zera esango dut, hain eskubide errespetagarriak arau serioen bidez defendatu behar direla. Noiz ikusi da dignitate baten ikurraren irudiaren gainean oinarritzea dignitate horren eskubide errealak?

Dávilak dio<sup>419</sup> Karlos IX.a hamalau urte bete baino lehen egin zutela adinez nagusi Rouengo parlamentuan, legeek denbora unetik unera zenba zedin agintzen zutelako tutorepekoaren ondasunak itzultzeari eta administratzeari zegokionez; aldiz, hasitako urtea betetako urtetzat hartzen du ohoreak eskuratzeari dagokionez. Ez dut orain arte eragozpenik izan ez duen xedapen bat auzitan jartzeko asmorik; hauxe esango dut bakarrik, L'Hôpital-eko kantzilerrak emandako arrazoa ez dela egia: herrien gobernua ez da ohore hutsa, ezta hurrik eman ere.

Presuntzio-kontuetan, legearenak gizonarenak baino gehiago balio du. Lege frantsesek<sup>420</sup> iruzurtzat jotzen dute merkatari batek bankarrota egin aurretiko hamar egunetan egindako guztia; horra legearen presuntzioa. Erromatar legeak zigortu egiten zuen adulterioaren ondoren emaztea berekin gordetzen zuen senarra, salbu eta erabaki hori auziren baten beldurrez edo bere lotsaren axolarik ezaz hartu bazuen; horra gizonaren presuntzioa. Epaileak senarraren jokabidearen motiboa akasmatu eta batere argia ez zen pentsabide batez erabaki behar zuen. Epaileak usteetara jotzen duenean, epaiketak arbitrario bihurtzen dira; legeak usteetara jotzen duenean, lege finkoa ematen dio epaileari.

Platonen legeak<sup>421</sup>, esan dudanez, zigorra ezartzen zion bere burua lotsa saihesteko ez baina ahuleziaz hiltzen zuenari. Lege hori akastuna zen; izan ere, delitugileagandik bere ekintzaren motiboaren aitorpena jasotzerik ez zegoen kasu bakarrean, epaileak motibo horiez erabaki zezala eskatzen baitzuen.

Lege alferrekoek lege beharrezkoak ahultzen dituzten bezala, itzuri egin dakiekeen legeek legeria ahultzen dute. Lege batek bere ondorioa izan behar du, eta ezin da onartu lege bat abeniko partikularrez indargabetzea.

Falzidiar Legeak zera agintzen zuen erromatarren artean, oinordekoak oinordekotzaren laurdena izan zezala beti, eta beste lege batek<sup>422</sup> bide ematen zion testamentugileari laurden hori oinordekoak

beretzat hartzea debekatzeko: hori legeei barre egitea da. Falzidiar Legea alferreko bihurtzen zen; izan ere, testamentugileak oinordekoaren alde jokatu nahi bazuen, honek ez zeukan Falzidiar Legearen beharrik; eta haren alde egin nahi ez bazuen, Falzidiar Legeaz baliatzea debekatzen zion.

Kontu izan behar da legeak gauzen berezko izatearen kontra ez egiteko. Orangeo printzearen proskripzioan, Felipe II.ak agindu zion hura edo haren oinordekoak hiltzen zuenari hogeita bost mila ezkutu eta nobletasuna emango dizkiola; eta hori erregearen hitz gisa, eta Jainkoaren zerbitzari gisa. Halako ekintza batengatik, zer eta nobletasuna agindu! Halako ekintza bat Jainkoaren zerbitzari gisa agindu! Horrek guztiak itzulipurdikatu egiten ditu ohorearen ideiak, moralarenak eta erlijioarenak.

Oso gutxitan debekatu behar izaten da txarra ez den gauza bat, ustezko perfekzio baten aitzakiaz.

Legeetan halako xalotasun bat behar da. Gizonen gaiztotasuna zigortzeko eginak izaki, inozentziarik handiena behar dute beren baitan. Bisigodoen legean<sup>423</sup> eskaera irrigarri bat ikus daiteke, zeinen bidez dena txerrikiz maneatuta jatera behartzen baitzituzten judutarrrak, txerrikia bera jan ez zezaten. Ankerkeria galanta zen hura; beren legearen kontrako lege baten mende jarri zituzten; eta beren legetik, beraiek agerian uzteko balio zuen huraxe besterik ez zitzaien uzten.

## XVII

### *Legeak emateko modu gaiztoa*

Enperadore erromatarrek, gure printzeek bezala, dekretu eta ediktuen bidez adierazten zuten beren borondatea, baina —gure printzeek egiten ez dutena— haiek onartu egiten zuten epaileek edo partikularrek beren gorabeheretan galderak egitea gutunenez; eta haien erantzunei erreskriptu deitzen zitzaien. Aita santuen dekretalak, zehatz esanda, erreskriptuak dira. Bistan da legegintza-modu eskasa dela hori. Halako legeak eskatzen dituztenak gidari txarrak dira lege-gilearentzat, egintzak gaizki azaltzen baitira beti. Trajanok, dio Julio Kapitolinok<sup>424</sup>, maiz ukatu zuen halako erreskriptuak ematea, kasu



guztietan erabaki bat, eta maiz fabore partikular bat zela uler ez zedin. Makrinok erreskriptu horiek guztiak indargabetzea zeukan erabakita<sup>425</sup>; ezin zuen jasan Komodoren, Karakalaren eta trakeskeriaz betetako beste enperadore guztien erantzunak legetzat har zitezen. Justinianok bestela pentsatzen zuen, eta bere bilduman sartu zituen.

Nahi nuke lege erromatarrek irakurtzen dituztenek ondo bereiztea batetik hipotesi moduko horiek eta bestetik senatu-kontsultuak, plebiszitoak, enperadoreen konstituzio nagusiak eta gauzen izaeran, emakumeen hauskortasunean, adinez txikien ahulezian eta baliagarritasun publikoan oinarritutako lege guztiak.

## XVIII

### *Batera-nahiaz*

Batera-nahiak batzuetan harrapatzen ditu espiritu handiak ere (izan ere, Karlomagno bera ere harrapatu baitzuen), baina beti harrapatzen ditu espiritu txikiak. Hauek ezaguna egiten zaien betegintzarre moduko bat aurkitzen dute hartan, ezinezkoa baita halakorik ez aurkitzea: pisu berberak gobernuan, neurri berberak merkataritzan, lege berberak Estatuan, erlijio berbera eskualde guztietan. Baina hori egokia al da beti, salbuespenik gabe? Aldatzearen gaitza jasatearen gaitza baino txikiagoa al da beti? Eta jeinuaren handitasuna ez ote legoke horixe jakitean, alegia zein kasutan behar den uniformetasuna, eta zein kasutan behar diren desberdintasunak? Txinan, txinatarrak zere monial txinatarraren arabera daude gobernatuta, eta tartariarrak zere monial tartariarraren arabera; hala eta guztiz ere, ez da munduan lasaitasuna herri hark bezainbat maite duenik. Hiritarrak legeei jarraitzen zaizkienean, zer axola dio lege berberari edo desberdinei jarraitzea?

## XIX

### *Lege gileez*

Aristotelesek Platonen kontrako jelosia eta Alexandrorengana -ko atxikimendua ase nahi zituen. Platon suminduta zegoen Atenasko

herriaren tiraniaren kontra. Makiavelo bere idoloaz beteta zegoen: Valentinoisko dukeaz. Thomas Morek, pentsatua zuenaz baino gehiago, irakurria zuenaz hitz egiten baitzuen, hiri greziar bateko sinpletasunaz gobernatu nahi zituen estatu guztiak<sup>426</sup>. Harringtonek Ingalaterrako errepublika besterik ez zuen ikusten; idazle-aldra batek, aldiz, desordena aurkitzen zuen koroarik ikusten ez zuen leku guztietan. Legeek legegilearen grina eta aurreiritziekin egiten dute beti topo. Batzuetan zeharka pasatzen dituzte, eta haietaz tindatzen dira; beste batzuetan geratu egiten dira bertan, eta bere egiten dituzte.

# HOGEITA HAMARGARREN LIBURUA

Frankoen Lege feudalen teoria, monarkia  
ezartzearekin duten zerikusiaren aldetik

## I

### *Lege feudalez*

Nire obran akats bat dagoela pentsatuko nuke, baldin eta isilik utziko banu munduan behin gertaturiko gauza bat, behar bada berriro inoiz gertatuko ez dena: baldin eta halako batean Europa osoan agertu ziren eta ordura arte ezagunak zirenekin inolako zerikusirik ez zuten legeez hitz egingo ez banu. Lege horiek on eta kalte amaigabeak egin zituzten; nagusitasuna galdu eta gero eskubideak utzi zituzten; hainbat pertsonari gauza batez edo pertsona batzuez jabetza-mota desberdinak eman zizkieten, eta jauntasun osoaren pisua gutxitu zuten; inperio hedatuegietan mugak ezarri zituzten; anarkiarako joerarekin batera, araua sortu zuten, bai eta anarkia ere, ordenarako eta armoniarako joerarekin batera.

Horrek, ordea, beste obra bat eskatuko luke, baina honako honen izaera ikusirik, lege horiek nik ikusi ditudan bezala aurkituko dira hemen, nik aztertu ditudan bezala baino areago.

Ikuskizun ederra da lege feudalena. Haritz zahar bat dago zutik<sup>427</sup>; gure begiek hostoak ikusten dituzte urrunetik; hurbiltzean, enborra ikusten dute, baina ez sustraiak; lurra zulatu beharra dago haiek aurkitzeko.

## II

### *Lege feudalen jatorriaz*

Inperio erromatarra konkistatu zuten herriak Germaniatik atera ziren. Nahiz eta oso autore zahar gutxik deskribatu haien ohiturak, baditugu bi, oso pisu handikoak. Zesarrek, germaniarrekin gerran ari zelarik, germaniarren ohiturak deskribatu zituen<sup>428</sup>; eta ohitura horien gainean arautu zituen bere ekimen batzuk<sup>429</sup>. Zesarren orrialde batzuek, gai honi buruz, liburu osoen balioa dute.

Tazitok lan bat idatzi zuen germaniarren ohiturei buruz bereziki. Lan laburra da, baina Tazitoren lana da: dena laburtzen zuen, dena ikusten zuelako.

Autore bi horiek hain datoz bat ezagutzen ditugun herri barbaroen legeen kodeekin, non Zesar eta Tazito irakurriz nonahi aurkitzen baitira kode horiek, eta kode horiek irakurriz nonahi aurkitzen baitira Zesar eta Tazito.

Lege feudalen ikerketan labirintu ilun, zidorrez eta itzulinguruz bete batean banago ere, uste dut eusten diodala hari-muturrari, eta badaukadala aurrera egitea.

## III

### *Basailutzaren jatorria*

Honela dio Zesarrek<sup>430</sup>: «Germaniarrak ez ziren laborantzari atxikiak; gehienak esnez, gaztaz eta okelaz elikatzen ziren; inork ez zuen bere lurrik edo mugarik; nazio bakoitzeko printzeek eta magistratuek partikularrei hauek nahi zuten lur-zatia ematen zieten, eta nahi zuten lekuan, eta hurrengo urtean beste norabait joatera behartzen zituzten». Honela dio Tazitok<sup>431</sup>: «Printze bakoitzak jende-multzotz bat zuen berari atxikita, eta noranahi jarraitzen zitzaizkion». Idazle honek, bere hizkuntzan, haien egoerarekin zerikusia duen izen bat ematen die: *kideak*<sup>432</sup>. Haien artean egundoko norgehiagoka<sup>433</sup> izaten zen printzeagandik edozein ohore lortzeko, eta antzeko nor-

gehiagoka printzeen artean, beren kideen kopurua eta suhartasuna zela eta. Hauxe eransten du Tazitok: «Norberak aukeratutako gaztez inguratuta egotearen duintasuna, indarra da; apaingarria da bakegaraiari, harresia gerran. Ospetsu bihurtzen da bat bere nazioan eta inguruko herrien artean, kideen kopuruari eta ausardiari esker besteen gainetik jarritz gero; opariak jasotzen ditu; enbaxadak iristen dira alde guztietatik. Maiz ospeak erabakitzen du gerran. Borrokan, printzearentzat lotsagarria da ausardian gutxiago izatea; troparentzat lotsagarria da printzearen ausardia ez berdintzea; sekulako eta betiereko lotsa da hura hil eta norberak bizirik irautea. Ardurarik sakratuena hura defendatzea da. Hiri bat bakean bada, printzeak gerran direnetara joaten dira; horri esker gordetzen dute kide-kopuru handia. Hauek gudarako zaldia eta lantza beldurgarria hartzen dute harengandik. Otorduak, batere delikatuak ez baina handiak, halako soldata moduko bat dira haientzat. Printzeak gerrei eta lapurretei esker eusten dio bere eskuzabaltasunari. Askoz zailagoa litzateke haiei lurra lantzeko eta uzten zain geratzeko konbentzitzea, etsaiari erronka egitea eta zauriak jasotzea baino; ez dute izerdiz bereganatuko odolez lor dezaketena».

Hortaz, germaniarren artean, basailuak zeuden, baina ez feudoak. Ez zen feudorik, printzeek ez zutelako lurrik emateko; edo feudoak guda-zaldiak, armak, otorduak ziren. Basailuak zeuden, beren hitzaz lotutako gizon leialak zeudelako, gerrarako zirenak, eta gutxi gorabehera gerora feudoetan egingo zuten zerbitzu bera egiten zutenak.

## IV

### *Gai beraren jarraipena*

Honela dio Zesarrek<sup>434</sup>: «Printze horietako batek adierazten zionean batzarrari espedizio bat egiteko asmotan zela, eta jarrai ziezaioten eskatzen zuenean, eginkizuna onartzen zutenak jaiki, eta beren laguntza eskaintzen zuten. Jendeak goretsi egiten zituen. Baina beren ardura betetzen ez bazuten, denen konfiantza galtzen zuten, eta desertore eta traidore gisa hartzen zituzten».

Zesarrek hor dioena, eta guk aurreko kapituluan Tazitoren hitzez adierazi duguna, lehen dinastiaren historiaren sorburua da.

Ez dago zertan harritu erregeek espedizio bakoitzean armada berriak osatu behar izan zituztelako, beste tropa batzuk limurtu behar izaten zituztelako, jende berria erakarri behar izaten zutelako; asko eskuratzeko, asko banatu behar izaten zutelako; etengabe eskuratzen zutelako lurrak partitzearen eta lapurreten bidez, eta lurrak eta lapurtutakoak etengabe behar izaten zituztelako; haien mendekoak etengabe hazi eta urritu izaten zutelako; bere seme bati erresuma bat ematen zion aitak, altxor bat erantsi izaten ziolako<sup>435</sup>; erregearen altxorra monarkiaarentzat beharrezkotzat jotzen zelako; eta errege batek, ezta alabaren dotetarako ere, beste erregeen oniritzia gabe haien parte bat arrotzei eman ezin zielako<sup>436</sup>. Monarkiak bere jarduera zuen, beti atezuan eduki behar ziren bitartekoei esker.

## V

### *Frankoen konkistaz*

Ez da egia frankoek, Galian sartu zirenean, herrialde hartako lurrak bereganatu zituztenik feudoak egiteko. Batzuek horrela uste izan dute, ikusi dutelako bigarren dinastiaren azkenaldera ia lur guztiak feudo bihurtuta zeudela, edo azpifeudo, edo honen edo haren mendeko; baina horrek bere kausak izan zituen, eta aurrerago azalduko ditugu.

Atera nahi litzatekeen ondorioa, alegia, barbaroek araudi orokorra egin zutela glebako joputza nonahi ezartzeko, ondorio-aurrekoa bezain gezurrezko da. Feudoak mugigarri ziren garaian, erresumako lur guztiak feudoak izan balira, eta erresumako gizon guztiak haien mendeko basailu edo jopu, orduan, ondasunak dituenak beti boterea izaten duenez, erregeak, beti feudoak eskuan izango lituzkeenez, hau da, jabetza bakarra, sultanak Turkian duen boterearen adinakoa izango zukeen, eta horrek hankaz gora jarriko luke historia osoa.

## VI

### *Godoez, burgundiarrez, frankoez*

Nazio germaniarrek Galiak inbaditu zituzten. Bisigodoek *Galia Narbonensis* delakoa hartu zuten, eta ia Midi osoa; burgundiarrek ekialdera begira dagoen aldean jarri ziren, eta frankoek beste guztia konkistatu zuten, gutxi gorabehera.

Zalantzarik gabe, barbaro haiek beren herritik ekarritako ohi-turak, joerak eta usadioak gordeko zituzten, nazio bat ez baita istant batean aldatzen pentsaeraz eta jokamoldez. Herri haiek, Germanian, gutxi lantzen zituzten lurrak. Tazito eta Zesarrengandik dakigunez, artzaintzan jarduten zuten batik bat; horregatik, barbaroen legeen kodeak artalde eta abere-taldeen ari dira ia guztiak. Rorikon bera, frankoen artean historia idazten bazuen ere, artzaina zen.

## VII

### *Lurrak partitzeko moduak*

Godoak eta burgundiarrek, zenbait aitzakia zirela medio, inperio barruan sartu zirelarik, erromatarrek, haien hondamenak geldiarazteko, haien bizibideaz arduratu behar izan zuten. Hasieran, garia ematen zieten<sup>437</sup>; ondoren, nahiago izan zuten lurrak ematea. Enperadoreek —edota, haien izenean, magistratu erromatarrek— hitzarmenak egin zituzten haiekin herrialdearen banaketaz<sup>438</sup>, bisigodoen<sup>439</sup> eta burgundiarren<sup>440</sup> kroniketan eta kodeetan ikus daitekeenez.

Frankoek ez zuten bide horretatik jo. Lege saliko eta erripua-rioetan ez da ageri halako lur-banaketaren inolako arrastorik. Konkistatu egin zuten, nahi zutena hartu zuten, eta beren artean baino ez zuten egin araudirik.

Bereiz ditzagun, bada, batetik, burgundiarrek eta bisigodoek Galian izandako jokaera, bisigodoek Espainian izandakoa, soldadu laguntzaileek Augustulo eta Odoakroren garaian Italian izandakoa<sup>441</sup>, eta bestetik frankoek Galietan eta bandaloek Afrikan izandakoa<sup>442</sup>.

Lehenek tratuak egin zituzten aurrez zeuden biztanleekin, eta ondorioz lurrak banatu zituzten haiekin; bigarrenek, berriz, ez zuten hala-  
korik egin.

## VIII

### *Gai beraren jarraipena*

Barbaroek erromatarren lurrak usurpatu zituztela pentsarazten duena hauxe da, bisigodoen eta burgundiarren legeetan ageri dela hauentzat lurren bi herenak zirela; baina bi heren horiek, eman zitzaizkien zenbait barrutitan hartu zituzten bakarrik.

Gondebaldok, burgundiarren legean, dio bere herriak lurren bi herenak jaso zituela kokatu zenean<sup>443</sup>; eta lege horren bigarren gehigarrian esaten da herrialdera geroago etorriko zirenei ez zitzaieli erdia baino gehiago emango<sup>444</sup>. Beraz, lurralde guztiak ez zeuden banatuta erromatarren eta burgundiarren artean.

Bi araudi horien testuetan adierazpen berdinak azaltzen dira; batak bestea argitzen du, beraz. Eta bigarrena lur-banaketa orokor gisa ulertzerik ez dagoenez, lehenari ere ez dago esanahi hori ematerik.

Frankoek burgundiarren neurritasun berdinez jokatu zuten; beren konkisten hedadura osoan ez zituzten orotaz gabetu erromatarrak. Zer egingo zuketena, bada, hainbeste lurrekin? Komeni zitzaizkienak hartu, eta besteak utzi egin zituzten.

## IX.

### *Burgundiarren legearen eta bisigodoenaren aplikazio bidezkoa, lur-banaketa*

Kontuan hartu behar da banaketa horiek ez zirela egin tirania asmoz, baizik eta herrialde berberean bizi behar zuten bi herrien premiak asetzeko.



Burgundiarren legeak dio burgundiar bakoitza gonbidatu gisa hartua izango dela erromatar baten etxean. Hori bat dator germaniarren ohiturekin; izan ere, Tazitok dioenez, munduko herririk zaleena zen inori etxean abegi on egiteko.

Legeak agintzen du burgundiarrak lurren bi herenak eta jopuen herena izan behar dituela. Lege hori bi herrien izaerari egokitzen zaio, bai eta biek bizibidea ateratzeko zuten erari ere. Burgundiarrak, artaldeak zaintzen baitzituen, lur asko eta jopu gutxi behar zituen; eta laborantzaren lan handiak behartzen zuen erromatarra lur gutxiago eta jopu gehiago izatera. Basoak erdibana zituzten, alde horretatik premiak berdinak zirelako.

Burgundiarren kodean ikusten denez<sup>445</sup>, barbaro bakoitza erromatar baten etxean finkatu zen. Beraz, banaketa ez zen orokorra izan; baina bere partea eman zuten erromatarren kopurua eta hartu zuten burgundiarrena berdinak izan ziren. Erromatarrari ahalik eta kalte gutxien egin zitzaion. Burgundiarrak, gerrari, ehiztari eta artzain baitzen, ez zion ezetzik esaten lur landugabeak hartzeari; erromatarrak, berriz, lantzeko egokienak ziren lurak gordetzen zituen; burgundiarraren artaldeek erromatarraren landa ongarritzen zuten.

## X

### *Joputzez*

Burgundiarren legean esaten da<sup>446</sup> herri horiek Galieta kokatu zirenean lurren bi herenak eta jopuen herena hartu zituztela. Glebako joputza, beraz, ezarrita zegoen jadanik Galiako parte hartan burgundiarrak sartu aurretik<sup>447</sup>.

Burgundiarren legeak, bi nazioen gainean arautuz, bereizi egiten ditu formalki, batean eta bestean, aitoren semeak, libreak eta jopuak<sup>448</sup>. Joputza ez zen, beraz, erromatarren gauza berezi bat, ez eta askatasuna eta aitoren semetza barbaroena ere.

Lege horrexek dioenez<sup>449</sup>, jaregin burgundiar batek ez bazion dirutza bat ematen nagusiari, eta ez bazuen heren bat jasotzen erromatar batengandik, bere nagusiaren familiakotzat jotzen zen.

Erromatar jabea, hortaz, librea zen, ez zegoelako beste norbaiten familian; librea zen, bere herena askatasun-adierazle zelako.

Aski da lege salikoak eta erripuarioak irekitzea, ikusteko erromatarrek ez zirela jopuago frankoekin Galiako beste konkistatzaileekin baino.

Boulainvilliersko kondeak huts egin du bere sistemaren puntu nagusian: ez du frogatu frankoek erromatarrek joputza moduko batean jartzen zituen araudi orokorra egin zutenik.

Haren obra inolako tolesik gabe idatzita dagoenez, eta jatorri zuen antzinako nobleen sinpletasunaz, zabaltasunaz eta xalotasunaz mintzatzen denez, mundu guztiak ikus ditzake bai hark esaten dituen gauza ederrak eta bai egiten dituen hutsak. Beraz, ez dut aztertuko, eta haxe besterik ez dut esango: argitasuna baino grazia gehiago zuela, jakituria baino argitasun gehiago; baina jakintza hori ez zen hutsaren hurrengoa, zeren eta oso ondo baitzekizkien gure historiaren eta gure legeen gauza nagusiak.

Boulainvilliersko kondeak eta Dubos abadeak, zeinek bere sistema egin zuten; bata hirugarren estatuaren kontrako konjurazioa dela dirudi, eta bestea nobleen kontrako konjurazioa. Eguzkiak Faetoni bere gurdia eman zionean, honela esan zion: «Goregi igotzen bazara, zeruetako etxea erreko duzu; beheregi jaisten bazara, errauts bihurtuko duzu Lurra. Ez joan eskuineregi, Sugearen konstelazioan sartuko baitzinateke; ez joan ezkerregeri, Aldarearenean sartuko baitzinateke; zaude bien artean»<sup>450</sup>.

## XI

### *Gai beraren jarraipena*

Frantzian ezin konta ahala joputza ikusi ziren hirugarren dinastiaren hasiera aldera, eta horrexek pentsarazi die hainbati bazela konkistaren garaian egindako araudi orokor bat; joputza horien aurreramendu etengabeaz inor ohartu ez zenez, pentsatu zuten garai ilun batean lege orokor bat izan zela, halakorik inoiz izan ez bazen ere.

Lehen dinastiaren hasieran ezin konta ahala gizon libre zeuden, bai frankoen artean, bai erromatarren artean; baina jopuen kopurua

hainbeste ugaritu zen, non hirugarrenaren hasieran laborari guztiak eta hirietako ia biztanle guztiak jopu bihurtuta baitzeuden<sup>451</sup>; eta lehenaren hasieran hirietan ia erromatarren artean zegoen administrazio berbera zegoen bezala —hiritarrak, senatua, justizi epaitegiak—, hirugarrenaren hasieran ia ez da jaun bat eta bere jopuak besterik ageri.

Frankoek, burgundiarrek eta godoek, beren inbasioetan, armadan eraman zitzaizkien urre, zilar, altzari, jantzi, gizon, emakume eta mutil guztiak hartzen zituzten; denen artean eramaten zen dena, eta armadak banatzen zuen gero<sup>452</sup>. Historia osoak frogatzen du lehen ezarpenaren ondoren, hau da, lehen lapurreten ondoren, biztanleak ere onartu zituztela, eta beren eskubide politiko eta zibil guztiak utzi zituztela. Horixe zen Jende-Zuzenbidea garai hartan: denaz gabetzen zen gerran, dena adosten zen bakean. Hori horrela izan ez balitz, nola aurkituko genituzkeen lege saliko eta burgundiarretan gizakien joputza orokorraren kontrako hainbeste xedapen?

Baina konkistak egin ez zuena, Jende-Zuzenbide berberak<sup>453</sup> egin zuen, konkistaren ondoren iraun egin baitzuen. Erresistentziak, erreboltak, hiriak hartzeak, horiek denek biztanleen joputza zekarten berekin. Eta, nazio konkistatzaileek beren artean egin zituzten gerrez gainera, frankoek bereizgarri bat izan zuten —alegia, anaia edo iloben arteko gerra zibil amaigabeak sorrarazi zituzten monarkiaren banaketok, zeinetan Jende Zuzenbide hori beti erabili baitzen—, joputzak beste herrialdeetan baino gehiago hedatu ziren Frantzian; eta horixe da, nire ustez, gure lege frantsesen eta Italia eta Espainiakoen artean den aldearen kausetako bat, jaunaren eskubideei dagokienez.

Konkista une bateko kontua besterik ez zen izan, eta orduan erabili zen jende-zuzenbideak zenbait joputza ekarri zituen. Zenbait mendetan jende-zuzenbide bera erabiltzeak joputzak izugarri hedatzea ekarri zuen.

Teuderikok<sup>454</sup>, Auverniako herriak leial ez zitzaizkiola uste zuelarik, haien partiketa proposatu zien frankoei: «Zatozte nirekin, nik eramango zaituztet urrea, zilarra, presoak, jantziak, abere-taldeak ugari diren herrialde batera; eta hango gizon guztiak eramango dituzue zuen herrialdera».

Gontran eta Txilperikoren arteko bakearen ondoren<sup>455</sup>, Bourges setiatzen zutenek itzultzeko agindua jaso zutelarik, hainbeste harrapa-

kin eraman zuten, non ia ez baitzuten ez gizonik ez abererik utzi herrialde hartan.

Teodoriko, Italiako erregeak, zeinen joera eta jokabide politikoa beste errege barbaroengandik bereiztea baitziren, honela idatzi zion jeneralari<sup>456</sup>, armada Galiara bidali zuenean: «Erromatar legeei jarraitzea nahi dut, eta ihes egindako esklaboak beren ugazabei itzultzea; askatasunaren defendatzaileak ez du egon behar joputzari ihes egitearen alde. Beste erregeei laket dakiela hartutako hirien harrapaketa eta suntsipena; guk, mendeen hartzen ditugunak gure sujet beranduegi bihurtu izanaz kexu izateko moduan garaitu nahi dugu». Argi dago gorrotagarri bihurtu nahi zituela frankoen eta burgundiarren erregeak, eta haien jende-zuzenbideaz ari zela.

Zuzenbide horrek bigarren dinastiaraino iraun zuen. Pepinen armada Akitanian sartu eta gero, harrapakin eta jopu ugariz itzuli zen, diote Metz-eko Urtekariek<sup>457</sup>.

Nahi adina autoritate aipa nitzake<sup>458</sup>. Santuen bizitzetan aurkitzen dira gai horri buruzko argibiderik handienak<sup>459</sup>: nola, garai hartan, inarrosi ziren karitatearen erraiak; nola zenbait apezpiku santuk, presoak binaka lotuta ikusiz, elizetako zilarra erabili zuten, eta are ontzi sakratuak ere saldu zituzten, haietarik ahal zituztenak askatzeko; monako santuak ere hartan aritu zirela. Bizitza horiek idatzi dituztenei batzuetan sinesberegia izatea egotz badakieke ere Jainkoak ezbairik gabe egin dituen gauzez, baldin eta bere asmoen ordenan bazeuden, halaz guztiz ere argibide handiak ateratzen dira autoreengandik garai hartako ohitura eta usadioez.

Begiak gure historiaren eta gure legeen dokumentuetan pausatzaren direnean, badirudi dena dela itsaso, eta bazterra bera ere falta zaio-las itsasoari<sup>460</sup>. Idatzi hotz, lehor, geza eta gogor horiek denak irakurri beharra dago, irentsi beharra, nola, alegiaren arabera, Saturnok harriak.

Gizon libreek baliatzen zituzten lur asko eta asko esku hiletara pasatu ziren<sup>461</sup>. Herrialde bat bertan bizi zen gizon librerik gabe geratu zenean, jopu asko zituztenek lurralde asko bereganatu zituzten, eta herriak eraiki zituzten bertan, hainbat agiritan ikus daitekeenez. Bestalde, ofizioak lantzen zituzten gizon libreak haietan jardun behar zuten jopu bihurtu ziren; joputzek itzultzen zieten ofizioei eta laborantzari hauei kendu zitzaiena.

Gauza arrunta izan zen lur-jabeek lurrok elizei eman eta gero beraiek zentsuz hartzea, joputza horren bidez elizen santutasunean partaide zirelakoan.

## XII

### *Barbaroen partizioko lurrek ez zutela zergarik zor*

Herri sinple, libre, gerrari, artzainak, industriarik gabe bizi zirenak, eta lurrari ihizko etxolaz baizik lotzen ez zitzaizkionak<sup>462</sup>, buruzagiei jarraitzen zitzaizkien ospila lortzeko, ez zergak ordaintzeko edo jasotzeko. Zergen antzea geroago asmatu zen, gizonak beste antzeen zorionaz gozatzen hasi zirenean.

Italdi bakoitzeko pitxer bat ardo ordaindu beharra<sup>463</sup> — Txilperiko eta Fredegundaren gehiegikeria bat— erromatarrei zegokien bakarrik. Hain zuzen, frankoek ez zituzten hasi zerga horien erre-gistroak, elizgizonek baizik, eta garai hartan elizgizon guztiak erromatarrek ziren<sup>464</sup>. Zerga hura hirietako biztanleek jasan zuten batez ere<sup>465</sup>, hirietan erromatarrek bizi baitziren gehienbat.

Gregorio Tourskoak dioenez<sup>466</sup>, Txilperiko hil eta gero, epaile batek eliza batean babes hartu beharra izan zuen, printze haren erregealdian Txildebortoren garaian libre izandako franko batzuk zergapean izan zituelako: «*Multos de Francis, qui, tempore Childeberti regis, ingenui fuerant, publico tributo subegit*». Beraz, jopu ez ziren frankoek ez zuten zergarik ordaintzen.

Ez da zurbilduko ez den gramatikalaririk, ikustean nola interpretatu duen pasarte hori Dubos abadeak<sup>467</sup>. Hark dioenez, garai hartan jareginei libre ere deitzen zitzaien. Uste honetan, honako hitz hauekin interpretatzen du latinezko *ingenui* hitza: «zergaz jareginak»; esapide horretaz balia daiteke frantsesez, «zainketez jareginak», «lanez jareginak» esaten den bezala; baina latinez *ingenui a tributis, libertini a tributis, manumissi tributorum* izugarritzko trakeskeriak lirateke.

Parteniok, dio Gregorio Tourskoak, pentsatu zuen frankoek hil egingo zutela, zergak ezarri zizkielako. Dubos abadeak, pasarte

horrek behartuta, auzitan dena segurutzat ematen du besterik gabe: zerga-handitze bat zen, dio<sup>469</sup>.

Bisigodoen legean ikusten denez<sup>470</sup>, barbaro batek erromatar baten lur-saila hartzen zuenean, epaileak saltzera behartzen zuen, lur hark zergapean segi zezan: barbaroek ez baitzuten zergarik ordaintzen lurrengatik<sup>471</sup>.

Dubos abadeak<sup>472</sup>, bisigodoek zergak ordain zitzaizuten premia baitzuen<sup>473</sup>, alde batera uzten du hitzez hitzezko eta espirituzko esanahia, eta imajinatzen du, imajinazio hutsa baita, godoen ezarpenaren eta lege haren artean erromatarrei bakarrik zegokien zerga-handitze bat izan zela. Baina Aita Hardouin-i bakarrik onartzen zaio gertaeren gainean halako ahalmen arbitrarioa erabiltzea.

Dubos abadeak<sup>474</sup> Justinianoren kodera jotzen du<sup>475</sup> lege bila, erromatarren artean onura militarrek zergapean zeudela frogatzeko; hortik zera ondorioztatzen du, gauza bera gertatzen zitzaizela frankoen artean ere feudo edo onurei. Baina gure feudoen jatorria erromatarren ezarpen horretan dagoelako iritzia baztertuta dago gaur egun: historia erromatarra ezagutzen zen garaian eta gurea oso gutxi ezagutzen zenean, gure agiri zaharrak hauspean zeuden garaian eman zitzaion sinesgarritasuna iritzi horri.

Dubos abadeak huts egiten du Kasiodoro aipatzean, eta Italian eta Teodorikoren mende zegoen Galiaren partean gertatzen zena erabiltzean, frankoen artean usadio zena adierazteko; gauza horiek ez dira nahastu behar. Egunen batean erakutsiko dut, obra berezi batean, ostrogodoen monarkiaren plana guztiz desberdina zela beste herri barbaroek garai hartan izan zituzten planetatik; eta gauza bat ostrogodoen artean erabiltzen zelako frankoen artean ere erabiltzen zela esan ordez, alderantziz pentsatu behar da, alegia ostrogodoen artean usatzen zen zerbait ez zela usatzen frankoen artean.

Erudizio zabalean igeri dabiltzanei gehien kostatzen zaiena zera da, beren frogak gaiari dagozkion lekuan aurkitzea, eta, astronomoek bezala hitz egiteko, Eguzkiaren lekua aurkitzea.

Dubos abadeak oker erabiltzen ditu kapitularrak, historia eta herri barbaroen legeak. Frankoek zergak ordaindu zituztela dioenean, gizon libreei aplikatzen die jopuei baizik ez dagokiena<sup>476</sup>. Haien miliziaz hitz egin nahi duenean, aldiz, jopuei aplikatzen die gizon libreei baizik ez dagokiena<sup>477</sup>.

### XIII

#### *Zein karga zituzten erromatarrek eta galierrek frankoen monarkian*

Azter nezake ea erromatarrek eta galier garaituek enperadore-en garaian ordaindu behar zituzten kargak ordaintzen jarraitu ote zuten. Baina bizkorrago aurreratzeko, haxe besterik ez dut esango, alegia hasieran ordaindu zutela, gero salbuetsita geratu zirela, eta zerga haiek zerbitzu militar batek ordezkatu zituela. Aitortzen dut ez zaidala buruan sartzen nola frankoak, lehenik zergen hain lagun izanik, bat-batean hainbeste aldendu ziren haietarik.

Luis Errukitsuaren kapitular batek<sup>478</sup> oso ondo argitzen digu zein egoeratan zeuden gizon libreak frankoen monarkian. Godo eta iberoen saldo batzuk, mairuen zapalkuntzatik ihesi, Luisen lurretan onartuak izan ziren<sup>479</sup>. Haiekin egin zen tratua arabera, haiek ere, beste gizon libreak bezala, beren kondearekin joango ziren armadara; martxan, guardia eta patruilak egingo zituzten konde haren agindupean<sup>480</sup>, eta erregearen mandatariei eta haren gortetik abiatuko ziren edo hara joango ziren enbaxadoreei zaldiak eta gurdiak emango zizkieten<sup>481</sup>; bestalde, ez zeuden beste zentsurik ordaintzera behartuta, eta beste gizon libreak bezala tratatuak izango ziren.

Ez dago esaterik horiek bigarren dinastiaren hasieran sartutako usadio berriak zirenik; horrek lehenaren erdikoa edo azkenaldikoa izan behar du. 864. urteko kapitular batek dio espreski ohitura zaharra zela gizon libreek soldadutza egitea, eta gainera aipatu zaldi eta gurdiak ordaintzea<sup>482</sup>. Karga horiek haiei zegozkien, eta feudoak zituztenek ez zituzten zor, segidan frogatuko dudanez.

Hori ez da dena; bazen araudi bat, gizon libre horiek zergapean jartzea debekatzen zuena<sup>483</sup>. Lau lur-sail<sup>484</sup> zituena gerrara joatera behartuta zegoen; hiru besterik ez zituena, bakar bat zeukan gizon libre batekin jartzen zuten; honek gastuen laurdena ordaintzen zuen, eta bestearen etxean geratzen zen. Berdin, bina etxalde zituzten bi gizon libre batzen ziren, eta bietarik gerrara joaten zenari gastuen erdia ordaintzen zion besteak.

Are gehiago: ezin konta ahala agiri ditugu, non feudoen pribilegioak gizon libreek dauzkaten lur edo barrutiei ematen zaizkien; eta

luze mintzatuko naiz horietaz segidan<sup>484</sup>. Lur haiek kondeek eta erregearen beste ofizial batzuek haien gainean eskatzen zituzten zama guztietarik libre uzten ziren; eta, bereziki zama horiek guztiak zerrendatzen zirenez, eta zergak aipatzen ez zirenez, bistan da ez zela hala-  
korik jasotzen.

Baliteke erromatar tributazioa berez desagertzea frankoen monarkian; oso eginkizun zaila eta bihurria zen, eta ez zen sartzen herri sinple haien ez ideietan ez asmoetan. Tartariarrek egun Europa inbadituko balute, lanak izango lirateke gure artean finantza-gizon bat zer den haiei ulertarazteko.

*Luis Errukitsuaren Bizitza* -ren autore ezezagunak<sup>485</sup>, Karlomagnok Akitanian ezarri zituen kondeez eta frankoen nazio-ko beste ofizialez ari dela, dio mugak zaintzeko ardura eman ziela, botere militarra, eta koroarenak ziren jabetzen zaingoa. Horrek erakusten du bigarren dinastiako printzearen errenten egoera. Printzeak lurrak hartuak zituen beretzat, eta esklaboen lanaren bidez baliatzen zituen. Baina indikzioak, kapitazioak eta enperadoreen garaian gizon jareginen edo beren ondasunen gainean jasotako beste zergak, muga zaindu edo gerrara joan beharraren truke aldatu zituen.

Historia horretantxe ikusten denez<sup>486</sup>, Luis Errukitsua aitaren-gana Alemaniara joan zenean, honek galdetu omen zion nola izan zitekeen hain pobrea, errege izanik; Luisek erantzun omen zion izenez baizik ez zela errege, eta jaunek zeuzkatela ia bere jabetza guztiak; Karlomagnok, beldurrez ezen printze gazte hark, jaunei eskuzabal emandakoa atzera berriz bereganatuz gero, haien atxikimendua galduko ote zuen, komisarioak bidali omen zituen gauzak bere onera ekartzeko.

Apezpikuek honela idatzi zioten Luisi<sup>487</sup>, Karlos Burusoilaren aitari: «Ardura zaitez zeure lurrez, ez zaitezen behartuta egon elizgizonen etxez etxe etengabe bidaiatzera, eta haien jopuak bidaiotan nekaraztera. Asma ezazu», esaten zioten, «nola bizi eta nola hartu enbaxadak». Bistan da erregeen irabaziak beren mendeko lurrak zirela garai hartan<sup>488</sup>.



## XIV

### *Census zeritzanaz*

Barbaroak beren herritik irten zirenean, idatziz jarri nahi izan zituzten beren usadioak; baina hitz germaniarrak letra erromatarrez idaztea zail gertatu zenez, lege haiek latinez eman ziren.

Konkistako eta haren aurrerabideko nahasmenduan, gauza gehienak aldatu egin ziren izatez; haiek adierazteko, usadio berriekin zerikusirik handiena zuten latinezko hitz zaharrez baliatu beharra izan zen. Hortaz, erromatarren zentsu zaharraren antz handiena zuenari<sup>488</sup>, *census tributum* deitu zitzaion; eta gauzek inolako zerikusirik ez zutenean, ahal zen bezala adierazi ziren hitz germaniarrak erromatar letrez; horrela sortu zen *fredum* hitza. Askok hitz egingo dut hitz horretaz datozen kapituluetan.

*Census* eta *tributum* hitzak modu arbitrarioan erabili zirenez, horrek ilundu egin du hitz horiek lehen eta bigarren dinastian zuten esanahia; eta autore modernoek<sup>489</sup>, sistema partikularrak baitzituzten, hitz hori aurkitu zutelarik garai hartako idatzietan, pentsatu izan dute *census* zeritzana hain zuzen erromatarren zentsua zela; eta ondorio hau atera dute, alegia lehen bi dinastietako erregeak enperadore erromatarren lekuan jarri, eta ez zutela ezertan ere aldatu haien administrazioa<sup>490</sup>. Eta bigarren dinastian bildutako zenbait eskubide, hainbat gorabehera eta aldaketa zirela medio, beste batzuk bihurtu zirenez<sup>491</sup>, zera ondorioztatu dute, eskubide horiek erromatarren zentsua zirela; eta araudi modernoetatik koroaren jabetza erabat besterenezina zela ikusi dutenez, esan dute eskubide horiek, erromatarren zentsua ordezkatzeko zutenak, eta jabetza horren parte ez zirenak, usurpazio hutsa zirela. Ez ditut aipatuko beste ondorioak.

Norbera bizi den mendeko ideia guztiak aspaldiko mendeetara aldatzea, okerbideetan emankorrena da. Antzinako mende guztiak moderno bihurtu nahi dituzten horiei, esango nieke Egiptoko apaizek Soloni esan ziotena: «Oi atenastarrok! Haur batzuk zarete!».

## XV

*Census zeritzana jopuengandik jasotzen zela, ez gizon libreengandik*

Erregeak, elizgizonek eta jaunek zerga arautuak biltzen zituzten, bakoitzak bere jabetzetako jopuengandik. Erregeari dagokiona, *De Villis* kapitularraren bidez frogatzen dut; elizgizonei dagokiena, barbaroen legeen kodeen bidez<sup>493</sup>; jaunei dagokiena, Karlomagnok hartaz egin zituen araudien bidez<sup>493</sup>.

Zerga haiei *census* zeritzen; eskubide ekonomikoak ziren, ez fiskalak; zor pribatuak, ez karga publikoak.

Nik diot *census* zeritzana jopuengandik jasotzen zen zerga bat zela. Markulforen formula baten bidez frogatzen dut: erregearen baimen bat dakar, libre izanez gero eta zentsuaren erregistroan izena eman gabe egonez gero elizgizon bihurtu ahal izateko<sup>494</sup>. Orobat, Karlomagnok konde bati emandako eginkizun baten bidez ere frogatzen dut, Saxoniako bazterretara bidali zuenean<sup>495</sup>; saxoniarren jaregitea dakar, kristautasunera aldatu zirela-eta; eta libertate-agiri bat da berez<sup>496</sup>. Printze hark beren lehen askatasun zibila itzuli zien, eta zentsua ordaindu beharra kendu<sup>497</sup>. Beraz, gauza bera zen jopua izatea eta zentsua ordaintzea, libre izatea eta ez ordaintzea.

Printze horrexek monarkian onartuak izan ziren espainiarren alde emandako errege-erabaki moduko baten bidez, haiei edozein zentsu exijitzea eta lurrak kentzea debekatzen die kondeei. Gauza jakina da Frantziara etortzen ziren atzerritarrak jopu gisa tratatu ohi zituztela; eta Karlomagnok, gizon libre gisa har zitzaten nahi zuelarik, haiek beren lurren jabetza izan zezaten nahi baitzuen, haiei zentsua eskatzea debekatu zuen.

Karlos Burusoilak, espainiar haien alde emandako kapitular batean<sup>499</sup>, haiek ere beste frankoak bezala trata zituzten agintzen zuen, eta haiei zentsua eskatzea debekatzen; beraz, gizon libreek ez zuten hura ordaintzen.

Pistesko ediktuaren 30. artikulua zuzendu egiten du gehiegieria bat, zeinen arabera erregearen edo Elizaren zenbait kolonok saldu egiten baitzizkieten beren etxaldee atxikitako lurrak elizgizonei edo beren mailako jendeari, berentzat etxolatxo bat baino gordetzen

ez zutelarik, hartara ez baitzeukaten zentsua ordaindu beharrik; eta gauzak lehengora ekartzeko agintzen da: zentsua esklaboen kontua zen, beraz.

Hortik beste hau ere ondorioztatzen da, alegia monarkian ez zela zentsu orokorrik; eta hori argi uzten dute hainbat eta hainbat testuk. Izan ere, zer esan nahi luke kapitular honek<sup>500</sup>: «Errege-zentsua exiji dadin nahi dugu behinola legez exijitzen zen leku guztietan?»<sup>501</sup>. Zer esan nahi luke Karlomagnok probintzietara bidalitako bere mandatariei antzina erregearen mendeko izandako zentsu guztien<sup>502</sup> ikerketa zehatza egitea agintzen duen kapitularrak?<sup>503</sup> Eta ordaindutako zentsuen<sup>504</sup> erabilera xedatzen duen beste batek?<sup>505</sup> Zer esanahi eman honako hau dioen beste bati<sup>506</sup>: «Inork guk zentsua jaso ohi genuen lur zergapeko bat erosiz gero»?<sup>507</sup>. Eta azkenik, zer esanahi eman beste bati<sup>508</sup>, zeinetan Karlos Burusoila antzina-antzinatik zentsua erregearena izan zeneko lur zentsupekoek mintzatzen baita?<sup>509</sup>.

Ohar zaitezte ezen, testu batzuek nik diodanaren kontrakoa diotela badirudite ere, hala ere berretsi egiten dutela. Lehentxeago ikusi dugunez, monarkiako gizon libreak ez zeuden behartuta zenbait gurdi hornitzera baizik. Aipatu berri dudana kapitularrak *census* deitzen dio horri<sup>510</sup>, eta kontrajarri egiten dio jopuek ordaintzen zuten zentsuari.

Gainera, Pistesko ediktua<sup>511</sup> beren buruagatik eta beren etxologatik zentsua ordaindu behar zuten eta gosetean beren buruak saldu zituzten frankoez ari da<sup>512</sup>. Erregeak agintzen du askatuak izan daitezela. Izan ere, erregearen agiriz jareginak zirenek<sup>513</sup> ez zuten normalean askatasun erabateko eta osoa erdiesten<sup>514</sup>; *censum in capite* ordaintzen zuten; eta jende-mota horretaz ari gara hemen.

Beraz, baztertu beharra dago erromatarren gobernu-eratik zetorren zentsu orokor eta unibertsal bat izan zelako ideia, zeinetarik omen zetozen jaunen eskubideak, usurpazio bidez. Monarkia frantsean *zentsu* deitu zitzaiona, hitz hori oker erabili bada ere, nagusiek jopuengandik jasotzen zuten eskubide partikular bat zen.

Barkatuko ahal dit irakurleak hainbeste aipuk eragin bide dioten asperdura handia; askoz laburragoa izango nintzateke baldin eta Dubos abadearen *Monarkia frantsesa Galietan ezartzea* liburua neure aurrean aurkituko ez banu. Ezerk ez du oztopatzen jakintzaren aurre-

rapena autore ospetsu baten obra txar batek baino gehiago, zeren eta irakasten hasi aurretik akatsak zuzentzen hasi beharra baitago.

## XVI

### *Leude edo basailuez*

Aipatu ditut gerretan beren printzeen atzetik joaten ziren boluntario germaniarrak; usadio horrek iraun egin zuen konkistaren ondoren. Tazitok «kide» deitzen die<sup>515</sup>; lege salikoak, erregearen fedepean dauden gizonak<sup>516</sup>; Markulforen formulek, erregearen antrustioiak<sup>517</sup>; gure lehen historialariek, leudeak, leialak<sup>518</sup>; eta ondorengok, jaunen basailuak<sup>519</sup>.

Lege saliko eta erriparioetan ezin konta ahala xedapen daude frankoentzat, eta banaka batzuk bakarrik antrustioientzat. Antrustioi horiei buruzko xedapenak eta beste frankoentzat egindakoak desberdinak dira: frankoen ondasunak arautu egiten dira, eta antrustioienez ez da ezer esaten; zergatik, eta azkenen ondasunak lege politikoak arautzen zituelako, ez lege zibilak, eta armada baten parte zirelako, ez familia baten ondare.

Leudeentzako ondasunei ondasun fiskal<sup>520</sup>, onura, ohore, feudo deitu izan zaie autore eta garaien arabera.

Zalantzarik gabe, hasieran feudoak aldagarriak ziren<sup>521</sup>. Gregorio Tourskoan ikusten denez<sup>522</sup>, Sunegisila eta Galoman-i fiskotik zeukaten guztia kendu zieten, eta bere zutena baizik ez zieten utzi. Gontranek, bere iloba Txildeberto tronuratzean, hizketaldi sekretua izan zuen harekin, eta feudoak nori eman eta nori kendu esan zion<sup>523</sup>. Markulforen formula batean, erregeak, bere fiskoak zeuzkan onurak ez ezik, beste batek eduki zituen onurak ematen ditu trukean<sup>524</sup>. Lonbardiarren legeak kontrajarri egiten ditu onurak eta jabetza<sup>525</sup>. Historialariak, formulak, herri barbaroen kode batzuk eta besteak, iritsi zaizkigun agiri guztiak, bat datoz denak. Azkenik, Feudoen liburua idatzi zutenek<sup>526</sup> erakusten digutenez, lehenik jaunek beren nahierara ken zitzaketen, gero urtebeterako ematen zituzten<sup>527</sup>, eta ondoren bizitza osorako.

## XVII

### *Gizon libreen soldaduskaz*

Bi jende-mota zeuden soldaduska egitera behartuta: leude basailu edo azpibasailuak, beren feudoaren ondorioz; eta gizon libreak, franko, erromatar nahiz galiarrak, kondearen esanera, eta kondea bera edo haren ofizialak buru zituztela.

Gizon libre, batetik onura edo feudorik ez izan, eta bestetik glebaren mendekotasunari lotu gabe zeudenei esaten zitzaien; hauek zeuzkaten lurrei, berriz, lur alodialak esaten zitzaien. Kondeek gizon libreak bildu eta gerrara eramaten zituzten. Bikario zeritzen ofizial batzuk zituzten beren esanetara<sup>529</sup>; eta gizon guztiak ehunekotan —burgo izenekoa eratzen— banatuta zeudenez, kondeek zenturioi izeneko ofizialak ere bazituzten beren aginduetara; hauek burgoko gizon libreak<sup>530</sup>, hots, ehunekoak, eramaten zituzten gerrara.

Ehunekotan banatze hori frankoak Galian kokatu eta gerokoa da. Klotariok eta Txildebertok egin zuten, barruti bakoitza bertan egiten ziren lapurretez arduratzera behartu nahian; hala ageri da printze horien dekretuetan<sup>531</sup>. Horrelako polizia ikus daiteke gaur egun Ingalaterran.

Kondeek gerrara gizon libreak eramaten zituzten bezala, leudeek ere beren basailu edo azpibasailuak eramaten zituzten; eta apezpikuek, abadeek edo haien ordezkariak<sup>532</sup> ere bereak<sup>533</sup>.

Apezpikuak ataka gaitzean zeuden: ez zetozen bat egin behar zutenaz<sup>534</sup>. Eskatu zioten Karlomagori ez zitzala behartu gerrara joatera; eta hori lortu zutenean, kexatu egin ziren hark aintzakotzat hartzen ez zituelako, eta printze hark bere asmoak justifikatu behar izan zituen. Nolanahi ere den, gerrara joan ez ziren garaian, ez dut ikusten haien basailuak kondeek eramaten zituztenik; alderantziz, erregeek edo apezpikuek bere leialetako bat aukeratzen zuten haien gidaritarako<sup>535</sup>. Luis Errukitsuaren kapitular batean<sup>536</sup>, erregeak hiru basailu-mota bereizten ditu: erregearenak, apezpikuenak, kondearenak. Leude edo jaun baten basailuak kondearen agindupean joaten ziren gerrara, baldin eta

erregearen etxeko eginbeharren batek leudeei berak joatea galazten bazien<sup>537</sup>.

Baina nork eramaten zituen leudeak gerrara? Zalantzarik gabe, erregeak, bere leialen buru izaten baitzen beti. Horregatik, kapitularretan, kontrajarpena ikusten da beti erregearen basailuen eta apezpikuen artean<sup>538</sup>. Gure erregeak, kementsu, harro eta eskuzabal, ez zeuden armadan Elizaren milizia horren buru izateko; ez zituzten jende haiek aukeratzen berekin irabazteko edo hiltzeko.

Baina leude haiek ere eramaten zituzten beren basailu eta azpi-basailuak; eta argi asko ageri da hori kapitular batean<sup>539</sup>, non Karlomagnok agintzen baitu gizon libre oro, lau lur-sail baditu, jabetzan nahiz onuran, etsaiaren kontra edo bere jaunaren atzetik joan dadila. Bistan da Karlomagnok esan nahi duela lur bakar bat zeukanak kondearen armadan sartu behar zuela, eta jaunaren onura zeukanak harekin joan behar zuela.

Alabaina, Dubos abadeak<sup>540</sup> zera dio, kapitularretan jaun partikular baten mende zeuden gizonez hitz egiten denean, jopuez hitz egiten dela; eta bisigodoen legean eta herri horren praktikan oinarritzen da. Hobe litzateke kapitularretan bertan oinarritzea. Nik aipatu berri dudanak kontrakoa dio formalki. Karlos Burusoilaren eta bere anaien arteko itunak ere gizon libreak aipatzen ditu, jaun bat edo erregea beren gogara aukera dezaketenak, eta xedapen hori bat dator beste hainbatekin.

Beraz, esan daiteke hiru soldadutza zeudela: leude edo erregearen leialenak, haiek ere beren mende beste leial batzuk zituztelarik; apezpiku edo beste elizgizon batzuenak, eta haien basailuenak; eta azkenik kondearena, zeinek gizon libreak eramaten baitzituen.

Ez diot basailuak kondearen mende egon ezin zitezkeenik, aginte jakin bat dutenak aginte handiagoa duenaren mende dauden bezala.

Bistan da, halaber, kondeak eta erregearen mandatariek isuna ordainaraz ziezaieketela beren feudoko betebeharrak burutzen ez zituztenean.

Gainera, erregearen basailuek lapurretan jardunez gero<sup>541</sup>, kondearen zigorra jasotzen zuten, erregearena jaso nahi ez bazuten.

## XVIII

### *Zerbitzu bikoitzaz*

Monarkiaren oinarrizko printzipio baten arabera, norbaiten botere militarren mende zeudenak, beraren jurisdikzio zibilarren mende ere bazeuden; horregatik, Luis Errukitsuaren 815. urteko kapitularrak<sup>542</sup> batera jartzen ditu kondearen botere militarra eta gizon librean gainean duen jurisdikzio zibila; horregatik, kondearen irizpenei<sup>543</sup>, gizon librean eramaten baitzituen gerrara, gizon librean irizpenak deitzen zitzairen<sup>544</sup>; hortik sortu zen ezbairik gabe arau hau, kondearen irizpenetan, eta ez haren ofizialenetan, epaitu behar zirela askatasunari buruzkoak. Kondeak horregatik ez zituen eramaten gerrara apezpiku edo abadeen basailuak<sup>545</sup>, ez zeudelako bere jurisdikzio zibilarren mende; horregatik ez zituen eramaten leudeen azpi-basailuak ere. Horregatik, diosku<sup>546</sup> lege ingelesaren glosarioak<sup>547</sup> saxoniarrek *coples* deitzen zituztenak, normandiarrek *konde*, *kide* deitzen zituztela, erregearekin banatzen zituztelako gastu judizialak; horregatik ikusten dugu basailu orok jaunari buruz zuen betebeharra<sup>548</sup>, garai guztietan, armak eramatea eta bere pareak haren epaitegian epaitzea zela<sup>549</sup>.

Justizi eskuduntza gerrara eramateko eskuduntzarekin lotzen zuen arrazoietako bat zera zen, gerrara eramaten zuenak fiskoarekiko zamak ordainarazten zituela aldi berean; gizon librean zor zituzten garraio-zerbitzu batzuk izaten ziren eskubide horiek, eta, oro har, ondoren mintzagai izango ditudan zenbait etekin judizial.

Jaunek beren feudoan justizia egiteko eskubidea zuten, kondeek ere beren konderrian egitekoa zuten bezalaxe, eta gauzak diren bezala esateko, konderriak, garaien joanean gertatu ziren aldaketetan, feudoetan gertatutako aldaketei jarraitu zitzaizkien beti: batzuk eta besteak plan beraren eta ideia berberen arabera gobernatuta zeuden. Hitz batez, kondeak leude ziren beren konderrietan; leudeak, berriz, konde beren jaurretietan.

Ez zebiltzan zuzen kondeak justizi ofizialtzat eta dukeak ofizial militartzat hartu zituztenak. Batzuk eta besteak ofizial militarrek eta zibilak ziren aldi berean<sup>550</sup>; desberdintasun guztia zera zen, dukeak

zenbait konde izaten zituela bere mende, nahiz eta baziren gainetik dukerik ez zuten zenbait konde ere, Fredegariogandik jakin dugu-nez<sup>551</sup>.

Zenbaitek uste izango du, beharbada, frankoen gobernu-era oso gogorra zela garai hartan, ofizial berberak botere militarra eta botere zibila zeuzkatelako aldi berean sujeten gainean, eta are botere fiskala ere bai; horixe izaki, aurreko liburuetan esan dudanez, despotismoaren bereizgarrietako bat.

Baina ez da pentsatu behar kondeek berek bakarrik epaitzen zutenik, eta justizia Turkiako pashek bezala eramaten zutenik<sup>552</sup>; auziak epaitzeko, audientzia edo junta modukoak biltzen zituzten<sup>553</sup>, eta pertsona gorenei deitzen zieten bertara.

Formula, barbaroen lege eta kapitularretan epaiketei buruz datorrena ondo uler dadin, esango dut kondearen, grabioiaren eta zenturioiaren betebeharrak berberak zirela<sup>554</sup>; epaileak, ratinburgoak eta eskebinoak, izen desberdinak izan arren, pertsona berberak zirela. Kondearen laguntzaileak ziren, eta zazpi izan ohi ziren; baina gutxienez hamabi pertsona behar zituenenez epaitzeko<sup>555</sup>, kopuru hori pertsona gorenekin betetzen zuen<sup>556</sup>.

Baina normahik zuelarik ere jurisdikzioa —erregeak, kondeak, grabioiak, zenturioiak, jaunak, elizgizonek—, inoiz ez zuten bakarrik epaitzen; eta jatorria Germaniako basoetan zuen usadio horrek iraun egin zuen feudoek forma berria hartu zutenean ere.

Botere fiskalari dagokionez, zen bezalakoa zelako, kondeak ezin zuen gehiegikeriaz erabili. Printzeak gizon librean gainean zituen eskubideak oso ziren sinpleak, zenbait abagune publikotan exijitzen zitzaizkien garraio-gastu batzuk besterik ez<sup>557</sup>; eta eskubide judizialei zegokienez, bidegabeko diru-erabiltzeei aurrea hartzen zieten legeak zeuden<sup>558</sup>.

## XIX

### *Herri barbaroetako konposizioez*

Gure zuzenbide politikoan gehiago sakontzea ezinezkoa denez baldin eta herri germaniarren lege eta ohiturak guztiz ondo ezagutzen



ez badira, gelditu egingo naiz une batez, ohitura eta lege horiek aztertzeko.

Tazitok dioenez, germaniarrek delitu larriak baizik ez zituzten ezagutzen: urkatu egiten zituzten traidoreak, eta irato egiten zituzten koldarrak; horiek ziren haien artean delitu publiko bakarrak. Gizon batek beste bati kalteren bat egiten zionean, iraina edo zauria jasotako pertsonaren ahaideak auzian sartzen ziren; eta gorrotoa ordainaren bidez ematen zen<sup>559</sup>. Ordain hori irainduari zor zitzaion, hark hartzea bazeukan; eta ahaideei, iraina edo kaltea denei egina bazen edota, iraindu edo zauritua hil zela-eta, berei zor bazitzaien.

Tazitok dioenaren arabera, ordain haiek bi alderdien arteko abeniko baten bitartez egiten ziren; horregatik, herri barbaroen kodeetan, ordain horiei konposizio deritze.

Frisiarren legea<sup>560</sup> baizik ez dut aurkitzen elkarren etsai ziren familiak egoera naturalean uzten zituena, hots, lege politiko edo zibil baten loturarik gabe, mendekua beren gogara gauza zezaketelarik, ordaina hartu arte. Lege hori leundu egin zuten honako beste hau ezarri zenean<sup>561</sup>: norbaiten bizia eskatzen bazen, hark bakea izango zuen bere etxean, elizako joan-etorrian eta epaiketak egiten ziren lekuan.

Lege salikoen biltzaileek frankoen usadio zahar bat aipatzen dute<sup>562</sup>, zeinen arabera, inork gorpu bat hilobitik ateratzen bazuen lapurreta egiteko, gizartetik baztertzeko baitzuten, harik eta hildakoa- ren ahaideek berriro gizartera zedin onartzen zuten arte; eta une hori baino lehen den-denek, baita emazteak ere, hari ogia ematea edo etxean hartzea debekatuta zeukatenez, halako gizon bat egoera naturalean —hots, legerik gabeko egoeran— zegoen besteei buruz, eta besteak ere bai hari buruz, harik eta, konposizioari esker, egoera hori amaitzen zen arte.

Salbuespen hori izan ezik, bistan da nazio barbaroetako jakintsuek, berek egin nahi izan zutela abenikoa, alderdien arteko abenikorik itxarotea luzeegia eta arrisksuegia zenean. Alegia, kalte edo irainen bat jasotzen zuenak hartu beharreko ordainari bidezko prezioa jartzen arduratu ziren. Lege babaro horiek guztiek zehaztasun miresgarria dute horretan: zorrotz bereizten dira kasuak<sup>563</sup>, tentu handiz juzgatzeko inguruabarrak; legea irainduaren lekuan jartzen da, eta honek odol hotzeko une batean beretzat eskatuko zukeen ordaina eskatzen du berarentzat.

Lege horien ezarpenagatik irten ziren germaniar herriak egoera natural hartatik; alegia, Tazitoren garaian, nonbait, zeuden egoeratik.

Rotarisek, lonbardiarren legean, adierazi zuen handitu egin zituela ohitura zaharrak zaurientzat ezartzen zituen konposizioak, zaurituak askietsita etsaigoak amai zitezen<sup>564</sup>. Hain zuzen, lonbardiarrak, herri pobrea, aberastu egin ziren Italia konkistatu zutenean, eta ordura arteko konposizioak huskeria bihurtu ziren; ondorioz, ez zen adiskidetzetik. Zalantzarik gabe, arrazoi horrek behartuko zituen beste nazio konkistatzaileetako buruzagiak ere gaur egun ditugun legeen kodeak egitera.

Konposizio nagusia hiltzaileak hildakoaren ahaideei ordaindu behar ziena zen. Gizarte-maila nolakoa, konposizioen zenbatekoa halakoa<sup>565</sup>; esate baterako, angloen legean, konposizioa seiheun sosekoa zen adalingo bat hiltzeagatik, berrehunekoa gizon librea hiltzeagatik, hogeita hamarrekoa jopua hiltzeagatik. Gizon baten biziagatik ezarritako konposizioaren tamaina, hortaz, haren pribilegio handienetako bat zen; izan ere, pertsona bera bereizteaz gainera, segurantz handiagoa ematen zion, nazio indarkeriara eman haietan.

Bavariarren legeak ondo asko erakusten digu hori<sup>566</sup>: konposizio bikoitza jasotzen zuten familien izenak ematen ditu, agilofingoen ondoren lehenak zirenena<sup>567</sup>. Agilofingoak dukeen jatorrikoak ziren, eta haien artean aukeratzen zen dukea; konposizio laukoitza zuten. Dukearentzako konposizioa agilofingoentzat ezarritakoa baino heren bat handiagoa zen. «Dukea delako», dio legeak, «bere ahaideei baino ohore handiagoa aitortzen zaio».

Konposizio horiek guztiak dirutan zehazten ziren. Baina herri horiek, batez ere Germanian egon ziren bitartean, ia batere dirurik ez zeukatenez, alea, garia, altzariak, armak, zakurrak, ehiza-hegaztiak, lurrak, etab. eman zitezkeen<sup>568</sup>. Maiz legeak gauza horien balioa zehazten zuen<sup>569</sup>, eta horrek argitzen du nola zeuden haien artean hainbeste diru-zigor, hain diru gutxi zeukatelarik.

Beraz, lege haiek kalte, irain eta delituen arteko aldeak zehatz adierazten arduratu ziren, bakoitzak jakin zezan zenbateraino egiten zitzaion kalte edo irain, jaso behar zuen ordaina zenbatekoa izango zen, eta batez ere ez zuela gehiago jaso behar.

Ikuspuntu horretatik, ulertzekoa da ordaina hartu eta gero mendekatzan zenak delitu handia egiten zuela. Delitu horrek, irain partikularra adina, irain publikoa zekarren: legeari berari egindako mesprezioa. Delitu hori ez zuten zigorrik gabe utzi legegileek<sup>570</sup>.

Bazen beste delitu bat oso arriskutsutzat hartu zena<sup>571</sup>, herri haiek gobernu zibilean beren independentzi espirituaren zati bat galdu zutenean, eta erregeak Estatuan ordena publiko hobea jartzeaz arduratu zirenean; delitu hori ordaina eman edo hartu nahi ez izatea zen. Barbaroen legeen kodeetan ikusten dugunez, legegileek hartara behartzen zuten<sup>572</sup>. Izan ere, ordaina hartzea ukatzen zuenak mendeku hartzeko eskubidea gorde nahi zuen; ordaina ematea ukatzen zuenak mendeku-eskubidea uzten zion irainduari; eta horixe eraberritu zuten pertsona zuhurrek germaniarren instituzioetan, hauek aurrez konposiziorako gonbita egiten baitzuten, behartu gabe.

Aipatu berri dut lege salikoko testu bat, non legegileak irainduaren gogara uzten baitzuen ordaina jasotzea edo ez jasotzea. Lege horrek gizonetik harremanak debekatzen zizkion hilotza bere gauzez gabetu zuenari, harik eta ahaideek, ordaina onartuz, hark gizonen artean bizitzea bazeukala adierazten zuten arte<sup>573</sup>. Gauza santuekiko begiruneari esker, lege salikoak idatzi zituztenek ez zuten ukitu usadio zaharra.

Ez zatekeen bidezkoa izango lapurreta egiten ari zela hildako lapurraren ahaideei konposizioa ematea, edota adulterio-delituagatik banandu eta arbuiatutako emakume batenei. Bavariarren legeak ez zien konposiziorik ematen halako kasuei, eta zigortu egiten zituen mendeku bila hasten ziren ahaideak<sup>574</sup>.

Ez da arraroa barbaroen legeen kodeetan nahi gabe egindako-  
engatik konposizioak aurkitzea. Lonbardiarraren legea zentzuzkoa zen ia beti; kasu horretan, eskuzabaltasunaren arabera ordaintzea agintzen zuen, eta ahaideei debekatu egiten zien mendekua<sup>575</sup>.

Klotario II.ak oso dekretu zuhurra egin zuen: lapurreta nozitu zuenari debekatu egin zion konposizioa sekretuan eta epailearen agindurik gabe jasotzea<sup>576</sup>. Ondoren ikusiko dugu lege horren zergatikoa.

## XX

### *Gerora jaunen justizia deitu izan zenaz*

Ahaideei hilketa, kalte eta irainengatik ordaindu beharreko konposizioaz gainera, eskubide bat ere ordaindu behar zen, barbaroen legeen kodeek *fredum* deitzen dutena<sup>577</sup>. Asko jardungo dut horretaz eta, ideia bat emateko, esan dezadan mendeku-eskubidearen kontra onartutako babesaren ordaina zela. Gaur egun ere, suediar hizkuntzan, *fred* hitzak bakea esan nahi du.

Nazio indarzaleetan, justizia egitea irainen bat egin zuenari iraina jaso zuenaren mendekuaren kontrako babesa ematea besterik ez zen, eta bigarrena zor zitzaion ordaina hartzera behartzea; hortaz, germaniarren artean, beste herri guztietan ez bezala, delitugilea iraindua-gandik babesteko egiten zen justizia.

Barbaroen legeen kodeek adierazten digute *freda* horiek (*fredum*-en plurala) zein kasutan exijitu behar ziren. Ahaideek mendekurik hartu ezin zutenetan, ez da *fredum* hori eman behar; hain zuzen, mendekurik ez zenean, ezin mendekuaren kontrako babes-eskubiderik izan. Hala, lonbardiarren legean<sup>578</sup>, inork ezbeharrez gizon libre bat hiltzen bazuen, hildakoaren balioa ordaintzen zuen, *fredum*-ik gabe, zeren eta, nahi gabe hil zuenez, ahaideek ez baitzuten mendeku-eskubiderik. Erripuarioen legean<sup>579</sup>, egur zati batek edo norbaitek egindako lanen batek gizon bat hiltzen zuenean, lana edo egurra erruduntzat jotzen ziren, eta ahaideek berentzat hartzen zituzten, *fredum*-a exijitzerik ez zeukatelarik.

Era berean, abere batek inor hiltzen zuenean, lege hark berak<sup>580</sup> *fredum*-ik gabeko konposizioa ezartzen zuen, hildakoaren ahaideak ez zirelako irainduak izan.

Azkenik, lege salikoaren arabera<sup>581</sup>, haur batek hamabi urte bete aurretik okerren bat egiten bazuen, *fredum*-ik gabe ordaintzen zuen konposizioa; artean armak eramaterik ez zeukanez, kasu horretan ere kaltea jasan zuenak edo haren ahaideek ez zeukaten mendekua eskatzerik.

Errudun zenak ordaintzen zuen *fredum*-a, berak egindako gehiegikeriek galarazi zioten bake eta segurantzaren truke, babesari

esker berreskuratu egin baitzitzakeen; baina haur batek ez zuen bere segurantza galtzen; ez zen pertsona, eta ezin pertsonen artetik kanporatua izan.

*Fredum* hori lurraldean epaitzen zuenarentzako eskubide lokal bat zen<sup>582</sup>. Erripuarioen legeak, ordea, debekatu egiten zion hori berak exijitzea<sup>583</sup>; lege horrek agintzen zuen auzia irabazitako alderdiak jaso eta fiskora eraman zezala, bakea —hala dio legeak— betiko izan zedin erripuarioen artean.

*Fredum*-aren tamaina babesaren tamainaren arabera izaten zen<sup>584</sup>; esate baterako, erregearen babesagatiko *fredum*-a kondearen edo beste epaile batzuen babesagatikoa baino handiagoa zen.

Hortxe ikusten dut jaunen justiziaren sorburua. Feudoek lurralde zabalak hartzen zituzten, hainbat agiritan azaltzen denez. Frogatu dut jadanik erregeek ez zutela dirurik biltzen frankoenak ziren lurren-gatik; are gutxiago gordetzen zituzten feudoen gaineko eskubideak. Horiek lortzen zituztenek etekinik handiena ateratzen zieten: fruitu eta ordain guztiak jasotzen zituzten, eta, handienetako bat frankoen usadioen bidetik jasotzen ziren etekin judizialak (*freda*) zirenez<sup>585</sup>, feudoa zuenak justizia ere bazuen; ahaideentzako konposizioei eta jaunarentzako etekinei zegokien bakarrik. Legearen konposizioak ordainarazteko eta legearen isunak exijitzeko eskubidea besterik ez zen.

Feudo bat leude edo leial bati<sup>586</sup> edo feudoen pribilegioak elizei<sup>587</sup> berresten edo betiko ematen dieten formuletan ikusten denez, feudoek eskubide hori zuten. Hala ageri da, erregearen epaile edo ofizialei lurraldean sartzea —edozein justizi ekintza burutzeko nahiz edozein ordainsari exijitzeko— galarazten diete hainbat eta hainbat agiritan ere<sup>588</sup>. Erregearen epaileek barruti batean ezer exijitzerik ez zeukatenez, ez ziren barruti horretan sartzen; eta barruti hori zeukate-nek betetzen zituzten haiek bete beharrekoak.

Errege-epaileek debekatua zeukaten auzilariak beren aurrera agertzeko kauzioak ematera behartzea; hortaz, lurraldea hartzen zue-nari zegokion horiek exijitzea. Orobat, esaten da erregearen mandatariek ez zeukatela ostatu eskatzerik; izan ere, han ez zuten inolako betekizunik.

Justizia, beraz, hala feudo zaharretan nola berrietan, feudoari berari zegokion eskubidea zen, feudoaren zati zen eskubide etekin-

emailea. Horregatik, horrela ikusi izan da hori garai guztietan; hortik sortu da printzipio hau, justiziak patrimonialak direla Frantzian.

Batzuek uste izan dute justiziek erregeek eta jaunek beren jopuei emandako emantzipazioetan dutela jatorria. Nazio germaniarak eta haien ondorengoak, ordea, ez dira esklaboak jaregin dituzten bakarrak, baina bai justizia patrimonialak ezarri dituzten bakarrak. Bestalde, Markulforen formulek<sup>589</sup> erakusten digute lehen garaian bazirela justizia horien mende zeuden gizon libreak; jopuak, hortaz, lurraldean zeudelako ziren justiziaren gai; ez zituzten feudoak sorra-razi, feudoan sartuta zeudelako.

Beste batzuek bide laburragoa hartu zuten, esanez jaunek justiziak usurpatu zituztela, horrekin dena esanda balego bezala. Baina Germaniatik datozen herriek bakarrik usurpatu dituzte printzeen eskubideak? Historiak irakasten digu beste herri batzuek ere kendu dietela boterea beren erregeei, baina hortik ez da sortu jaunen justizia deritzana. Hortaz, germaniarren usadio eta ohituren baitan bilatu behar haien jatorria.

Arren, ikus bedi Loyseau-ren obran<sup>590</sup>, nola pentsatzen duen hark jokatu zutela jaunek justiziak eratzeke eta usurpatzeko. Horretarako, munduko jenderik finena izan beharko zuketena, eta gerrariak arpilatzen duten bezala ez, baizik eta herrixketako epaileek eta prokuradoreek elkarri ebasten dioten bezala lapurtu beharko zuketena. Esan beharko litzateke gerrari haiek, erresumako probintzia partikular guztietan, eta hainbeste erresumatan, politika-sistema orokorra egin beharko zuketela. Loyseauk, berak bere gelan arrazoitzen zuen bezala jartzen ditu arrazoitzen haiek ere.

Berriro esango dut: justizia feudoaren parte ez bazen, zergatik ikusten da nonahi<sup>591</sup> feudoaren zerbitzua erregea edo jauna zerbitzatzeari zela, hala epategietan nola gerretan?

## XXI

### *Elizen lurralde-justiziaz*

Elizek oso ondasun handiak bereganatu zituzten. Ikusten dugu erregeek fisko handiak eman zizkietela, hau da, feudo handiak, eta

hasieratik ikusten ditugu justiziak eliza horien jabetzetan ezarrita. Nondik ote zetorren halako pribilegio aparta? Emandako gauzaren izaeran bertan zegoen: elizgizonen ondasunek inork kentzen ez zielako zuten pribilegio hori. Fisko bat ematen zitzaion Elizari, eta leude bati emanez gero edukiko zituen pribilegioak uzten zitzaizkion; horregatik, Estatuak laiko bati eman balio jasoko zukeen zerbitzura lotuta zegoen eliza ere, ikusi dugun bezala.

Elizek, hortaz, beren lurraldean konposizioak ordainarazteko eskubidea zuten, eta *fredum*-a exijitzekoa; eta eskubide horiek nahitaez *freda*-k exijitzera eta justizi ekintza guztiak egikaritzera zetozen errege-ofizialei lurraldean sartzea galaraztea zekartenez berekin, elizgizonek beren lurraldean justizia egiteko zuten eskubideari *immunitate* deitu zitzaion, formulen<sup>592</sup>, agirien eta kapitularren erara.

Erripuarioen legeak<sup>593</sup> debekatu egiten die elizetatik jaregindakoei<sup>594</sup> justizia egiteko batzarrean biltzea<sup>595</sup>, salbu eta jareginak izan diren elizan. Elizek, hortaz, justiziak zituzten, baita gizon librean gainean ere, eta beren audientziak izaten zituzten monarkiaren lehen garaietatik.

*Santuen bizitza*-n ikusten dudanez<sup>596</sup>, Klodoveok sei legoako lurralde baten gaineko boterea eman zion pertsonaia santu bati, eta edozein jurisdikziotatik aske izan zedila agindu zuen. Uste dut hori faltsukeria dela, antzina-antzinatik datorren faltsukeria: bizitzaren funtsa eta gezurrak garaian garaiko ohitura eta legeei dagozkie, eta ohitura eta lege horien bila ari gara hemen<sup>597</sup>. Klotario II.ak agindu zien apezpikuei eta herrialde urrunetan lurak zituztenei, leku haietan bertan aukeratzeko justizia egin behar zutenak edo ordainsariak jaso behar zituztenak.

Printze horrexek<sup>598</sup> arautzen du elizetako epaileen eta bere ofizialen arteko konpetentzia. Karlomagnoen 802. urteko kapitularrak, justizi ofizialek izan behar dituzten tasunak zehazten dizkie apezpiku eta abadeei. Printze horrexen beste kapitular batek<sup>599</sup> debekatu egiten die erregearen ofizialei eliz lurak lantzen dituztenen gainean edozein jurisdikzio erabiltzea<sup>600</sup>, salbu eta hori iruzur bidez eta zerga publiko-ei itzuri egitearren lortu badute. Reims-en bildutako apezpikuek deklaratu zuten<sup>601</sup> elizetako basailuak haien inmunitatearen barruan zeudela. Karlomagnoen 806. urteko kapitularrak<sup>602</sup>, elizek beren lurraldean bizi diren guztien gainean justizia kriminala eta zibila izan

dezatela agintzen du. Azkenik, Karlos Burusoilaren kapitularrak<sup>603</sup> erregearen jurisdikzioa, jaunena eta elizena bereizten ditu; eta horretaz ez dut besterik esango.

## XXII

### *Justiziak bigarren dinastia amaitu baino lehen ezarrita zeudela*

Esan izan da bigarren dinastiako desordenan bereganatu zutela basailuek beren fiskoetako justizia; hori esan dutenek nahiago izan dute proposizio orokorra egin, bera aztertu baino; errazagoa zen esatea basailuek ez zeukatela, nola zeukaten aurkitzea baino. Baina justiziek ez diete zor beren sorrera usurpazioei; lehen ezarpenean dute jatorria, ez haren usteltzean.

«Gizon libre bat hiltzen duenak», esaten da bavariarren legean<sup>604</sup>, «hildakoaren gurasoei ordainduko die konposizioa, hildakoak gurasoak bazituen; eta ez bazituen, dukeari ordainduko dio, edota, hildakoak bizi zelarik bere burua inori gomendatu bazion, harixe». Badakigu zer zen onura batengatik nork bere bura inori gomendatzea.

«Norbaiti esklaboa osten badiote», esaten da alemanen legean<sup>605</sup>, «lapurraren printzeagana joango da, konposizioa jasotzeko».

«Zenturioi batek», esaten da Txildebertoren dekretuan<sup>606</sup>, «berea ez den ehuneko batean, edo gure leialen mugen barruan lapurra aurkitzen badu, eta ez badio jazartzen, lapurraren ordezkio izango da, edota zinegite bidez garbituko du bere burua». Beraz, bazegoen alderik zenturioien lurraldearen eta leialenen artean.

Txildebertoren dekretu horrek argitu egiten du Klotarioren konstituzio urte berekoa<sup>607</sup>: kasu berean eta egintza berberaz emana izanik, terminoetan baino ez da desberdin; konstituzioak «*in truste*» deitzen dio dekretuak «*in terminis fidelium nostrorum*» deitzen diotari. Bignon eta Du Cangek, uste izan baitute «*in truste*» horrek beste erregeren baten jabetza esan nahi zuela, ez dute asmatu.

Pepin, Italiako erregeak, hala frankoentzat nola lonbardiarren-  
tzat egindako konstituzio batean<sup>608</sup>, justizia egitean prebarikatu egiten zuten edo atzeratu egiten ziren konde eta errege-ofizialei zigorrak



ezarri ondoren, zera agintzen du<sup>609</sup>: «Franko edo lonbardiar batek feudoa izan eta justiziarik egin nahi ez balu, hura dagoen barrutiko epaileak indargabe utziko du feudo horretako jardunbidea, eta, tarte horretan, epaile honek edo epailearen ordezkariak egingo dute justizia.

Karlomagnoren kapitular batek<sup>610</sup> frogatzen du erregeek ez zituztela *fredak* alde guztietan biltzen. Printze horrexen beste batek<sup>612</sup> arau feudalak eta epaitegi feudala jadanik ezarrita agertzen dizkigu. Luis Errukitsuaren beste batek zera agintzen du, feudoa duenak justizia egiten ez duenean, edota justizia egitea galarazten duenean, mandariak haren kontura bizi daitezela, harik eta justizia egin dadin arte<sup>612</sup>. Karlos Burusoilaren beste bi kapitular aipatuko ditut, bat 861. urtekoa<sup>613</sup>, non jurisdikzio partikularrak ezarrita ageri baitira, eta epaileak eta ofizialak haien azpian; bestea 864. urtekoa<sup>614</sup>, non bere jaurerien eta partikularren arteko bereizketa egiten baitu.

Ez da feudoen jatorrizko emakidarik, zeren eta, dakigunez, garaileen artean egindako partiketan ezarri baitziren. Beraz, ezin da jatorrizko kontratuen bidez frogatu justiziak, hasieran, feudoei atxikita zeudela. Baina berrespenen edo feudoak betiko emateko agirien formuletan aurkitzen bada, esan bezala, justizia ezarrita zegoela, justizi eskubideak feudoaren izaerakoa behar zuen, eta pribilegio nagusietako bat.

Dokumentu gehiago ditugu elizen justizia patrimoniala beren lurraldean ezartzen dutenak, leude edo leialen onura edo feudoenak frogatzeko dauzkagunak baino, bi arrazoirengatik. Lehena, geratu zaizkigun dokumentu gehienak monakoek bildutakoak direla, beren monasterioek erabil zitzen. Bigarrena, elizen ondarea emakida partikularrez osatuta zegoenez, eta ezarritako ordenaren halako indargabetze bat izaki, agiriak behar zirela horretarako; aldiz, leudeei egindako emakidak esparru politikoko ondorioak izanik, ez zegoen agiri partikular bat eduki beharrik, are gutxiago gorde beharrik. Maiz erregeek berek ere askietsi egiten zuten zetroaz transmisio sinple bat egitea, San Mauroren bizitzan ageri denez.

Baina Markulforen hirugarren formulak<sup>615</sup> nahikoa frogatzen digu inmunitate-pribilegioa eta, beraz, justiziarena, elizgizonenak eta seglarrenak zirela, zeren eta batzuentzat zein besteentzat egina baita. Gauza bera ageri da Klotario II.aren konstituzioan ere<sup>616</sup>.

## XXIII

*Dubos abadearen Monarkia frantsesa Galian ezartzea liburuari  
buruzko ideia orokorra*

Nire liburu hau amaitu aurretik, Dubos abadearen obra azter dezadan komeni da, zeren eta nire ideiak harenen kontra baitaude beti eta, beraz, hark egia aurkitu balu, ni oker nengoke.

Obra horrek jende asko liluratu du, antze handiz idatzita dagoelako; auzitan dagoena emantzat jotzen delako etengabe; zenbat eta froga gehiago falta, hainbat eta probabilitate gehiago dagoelako; hainbat eta hainbat aieru hartzen direlako printzipiotzat, eta haietatik beste hainbat aieru ondorioztatzen direlako. Hartara, irakurleak ahaztu egingen du zalantzak izan dituela eta sinesten hasten da. Eta amaigabeko erudizioa erakusten denez, ez sisteman, baizik eta sistemaren alboan, espiritua funtsezko ez diren gauzek distraitzen dute, eta ez da arduratzeko garrantzia duenaz. Bestalde, hainbeste ikerketaren ondotik ezin pentsatu ez dela ezer aurkitu; bidaia-irratien luzeak sinestarazten digu azkenean norabait iritsi garela.

Baina ondo aztertuz gero, buztinezko oinak dituen koloso erraldoia agertzen da; eta hain zuzen oinak buztinezkoak direlako da kolosoa hain handia. Dubos abadearen sistemak oinarri onak izan balitu, ez zukeen hura frogatzeko egundoko hiru bolumen egin beharrik izango; dena aurkituko zukeen bere gaian; eta oso urrun zegoenaren bila alde guztietara joan ordez, arrazoiak berak jarriko zukeen egia beste egien katean. Historiak eta gure legeek honela esango zioten: «Ez ezazu hainbeste lan eta neke har; gu izango gara zure lekuko».

## XXIV

*Gai beraren jarraipena. Sistemaren funtsaz gogoeta*

Dubos abadeak ezabatu egin nahi du frankoak Galian konkistatzaile gisa sartu zirelako ideia. Haren arabera, gure erregeek, herriek

deituta, enperadore erromatarren lekuan jartzea besterik ez zuten egin, eta haien eskubideen ondorengo dira.

Hori ez dago aplikatzerik Klodoveok Galian sartu eta hiriak arpilatu eta hartu zitueneko garaiari; ezta Siagrio erromatar ofiziala garaitu eta honek zeukan herrialdeaz jabetu zeneko garaiari ere; beraz, beste garai bati aplikatu behar: Klodoveo, jadanik Galiako parte handi batez indarrez jabetua zelarik, herrien hautaz eta maitasuna bereganaturik, beste partearen jaun egitera deitua izan zen garaiari. Eta ez da aski Klodoveori ongi etorria eman izana, aurrez hari deitzea ere beharrezko zen; Dubos abadeak frogatu beharko luke herriek nahiago izan zutela Klodoveoren mende bizi, ezen ez erromatarren mende edo beren legeen arabera. Alabaina, barbaroek inbaditu gabeko Galiako erromatarrek bi motatakoak ziren Dubos abadearen arabera: batzuk konfederazio armorikarrekoak ziren, eta enperadorearen ofizialak kanporatu zituzten barbaroen kontra berak bakarrik defendatzeko eta beren legeen arabera gobernatzeko; besteek ofizial erromatarrei obeditzen zieten. Baina frogatzen al du Dubos abadeak artean inperioaren mende zeuden erromatarrek Klodoveori deitu ziotela? Inola ere ez. Frogatzen al du Armorikako errepublikak Klodoveori deitu ziola eta berarekin itunen bat egin zuela? Inola ere ez. Errepublika horren nondik-norakoa ez frogatzeaz gainera, hura izan zenik ere ezingo luke frogatu; eta, nahiz eta Honorioren garaitik Klodoveoreneraino segitzen badu ere, nahiz eta berak denboraldi hartako gertaera guztiak antze miresgarritz eman, hura ez da inondik ere ageri autoreen obretan. Izan ere, alde handia dago bi gauza hauen artean: batetik, Zosimoren<sup>617</sup> pasarte baten bidez frogatzea ezen, Honorioren garaian, Armorikako aldea eta Galiako beste probintziak erreboltatu egin zirela, eta errepublika modukoa eratu zutela<sup>618</sup>; eta bestetik, erakustea ezen, nahiz eta Galia hainbat aldiz bakeratu, Armorikak errepublika partikularra osatu zuela beti, eta Klodoveok konkistatu arte iraun zuela. Hala ere, bere sistema ezartzeko, oso froga indartsuak eta zehatzak behar lituzke. Izan ere, konkistatzaile bat estatu batean sartu, eta hango parte handi bat indarrez eta bortxaz menderatu zuela ikusten denean, eta handik denboraldi batera estatu osoa menderatua zuela, historiak hori nola gertatu den esaten ez duelarik, oso bidezkoa da pentsatzea arazoa hasi bezala amaitu zela.

Puntu horretan huts egin ondoren, begi-bistan da Dubos abadearen sistema osoa hankaz gora erortzen dela; eta printzipio horretatik

ondorioren bat aterako duen bakoitzean —alegia, frankoek ez zutela Galia konkistatu, baizik eta erromatarrek deitu zietela frankoei—, ukatu egin ahalko da.

Dubos abadeak Klodoveori eman zitzaizkion erromatar ohoreen bidez frogatzen du bere printzipioa; Klodoveo milizi maisu karguan bere aita Txilderikoren ondorengo izan zela dio. Baina bi kargu horiek berak asmatuak dira. San Remigiok Klodoveori idatzitako gutuna, zeinetan oinarritzen baita<sup>619</sup>, zorion-gutuna besterik ez da koroa bereganatu zuelako. Idatzi baten xedea ezaguna denean, zergatik asmatu behar zaio ezezaguna den beste bat?

Klodoveo, bere erregealdiaren azken aldera, kontsul izendatu zuen Anastasio enperadoreak; baina zein eskubide eman diezakiokeen urtebeterako aginte batek? Badirudi, dio Dubos abadeak, diploma berean Anastasio enperadoreak prokontsul izendatu zuela Klodoveo. Eta nik zera esango dut, badirudiela ez zuela izendatu. Ezertan oinarritzen ez den egintza batez, ukatzen duenaren autoritatea haren alde egiten duenaren autoritatearen adinakoa da. Nik badut arrazoi bat ukatzeko. Gregorio Tourskoak, kontsulatuaz ari delarik, ez dio ezer prokontsulatuaz. Prokontsulatu hori sei hilabetekoa izango zen bakarrik. Klodoveo kontsul izendatu eta handik urte eta erdira hil zen; ezinezkoa da prokontsulatua oinordetzazko kargua egitea. Azkenik, kontsulatua eman zitzaionean —eta nahi bada, baita prokontsulatua ere—, monarkian nagusi zen ordurako, eta haren eskubide guztiak ezarrita zeuden.

Dubos abadeak ematen duen bigarren frogia, Justiniano enperadoreak Klodoveoren seme eta bilobei Galiaren gaineko eskubide guztiak eman izana da. Gauza asko esango nituzke horretaz. Frankoen erregeek horri zenbaterainoko garrantzia eman zioten ikusteko, aski da aztertzea haren baldintzak nola bete zituzten. Bestalde, frankoen erregeak Galiako nagusi ziren; errege baketsuak ziren; Justinianok ez zeukan lur-zoztor bat ere han; Mendebaldeko inperioa aspaldi suntsitua zen, eta Ekialdekoak ez zuen eskubiderik Galiaren gainean, Mendebaldeko enperadorearen ordezkari gisa baizik; eskubideen gaineko eskubideak ziren. Frankoen monarkia sortua zen jadanik; sorreraren araudia eginda zegoen; monarkian bizi ziren pertsona eta nazioen arteko eskubideak itunduta zeuden; nazio bakoitzaren legeak emanda zeuden, baita idatziz jarrita ere. Zer zentzu zuen atzerritik egindako zesio hark jadanik ezarritako zerbaitetan?

Zer frogatu nahi du Dubos abadeak apezpiku haien guztien deklamazioen bidez, Estatuaren desordena, nahasmendu, erorketa erabatekoan, konkistaldiko lapurretetan, irabazlea balakatu nahian ari direlarik? Zer adierazten dute balakuek, balakatzera behartuta dagoenaren ahulezia ez bada? Zer frogatzen dute erretorikak eta poesiak?; zer, antze horien erabilerak? Nor ez litzateke harrituko Gregorio Tourskoari irakurtzean, Klodoveoren hilketez hitz egin ondoren, ezen Jainkoak egunero makurrazten zituela haren etsaiak, hura Jainkoaren bidetik zihoalako? Nork jarriko luke zalantzan elizgizonak Klodoveoren kristautzeagatik poztu zirela, eta hortik abantaila handiak atera zituztela? Baina nork jarriko luke zalantzan aldi berean herriek jasan izan dituztela konkistaren zorigaitz guztiak, eta erromatar gobernuak men egin ziola gobernu germaniarrari? Frankoek ez zuten dena aldatu nahi izan, ezina zuten hori; garaile gutxik izan dute halako seta. Baina Dubos abadearen ondorio guztiak egia izan zitezen, haiek erromatarrenetik ezertxo ere ez aldatzeaz gainera, berak ere aldatu beharko zuket.

Dubos abadearen metodoari jarraituz, gai nintzateke greziarrek Pertsia konkistatu ez zutela frogatzeko. Lehenik, haien hiri batzuek pertsiarrekin egindako itunez jardungo nuke; pertsiarren soldadu izan ziren greziarrez hitz egingo nuke, frankoak erromatarren soldadu izan ziren bezala. Alexandro pertsiarren herrialdean sartu bazen, Tiroko hiria setiatu, hartu eta suntsitu bazuen, arazo partikularra izan zela, Siagriorena bezalakoa. Baina ikus ezazue nola judutarren pontifizea datorkion aurrera; adi ezazue Jupiter Ammonen orakulua; gogora ezazue nola auresana izan zitzaion Gordiumen; ikus nola hiri guztiak atera zitzaizkion, nolabait esateko, aurrera; nola satrapak eta handikiak iritsi zitzaizkion oldean. Pertsiarren erara janzten zen; Klodoveo kontsul-jantzian bezala, alegia. Dariok ez al zion bada eskaini bere erresumaren erdia? Dario ez al zuten hil tirano gisa? Darioren amak eta emazteak ez al zuten negar egin Alexandro hiltzean? Alexandroren garaikideak al ziren Kinto Kurtzio, Arriano eta Plutarko? Inprentak ez al dizkigu eman autore horiei falta zitzaizkien argibideak?<sup>620</sup> Horra *Monarkia frantsesa Galian ezartzea* liburuaren historia.

## XXV

### *Noble frantsesez*

Dubos abadeak dio ezen, gure monarkiaren hasieran, hiritar-mota bakarra zegoela frankoen artean. Gure lehen familiei irain egitea da hori, eta beste horrenbeste gure gainean hurrenez hurren erregetza izan duten hiru etxe handienei. Haien handitasunaren jatorria ez al litzateke bada galduko ahazturan, gauean eta denboran? Historiak haiek familia arruntak izan zireneko mendeak erakutsiko lizkiguke; eta Txilperiko, Pepin eta Hugo Kapet kapare izan zitezen, erromatarren edo saxoniarren artean —hots, menderatutako nazioetan— bilatu beharko al litzateke haien jatorria?

Dubos abadeak lege salikoan oinarritzen du bere iritzia<sup>621</sup>. Lege horrek argi uzten duenez, dio berak, frankoen artean ez zeuden bi hiritar-mota. Berrehun soseko konposizioa agintzen zuen edozein franko hiltzeagatik<sup>622</sup>, baina erromatarren artean, batetik erregearen mahaikidea bereizten zuen, berori hiltzeagatik hirurehun soseko konposizioa agintzen zuelarik, eta bestetik erromatar jabea, zeinengatik ehun agintzen baitzituen, eta erromatar zergapekoa, zeinengatik berrogeita bost besterik ez baitzituen agintzen. Eta konposizioen desberdintasunak bereizketa nagusia egiten zuenez, zera ondorioztatzen du, frankoen artean hiritar-gradu bakarra zegoela, eta erromatarren artean hiru.

Harritzekoa da bere hutsegite horrexek hutsegitea bera aurkiaz ez izana. Izan ere, harrigarria zatekeen erromatar nobleek, frankoen mendean bizi izanda, konposizio handiagoa izatea, eta frankorik leinargienak eta haien kapitainik handienak baino pertsonaia garrantzitsuagoak izatea. Nolatan liteke herri garaileak hain begirune gutxi izatea bere buruaganako, eta hainbestekoa garaituaganako? Gainera, Dubos abadeak beste nazio barbaroen legeak aipatzen ditu, eta horiek haien artean hiritar-gradu desberdinak zeudela frogatzen dute. Harritzekoa litzateke arau orokor horrek frankoengan bakarrik huts egitea. Horrek pentsarazi beharko ziokeen gaizki ulertua zuela auzia, edota gaizki erabiltzen zituela lege salikoaren testuak; eta horixe gertatzen da, hain zuzen.

Lege horretan ageri denez, antrustioi bat<sup>623</sup> —alegia, erregearen leial edo basailu bat— hiltzeagatik seiahun sosekoa zen konposizioa,

eta erregearen mahaikide zen erromatar bat hiltzeagatik, berriz, hirurehuneko besterik ez<sup>624</sup>. Han ikusten da<sup>625</sup> franko arrunt bat hiltzeagatik konposizioa berrehun sosekoa zela<sup>626</sup>, eta erromatar arrunt bat hiltzeagatikoa, berriz, ehunekoa besterik ez<sup>627</sup>. Erromatar zergapeko bat hiltzeagatik, hots, jopu edo jaregin moduko bategatik, berrogeita bost soseko konposizioa ordaintzen zen<sup>628</sup>; baina ez naiz horretaz mintzatuko, ez eta jopu frankoa edo jaregin frankoa hiltzeagatik ordaintzen zenaz ere: hemen ez gara ari hirugarren gradu horietaz.

Zer egiten du Dubos abadeak? Ez du aipatzen frankoen arteko lehen pertsona-gradua, hau da, antrustioiei dagokien artikulua; eta segidan, franko arrunta —zein hiltzeagatik berrehun soseko konposizioa ordaintzen baitziren— berak erromatarren hiru graduetaoak deitzen dituenekin —zein hiltzeagatik konposizio desberdinak ordaintzen baitziren— konparatzen dituelarik, aurkitzen du frankoen artean hiritar-gradu bakarra zegoela, eta erromatarren artean hiru.

Haren arabera, frankoen artean pertsona-gradu bakarra zenez, burgundiarren artean ere bakarra egon beharko zukeen, haien erresuma gure monarkiaren zati nagusietako bat baitzen. Baina haien kodeetan hiru konposizio-mota ageri dira<sup>629</sup>; bat burgundiar edo erromatar nobleagatik, beste bat maila ertaineko burgundiar edo erromatarragatik, eta hirugarrena bi nazioetan behe-mailakoak zirenengatik. Dubos abadeak ez du aipatzen lege hori.

Bitxia da ikustea nola ihes egiten dien alde guztietatik inguratzen duten pasartei<sup>630</sup>. Handi, jaun, aitoren semeek hitz egiten zaiola? Horiek bereizketa ezdeusak dira, dio berak, ez maila-bereizketak; eta kortesi kontuak dira, ez legearen pribilegioak; edota mintzagai ditugun jende horiek erregearen kontseilukoak zirela dio; erromatarrak ere izan zitezkeen, baina frankoen artean hiritar-gradu bakarra zegoen. Bestalde, maila apaleko frankoren bat ageri bada, jopua da<sup>631</sup>; eta horrela interpretatzen du Txildebertoren dekretua. Dekretu horretaz jardun beharra daukat. Dubos abadeak ospetsu bihurtu du, bi gauza frogatzeko baliatu delako hartaz: bat<sup>632</sup>, barbaroen legeetan aurkitzen diren konposizio guztiak gorputz-zigorrei erantsitako interes zibilak baizik ez zirela, hartara dokumentu zahar guztiak hankaz gora botatzen dituelarik; bestea, gizon libre guztiak erregeak epaitzen zituela zuzenean eta berehala<sup>633</sup>, eta hori garai hartako jardunbide judiziala ezagutarazten diguten hainbat eta hainbat pasartek eta agirik ezeztatzen dute<sup>634</sup>.

Nazioaren batzar batean egindako dekretu horretan esaten denez, epaileak lapur ospetsu bat aurkitzen badu, lotarazi egingo du erregearen aurrera eramateko, frankoa bada (*Francus*); baina pertsona ahulagoren bat bada (*debiliior persona*), bertan urkatuko du<sup>635</sup>. Dubos abadearen arabera, *Francus* gizon librea da, *debiliior persona* jopua. Oraingoz alde batera utziko dut pasarte horretan *Francus* hitzak zer esan nahi dezakeen; eta «pertsona ahulagoren bat» hitzez uler daitekeena aztertzeari ekingo diot. Nik hauxe diot, zeinahi hizkuntzatan delarik ere, konparatibo orok hiru termino eskatzen dituela nahitaez: handiena, txikiagoa, eta txikiena. Pasarte hori gizon libreez eta jopuez ari balitz, «jopu bat» esango zukeen, ez «ahal gutxiagoko gizona». Beraz, *debiliior persona*-k ez du esan nahi jopua, baizik eta bere azpitik jopua duen pertsona. Hori hala izatera, *Francus* hitzak ez du esan nahiko gizon librea, baizik eta gizon ahaltsua; eta adiera horretan erabiltzen da hor *Francus* hitza, zeren eta, frankoen artean, Estatuan boteretik handiena zeukatenak baitziren beti, eta epaile edo kondearentzat zailagoa baitzen haiek zuzentzea. Azalpen hori bat dator delitugileak erregearen aurrera zein kasutan eraman zitezkeen eta zein kasutan ez aipatzen duten kapitular askorekin<sup>636</sup>.

Tégan-ek idatzitako<sup>367</sup> *Luis Errukitsuaren Bizitza*-n ikus daiteke apezpikuak izan zirela enperadore horren umiliatzaile nagusiak, batez ere jopu izan zirenak eta barbaroen artean jaiotakoak. Tégan gogor mintzo zaio Hébon-i, printze hark joputzatik atera eta Reimsko artzapezpiku egin zutenari: «Zelako saria jaso duen enperadoreak hainbeste on egin eta gero!<sup>368</sup> Libre egin zaitu, ez aitoren seme; ez zeukan zu aitoren seme egiterik, askatasuna eman eta gero».

Hitzaldi horrek, hain argi frogatzen badu ere bi hiritar-mota zeudela, ez du harritzen Dubos abadea. Honela erantzuten du<sup>639</sup>: «Pasarte horrek ez du esan nahi Luis Errukitsuak ezin izan zuela sarrarazi Hébon aitoren semeen sailean. Hébon, Reimsko artzapezpiku izaki, lehen gradukoa zatekeen, aitoren semeen gainetik». Irakurlearen esku uzten dut ea pasarte horrek hori esan nahi duen erabakitzea; nik bere esku uzten dut erabakitzea horko kontua elizgizonak aitoren semeen gainetik zeudela ote den. «Pasarte horrek hauxe frogatzen du bakarrik», dio Dubos abadeak<sup>640</sup>, «hiritar libre jaioak aitoren semetzat hartzen zirela; munduan zehar, aitoren seme eta gizon libre jaioa esanahi berekoak izan dira luzaroan». Hara! Hortaz,



gure garai modernootan, burges batzuk aitoren seme izatera iritsi direnez, Luis Errukitsuaren bizitzako pasarte bat aplikatuko diegu horiei ere! «Gainera», jarraitzen du<sup>641</sup>, «badaiteke Hébon frankoen nazioan ez baina saxoniarren nazioan izatea esklabo, edota beste nazio germaniarren batean, non hiritarrak zenbait gradutan banatuta baitzeuden». Hortaz, Dubos abadearen *baliteke* hori dela-eta, ez bide zen izan aitoren semerik frankoen nazioan. Baina inoiz ez du okerrago erabili *bali-teke*-rik. Ikusi berri dugu<sup>642</sup> Téganek bereizketa egiten duela Luis Errukitsuaren kontra paratu ziren apezpikuen artean: batzuk jopu izanak ziren, eta besteak nazio barbaro bateko jatorrikoak. Hébon lehen sailekoa zen, ez bigarrenekoa. Gainera, ez dakit nola esan daitekeen Hébon bezalako jopu bat saxoniarra edo germaniarra zela: jopu batek ez du familiarik, eta, beraz, ezta naziorik ere. Luis Errukitsuak jare egin zuen Hébon, eta, jopu jareginek nagusiaren legea hartzen zuteenez, Hébon franko bihurtu zen; ez saxoniarrak edo germaniarrak.

Erasoan ibili naiz, eta orain defendatu beharra daukat. Esango zait antrustioien taldeak gizon libreena ez bezalako taldea osatzen zuela Estatuan, baina, feudoak hasieran aldagarriak eta gero biziarte-koak izan zirenez, hortik ezin zela jatorrizko aitoren semetzarik sortu, pribilegioak ez zeudelako oinordetzazko feudo bati lotuta. Kontrako arrazoi horrek pentsarazi bide zion Valois jaunari frankoen artean hiritar-gradu bakarra zegoela, eta Dubos abadeak harengandik hartu du ideia hori, eta indargabetu besterik ez du egin frogak okerren bidez. Nolanahi ere den, Dubos abadeak ez zeukan kontrako arrazoi hori ematerik. Izan ere, erromatar nobleen artean hiru gradu eman ondoren, eta lehenarentzat erregearen mahaikide izaera, ez zeukan esaterik titulu horrek antrustioienak baino gehiago markatzen zuela jatorrizko aitoren semetza. Baina zuzeneko erantzuna eman behar da. Antrustioi edo leialak ez ziren antrustioi edo leial feudoa zeukatelako; aitzitik, antrustioi edo leial zirelako ematen zitzaien feudoa. Gogoratu beharra dago liburu honetako lehen kapituluetan esan dudana: garai hartan ez zeukaten, gerora bezala, feudo berbera; bat ez bazeukaten, beste bat edukiko zuten, feudoak jaiotzean ematen zirelako, maiz nazioaren batzarretan ematen zirelako, eta azkenik, aitoren semeen interesa feudoa edukitzea zen bezala, erregearen interesa haiei ematea zelako. Familia haiek leial-maila zutelako eta feudo baterako gomendatuak izateko pribilegioa zutelako bereizten ziren. Hurrengo liburuan eraku-

tsiko dut<sup>643</sup> nola, garai haietako gorabeherak zirela eta, zenbait gizon librek ere pribilegio hartaz gozatzeko modua izan zuten. Hori ez zen horrela Gontran eta honen iloba Txildebertoren garaian, baina bai Karlomagnoren garaian. Printze honen garaitik aurrera, gizon libreak feudoak edukitzeko gai izan arren, badirudi, hona aldatu dugun Téganen pasartearen arabera, jopu jareginek ezinezkoa zutela horrelakorik. Dubos abadeak<sup>644</sup>, Turkiaraino doalarik antzinako aitoren seme frantsesak zer ziren erakusteko, esango al digu, bada, Turkian inoiz kexatu ote diren jaiotzaz apalak ziren pertsonak ohore eta kargu altuetara goratzeagatik, Luis Errukitsuaren eta Karlos Burusoilaren erregealdietan kexatzen ziren bezala? Ez ziren kexu Karlomagnoren garaian, printze horrek beti bereizi zituelako familia zaharrak berrietatik; baina Luis Errukitsuak eta Karlos Burusoilak ez zuten hori egin.

Irakurleak ez du ahaztu behar Dubos abadeari zor dizkiogula zenbait lan bikain. Lan ederren gainean juzgatu behar du, ez oraingo honen gainean. Dubos abadeak oker handiak egin ditu honetan, begien aurreanago duelako Boulainvilliersko kondea bere gaia baino. Nire kritika guztietatik, gogoeta haxe besterik ez dut aterako: gizon handi horrek huts egin badu, zeren beldur ez ote dut nik izan behar?

# HOGEITA HAMAIKAGARREN LIBURUA

Frankoen lege feudalen teoria, haien  
monarkiako aldaketekin duten zerikusiaren  
aldetik

## I

*Aldaketak kargu eta feudoetan*

Hasieran, kondeak urtebeterako bakarrik bidaltzen zituzten beren barrutietara, baina laster erosi egin zuten beren karguetan jarraitzea. Klodoveoren iloben erregealdiko adibide bat dugu. Peonio izeneko bat konde zen Auxerreko hirian<sup>645</sup>; bere seme Mummolusekin bidali zuen dirua Gontranengana, beste urtebetez karguan jarraitzeko; semeak, ordea, bere izenean eman dirua, eta beretzat lortu zuen aitaren kargua. Erregeak hasiak ziren jadanik beren faboreetan ustelkeria sartzen.

Nahiz eta, erresumaren legearen arabera, feudoak aldagarriak izan, ez ziren ematen edo kentzen apeta hutsez eta arbitrarioki; horixe izaten zen nazioaren batzarretan tratatu ohi ziren gauza nagusietako bat. Baliteke ustelkeria puntu horretan sartzea, bestean sartu zen bezala, eta feudoen jabetza diru truke luzaraztea, konderrien jabetza luzatzen zen bezala.

Liburu honetan segidan<sup>646</sup> erakutsiko dut ezen, printzeek aldi baterako egindako donariez gainera, bazirela betiko egin zituzten beste batzuk. Gertatu zen gorteak indargabetu egin nahi izan zituela egin ziren donariak, eta horrek atsekabe orokorra eragin zuen nazioan, eta Frantziaren historian ospetsu bihurtu den iraultza etorri zen, zeinen lehen aldia Brunekildaren suplizioaren ikuskizun harrigarria izan baitzen.

Besterik gabe, harrigarria dirudi erregina hura, hainbeste erregeren alaba, arreba eta ama, egun ere oraindik ospetsua edil edo prokonsul erromatar baten duin diren obregatik, erresumako arazoetarako argitasun miresgarrarekin jaioa, oso denbora luzean errespetuak izan ziren tasunez jantzia, bat-batean hain suplizio luze, lotsagarrri, ankerren<sup>647</sup> arriskupean jarri izanak, nazioan autoritatea sendotu gabea zuen errege batek<sup>648</sup>; harrigarria dirudi, salbu eta, arrazoi partikularren bat zela medio, nazio horrek begitan hartu bazuen. Klotariok hamar errege hiltzea aurpegiratu zion<sup>649</sup>, baina haietako bi Klotarioren beraren aginduz hil zituzten; beste batzuk zoriaren edo beste erreginaren baten gaiztotasunak hil zituen; eta Fredegunda ohean hiltzen utzi zuen nazioa, haren krimen izugarriak zigortzearen kontra agertu zen nazioa<sup>650</sup>, hotz agertuko zen Brunekildaren krimen horien aurrean.

Gamelu baten gainean jarri eta armada guztiaren aurrean erabili zuten; horra armada hark begitan hartua zuelako seinale segurua. Fredegariok dioenez, Protariok, Brunekildaren gogokoak, jaunen ondasunak hartu, eta fiskoa gizentzen zuen, umiliatu egiten zituen nobleak, eta inork ez omen zeukan seguru bere karguan iraungo ote zuen<sup>651</sup>. Armada konjuriatu egin zen haren kontra, eta sastakatu egin zuten bere oihala-etxolan; eta Brunekilda, dela hilketa hartaz hartu zuen mendekuagatik<sup>652</sup>, dela ildo beretik jarraitu zelako, gero eta gehiago gorrotatzen zuen nazioak<sup>653</sup>. Klotario, erregetza bakarrik izateko irrikaz, eta mendeku-gose izugarrienaz, Brunekildaren seme-alabek aurrea hartzen bazioten bereak egin zuelakoan, bere buruaren kontrako konjurazio batean sartu zen; eta, dela abilezia faltaz, dela inguruabarrek hartara behartu zutelako, Brunekildaren salatzaile bihurtu eta etsenplu beldurgarria eskaini nahi izan zuen erregina haren lepotik.

Warnakario izan zen Brunekildaren kontrako konjurazioaren arima; Borgoniako maiordomo egin zuten, eta exijitu zion Klotariori bizi artean ez zezala ken kargu hartatik<sup>654</sup>. Hartara, maiordomoa ezin zen egon jaun frantsesak egon ziren kasuan, eta kargu hura erregearen autoritatetik at geratzen hasi zen.

Brunekildaren erregeordetza zorigaztokoak haserretua zuen nazioa. Legeek indarrean iraun zuten artean, inor ez zen kexu izan feudoa kendu ziotela-eta, legeak ez baitzion betiko ematen; baina askonahiak, jokabide gaiztoek, ustelkeriak, feudoak ematea ekarri

zutenean, kexuka hasi ziren, bidegabe kentzen zitzaizkiela-eta bidegabe eskuratutako gauzak. Beharbada, donariak kentzeko arrazoia on publikoa izan balitz, inork ez zukeen ezer esango; baina ordena erakutsi, eta ustelkeria ez zen estaltzen; fiskoaren eskubidea aldarrikatu, eta fiskoaren ondasunak eskubeteka eta gogara ematen ziren. Donariak ez ziren gehiago izan zerbitzuen saria edo itxaropena. Brunekildak espiritu ustelez zuzendu nahi izan zituen ustelkeria zahararren gehiegikeriak. Haren apetak ez ziren espiritu ahul batenak: leude eta kargu handiek galduta ikusi zituzten beren buruak, eta erre-gina bera galdu zuten.

Asko falta zaigu garai hartan gertaturiko guztiak jakiteko; eta kronikalariak, beren garaiko historiaz, gutxi gorabehera, herrixketako biztanleek gure historiaz dakitena zekitelarik, alferrikoak dira. Hala ere, badugu Klotarioren konstituzio bat, Parisko kontzilioan emana<sup>655</sup> gehiegikeriak zuzentzeko, zeinetan erakusten baita printze hark iraultza ekarri zuten kexuak desagerrarazi zituela<sup>656</sup>. Alde batetik, berretsi egiten ditu bertan bere aurreko erregeek emandako edo berretsitako donari guztiak<sup>657</sup>; eta bestetik, zera agintzen du, bere leude edo leialei kendutakoa itzul dakiela<sup>658</sup>.

Ez zen hori izan erregeak kontzilio hartan eman zuen gauza bakarra. Elizgizonen pribilegioen kontra egindako guztia zuzen zedin agindu zuen<sup>659</sup>. Gorteak apezpikuen aukeraketan zuen eragina leundu zuen<sup>660</sup>. Arazo fiskalak ere erreformatu zituen erregeak: zentsu berri guztiak kentzeko agindu zuen<sup>661</sup>; ez jasotzeko Gontran, Sigeberto eta Txilperiko hil ondoren ezarritako pasatze-eskubiderik<sup>662</sup>. Alegia, ezabatu egin zuen Fredegunda eta Brunekildaren erregeordetzetan egindako guztia. Debekatu egin zuen bere artaldeak partikularren basoetara eramatea<sup>663</sup>. Eta segidan erreforma are orokorragoa izan zen, eta arazo zibiletara ere zabaldu zen, ikusiko dugunez.

## II

### *Nola erreformatu zen gobernu-era zibila*

Ordura arte nazioak erakutsita zeuzkan inpazientzi eta arinkeri zantzuak nagusien hautapena edo jokabidea zela-eta; nagusien arteko

gorabeherak konpontzen eta bakearen premia haiei inposatzen jarduna zen. Baina artean ikusi gabea, nazioak orduan egin zuen: bere egoerari erreparatu zion, odol hotzean aztertu zituen bere legeak, haien akatsak zuzendu zituen, indarkeria gerarazi zuen, boterea arautu.

Fredegunda eta Brunekildaren erregeordetza ordots, ozart eta lotsagabeek, harritu baino gehiago, jakinaren gainean jarri zuten nazio hura. Fredegundak bere gaiztakeriez defendatu zituen bere gaiztakeriak; pozoia eta hilketak pozoiz eta hilketen bidez justifikatu zituen; haren jardueran, atentatuak pribatu ziren publiko baino gehiago. Fredegundak gaitz gehiago egin zuen, Brunekildak beldur gehiago sartu zuen. Krisi hartan, nazioak ez zuen askietsi gobernu feudalean ordena ezartzea, gobernu zibila ere segurtatu nahi izan zuen; izan ere, hau bestea baino ustelduago baitzegoen, eta ustelkeria hori askoz arriskutsuagoa zen, zaharragoa zelako eta legeen gehiegikeriekin baino zerikusi handiagoa zuelako ohituren gehiegikeriarekin.

Gregorio Tourskoaren historiak eta beste dokumentuek, batetik nazio krudel eta barbaroa, eta bestetik gutxiago ez ziren erregeak erakusten dizkigute. Printze haiek hiltzaileak ziren, injustuak eta ankerak, nazio osoa halakoa zelako. Kristautasunak inoiz leundu egin zituela ematen bazuen, kristautasunak errudunei sartzen dien zukurutzagatik izan zen bakarrik. Elizak beren santuen mirari eta prodigioen bidez defendatu ziren haien kontra. Erregeak ez ziren sakrilegoak, sakrilegoentzako zigorren beldur zirelako; baina bestela, era guztietako krimenak burutu zituzten, suminez nahiz odol hotzean, krimen eta injustizia haiek ez zirelako Jainkoaren eskua hain agerian erakusten. Frankoek, esan dudanez, errege hiltzaileak izan zituzten, berak ere hiltzaile zirelako; beren erregeen injustizia eta harrapaketak ez zituzten ikaritzen, berak ere harrapari eta injustu zirelako haiek bezala. Lege asko zeuden ezarrita, baina erregeek alferriko bihurtzen zituzten lege haien kontra egindako *prezepzio*<sup>664</sup> izeneko gutunen bidez. Gutxi gorabehera, enperadore erromatarren erreskriptuak bezalakoak ziren. Agian, erregeek haiengandik hartu zuten usadio hori, agian beren kabuz asmatu zuten. Gregorio Tourskoaren obran ikusten denez, odol hotzean hiltzen zuten, eta akusatutakoei entzun gabe, heriotzara bidaltzen zituzten; prezepzioak ematen zituzten legez kontrako ezkontzak egin zitezen<sup>665</sup>; oinordekotzak aldatzeko ere ematen zituzten; ahaideen eskubidea kentzeko ere bai; baita lekaimeekin ezkontzeko ere. Egia

esan, ez zituzten beren apeten arabera egiten legeak, baina eginda zeudenak erabiltzea galarazten zuten.

Klotarioren ediktuak konpondu zituen gaitz guztiak. Inor ezin izan zen kondenatu entzuna izan gabe<sup>666</sup>; ahaideek legeak ezarritako ordenaren arabera izan ziren oinordeko<sup>667</sup>; neska, alargun edo lekai-meekin ezkontzeko prezepzio guztiak indargabetu ziren, eta zigor larriak ezarri zitzaizkien haiek lortu eta erabiltzen zituztenei<sup>668</sup>. Beharbada zehazkiago jakingo genuke hark prezepzio horiei buruz agindu zuena, baldin eta, garaiko gorabeherak tarteko, dekretu horretako 13. artikulua eta hurrengo biak desagertu ez balira. 13. artikulua horren lehen hitzak ditugu bakarrik; prezepzioei men egingo zaiela agintzen du, baina hori ez dago ulertzerik lege horrexek indargabetzen zituen prezepzioez. Printze beraren beste konstituzio bat dugu<sup>669</sup>, ediktu hori aipatzen duena, eta prezepzioen gehiegikeria guztiak puntuz puntu zuzentzen dituen.

Egia da Baluze jaunak, konstituzio hori datarik eta eman zen tokiko izenik gabe aurkitzean, Klotario I.ari leporatu ziola. Klotario II.arena da, ordea. Hiru arrazoi emango ditut:

1. Bertan esaten da erregeak bere aitak eta aitonak elizei onartutako immunitateak errespetatuko dituela<sup>670</sup>. Zein immunitate emango zizkien elizei Txilderikok, Klotario I.aren aitonak, kristaua ez izanik, eta monarkia sortu aurretik bizi izanik? Dekretu hori Klotario II.ari egotziz gero, ordea, aitona Klotario I.a bera zela ikusiko dugu, zeinek sekulako donariak egin baitzizkien elizei bere seme Kramneren erailketa pekatzeko, emazte eta seme-alabekin errearazi baitzuen.

2. Konstituzio horrek zuzendu zituen gehiegikeriek iraun egin zuten Klotario I.a hil eta gero ere, eta beren gehienera iritsi ziren Gontranen erregealdi ahulean, Txilperikorenaren ankerrean eta Fredegunda eta Brunekildaren erregeordetza higuingarrietan. Alabaina, nola jasango zituzkeen nazioak hain hitz larritz debekatutako gaitzak, gaitzok etengabe gertatzeagatik kexatu gabe? Nola ez zuen egingo orduan, Txilperiko II.ak<sup>671</sup> berriz ere indarkeriari ekin zionean egin zuena? Eta hain zuzen, nazioak behartu egin zuen hura epaiketetan legeari eta ohiturei men egitera, behinola egiten zen bezala<sup>672</sup>.

3. Azkenik, okerrak zuzentzeko egindako konstituzio hori ezin zaio Klotario I.ari egotzi, honek bere erregealdian ez zuelako kexurik

izan alde horretatik, eta bere agintea sendotuta zegoelako, batez ere konstituzio hau kokatzen den garaian; aldiz, oso ondo dator Klotario II.aren erregealdian gertaturikoekin, erresumaren egoera politikoan iraultza eragin baitzuten. Historia legeen bidez argitu behar da, eta legeak historiaren bidez.

### III

#### *Jauregiko maiordomoen agintea*

Esan dut Klotario II.ak agindu ziola Warnakariori hau bizi artean ez ziola maiordomo kargua kenduko. Aldaketa honek beste ondorio bat izan zuen: ordura arte, maiordomoa erregearen maiordomo zen, eta handik aurrera erresumaren maiordomo bihurtu zen; aurrez erregeak hautatzen zuena, handik hara nazioak hautatu zuen. Aldaketa baino lehen, Teoderikok Protario egin zuen maiordomo<sup>673</sup>, eta Fredegundak Landeriko<sup>674</sup>; baina ondoren, nazioaren esku egon zen maiordomoa hautatzea<sup>675</sup>.

Beraz, ez dira nahastu behar, zenbait autorek bezala, jauregiko maiordomo horiek eta Brunekilda hil aurretik kargu hori zutenak; alegia, erregearen maiordomoak eta erresumaren maiordomoak. Burgundiarren legean ikusten denez, haien artean maiordomo kargua ez zen Estatuko lehenengoetako bat<sup>676</sup>, lehen errege frankoen artean ere ez zen nagusietako bat<sup>677</sup>.

Klotariok bermatu egin zituen karguak eta feudoak zituztenak; eta Warnakario hil eta gero, printze hark Troyesen bildutako jaunei beraren ordeztu ea nor jarri nahi zuten galdegin zientaririk, denak atera ziren ez zutela inor hautatuko; eta haren oniritzia eskaturik, haren eskuetan jarri ziren<sup>678</sup>.

Dagobertok monarkia osoa bildu zuen, bere aitak bezala: nazioa hartaz fidatu, eta ez zion maiordomorik eman. Printze hura libre sentitu zen, eta bere garaitzei esker ere bermaturik, Brunekildaren bidetik abiatu zen. Baina hain gaizki atera zitzaion, non Austrasiako leudeek eslavoniarrek garai zitzaten utzi<sup>679</sup> eta beren herrialdera itzuli baitziren, Austrasiako markak barbaroen esku utzirik.



Orduan, Austrasia bere seme Sigebertori ematea eskaini zien austrasiarrei, altxor batekin batera, eta erresumaren eta jauregiaren gobernua Kuniberto Koloniako apezpikuaren eta Adalgiso dukearen eskuetan uztea. Fredegario ez da sartzen orduan egin ziren abenikoen xehetasunetan; baina erregeak berretsi egin zituen bere gutunen bidez, eta Austrasia arriskuz kanpo geratu zen<sup>680</sup>. Dagobertok, hiltzera zihotala ikusiz, Aegari eman zion Nentekilda emaztea eta Klodoveo semea zaintzeko enkargua. Neustria eta Borgoniako leudeek printze gazte hau hautatu zuten errege<sup>681</sup>. Aegak eta Nentekildak gobernatu zuten jauregia<sup>682</sup>: Dagobertok hartuak zituen ondasun guztiak itzuli zituzten<sup>683</sup>, eta Neustrian eta Borgonian amaitu egin ziren kexuak, Austrasian amaituak ziren bezala.

Aega hil ondoren, Nentekilda erreginak maiordomotzat Floakatus hauta zezatela eskatu zien Borgoniako jaunei<sup>684</sup>. Honek gutunak bidali zizkien Borgoniako erresumako apezpiku eta jaun nagusiei, aginduz haiek bizi artean berretsi egingo zizkiela beren ohore eta karguak<sup>685</sup>. Zin eginez berretsi zuen bere hitza. Hortxe jartzen du errege-etxeko maiordomoen Liburuak erresumaren administrazioa jauregiko maiordomoen esku jartzearen hasiera<sup>686</sup>. Fredegario, burgundiarra baitzen, xehetasun gehiagotan sartzen da hizpide dugun aldaketaren garaiko Borgoniako maiordomoei dagokienez, Austrasia eta Neustriako maiordomoei dagokienez baino; baina Borgonian egin ziren abeniko berberak egin ziren, arrazoi berberak zirela medio, Neustrian eta Austrasian.

Nazioak uste zuen seguruagoa zela boterea berak aukeratzen zuen nagusi baten eskuetan jartzea, bere baldintzak ezartzen zizkiolarik, ezen ez boterea oinordetzaz zetorkion errege baten eskuetan.

## IV

*Zein zen, maiordomoei zegokienez, nazioaren jeinua*

Erregea zuen nazio batean erregearen boterea nork erabiliko erabakitzen zeneko gobernu-era batek guztiz harrigarria dirudi, baina zirenak zirela garaiko inguruabarrak, uste dut frankoek honetaz zituzten ideiak aspaldikoak zirela.

Frankoak germaniarrengandik zetozen, eta Tazitok hauetaz dioenez, erregea hautatzean, haren nobletasunaren arabera erabakitzen omen zuten; eta gerrarako buruzagia hautatzean, haren bertutearen arabera<sup>688</sup>. Horra, batetik, lehen dinastiako erregeak, eta bestetik jauregiko maiordomoak; lehenak oinordetzazkoak ziren, eta bigarrenak hautabidezkoak.

Zalantzarik gabe, nazioaren batzarrean jaiki eta jarraitu nahi zitzaizkien guztien buruzagi izatea proposatzen zuten printze haiek, berengan bilduko zuten gehienetan erregearen autoritatea eta maiordomoaren boterea. Nobletasunak erregetza ematen zien; eta bertuteak, buruzagitza hartzen zituzten hainbat boluntario atzean zituztelarik, maiordomoaren boterea ematen zien. Errege-ohoreari esker egon ziren gure lehen erregeak epaimahai eta batzarren buru, eta eman zituzten legeak batzar haien oniritziarekin; dukearen edo buruzagiaren ohoreari esker egin zituzten beren espedizioak eta gidatu zituzten beren armadak.

Lehen frankoek alde honetatik zuten aiurria ezagutzeko, aski da jaiotzaz frankoa zen Arbogastok, zeini Valentinianok armadaren buruzagitza eman baitzion, izan zuen jokabideari begi ematea<sup>688</sup>. Enperadorea jauregian atxilotuta utzi zuen; ez zion inori utzi harekin ezoin arazo zibil nahiz militarrez mintzatzen. Arbogastok, orduan, geroago Pepindarrek egingo zutena egin zuen.

## V

### *Nola lortu zuten maiordomoek armaden buruzagitza*

Erregeak armaden gidari izan ziren bitartean, nazioa ez zen arduratu buruzagia aukeratzeaz. Klodoveo eta bere lau semeak frantziarren buru ibili ziren, eta garaitzatik garaitzara eraman zituzten. Teobaldo, Teodebertoren semea, printze gazte, ahul eta gaixoa, jauregian geratu zen lehen erregea izan zen<sup>689</sup>. Ezezkoa eman zion Italiara espedizioa egiteari, Narsesen kontra, eta frankoek hara eramango zituzten bi buruzagi nola aukeratu zituzten ikusteko nahigabea izan zuen<sup>690</sup>. Klotario I.aren lau semeetarik, Gontranek erakutsi zuen axolagabezia gehien armada gidatzeaz<sup>691</sup>; beste errege batzuk bide horre-

tatik jarraitu ziren, eta buruzagitza inoren eskuetan arriskurik gabe uzteko, zenbait buruzagi edo dukeri eman zieten<sup>692</sup>.

Ezin konta ahala eragozpen sortu ziren orduan: gehiago ez zen diziplinarik izan, obeditzen ahaztu zitzaien; armadek beren herrialdeari egin zioten kalterik handiena; harrapakinez zamatuta joaten ziren etsaiarengana iritsi baino lehen. Gregorio Tourskoagan gaitz horien guztien azalpen argia aurki daiteke<sup>693</sup>. «Nola lortuko dugu garaipena», zioen Gontranek, «gure gurasoek eskuratutakoa gordetzen ez badakigu? Gure nazioa ez da izan zena<sup>694</sup>...». Hau gauza bitxia! Gainbeheran zetorren Klodoveoren biloben garaitik.

Beraz, bidezkoa zen duke bakarra izendatzea; beren betebeharez arduratzen ez ziren jaun eta leudeen ugaritasun amaigabe haren gainean agintea izango zuen duke bat; diziplina militarra berrezarriko zuen duke bat, eta bere buruaren kontra bakarrik egiten zekien nazio bat etsaiaren kontra gidatuko zuena. Hortaz, jauregiko maiordomoei eman zitzaien boterea.

Jauregiko maiordomoen lehen betekizuna errege-etxearen ekonomia gobernatzea izan zen. Beste ofizial batzuekin batera, feudoen gobernu politikoa izan zuten beren esku<sup>695</sup>; eta azkenean, berak bakarrik arduratu ziren horretaz. Gerra-arazoez eta armadak gidatzeaz ere arduratu ziren, eta bi betekizun horiek beste biekkin lotuta geratu ziren nahitaez. Garai hartan, zailagoa zen armadak biltzea gidatzea baino; eta nork izango zuen autoritate hori, sariak eman zitzakeenak baizik? Nazio independente eta gerrari hartan, gonbidatu egin behar zen, ez derrigortu; eman edo itxaronarazi egin behar ziren jabea hil eta jabe-rik gabe zeuden feudoak; sariak eman eten gabe, hobespenen beldurra sartu behar zen. Beraz, jauregiko arduradunak armadako jenerala izan behar zuen.

## VI

### *Lehen dinastiako erregeen gainbeheraren bigarren aldia*

Brunekildaren suplizioaz geroztik, maiordomoak erresumako administrazioaileak izan ziren erregeen esanetara; eta gerrako gidaritza haiek izan arren, erregeak ziren armaden buru, eta maiordomoa eta

nazioa erregeen esanetara borrokatzen ziren. Baina Pepin dukeak Teodoriko eta bere maiordomoaren gainean lortutako garaipenak<sup>696</sup> erabat hondatu zituen erregeak<sup>697</sup>. Karlos Martelek Txilperiko eta bere maiordomo Rainfroiren gainean lortutakoak<sup>698</sup>, berriz, berretsi egin zuen hondamen hura. Austrasiak bi aldiz garaitu zituen Neustria eta Borgonia; Austrasiako maiordomotza Pepindarren familiari atxikita zegoenez, maiordomotza hura beste maiordomotzen gainetik jarri zen, eta etxe hura beste etxeen gainetik. Irabazleak kezkatu egin ziren, pertsona itzal handikoren batek ez ote zituen erregeak bere mendean hartuko istiluak sortzeko, eta errege-etxe batean gorde zituzten, presondegi batean bezala<sup>699</sup>, eta urtean behin herriari erakusten zizkioten. Han, ordenantzak ematen zituzten<sup>700</sup>, baina maiordomoarenak ziren, izan; enbaxadoreei erantzuten zieten, baina maiordomoaren erantzunak ziren haiek. Garai hartan, historialariek esaten digutenez, maiordomoek mendean zeuzkaten erregeak<sup>701</sup>.

Nazioak Pepinen familiaz zuen lilura hainbesteraino iritsi zen, non haren bilobatxo bat aukeratu baitzuen maiordomotzat<sup>702</sup>; Dagoberto izeneko baten gainean ezarri zuen, eta hartara mamua mamuaren gainean ipini.

## VII

### *Jauregiko maiordomoen garaiko kargu handiez eta feudoez*

Jauregiko maiordomoak ez ziren arduratu kargu eta ofizioen aldagarritasuna berrezartzeaz; izan ere, alde horretatik nobleei ematen zieten babesari esker gobernatzen zuten; hartara, kargu handiak bizi osorako eman ziren aurrerantzean ere, eta usadio hori gero eta gehiago berretsi zen.

Baina gogoeta partikular batzuk dauzkat feudoez egiteko. Ez daukat batere zalantzarik garai hartatik aurrera gehienak oinordetzazko bihurtu zirela.

Andelyko itunean<sup>703</sup>, Gontranek eta bere iloba Txildebertok aurreko erregeek leudeei eta elizei egindako donariak bere hartan uzteko hitza eman zuten; eta onartu egin zitzaien erreginei, erregeen

alaba eta alargunei, fiskotik lortutako gauzen gainean nahi bezala testamentuz, eta betiko, erabakitzea<sup>704</sup>.

Markulfok maiordomoen garaian idatzi zituen bere formulak<sup>705</sup>. Horietako zenbaitetan, erregeek norbaiti eta norbait horren oinordeko-  
ei ematen diete zerbait<sup>705</sup>, eta, formulak bizitzako ekintza arrunten iru-  
diak direnez, zera frogatzen dute, lehen dinastiaren azken aldera, feudo-  
multzo bat oinordekoen eskuetara pasatu zela. Asko falta zen garai har-  
tan lur-sail besterenezinaren ideia izateko; hori oso gauza modernoa da,  
eta garai hartan ez zen ezaguna ez teorian eta ez praktikan.

Laster emango ditugu frogak horri buruz; eta erakusten badut  
garai jakin batean jadanik ez zela onurarik armadarentzat, ezta diru-  
tzarik haren mantenurako, onartu beharko da onura zaharrak beste-  
renduak zirela. Garai hori Karlos Martelena da; feudo berriak sortu  
zituen, lehenengoetatik argi bereizi behar direnak.

Erregeak donariak betiko ematen hasi zirenean, dela gobernu-  
ra iritsi zen ustelkeriagatik, dela konstituzioagatik beragatik, zeinek  
erregeak etengabe sariak ematera behartzen baitzuen, naturala zen  
feudoak betiko ematen hastea, eta ez konderriak. Izan ere, lur batzuk  
ematea gauza txikia zen; kargu handiei uko egitea, ordea, boterea bera  
galtzea zen.

## VIII

### *Nola alodioak feudo bihurtu ziren*

Alodio bat feudo bihurtzeko modua Markulforen formula bate-  
an dator<sup>707</sup>. Lurra erregeari ematen zitzaion; hark emaileri itzultzen  
zion gozamen edo onura gisa, eta honek, berriz, erregeari izendatzen  
zizkion bere oinordekoak.

Alodia horrela aldatzeko izan ziren arrazoiak aurkitzeko,  
amildegi sakon batean bezala bilatu beharra daukat hamaika mendez  
geroztik hautsez, odolez eta izerdiz estalita dagoen noblezia haren pri-  
vilegioak.

Feudoak zituztenek abantaila handiak zituzten. Egiten zitzaiz-  
kien kalteen ordain jasotzen zuten konposizioa gizon libreena baino

handiagoa zen. Markulforen formuletan ageri denez, erregearen basailuaren pribilegioa zen bera hiltzen zuenak seiehun sos ordaindu behar izatea. Pribilegio hori lege salikoak<sup>708</sup> eta erripuarioenak<sup>709</sup> ezartzen zuten; eta bi lege horiek erregearen basailua hiltzeagatik seiehun sos agintzen zuten bezala, berrehun besterik ez zituzten agintzen gizon libre, franko, barbaro edo lege salikopeko norbait hiltzeagatik; eta ehun besterik ez erromatar bat hiltzeagatik<sup>710</sup>.

Hori ez zen erregearen basailuek zeukaten pribilegio bakarra. Jakin behar da gizon bat epaiketara deitzen zutenean, eta aurkeztzen ez bazen, edo epaileek agindutakoari obeditzen ez bazion, erregearen aurrera deitzen zutela<sup>711</sup>; eta bere hartan jarraitzen bazuen, erregearen babesetik kanpo geratzen zen, eta inork ezin zuen hartu etxean, ezin zion ogirik eman<sup>712</sup>; alabaina, maila arruntekoa bazen, konfiskatu egiten zizkioten ondasunak<sup>713</sup>; baina erregearen basailua bazen, ez<sup>714</sup>. Lehena, bere setakeriagatik, delituaren egileztat jotzen zuten, baina bigarrena ez. Hari, deliturik txikienetan, ur irakinaren proba ezartzen zioten<sup>715</sup>; hau, berriz, heriotza-kasuetan baizik ez zuten kondenatzen horretara<sup>716</sup>. Azkenik, erregearen basailu bat ezin zuten behartu auzian beste basailu baten kontra zin egitera<sup>717</sup>. Pribilegio horiek gehituz joan ziren, eta Karlomanen kapitularrak ohore hori aitortzen die erregearen basailuei, ezin direla behartuak izan zin egitera, beren basailuen ahotik ez bada<sup>718</sup>. Gainera, ohoreak zituena armadan sartzen ez bazen, okela eta ardorik gabe geratzea zuen zigortzat, zenbat denboraz huts egin zuen zerbitzea, hainbeste denboraz; baina, kondeari jarraitu ez zitzaion gizon libreak<sup>719</sup> hirurogei soseko konposizioa ordaintzen zuen<sup>720</sup>, eta morrontzapean jartzen zuten ordaindu arte.

Beraz, pentsatzekoa da ezen erregearen basailu ez ziren frankoek, eta are gehiago erromatarrek, basailu izan nahiko zutela; eta beren jabetzak ken ez ziezaieten, usadio hori asmatu zela: beren alodioa erregeari ematea, harengandik feudo gisa hartzea eta beren oinordekoei ematea. Usadio horrek iraun egin zuen, batez ere bigarren dinastiako desordenetan, non mundu guztiak baitzuen babesle baten beharra, eta beste jaunekin batera egon nahi baitzuen<sup>721</sup>, eta, nolabait esateko, monarkia feudalean sartu, artean ez baitzen monarkia politikorik.

Horrek horrela iraun zuen hirugarren dinastian, hainbat agiritan ikus daitekeenez<sup>722</sup>, dela nork bere alodioa eman eta ekintza ber-

berean berriro jasotzen zuelako, dela alodio deklaratu eta feudotzat ezagutzen zelako. Feudo horiei *berreskuratzeko feudoak* deitzen zitzairen.

Horrek ez du esan nahi feudoak zituztenek familiburu on gisa gobernatzen zituztenik; eta nahiz eta gizon libreak feudoak edukitzen saiatu, halako ondasunak gaur egun usufukuak administratu ohi diren bezala tratatzen zituzten. Horregatik egin zituen Karlomagno, guk izan dugun printzerik arretatsu eta arduratsuenak, hainbeste araudi<sup>723</sup>, feudoak beren jabeen alde degradatzea galarazteko. Horrek hauxe besterik ez du frogatzen, garai hartan onura gehienak bizi artekoak zirela eta, beraz, gehiago arduratzen zirela alodioez onurez baino; baina horrek ez du kentzen ordukoek erregearen basailu izatea gizon libre izatearen aurretik jartzea. Egon zitezkeen arrazoiak feudo baten zati jakin batez erabakitzeko, baina inork ez zuen duintasuna galdu nahi.

Ondo dakit Karlomagno kexu dela bere kapitular batean<sup>724</sup> leku batzuetan zenbaitek jabetzan ematen zituztelako beren feudoak, eta segidan jabetzan berrerosten zituztelako. Baina ez dut esaten jabetza bat usufuku bat baino nahiago zutenik; nik hauxe besterik ez diot, alodio bat oinordekoetara pasatuko zen feudo bihurtzea zegoenean, eta horixe da hizpide izan dudana formularen kasua, abantaila handiak zekartzala hori egiteak.

## IX

### *Nola eliz ondasunak feudo bihurtu ziren*

Ondasun fiskalek ez zuketen beste zertarakorik izan beharko, ezpada erregeek, frankoak ekintza berrietara gonbidatzeko, eman zitzaizkion donaritarako erabiliak izatea. Ekintza horiek, bestalde, emendatu egiten zituzten ondasun fiskalak; eta horixe zen, esan dudanez, nazioaren espiritua; baina donariek beste zertarako bat hartu zuten. Badugu Txilperiko, Klodoveoren bilobaren hitzaldi bat<sup>725</sup>, zeinetan kexu baita bere ondasun gehienak elizei eman zitzaizkielako. «Gure fiskoa pobre bihurtu da» zioen; «gure aberastasunak elizetara eramanez dira<sup>726</sup>. Apezpikuak dira errege, ez gu».

Hori dela eta, maiordomoek, jaunei eraso egitera ez baitziren ausartzen, arpilatu egin zituzten elizak; eta Pepinek Neustrian sartze-ko eman zuen arrazoi bat<sup>727</sup> elizgizonek gonbidatu izana da, erregeen ekintzak geldiarazteko, maiordomoenak alegia, Elizari bere ondasun guztiak kentzen baitzizkieten.

Austrasiako maiordomoek, Pepindarren etxeak alegia, neurritasun handiagoz tratatu zuten Eliza Neustria eta Borgoniakoak tratatu zutena baino; eta hori oso argi dago gure kroniketan<sup>728</sup>, non gure monakoak ez baitira nekatzen Pepindarren eraspena eta eskuzabaltasuna miresteaz. Berek hartu zituzten Elizako lehen karguak. «Bele batek ez dizkio begiak ateratzen beste bele bati» esaten zien Txilperikok apezpikuei<sup>729</sup>.

Pepinek menderatu egin zituen Neustria eta Borgonia; baina haiek elizak zapaltzen zituztela jarri zuenez maiordomo eta erregeak suntsitzeko aitzakiatzat, ezin zituen elizak arpilatu bere burua kontr-esan gabe, eta nazioari barre egiten ziola erautsi gabe. Baina bi erresuma handi horiek konkistatzeak eta kontrako alderdia suntsitzeak bere kapitainak asetzeko nahikoa bitarteko eman zioten.

Pepin elizgizonak babestuz bihurtu zen monarkiako nagusi; Karlos Martelek, haren semeak, haiek zanpatuz baizik ezin izan zuen iraun. Printze honek, ikusiz errege-ondasunen eta ondasun fiskalen parte bat bizitza osorako edo jabetza gisa eman zitzaiei nobleei eta elizgizonek, aberatsen eta pobreengandik jaso, alodioen parte handi bat bereganatua zutela, arpilatu egin zituen elizak; eta lehen partiketako feudorik ez zenez, bigarren aldiz sortu zituen feudoak<sup>730</sup>. Beretzat eta bere kapitaintzat, elizen ondasunak eta elizak berak hartu zituen, eta gehiegikeria bat gerarazi zuen: ohiko gaitzak ez bezala, askoz sendaerrazagoa zena, askoz muturrekoagoa zelako.

## X

### *Elizgizonen aberastasunak*

Hainbeste ematen zitzaien elizgizonei, non, hiru dinastietan, erresumako ondasun guztiak adina zenbait bider eman bide baitzizkieten. Baina erregeek, nobleek eta herriak beren ondasun guztiak haiei



emateko modua aurkitu bazuten, kentzekoa ere aurkitu zuten. Jaierak sorrarazi zituen elizak lehen dinastian; baina espiritu militarrek gerrari ematea eragin zuen, eta hauek beren hurrei utzi zizkieten. Zenbat lur ez ote ziren irten elizgizonen errentetatik! Bigarren dinastiako erregeek eskuak zabaldu zituzten, eta sekulako donariak egin zizkieten. Etorri ziren normandiarrek, eta arpilatu eta zakuratu, batez ere apaiz eta monakoei esetsi zieten, abadiak bilatu zituzten, leku erlijiosoren bat non aurkituko; izan ere, elizgizonei egozten zieten beren idoloak suntsitu izana eta Karlomagnoren indarkeria guztiak, iparraldean gordeztera behartu baitzituen. Berrogei edo berrogeita hamar urtek ahaztarazi ez zieten gorrotoa zen hura. Gauzak hala, zenbat ondasun galdu zituzten elizgizonek! Ia ez zen elizgizonik haiek berriro eskatzeko. Beraz, hirugarren dinastiaren jaierari nahikoa fundazio eta lur geratu zitzaizkion egiteko eta emateko; garai hartan hedatu eta sinetsi ziren iritziek beren ondasun guztiez gabetuko zituzketen laikoak, zintzoak izan balira. Baina elizgizonak askonahiak baziren, laikoak ere bai: hiltzen zenak ematen bazuen, oinordekoak berriro hartu nahi zuen emandakoa. Liskarrak besterik ez ziren ikusten jaunen eta apezpikuen artean, kapareen eta abadeen artean; eta elizgizonak estu ibili ziren ezbairik gabe, zenbait jaunen babespean jartzera behartu baitziren, eta haiek lehen unean defendatu eta ondoren zapaldu egiten zituzten.

Hirugarren dinastian zehar ezarri zen gobernu-eraentza hobeari esker, elizgizonek beren ondasunak ugaltu ahal izan zituzten. Kalbinistak agertu ziren, eta diru bihurtu zuten elizetan aurkitu zuten urre eta zilar guztia. Nola egongo zen seguru elizgizonen aberastasuna, haien bizia bera ere seguru ez bazegoen? Auzigaiez arduratzen ziren, eta artxiboak erretzen zizkieten. Zertarako balio izan zien beti erreka jotako nobleei jadanik ez zeukatena, edo mila eratan hipotekatu zutena eskatzea? Elizgizonek beti eskuratu dute, beti itzuli dute eskuratutakoa, eta eskuratzen jarraitzen dute orain ere.

## XI

### *Europaren egoera Karlos Martelen garaian*

Karlos Martel, elizgizonei lapurtzeari ekin baitzion, inguruabarrik aldekoenetan izan zen: gerrariak beldurra eta maitasuna zioten,

eta haien alde egiten zuen; sarrazenoen kontrako gerren aitzakia zuen<sup>731</sup>; elizgizonek gorrotatzen bazuten ere, ez zen haietaz arduratzzen; Aita Santuak, Karlosen beharra baitzuen, besoak luzatzen zizkion; ezaguna da Gregorio III.ak bidali zion enbaxada ospetsua<sup>732</sup>. Bi botere haiek oso elkartuta egon ziren, elkarren beharra zutelako: Aita Santuak frankoen beharra zuen lonbardiarren eta greziarren kontra; Karlos Martelek Aita Santuaren beharra zuen greziarrak menderatzeko, lonbardiarei oztupoak jartzeko, etxean errespetua irabazteko, eta zeuzkan tituluak onetsiak izan zitezen, bai eta berak edo bere haurrek eskuratuko zituztenak ere<sup>733</sup>. Beraz, ez zeukan huts egiterik bere eginkizunean.

San Eucher, Orléansko apezpikuak, printzeak harritu zituen ikuskizun bat izan zuen. Gai honetaz ari naizela, aipatu beharra daukat Reimsen bildutako apezpikuek Luis Germaniarrari, Karlos Burusoilaren lurretan sartua baitzen, idatzi zioten gutuna<sup>734</sup>, oso egokia da-eta ikus dezagun zein zen garai hartako eta espirituen egoera. Honela diote<sup>735</sup>: «San Eucherrek, zerura eramana izan zelaririk, Karlos Martel ikusi zuen beheko infernuan tormentupean, Jesukristorekin batera Azken Judizioan izan behar duten santuen aginduz; zigor hartara garaia baino lehen kondenatua izan zen, elizak beren ondasunez gabetzeagatik, eta hartara ondasun haiek eman zituzten guztien bekatuak bereganatzeagatik; Pepin erregeak kontzilioa bildu zuen horregatik; elizei eliz ondasunetatik bildu ahal izan zuen guztia itzuli zien; Vaifro, Akitaniako kondearekin zituen liskarrak zirela-eta, parte bat besterik bildu ez zuenez, pre-karioko agiriak eginarazi zituen falta zenaren ordain gisa<sup>736</sup>; eta arautu zuen laikoek zeuzkaten eliz ondasunetatik hamarrena ordainduko zutela, eta hamabi denario etxe bakoitzeko; Karlomagnok ez zituen banatu Elizaren ondasunak; aitzitik, kapi-tular bat egin zuen, zeinen arabera berak eta bere ondorengoek inoiz banatuko ez zutelako hitza eman baitzuen; haiek dioten guztia idatzita dago, eta are haietako zenbaitek Luis Errukitsua, bi erregeen aitari kontatzen aditu zioten».

Apezpikuek aipatzen duten Pepin erregearen araudi hori Leptines-en bildutako kontzilioan idatzi zen<sup>737</sup>. Elizak honako abantaila hau lortu zuen han, beraren ondasunak hartuak zituztenek behin-behinekotzat zeuzkatela ondasunak; eta bestetik berak hamarrena

jasotzen zuela, eta hamabi denario berea izandako etxola bakoitzeko. Baina hori leungarria besterik ez zen, eta kalteak bere hartan irauten zuen.

Horrek ere kontraesanak sorrarazi zituen, eta Pepinek beste kapitular bat egin behar izan zuen<sup>738</sup>, zeinen bidez onura haiek jaso zituztenak hamarren hori eta errenta onartzera behartu baitzituen, eta apezpikutegiaren edo monasterioaren etxeei sustengua ematera, hartutako ondasunak galtzeko zigorpean. Karlomagnok berritu egin zituen Pepinen araudiak<sup>739</sup>.

Gutun horretan apezpikuek esaten dutena, Karlomagnok hitz eman zuela berak eta bere ondorengoek ez zituztela elizen ondasunak gerrarien artean banatuko, bat dator printze horrek, elizgizonek auzi hori zela-eta zituzten beldurrak gozatzeko, Aix-la-Chapelle-n 803. urtean emandako kapitularrarekin; baina aurrez emanda zeuden dohaintzek bere hartan iraun zuten<sup>740</sup>. Apezpikuek, arrazoiz, zera gehitzen dute, Luis Errukitsuak Karlomagnok bezala jokatu zuela, eta Elizaren ondasunak ez zizkiela soldaduei eman.

Hala ere, aspaldidaniko gehiegikeria haiek hainbesteraino iritsi ziren, non, Luis Errukitsuaren haurren garaian, laikoek, apezpikuen baimenik gabe, apaizak jartzen baitzituzten beren elizetan, edo bota egiten baitzituzten bertatik<sup>741</sup>. Elizak oinordekoen artean banatzen ziren<sup>742</sup>; eta modu txarrean sustengatzen zituztenean, apezpikuek ez zuten beste erremediorik erlikiak bertatik ateratzea baino<sup>743</sup>.

Compiègne-ko kapitularrak<sup>744</sup> zera ezarri zuen, erregearen mandatariak monasterio guztiak bisitatu ahal izango zituela apezpikuarekin batera, haiek zeuzkanarekin ados jarrita eta beraren aurrean<sup>745</sup>; eta arau orokor horrek frogatzen du gehiegikeria noranahi hedatua zela.

Ez zen falta elizen ondasunak itzularaztea agintzen zuen legerik. Aita Santuak, monasterioen berrezarpena zela eta, apezpikuei beren utzikeria aurpegiratu zienez, haiek idatzi zioten<sup>746</sup> Karlos Burusoilari gaitzespen hark ez zituela mindu, ez zirelako errudun, eta nazioaren batzarretan agindu, erabaki eta ezarritakoa gogoratu zioten. Hain zuzen, bederatzi aipatzen dituzte.

Eztabaidan beti. Etorri ziren normandiarrek, eta mundu guztia jarri zuten ados.

## XII

### *Hamarrenen ezarpena*

Pepinen erregealdian egindako araudiek, benetako arindua ez, arinduaren itxaropena eman zioten Elizari; eta Karlos Martelek ondare publiko guztia elizgizonen eskuetan aurkitu zuen bezala, Karlomagnok elizgizonen ondasunak gerrarien eskuetan aurkitu zituen. Ezinezkoa zen hauei eman zitzaiena itzularaztea; eta garaiko inguruabarrek are ezinezkoago egiten zuten berez oso zaila zena. Bestalde, ezin kristautasuna hiltzen utzi ministro, tenplu eta argibiderik ezean<sup>747</sup>.

Hori zela eta, Karlomagnok hamarrenak ezarri zituen<sup>748</sup>, beste ondasun-mota bat, eta abantaila hau ekarri zien elizgizonei: Elizari bakarrik eman zitzaionez, handik aurrera Elizak errazago onartu zituen usurpazioak.

Ezarpen horri askoz lehenagoko datak eman nahi izan zaizkio, baina aipatzen diren autoritateak hori diotenen kontrako lekukoak direla iruditzen zait. Klotarioren konstituzioak<sup>749</sup> hauxe besterik ez dio, ez zela bilduko hamarrenik Elizaren zenbait ondasunen gainean<sup>750</sup>. Beraz, Elizak ez zuen inondik ere hamarrenik jasotzen garai hartan; aitzitik, haietarik libratzea zen haren asmo guztia. Mâcon-go bigarren kontzilioak<sup>751</sup> —585. urtean izan zen, eta hamarrenak ordaintzeko agindu zuen— zera dio, antzinako garaietan ordaindu egiten zirela, baina garai horretan ez zirela ordaintzen, hori ere badio.

Nork jarriko du zalantzan Karlomagno baino lehen ere ireki izan zutela Biblia, eta Lebitarreneko emari eta eskaintzak predikatu zirela? Nik zera diot, printze hura baino lehen ere hamarrenak, predikatu, predikatuko zirela, baina ez zeudela ezarrita.

Esan dut Pepinen erregealdian egindako araudiek hamarrenak ordaintzera eta elizak konpontzera behartu zituztela eliz ondasunak feudo gisa zeuzkatena. Askok zen nazio bateko nagusiak etsenplu ematera behartzea, bidezkotasuna zalantzan jartzerik ez zeukan lege baten bidez.

Karlomagnok, ordea, gehiago egin zuen. *Villisko kapitularrean* ikusten da<sup>752</sup> bere lurak ere behartu zituela hamarrenak ordaintzera; huraxe bai etsenplu handia.

Baina herri xehea ez da gai etsenpluak direla-eta bere interesak ahazteko. Hortaz, Frankfurteko sinodoak<sup>753</sup> arrazoi larriagoa aurkeztu zion hamarrenak ordaintzeko. Kapitular bat egin zuen, zeinetan esaten baitzen ezen, azken gosetean, galburuak hustuta azaldu zirela, dea-bruek janda, eta haien ahotsak entzun izan zirela, hamarrenak ez ordaintzea aurpegiaritzen<sup>754</sup>; ondorioz, hamarrenak ordaintzeko agindu zitzaizen eliz ondasunak zeuzkaten guztiei eta, beraz, denei agindu zitzaizen hori.

Karlomagnoren proiektuak ez zuen arrakastarik izan hasieran: zerga hark gehiegizkoa ematen zuen<sup>755</sup>. Hamarrenak ordaintzea, judutarren artean, beren errepublika sortzeko planean sartzen zen, baina hemen hamarrenak ordaintzeak ez zuen zerikusirik monarkia ezartzearekin. Lonbardiarren legeari erantsitako xedapenetan<sup>756</sup>, lege zibilek hamarrenak biltzea onartzeko zuten zailtasuna ikus daiteke; kontzilioen kanonetan, berriz, elizgizonek hamarren hori eliz legeen bidez jasotzeko izan zituzten zailtasunen berri atera dezakegu.

Azkenean, herriak onartu zuen hamarrenak ordaintzea, baldin eta berrerosterik bazeukan. Luis Errukitsuaren konstituzioak<sup>757</sup> eta haren seme Lotario enperadorearenak<sup>758</sup> ez zuten halakorik onartu.

Karlomagnok hamarrenen ezarpenaz egin legeak beharraren lana ziren; erlijioak bakarrik hartu zuen parte hartan, ez superstizioak.

Hamarrenez egin zuen banaketa ospetsuak<sup>759</sup> —lau zatitan: elizak egiteko, pobreentzat, apezpikuarentzat, elizgizonentzat— ondo frogatzen du Elizari galdua zuen egoera finko eta iraunkorra eman nahi ziola.

Haren testamentuak<sup>760</sup> erakusten du Karlos Martel aitona egin kalteak ordaindu nahi izan zituela behin eta betiko. Hiru parte berdin egin zituen bere ondasun mugigarriekin, eta haietarik bi hogeita bat zatitan bana zitezen nahi izan zuen, inperioko hogeita bat metropoliarentzat; parte bakoitza metropoliaren eta haren mende zeuden apezpikuen artean banatu behar zen. Geratzen zen herena lau zatitan banatu zuen: bat seme eta ilobei eman zien, beste bat emanak ziren bi herenei erantsi zien, eta beste biak erruki-ekintzetan erabili ziren. Bazirudien elizei egin zien sari itzela ekintza erlijioso gisa ez baina mailegu politiko gisa hartzen zuela.

## XIII

### *Apezpikutegi eta abadietarako hauteskundeez*

Elizak pobretuta zeudenez, erregeek utzi egin zituzten apezpikutegietarako eta beste eliz onuretarako hautatzea<sup>761</sup>. Printzeak gutxiago arduratu ziren hango ministroak izendatzeaz, eta lehiatzaileek gutxiago eskatu zieten beren autoritatea. Hala, Elizak konpentsazio modukoa hartu zuen kendu zitzaizkion ondasunengatik.

Eta Luis Errukitsuak herri erromatarrari utzi bazion aita santuak aukeratzeko eskubidea<sup>762</sup>, hori garaiko joeraren ondorio izan zen; Erromako egoitzari buruz ere, beste egoitzei buruz bezala jokatzen zen.

## XIV

### *Karlos Martelen feudoez*

Ez dut esango Karlos Martelek, Elizaren ondasunak feudo gisa ematean, bizitza osorako edota betiko eman zituen ala ez; nik haxe diot bakarrik, Karlomagnoren garaian<sup>763</sup> eta Lotariorenean<sup>764</sup>, bazirela era honetako ondasunak, oinordekoengana pasatu eta haien artean banatzen zirenak.

Gainera, haxe ageri zait, parte bat alodio gisa eman zela, eta bestea feudo gisa<sup>765</sup>.

Esan dut alodioen jabeak zerbitzupean zeudela, feudoen jabeak bezala. Hori izan zen, partez behintzat, Karlos Martelek donariak ematearen kausa, hala alodio gisa nola feudo gisa.

## XV

### *Gai beraren jarraipena*

Azpitarratzekoa da feudoak Elizaren ondasun bihurtu ondoren, eta Elizaren ondasunak feudo, feudoek eta Elizaren ondasunek

elkarren izaeratik zerbait hartu zutela. Hala, Elizaren ondasunek feudoen pribilegioak izan zituzten, eta feudoek Elizaren ondasunen pribilegioak; esate baterako, elizen eskubide ohorezkoak, garai hartan sortu zirenak<sup>766</sup>. Eta eskubide horiek beti goi-mailako justiziari atxikita egon direnez, bereziki egun feudo deitzen dugun horri baino gehiago, ondorio hau ateratzen da hortik, justizia patrimonialak ezarrita zeudela eskubide horien garaian.

## XVI

### *Erregetzaren eta maiordomotzaren nahastea. Bigarren dinastia*

Gaien ordenak garaien ordena aldarazi dit; Karlomagnoz mintzatu naiz koroa karolingioengana aldatu zen garai ospetsuaz mintzatu baino lehen, Pepin erregearen garaian; horri, gertaera arruntei ez bezala, garrantzi handiagoa ematen zaio gaur egun gertatu zen garaian baino.

Erregeek ez zuten autoritaterik, baina izena zuten; errege titulua oinordetzazkoa zen, eta maiordomo titulua hautapenezkoa. Nahiz eta maiordomoek, azken garaietan, nahi zuten merovingiarra jartzen zuten tronuan, ez zuten erregerik hartu beste familiaren batetik, eta koroa familia jakin bati ematen zion lege zaharra ez zen ezabatua frankoen bihotzetik. Erregearen pertsona ezezaguna zen ia monarkian, baina erregetza ez. Pepin, Karlos Martelen semeak, uste izan zuen bi titulu horiek bat egitea komeni zela, etaategite horrek zalanztan utziko zuen betiko erregetza berria oinordetzazkoa zen ala ez, eta aski zen erregetzari botere handia eransten zionarentzat. Handik aurrera, maiordomoaren autoritatea errege-autoritategari erantsi zitzaion. Bi autoritate horiek bat egitean, halako elkar aditze bat etorri zen. Maiordomoa hautapenezkoa zen ordura arte, eta erregea oinordetzazkoa; bigarren dinastiaren hasieran, koroa hautapenezkoa izan zen, herriak hautatzen zuelako; eta oinordetzazkoa izan zen, beti familia berean hautatzen zuelako<sup>767</sup>.

Aita Le Cointek, agiri guztiek besterik dioten arren<sup>768</sup>, ukatu egiten du Aita Santuak aldaketa handi hartarako baimena eman zue-

nik<sup>769</sup>. Ematen dituen arrazoietakoa bat, hartara bidegabea egingo zukeela. Miresgarria da historialari bat gizonak egin zutena, egin beharko zuketenen arabera epaitzen ikustea! Arrazoibide horretatik, ez litza-teke historiari.

Nolanahi ere den, egia da Pepin dukearen garaitzaren unetik haren familiarena izan zela erregetza, eta ez merovingiarrena. Haren biloba Pepin errege koroatu zutenean, hura zeremonia bat gehiago izan zen, eta mamu bat gutxiago; errege-ornamenduak besterik ez zituen eskuratu hala, eta ezer ez zen aldatu nazioan.

Aldaketaren unea finkatzeko esan dut hau, inor tronpa ez dadin aldaketatzat joz aldaketaren ondorioa besterik ez zena.

Hugo Kapet errege koroatu zutenean, hirugarren dinastiaren hasieran, aldaketa handiagoa izan zen, Estatuaren anarkiatik gobernu-era batera pasatu zelako; baina Pepinek koroa hartu zuenean, gobernu-era batetik gobernu-era berera pasatu zen.

Pepin errege koroatu zutenean, izena besterik ez zuen aldatu; baina Hugo Kapet errege koroatu zutenean, gauza aldatu zen, koroarekin batutako feudo handi batek anarkia geldiarazi zuelako.

Pepin errege koroatu zutenean, errege titulua kargurik gorenari erantsi zitzaion; Hugo Kapet errege koroatu zutenean, berriz, feudo handienari.

## XVII

### *Bigarren dinastiako erregearen hautapeneko ezaugarri bat*

Pepinen errege izendatzearen formulaz ikusten denez<sup>770</sup>, Karlos eta Karloman ere gantzutu eta bedeinkatuak izan ziren; eta jaun frantziarrek beste ezein dinastiako inor ez hautatzeko hitza eman zuten, galarazpen- eta eskomikatzeko zigorraren mendean<sup>771</sup>.

Badirudi, Karlomagnoren eta Luis Errukitsuaren testamentuen arabera, frankoek erregeen semeen artean aukeratzen zutela erregea; eta hori oso ondo egokitzen zaio aipatutako klausula horri. Eta inperioa Karlomagnorena ez zen beste etxe batera pasatu zene-



an, hautatzeko gaitasuna, mugatua eta baldintzazkoa zena, gaitasun arrunt eta sinple bihurtu zen; eta aldendu egin ziren konstituzio zaharretik.

Pepinek, bere azkena hurbil sentitzean, jaun Elizako eta laioak bildu zituen Saint Denis-en<sup>772</sup>, eta bere bi semeen artean banatu zuen erresuma, Karlos eta Karlomanen artean. Ez dugu batzar hartako aktarik, baina han zer gertatu zen, Canisius-ek<sup>773</sup> eguneratutako bilduma historiko zaharraren egileak eta Metz-eko *Urtekariak*-enak kontatu digutenak argitzen du, Baluze jaunak esan bezala<sup>774</sup>. Eta nik hein batean elkarren kontra dauden bi gauza ikusten ditut hor: errege hark banaketa handikien baimenaz egin zuela; eta horren ondorioan, aita-eskubide baten arabera egin zuela. Horrek nik esandakoa frogatzen du, alegia herriaren eskubidea, bigarren dinastian, familia barruan hautatzea zela; zehatz hitz eginda, norbait kanpoan uzteko eskubidea zen, hautatzeko eskubidea baino areago.

Hautatzeko eskubide moduko hori bigarren dinastiako agiriak berresten dute. Horietako bat, Karlomagnok bere hiru semeen artean egindako inperio-banaketaren kapitularra da, non, banaketa egin ondoren, honela baitio<sup>775</sup>: «Hiru anaietako batek semea badu, eta herriak hura hautatu nahi badu aitaren ondorengo izan dadin, osabek onartu egingo dute».

Xedapen horixe dator Luis Errukitsuak, 837. urtean, Aix-la-Chapelleko batzarrean, bere hiru seme Pepin, Luis eta Karlosen artean egin zuen banaketan ere<sup>776</sup>; bai eta enperadore berberak hogeitau urte geroago Lotario, Pepin eta Luisen artean egin zuen beste partiketa batean ere<sup>777</sup>. Ikus daiteke, halaber, Luis Totelak Compiègne-n egin zuen zina, koroatu zutenean. «Ni, Luis<sup>778</sup>, errege Jainkoaren errukiagatik eta herriak hautatuta, agintzen dut...». Nik diodana Valence-n, 890. urtean, Luis, Boson-en semea Arlesko erresumako errege hautatzeko egindako kontzilioko aktek berresten dute<sup>779</sup>. Han arrazoi hauek eman ziren Luis hautatzeko. familia inperialekoa zela<sup>780</sup>, Karlos Gizenak errege-ohorea eman ziola, eta Arnulfo enperadoreak zetroaz eta bere enbaxadoreen ministerioaz izendatu zuela. Arlesko erresuma, Karlomagnoren inperiotik bananduta edo haren mende zeuden besteak bezala, hautabidezkoa eta oinordetzazkoa zen.

## XVIII

### *Karlomagno*

Karlomagno nobleen boterea bere mugetan edukitzen saiatu zen, eta elizgizonen eta gizon librean zapalketa galarazten. Hainbeste leundu zituen Estatuaren mailak, non elkarrekiko orekan geratu baitziren, bera nagusi zelarik. Dena bat eginda egon zen haren jeinuari esker. Nobleak espedizioz espedizio erabili zituen etengabe; ez zien utzi astirik beren asmoak mami zitzaten, eta berak zituen jarrai zekizkien arduratu zituen buru-belarri. Inperioak buruzagiaren handitasunari esker iraun zuen. Printzea handia zen, gizona handiagoa. Bere seme erregeak lehen sujet izan zituen, bere boterearen tresna, eta obedientziaren eredu. Araudi miresgarriak egin zituen; hori ez ezik, betearazi egin zituen. Haren jeinua inperioko bazter guztietaraino hedatu zen. Printze horren legeetan ikusten da orotara iristen zen aurreikusmena zuela, eta dena bere baitan hartzen zuen indarra. Egitekoak saihesteko aitzakiak kendu zituen; utzikeria zuzendu, gehigikeriak ere bai, edota aurea hartu zien<sup>781</sup>. Bazekien zigortzen, baina are hobeto zekien barkatzen. Zabala bere asmoetan, soila asmoak gauzatzerakoan, inork ez du egundo izan gauza handiak erraz eta zailak laster egiteko antze handiagorik. Etengabe ibili zen bere inperioan batetik bestera, erortzeko zorian zegoen lekuan bere eskua jarritz. Arazoak nondik-nahi agertzen ziren, eta berak denak konpontzen zituen. Ez da izan arriskuei aurre hobeto egin zien printzerik; ez da izan haiek hobeto saihestu zituenik ere. Arrisku guztiez trufatu zen, eta batez ere konkistatzaile handiek jasan behar izaten dituztenez; alegia, konspirazioez. Printze harrigarri hura guztiz neurrikoa zen; izaera leunekoa, manera soilak zituen; bere gortekoekin bizitzea zuen gogoko. Emakumeengana sentiberegia izatea, apika, baina hori baino gehiago barka dakioke beti bere eskuz gobernatu eta bizitza osoa lanean eman zuen printzeari. Arau miresgarria jarri zuen bere gastuetan: bere mendeko lurak zuhurtziaz, arretaz, ekonomiaz gobernarazi zituen; familiburu batek etxea gobernatzen ikas lezake haren legeetan<sup>782</sup>. Haren *Kapitularrak* obran ikusten da zein iturri garbi eta sakratuetatik atera zituen bere aberastasunak. Hauxe besterik ez dut erantsiko: bere lurretan ziren oilotokietako arrautzak

eta bere loretokietako alferriko belarrak saltzeko agindu zuen<sup>783</sup>; eta bere herriei banatu zizkien lonbardiarren aberastasun guztiak eta mundu osoa arpilatua zuten hunoen altxor eskergak.

## XIX

### *Gai beraren jarraipena*

Karlomagno eta haren lehen ondorengoak beldur ziren leku urrunetan jarriko zituztenak ez ote ziren errebolatuko, eta pentsatu zuten otzantasun handiagoa aurkituko zutela elizgizonen artean; hortaz, apezpikutegi asko eraiki zituzten Alemanian<sup>784</sup>, eta feudo handiak erantsi zizkieten. Zenbait agiriren arabera, feudo horien pribilegioak jasotzen zituzten klausulak ez ziren emakida horietan jarri ohi zirenen desberdinak<sup>785</sup>, nahiz eta gaur egun Alemaniako elizgizon lehenak botere soberanoaz jantzita ageri diren. Nolanahi ere den, saxoniarrei aurre egiteko jartzen zituzten piezak ziren haiek. Leude baten nagikeria edo utzikieriatik atera ezin zutena, apezpiku baten zelotik eta arre-ta ekiletik aterako zutela uste zuten; horrez gainera, halako basailu bat, mendeen zituen herriez haien kontra baliatu beharrean, haien beharrean izango zen herrien kontra iraun ahal izateko.

## XX

### *Luis Errukitsua*

Augustok, Egipton zegoelarik, Alexandroren hilobia irekiarazi zuen. Galdetu zioten ea Ptolomeotarrenak ere irekitzea nahi zuen, eta zera erantzun hark, erregea ikusi nahi zuela, ez hildakoak. Orobat, guk ere, bigarren dinastiaren historian, Pepin eta Karlomagno bilatzen ditugu; erregeak ikusi nahi ditugu, ez hildakoak.

Bere grinen jostailu eta bere bertuteen biktima zen printze batek, ez bere indarra ez bere ahulezia ezagutu zituen printze batek, beldurra eta maitasuna batzen jakin ez zuenak, bihotzean bizio gutxi

eta espirituari era guztietako akatsak zituenak, hartu zituen eskuetan Karlomagno edukitako inperioaren uhalak.

Mundua bere aitarengatik negarrez zegoen unean; harridura-une hartan, non mundu guztiak Karlos eskatu eta aurkitzen ez zuen; bere pausoak haren lekua hartzera joateko bizkortzen zituen unean, konfiantzako jendea bidali zuen aurretik bere arreben jokabide nahasian laguntzaile izandakoak atxilotzera. Zuhurtzigabetasun arinegiak ziren haiek, eta tragedia odoltsuak ekarri zituzten<sup>786</sup>. Jauregira iritsi baino lehen, etxeko delituen mendekua hartzen hasi zen; nagusi izan baino lehen, espirituak asaldatzen.

Begiak aterarazi zizkion bere iloba Bernardo Italiako erregeari, erriki eske etorri zitzaionean, eta hura handik egun batzuetara hil zen; ekintza hark etsaiak ugaritu zizkion. Horrek eragindako beldur-rraren poderioz, anaiak tontsuratu zituen, eta hartara are etsai gehiago izan zituen. Bi ekintza horiek gaitzespen asko ekarri zizkieten<sup>787</sup>: hark bere zina eta koroatu zuten egunean aitari emandako hitza hautsi zituela esan zioten<sup>788</sup>.

Hirmengarda enperatriza hil eta gero, zeinekin hiru haur izan baitzituen, Judithekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuen harekin. Laster, senar zaharraren balakuak errege zaharraren ahulezia guztiekin nahastuz, desordena ezarri zuen bere familian, eta horrek monarkiaren erortzea ekarri zuen.

Etengabe aldatu zituen semeek egindako banaketak, nahiz eta banaketok bere zinegiteek, semeenak eta jaunenean berretsiak izan. Hori sujeten leialtasuna zirikatzea zen, obedientzia nahastea, eskripuluak eta gaizkiulertuak sortzen hastea; printzeen eskubideak nahastea zen, gotorlekuak urri ziren garai batean, eta autoritatearen lehen harresia agindutako fedea eta hartutako fedea ziren garai batean.

Enperadorearen semeek, beren parteari eusteko, elizgizonengana jo zuten, eta ordura arte ez bezalako eskubideak eman zizkieten. Eskubide horiek engainagarriak ziren: elizgizonek gauza bat baimen zezaten nahi izan zen, baina gauza horren berme gisa jarri zituzten. Agobardok<sup>789</sup> gogorarazi zion Luis Errukitsuari Lotario enperadore izenda zezaten bidali zuela Erromara; banaketak egin zituela semeen artean, hiru egunez barau eta otoi-tzetan zeruari kontsulta egin ondoren. Zer egin zezakeen printze superstiziotsu batek, gainera superstizioak berak erasaten bazion? Bistan da zer-nolako kaltea egin zioten

autoritate soberanoari printze horren presondegiratzeak eta denen aurrean egin zuen penitentziak. Erregea degradatu nahi, eta erregetza bera degradatu zuten.

Lanak ditu ulertzeak nola printze batek, zenbait tasun on izanik, buru argia falta ez zitzaizkion, berez ona maite zuelarik eta, dena esateko, Karlomagnoren seme izanik, hainbeste etsai izan zituen<sup>790</sup>, hain gogorrek, hain amorratuak, hain irrikatzen hari irain egiteko, hain lotsagabeak hura umiliatzean, hain erabakiak hura galbidean jartzera; eta lortu ere lortuko zuketena hura hondatzea, baldin eta haren haurrak, azken buruan haiek baino zintzoagoak izanik, proiektu bati jarraitu izan balitzaizkio, eta ezertan bat etorri ahal balira.

## XXI

### *Gai beraren jarraipena*

Karlomagnok nazioari eman zion indarrak hainbestean iraun zuen Luis Errukitsuarekin, Estatuak bere handitasunari eutsi ahal izan ziezaion, eta atzerritarrek errespetaraz zezaten. Printzea espiritu ahulekoa zen, baina nazioa gerraria izan. Barrualdera, autoritatea galduz zihoan, baina kanpoaldera ez zirudien ahala urrituz zihoanik.

Karlos Martelek, Pepinek eta Karlomagnok bata bestearen atzetik gobernatu zuten monarkia. Lehenak gerra-jendearen asko nahia balakatu zuen; beste biek, berriz, elizgizonena; Luis Errukitsuak denak nahigabetu zituen.

Konstituzio frantsesean, erregeak, nobleek eta elizgizonek beren eskuetan zuten Estatuaren botere osoa. Karlos Martelek, Pepinek eta Karlomagnok batzuetan bi alderdietako batekin batu zituzten beren interesak, beste alderdiari eusteko, eta ia beti biek; baina Luis Errukitsuak beragandik urrunarazi zituen batzuk eta besteak. Apezpikuak, zurrinak iruditu zitzaizkien araudien bidez atsekabatu zituen, araudiok berek nahi zutena baino urrunago zihoazelako. Badira oso lege onak, baina oso desegoki eginak. Apezpikuak, garai hartan sarrazenoen eta saxoniarren kontra gerra egiten ohiturik, oso urrun zeuden monakotza-espiritutik<sup>790</sup>. Bestalde, bere nobleenganako konfiantza osoa galdurik, ezerezetik altxarazi zituen hainbat pertsona<sup>791</sup>. Nobleek beren karguak kendu zizkien, jauregitik bidali zituen,

eta atzerritarrei deitu zien<sup>792</sup>. Bi talde haietatik bereizi zenez, haiek abandonatu egin zuten.

## XXII

### *Gai beraren jarraipena*

Baina monarkia gehien ahuldu zuen gauza, printze hark bertako dominioak ezabatu izana izan zen<sup>793</sup>. Puntu honetan Nitard-i egin behar zaio kasu; Nitard, izan dugun historialari burutsuenetako bati, Karlomagnoren biloba zenari. Luis Errukitsuaren alderdikoa zen, eta Karlos Burusoilaren aginduz idatzi zuen historia.

Honela dio: «Adelardo izeneko batek hainbesteko aginpidea izan zuen enperadorearengan, non printze honek gauza guztietan egiten baitzion men; faborito haren nahiari jarraituz, ondasun fiskalak eman zizkien nahi izan zuten guztiei<sup>794</sup>, eta hartara errepublika ezereztu zuen»<sup>795</sup>. Hortaz, Akitanian egin zuena egin zuen inperio guztian<sup>796</sup>; hura Karlomagnok konpondu zuen, baina beste inork ez haren ondotik.

Estatua Karlos Martelek maiordomotzara iristean aurkitu zuen ezinean jarri zen atzera. Egoera hartan, alferrik zen autoritate-kolpe bat hura bere onera ekartzeko.

Fiskoa hain pobre geratu zen, non Karlos Burusoilaren garaian inork ez baitzuen bere lurretan irauten<sup>797</sup>, eta inori ez baitzitzaion segurantzarik onartzen, diru truke izan ezik; normandiarrak suntsitzeko aukera zegoenean, ihes egiten uzten zitzairen diru truke<sup>798</sup>; eta Hinkmarrek Luis Totelari eman zion lehen aholkua, batzar batean bere etxeko gastuei aurre egiteko dirua eska zezala izan zen.

## XXIII

### *Gai beraren jarraipena*

Elizgizonek motiboak izan zituzten Luis Errukitsuaren semeei babesa eman izanaz damutzeko. Printze hark, esan dudanez, inoiz ez zien eman laikoei Elizaren ondasunen agiririk<sup>799</sup>, baina laster Lotariok

Italian, eta Pepinek Akitanian, baztertu egin zuten Karlomagnoren jokabidea, eta Karlos Martelena hartu zuten berriro. Elizgizonek enperadoreagana jo zuten haren semeen kontrako babes bila, baina berek ahuldua zuten eskatzen zuten autoritatea. Akitanian, izan zen nolabaiteko amore ematea; Italian, ez zuten obeditu.

Gerra zibilek Luis Errukitsuaren bizitza nahastu zuten, eta haren heriotzaren ondoren etorri ziren gerren ernamuin izan ziren. Hiru anaiak, Lotario, Luis eta Karlos handikiak beren alderdietara erakartzen eta beren babestuak izaten saiatu ziren, zein bere aldetik. Jarraitu nahi izan zitzaizkienei, Elizaren ondasunen agiriak eman zizkieten; nobleak erakartzeko, elizgizonak entregatu zizkieten.

*Kapitularrak* obran ikusten denez<sup>800</sup>, printze haiek eskari desegokiei amore eman beharra izan zuten, eta maiz erauzi zieten berez eman nahi ez zutena; bertan ikusten denez, elizgizonek nobleen zampaketa sentitzen zuten erregearena baino gehiago. Badirudi Karlos Burusoilak eraso ziola gehien elizgizonen ondareari<sup>801</sup>, dela haren kontra suminduena bera zelako, dela haiek aita degradatu zutelako, dela herabeena izan zelako. Nolanahi ere den, *Kapitularrak* obran<sup>802</sup> etengabe ageri dira elizgizonen eta nobleen arteko sesioak: lehenek beren ondasunen eske, bigarrenak itzultzea ukatuz, saihestuz edo atzeratuz, eta erregea batzuen eta besteen artean.

Ikuskizun deitoragarria da garai hartan gauzak nola zeuden. Luis Errukitsuak izugarrizko emakidak egiten zizkien elizei beren jabetzetatik, eta semeek laikoan artean banatzen zituzten elizgizonen ondasunak. Maiz abadia berriak sortzen zituen esku berak egiten zien lapurreta zaharrei. Elizgizonek ez zuten egoera finkorik. Kendu egiten zieten; haiek berriro eskuratu; baina koroa beti galtzen ateratzen zen.

Karlos Burusoilaren erregealdiaren azken aldera, eta handik aurrera, ez zen izan liskarrik elizgizonen eta laikoan artean Elizaren ondasunak itzultzeari buruz. Apezpikuek, Karlos Burusoilari aurkeztu kexuetan, egin zituzten hasperen batzuk 856. urteko kapitularrean ageri denez, bai eta 858. urtean Luis Germaniarrari idatzi zioten gutunean ere<sup>803</sup>; baina askotan agindutako eta beste hainbestetan saihestutako gauzak proposatzen eta eskatzen zituzten, eta bistan da ez zutela batere itxaropenik haiek lortzeko.

Jadanik kontua Elizari eta Estatuari egin kalteak ordaintzea besterik ez zen<sup>804</sup>. Erregeek hitz eman zuten ez zizkietela beren gizon libreak kenduko leudeei, eta ez zituztela emango eliz ondasunak prezepzioen bidez<sup>805</sup>; hortaz, elizgizonek eta nobleek bat egin zuten beren interesetan.

Normandiarren sakailatze beldurgarriek, esan dudanez, asko lagundu zuten sesio haiek buka zitezen.

Erregeek, esan ditudan arrazoiengatik eta esango ditudanengatik ospea egunetik egunera galduago, ez zuten beste irtenbiderik ikusi elizgizonen eskuetan jartzea baino. Baina elizgizonek ahulduak zituzten erregeak, eta erregeek ahulduak zituzten elizgizonak.

Alferrik deitu zieten Karlos Burusoilak eta ondorengoek elizgizonei Estatuari eusteko eta gainbehera galarazteko<sup>806</sup>; alferrik baliaitu ziren herritarrek gizatalde horri zioten begiruneaz, berei eduki behar zietenari eusteko<sup>807</sup>; alferrik saiatu ziren kanonen itzalaren bidez beren legeei itzal ematen<sup>808</sup>; alferrik batu zituzten eliz zigorrak eta zigor zibilak<sup>809</sup>; alferrik eman zioten apezpiku bakoitzari probintziatarako beren ordezkari gradua, kondearen aginteari kontra egiteko<sup>810</sup>; elizgizonei ezinezko gertatu zitzaien egina zuten kaltea zuzentzea, eta zorigaitz estrainio batek, zeinetaz aurki mintzatuko bainaiz, bota zuen koroa lurrera.

## XXIV

### *Gizon libreak feudoen jabe izateko gaitu zituztela*

Esan dut gizon libreak beren kondearekin joaten zirela gerrara, eta basailuak beren jaunarekin. Hartara, Estatuaren ordenek elkar orekatzen zuten; eta nahiz eta leudeek basailuak eduki mendean, kondeak eutsi egiten zien, bera baitzegoen monarkiako gizon libre guztien buru.

Hasieran<sup>811</sup>, gizon libre haiek ez zeukaten feudo bat espero izaterik, baina gerora bai; eta nire iritziz aldaketa hori Gontranen erregealditik Karlomagnorenara doan denboraldi horretan gertatu zen. Hori frogatzeko, konparazio bat egin daiteke, Gontran, Txildeberto eta



Brunekilda erreginaren artean egindako Andelyko itunaren<sup>812</sup>, Karlomagnok bere semeen aurrean egindako banaketaren eta Luis Errukitsuak egindako antzeko beste banaketa baten artean<sup>813</sup>. Hiru akta horiek antzeko xedapenak dituzte basailuei dagokienez; eta puntu berberak arautzen direnez, eta gutxi gorabehera inguruabar berdinetan, hiru itun horien espiritua eta letra berberak dira alde horretatik.

Baina gizon libreei dagokienez, desberdintasun handi bat dago. Andelyko itunak ez du esaten buruzagi batek gomenda ditzakeenik; Karlomagnoren eta Luis Errukitsuaren banaketetan, ordea, zenbait klausulak argi eta garbi adierazten dute gomendatuak izan daitezkeela; horrek erakusten du ohitura berri bat sortu zela Andelyko itunaren ondoren, zeinen arabera gizon libreak pribilegio handi horretarako gai bihurtu baitziren.

Hori Karlos Martelek Elizaren ondasunak bere soldaduen artean banaturik, eta aldez feudo gisa eta aldez alodio gisa emanik, lege feudaletan halako iraultza moduko bat gertatu zenean gertatu bide zen. Badu egi antzik nobleek, jadanik bai baitzeuzkaten feudoak, hobeto iritzi ziotela donari berriak alodio gisa hartzeari, eta gizon libreek pozik asko hartu zituztela feudo gisa.

## XXV

*Bigarren dinastia ahultzearen kausa nagusia*

*Aldaketa alodioetan*

Karlomagnok, aurreko kapituluan hizpide izan dudan banaketan<sup>814</sup>, zera arautu zuen, errege bakoitzaren gizonak, hura hil ondoren, beren erregearen erresuman jasoko zituztela onurak, eta ez beste batean<sup>815</sup>; aldiz, alodioak norberarenak izaten jarraituko zuten edozein erresumatan izanda ere. Baina zera gehitzen du, gizon libre orok, jauna hil ondoren, berak nahi zuen hiru erresumetako edozeinetan eska zezakeela feudoa, inoiz jaunik izan ez zuenak bezalaxe<sup>816</sup>. Xedapen berberak datoz Luis Errukitsuak bere semeen artean egin banaketetan ere<sup>817</sup>.

Baina, nahiz eta gizon libreek feudo baterako gomendatu beren burua, kondearen soldadutza ez zen ahultzen horregatik; gizon libre-

ak bere alodioaren truke lagundu beharra zeukan, eta soldadutzarako jendea prestatu beharra, gizon bat lau etxolako; edota gizon bat prestatu behar zuen bere ordeztu feudoari zerbitzu egiteko; eta zenbait gehiegikeria agertu zirelarik, zuzendu egin zituzten, Karlomagnoaren konstituzioen<sup>818</sup> eta Pepin Italiako erregearen konstituzioaren arabera<sup>819</sup>, konstituziook elkar argitzen baitute.

Historialariek esan dutena, Fontenayko batailak monarkiaren hondamendia ekarri zuela, egia osoa da, baina zilegi bekit egun hartakoen ondorio gaiztoei begia luzatzea.

Bataila hartatik denboraldi batera, hiru anaiek, Lotariok, Luisek eta Karlosek, itun bat egin zuten<sup>820</sup>, zeinetan nik frantziarren estatu politiko osoa aldatu bide zuten klausulak aurkitzen baitituzte.

Karlosek, herriari zegokion itun-parteari egin iragarpenean<sup>821</sup>, dio gizon libre orok nahi zuena aukera zezakeela jauntzatu, erregea nahiz beste edozein jaun<sup>822</sup>. Itun haren aurretik, gizon libreak bere burua gomenda zezakeen feudo bat izateko, baina haren alodia erregearen boterepean geratzen zen, hots, kondearen jurisdikziopean; eta ez zegoen gomendatutako jaunaren mende, lortutako feudoari zegokionean baizik. Itun haren ondoren, gizon libre orok jarri ahal izan zuen bere alodia erregearen edo beste edozein jaunaren mende, aukeratu. Beraz, ez dira aipatzen beren burua feudo baterako gomendatzen zutenak, baizik eta beren alodia feudo bihurtzen zutenak eta, nolabait esateko, jurisdikzio zibiletik irteten zirenak, aukeratu nahi zuten errege edo jaunaren boterepean geratzeko.

Hartara, lehenago doi erregearen boterepean zeudenak, gizon libre gisa kondearen mende, elkarren basailu bihurtu ziren oharkabean, gizon libre bakoitzak nahi zuena aukera zezakeelako jauntzatu, erregea nahiz beste jaunaren arteko bat.

Gizon batek betiko zeukan lur bat feudo bihurtzen bazuen, feudo hori ezin zen bizi artekoa izan. Horregatik, handik pixka batera, feudoak jabearen hurrei ematen zien lege orokor bat agertu zen. Karlos Burusoilarena da, ituna izenpetu zuten hiru printzeetako batena<sup>823</sup>.

Esan dudan hau, alegia, monarkiako gizon guztiak hiru anaien itunaren ondoren nahi zuten jauna aukeratzeko aske izan zirela, erregea nahiz beste jaunaren arteko bat, harrezkeroko akte berresten dute.

Karlomagnoren garaian, basailu batek jaunagandik zerbait jasotzen zuenean, baita sos bat izanda ere, ezin zezakeen utzi<sup>824</sup>. Baina Karlos Burusoilaren garaian, basailuek beren interesen edo apeten arabera joka zezaketen guztiz; eta printze hark hain garbi azaltzen du hori, non askatasun horretaz gozatzeraz gonbidatzen dituela baitirudi, ez hura murrizten duela<sup>825</sup>. Karlomagnoren garaian, onurak pertsonalak ziren errealak baino gehiago; gerora errealak bihurtu ziren pertsonalak baino gehiago.

## XXVI

### *Aldaketa feudoetan*

Feudoetan ez ziren alodioetan baino aldaketa gutxiago gertatu. Compiègneko kapitularrean ikusten denez<sup>825</sup> —Pepin erregearen garaian egina da—, erregeagandik onura bat jasotzen zutenek onura horren parte bat ematen zieten zenbait basailuri; baina parte horiek ez ziren osotasunetik bereizten. Erregeak kendu egiten zituen osotasuna kentzen zuenean, eta leudea hiltzean ere basailuak azpifeudoa galtzen zuen. Onuradun berri bat etortzen zen, eta beste azpibasailu batzuk ezartzen zituen. Hala, azpifeudoa ez, pertsona zegoen feudoaren mende. Alde batetik, azpibasailua erregeagana itzultzen zen, ez zegoelako basailuari betiko lotuta; eta azpifeudoa ere erregeagana itzultzen zen, feudoa bera zelako, eta ez feudoaren mendeko zerbait.

Halakoxea zen azpibasailutza feudoak mugigarri zirenean; hala-koxea zen feudoak bizi artekoak izan ziren bitartean ere. Baina feudoak oinordekoetara pasatu zirenean, hori aldatu egin zen, eta azpifeudoak ere bai. Zuzenean erregearen mende egondakoa, bitarteko batez egon zen haren mende, eta erregearen boterea gradu batez atzeratu zen, nolabait esateko; batzuetan bi graduz, eta maiz gehiagoz ere bai.

*Libri Feudorum* liburuetan<sup>826</sup> ikusten denez, erregearen basailuek feudoa eman bazezaketen ere, hau da, erregearen azpifeudo gisa, azpibasailuek ez zeukaten feudo gisa ematerik eta, beraz, beti har zezaketen emandakoa. Bestalde, halako emakida bat ez zen semeengana pasatzen feudoak bezala, ez baitzegoen eginda feudoen legearen arabera.

Milango bi senadore haiek liburuok idazten zituzten garaiko azpibasailutzaren egoera Pepin erregearen garaikoarekin konparatuz gero, ikusiko da azpifeudoek luzeago gorde zutela beren jatorrizko izaera feudoek baino<sup>827</sup>.

Baina senadore haiek idatzi zutenean, hain salbuespen orokor-  
rrak zeuzkan ezarrita arau horrek, non ia ezereztuta baitzegoen. Izan  
ere, azpibasailu txikiagandik feudoa hartu zuenak espedizio batean  
Erromara jarraitzen bazion, basailu-eskubide guztiak hartzen zituen;  
era berean, azpibasailuari dirua ematen bazion feudoa lortzeko, honek  
ezin zion kendu, ez eta galarazi ere semeei pasaraztea, harik eta dirua  
itzultzen zion arte<sup>828</sup>. Azkenik, Milango senatuan ez zioten men egiten  
arau horri<sup>829</sup>.

## XXVII

### *Feudoetan izandako beste aldaketa bat*

Karlomagoren garaian<sup>830</sup>, denak zeuden behartuta edozein  
gerratar joateko deiari men egitera; ez zen aitzakiarik onartzen, eta  
inor salbuetsiko zukeen kondea bera ere zigortua izango zatekeen.  
Baina hiru anaiei itunak<sup>831</sup> muga bat jarri zuen, nobleak, nolabait esa-  
teko, erregearen eskuetatik kanpo utzi zituen<sup>832</sup>: gerra defentsazkoa  
zen kasuetara mugatu zen erregeari gerrara jarraitu beharra. Beste  
kasuetan, jaunari jarraitzeko edo nor bere arazoez arduratzeko askata-  
suna zegoen. Itun horrek bost urte lehenago Karlos Burusoilaren eta  
Luis Germaniako erregearen artean egindako beste batekin du zeriku-  
sia<sup>833</sup>, zeinen arabera bi anaia horiek gerrara jarraitu beharretik libre  
utzi baitzituzten beren basailuak, baldin eta bata bestearen kontrako  
ekintzarik egiten bazuten. Bi printzeek zin egin zuten hori, eta zin egi-  
narazi zieten beren armadei.

Fontenayko batailan ehun mila frantses hil izanak pentsarazi  
zien artean geratzen ziren nobleei ezen, erregeek banaketaz zituzten  
beren auzi partikularrak zirela medio, azkenean berak desagertu egin-  
go zirela<sup>834</sup>, eta haien askonahiak eta jelsiak isuraraziko zutela artean  
geratzen zen odol guztia. Lege bat egin zen, nobleak ez zirela behar-  
tuta egongo beren printzeei gerrara jarraitzera, salbu eta Estatua atze-

rritarren inbasio batetik defendatzeko bazen. Zenbait mendetan indarrean egon zen lege hori<sup>835</sup>.

## XXVIII

### *Kargu handietan eta feudoetan gertaturiko aldaketak*

Bazirudien dena bihurtu zela akastun, eta aldi berean usteldu egiten zela. Esan dut lehen garaietan hainbat feudo betiko besterenduta geratu zirela; baina horiek kasu partikularrak ziren, eta feudoek oro har gorde egin zuten beren izaera. Koroak feudoak galdu bazituen, beste batzuek ordezkatu zituen. Esan dut koroak inoiz ez zituela kargu handiak betiko besterendu<sup>836</sup>.

Baina Karlos Burusoilak araudi orokorra egin zuen, bai kargu handietan eta bai feudoetan ondorioak izan zituena. Zera erabaki zuen bere *Kapitularrak*-en, konderriak kondearen semei emango zitzaizkiela, eta araudi horrek feudoetarako ere balio zezan agindu zuen<sup>837</sup>.

Berehala ikusiko dugu araudi horrek hedapen handiagoa izan zuela, eta kargu handiak eta feudoak ahaide urrunagokoetara pasatu zirela. Hortik zera etorri zen, jaun gehienak zuzenean koroaren mende egotetik, zeharka mendean egotera pasatu zirela. Konde haiek, ordura arte justizia erregearen irizpenetan egiten zutenak, eta gizon libreak gerrara eramaten zituztenak, erregearen eta beren gizon librean artean geratu ziren, eta botereak beste gradu bat egin zuen atzera.

Are gehiago: badirudi, kapitularren arabera, kondeek beren konderriari erantsitako onurak zituztela, eta basailuak beren mende<sup>838</sup>. Konderriak oinordetzazkoak izan zirenean, kondearen basailu haiek ez ziren izan erregearen basailu zuzenekoak; konderriei erantsitako onurak ez ziren izan erregearen onurak; kondeak boteretsuago bihurtu ziren, zeuzkaten basailuek beste basailu batzuk izateko egoeran jarri zituztelako.

Bigarren dinastiaren azkenaldiko ahuleziaz ondo jabetzeko, ez dago hirugarrenaren hasieran gertatu zena ikusi besterik, non azpifeudoen ugaltzeak beren onetik atera baitzituen basailu handiak.

Erresumako ohitura bat zen, primuek beren anaia gazteagoei jarauntsiaren parte bat ematen zietenean, hauek omenaldi egitea

haiei<sup>839</sup>; hala non jaun nagusiak azpifeudo gisa baitzeuzkan. Felipe Augusto, Borgoniako dukeak, Nevers, Bolonia, Saint-Paul, Dampierreko kondeek, eta beste jaun batzuek, deklaratu zuten ezen, handik hara, feudoa banatzen bazen, oinordetzaz nahiz bestela, feudo osoa jaun beraren mende egongo zela, tartean beste inor izan gabe<sup>840</sup>. Ordenantza hori ez zen alde guztietan bete, zeren eta, beste nonbait esan dudanez, ezinezkoa baitzen garai hartan ordenantza orokorrak egitea; baina gure ohitura batzuk haren arabera arautu ziren.

## XXIX

### *Feudoen izaeraz Karlos Burusoilaren erregealdiaren ondoren*

Esan dudanez, Karlos Burusoilak zera agindu zuen, kargu handiren bat edo feudo baten jabe zena hiltzean semea uzten bazuen, feudoa semeari eman behar zitzaiola. Zaila genuke hortik etorri ziren gehiegikerien eta lege horri herrialde bakoitzean eman zitzaion hedapenaren arrastoari jarraitzea. *Libri Feudorum* liburuetan<sup>841</sup> ikusten dudanez, Konrado II.a enperadorearen erregealdiaren hasieran, feudoak, haren mendeko herrialdeetan, ez ziren bilobengana pasatzen; jaunak hautatutako azken jabearen semeengana pasatzen ziren baka-rrik<sup>842</sup>; hala, feudoak jaunak bere semeen artean egindako hautapen moduko baten bidez ematen ziren.

Liburu honetako XVII. kapituluaz azaldu dut nola bigarren dinastian, koroa, zein ikuspuntutatik begiratzen zen, hautabidezkoa edo oinordetzazkoa zela. Oinordetzazkoa zen, erregeak dinastia beraren barruan hautatzen zirelako, eta semeak zirelako oinordeko; hautabidezkoa zen, herriak egiten zuelako semeen arteko hauta. Gauzak beti urratsez urrats aurreratzen direnez, eta lege politiko batek beti lege politiko batekin zerikusia duenez, feudoen oinordekotzarako ere koroaren oinordekotzarako segitutako ordena berari segitu zitzaion<sup>843</sup>. Hala, feudoak semeengana pasatu ziren, oinordekotza-eskubidez eta hautabidezko eskubidez, eta feudo bakoitza, koroa bezala, hautabidezko eta oinordetzazko izan zen.

Jaunaren hautabide-eskubide hori desagertua zen<sup>844</sup> *Feudoez* liburuen egileen garaian<sup>845</sup>, hau da, Federiko I.aren erregealdian.

## XXX

### *Gai beraren jarraipena*

*Feudoez* liburuetan esaten denez<sup>846</sup>, Konrado enperadorea Erromara abiatu zenean, haren zerbitzupeko leialek lege bat egiteko eskatu omen zioten, semeengana pasatzen ziren feudoak bilobengana ere pasa zitezen; eta norbait legezko oinordekorik gabe hiltzen zenean, anaia aitarena izandako feudoaren oinordeko izan ahal zedin; eta halaxe onartu zen.

Hauxe erantsen da lege honetan, eta gogoan izan bedi hori diotenak bizirik zeudela Federiko I.aren garaian<sup>847</sup>: «Juriskontsultu zaharrek beti esan izan zutela feudoen oinordekotza lerro zeharkakoan ez zela pasatzen odol-anaietatik aurrera; nahiz eta garai modernoetan zazpigarren graduraino eraman izan, hala nola lerro zuzenean, esku-bide berriari esker, infinituraino eraman izan baitzen»<sup>848</sup>. Halaxe joan zen Konradoren legea pixkanaka hedatuz.

Gauza hauek guztiak emanik, Frantziako historia irakurtze hutsarekin ikusiko da feudoen betikotasuna lehenago ezarri zela Frantzian Alemanian baino. Konrado II.a enperadoreak bere agintaldiari hasiera eman zionean 1024an, Frantzian Karlos Burusoilaren erregealdian egon ziren bezala zeuden gauzak Alemanian. Karlos Burusoila 877an hil zen. Baina Frantzian, Karlos Burusoilaren ondoren, hainbeste aldaketa izan ziren, non Karlos Sinplea indarrrik gabe geratu baitzen atzerritar etxe baten kontra inperiorako eskubide ukaezinak defendatzeko; eta azkenik, Hugo Kapeten garaian, errege-etxeak, bere jabetza guztiez gabeturik, ezin izan zion eutsi koroari.

Karlos Burusoilaren izaera ahulak ahulezia berdina ekarri zion Frantziari. Baina Luis Germaniarrak, haren anaiak, eta honen ondoren etorri ziren batzuek tasun hobeak zituztenez, haien estatuaren indarrak luzeago iraun zuen.

Zer diot? Beharbada nazio alemanaren jite flematikoak eta, esango ahal dut, espiritu-aldagaiztasunak nazio frantsesarenak baino luzeago egin zion aurre gauzen nondik-norako hari, hots, feudoak, berezko joeraz bezala, familietan betikotzea zekarrenari.

Zera erantsiko dut, Alemaniako erresuma ez zuela deboilatu eta, nolabait esateko, ezereztu, Frantziakoa bezala, normandiarrek eta

sarrazenoek egin zioten gerra-mota berezi hark. Aberastasun gutxiago zegoen Alemanian, hiri gutxiago arpilatzeke, itsasbazter gutxiago ibiltzeko, padura gehiago zeharkatzeko, baso gehiago bertan sartzeko. Printzeek, ez baitzuten ikusten Estatua uneoro erortzeko zorian, beren basailuen premia gutxiago izan zuten, hau da, ez ziren egon haien hain mendeen. Eta badirudi Alemaniako enperadoreek Erroman koroatuak izateko eta, beraz, Italiara etengabe espedizioak egiteko beharrik izan ez balute, feudoek luzaragoan gordeko zutela beren jatorrizko izaera.

## XXXI

*Nola inperioa Karlomagnoren etxetik irten zen*

Inperioa, Luis Germaniarraren sasikoei emana baitzen Karlos Burusoilaren adarraren kaltetan<sup>849</sup>, atzerritar etxe batera pasatu zen Konrado, Frankoniako dukea enperadore hautatu zutenean, 912. urtean. Frantzian erregetza zuen adarra ez zen gai ezta herrixkengatik lehiatzeko ere, eta are gutxiago lehia zitekeen inperioagatik. Karlos Sinplearen eta Enrike I.a, Konradoren ondorengoaren arteko itun bat dugu, Bonn-go ituna<sup>850</sup>. Bi printzeak Rhin ibaiaren erdian kokatutako ontzi batean bildu ziren, eta adiskidetza betikoa zin egin zuten. Nahikoa *mezzo termine* ona erabili zen. Karlosek Mendebaldeko Frantziako errege titulua hartu zuen, eta Enrikek Ekialdeko Frantziako errege titulua. Karlosek Germaniako erregearekin egin zuen ituna, ez enperadorearekin.

## XXXII

*Nola Frantziako koroa Hugo Kapeten etxera pasatu zen*

Feudoen oinordekotzak eta azpifeudoak orokorki ezartzeak itzali egin zuten gobernu politikoa, eta gobernu feudala ekarri zuten. Erregeek izandako ezin konta ahala basailuren ordeztasun, banaka batzuk besterik ez zituzten izan, eta besteak hauen mende geratu ziren. Erregeek ez zuten ia zuzeneko aginpiderik; beste hainbat boteretatik —eta hain botere handietatik— pasatu behar zuen boterea geratu edo



galdu egiten baitzen helmugara iritsi baino lehen. Hain basailu handiek ez zuten obeditzen, eta beren azpibasailuez baliatu ziren ez obeditzeko. Erregeak, beren jabetzez gabeturik, Reims eta Laongo hirietara mugaturik, haien eskuetan geratu ziren. Zuhaitzak urrunegi zabaldu adarrak, eta burua ihartu zitzaion. Erresuma jabetzarik gabe geratu zen, gaur egun Inperioa bezala. Koroa basailu boteretsuenetakoa bati eman zitzaion.

Normandiarrek arpilatu egiten zuten erresuma; baltsa edo ontzi txiki moduko batzuetan etortzen ziren, ibaien bokaletatik sartu, gora jo eta bi ertzetatik sakailatzen zuten herrialdea. Orléans eta Parisko hiriek geldiarazi egin zituzten lapur hauek<sup>851</sup>, eta ez zeukaten Senatik eta Loiratik gora egiterik. Hugo Kapetek, bi hiri horiek bereak baitzituen, bere eskuetan zituen erresumaren hondakin zorigaitzekoen bi giltzak; berak bakarrik defenda zezakeen koroa eman zitzaion. Halaxe gerora ere, turkiarrekiko mugei aldagabe eusten zien etxeari eman zitzaion Inperioa.

Inperioa feudoen oinordekotza fabore gisa baizik ematen ez zen garaian irten zen Karlomagnoren etxetik. Alemaniarren artean frantziarren artean baino geroago bihurtu zen hori usadio; hori dela eta, Inperioa, feudotzat harturik, hautabidezkoa izan zen. Aitzitik, Frantziako koroa Karlomagnoren etxetik irten zenean, feudoak jadanik oinordetzazkoak ziren benetan erresuma hartan, eta koroa ere bai, feudo handi baten antzera.

Bestela, hutsegite handia izan da iraultza horren garaian kokatzea jadanik gertatuak ziren edo geroago gertatu ziren aldaketa guztiak. Dena bi gertakizunetara laburtu zen: errege-familia aldatu egin zen, eta koroa feudo handi bati lotu zitzaion.

## XXXIII

### *Feudoen betikotasunaren ondorio batzuk*

Feudoen betikotasunaren ondorioz, primutasun-eskubidea ezarri zen frantsesen artean. Lehen dinastian ez zuten halakorik ezagutzen: koroa anaiei artean banatzen zen, alodioak berdín zatitzen ziren,

eta feudoak, mugigarriak zein bizi artekoak, ez ziren oinordekotzagai, ezin ziren banatu.

Bigarren dinastian, Luis Errukitsuak zuen enperadore titulua, zein Lotario seme zaharrenari utzi baitzion, pentsarazi zion printze hau beste anaiei aurretik jar zezakeela. Bi erregeek<sup>853</sup> enperadoreagana joan behar zuten urtero, opariak eraman, eta harengandik are handiagoak jaso; berarekin jardun behar zuten arazo komunez. Horrexek eman zizkion Lotariori hain gaizki atera zitzaizkion asmo haiek. Agobardok printze honentzat idatzi zuenean<sup>854</sup>, enperadore haren xedapena aipatu zuen: hark inperioarekin lotu zuen Lotario, hiru egunez barau, sakrifizio santuak eginez eta otoitz artean, eta limosnak emanez, Jainkoa kontsultatu ondoren; nazioak zin egin zion, eta ezin zuen zina hautsi; Erromara bidali zuen Lotario, Aita Santuak berrets zezan. Horretan guztian oinarritzen da historialaria, ez primu-eskubidean. Zuzen dio enperadoreak parte bana eman ziela anaiei, eta zaharrena lehenetsi zuela, baina zaharrena lehenetsi zuela esatea anaiak ere lehenetsi zitzaakeela esatea zen.

Baina feudoak oinordekotzazkoak izan zirenean, primu-eskubidea ezarri zen feudoen ondorengotzan, eta baita, arrazoi beragatik, koroarenean ere, huraxe izaki feudo nagusia. Lege zaharrak, zeinen arabera parteak egiten baitziren, ez zuen iraun; feudoek zerbitzuaren betebeharra zutenez, jabeak betetzeko gaitasuna izan behar zuen. Primu-eskubidea ezarri zen, eta lege feudalaren arrazoia lege politiko edo zibilari garaitu zitzaion.

Feudoak jabearen semeengana pasatzen zirenez, jaunek haietaz erabakitzeak askatasuna galtzen zuten, eta horren ordaina hartzeko, berreroste-eskubidea deitu zitzaiona ezarri zuten; gure ohiturek hitz egiten dute horretaz; hasieran lerro zuzenean ordaintzen zen, eta gero, usadioz, albo-lerroan baizik ez zen ordaindu.

Geroago, feudoak atzerritarrei eman ahal izan zitzaizkien ondare-zati gisa. Horrek onarpen eta salmenten eskubidea ekarri zuen, ia erresuma osoan ezarri zena. Eskubide horiek arbitrarioak izan ziren hasieran, baina baimenok emateko ohitura orokor bihurtu zenean, finkatu egin ziren eskualde bakoitzean.

Berreroste-eskubidea oinordeko-aldaketa bakoitzeko ordaindu behar zen, eta hasieran lerro zuzenean ordaintzen zen<sup>855</sup>. Ohiturarik

orokorrenak urtebeteko errentaren balioa zeukan finkatuta. Hori garestia eta nekeza zen basailuarentzat, eta eragina zuen, nolabait esateko, feudoan. Maiz, emate-ekitaldian, jaunak dirutza jakin bat besterik ez eskatzea lortzen zuen hark<sup>856</sup>, eta dirutza hori, diruari gertaturiko aldaketak zirela medio, ezdeus bihurtu zen; esate baterako, gaur egun berreroste-eskubidea ezdeusa da ia, baina onarpen eta salmentenak bere osoan iraun du. Eskubide hori ez basailuari ez honen oinordekoei zegokienez, baizik eta aurreikusi eta itxaron ezin zen ustekabeko kasua zenez, ez zen horrelako estipulaziorik egin, eta prezio jakin bat ordaintzen segitu zen.

Feudoak bizi artekoak zirenean, ez zegoen feudoaren zati bat ematerik, azpifeudo gisa betiko edukitzeko; zentzugabea zatekeen usufruktudun huts batek gauzaren jabetza izatea. Baina betiko bihurtu zirenean, onartu zen hori ere<sup>857</sup>, usadioek sartu zituzten zenbait mugapenekin<sup>858</sup>, eta horri «nork bere feudoari zatia kentzea» deitu zitzaion.

Feudoen betikotasunak berreroste-eskubidea ezartzea ekarri zuenez, neskek ere bazeukaten feudo bateko oinordeko izatea, gizonekorik ez bazen. Izan ere, jaunak feudoa alabari ematen bazion, ugaritu egiten zituen bere berreroste-eskubiderako kasuak, senarrak emazteak bezala ordaindu behar zuelako<sup>859</sup>. Xedapen hori ez zegoen koroari aplikatzerik, zeren eta, hura inoren mende ez zegoenez, ezin hura berrerosteko eskubiderik izan.

Gilermo V.a Tolosako kondeak ez zuen alaba izan bere ondorengo. Aurrerago, Leonor izan zen Akitaniako oinordekoa, eta Matilde Normandiakoa; eta alaben ondorengotza-eskubidea hain ondo ezarrita agertu zen garai hartan, non Luis Gazteak, Leonorrekiko ezkontza desegin eta gero, inolako eragozpenik gabe itzuli baitzion Guiena. Azken bi adibideok lehenengoaren oso ondotik etorri zirenez, emakumeak feudoen oinordeko izateko gai egiten zituen lege orokorra erresumako beste probintzietan baino beranduago sartu behar izan zuen Tolosako konderrian<sup>860</sup>.

Europako zenbait erresumatako konstituzioak gorde egin du feudoek erresuma horiek sortu zireneko garaian zuten egoera. Emakumeak ez ziren oinordeko ez Frantziako koroan ez Inperioan, zeren eta, bi monarkia horiek ezarri zirenean, emakumeek ez baitzeukaten feudoetan oinordeko izaterik<sup>861</sup>; baina erresuma feudoak betiko-

tu ondoren sortu zenean, emakume batzuk bai, izan ziren oinordeko erresuma horietan: normandiarren konkistetatik sortu zirenetan, esate baterako, edo mairuei konkistaturiko lurraldeetan sortutakoetan; beste batzuetan, azkenik —Alemaniako mugak baino harantzago eta garai moderno samarretan, bigarren aldiz jaio zirenetan, nolabait esateko—, kristautasuna ezartzean.

Feudoak mugigarriak zirenean, haiek zerbitzeko moduan zeuden pertsoneri ematen zitzaizkien, eta adin gutxikoak kanpo geratzen ziren. Baina betiko izan zirenean, jaunek hartu zuten feudoa oinordekoaren adin-nagusitasuna iritsi arte, dela beren etekinak handiagotzeko, dela tutorepekoa armetan hezitzeko<sup>861</sup>. Gure ohiturek *garde-noble* deitzen diote horri; tutoretzarenak ez bezalako printzipioetan oinarritzen da, eta guztiz bestelakoa da.

Feudoak bizi artekoak zirenean, nork bere burua gomendatzen zuen feudo baterako, eta eskuz aldatzeak —zetroaz egiten zen— berretsi egiten zuen feudoa, omenaldiak egun egiten duen bezala. Ez zaigu ageri kondeek, edota are erregearen mandatariek, omenaldirik jasotzen zutenik probintzietan; eta funtzio hori ez dagokie kapitularretan iritsi zaizkigun kargudun horien betekizunei. Batzuetan leialtasun zina eginarazten zieten sujet guztiei<sup>862</sup>, baina zin horrek ez zuen zerikusirik gerora ezarri ziren omenaldiekin, eta azken hauetan leialtasun-zina omenaldiari erantsitako ekintza bat zen, batzuetan omenaldiaren aurretik, besteetan ondotik. Ez zen omenaldi guztietan izaten, ez zen omenaldia bezain solemnea, eta guztiz desberdina zen<sup>863</sup>.

Gainera, konde eta mandatariek leialtasun susmagarrikoak ziren basailuei, segurantzaren emanarazten zieten batzuetan, *firmitas* zeritzona<sup>864</sup>; baina segurantzaren hura ezin zen omenaldia izan, erregeek elkarri ematen ziotelako<sup>865</sup>.

Suger abadea<sup>866</sup> Dagobertoren aulki batez mintzo da. Antzinako testigantzen arabera, Frantziako erregeek han jasotzen omen zituzten jaunaren omenaldiak, baina bistan da bere garaiko ideiak eta hizkuntza darabiltzala hor.

Feudoak oinordekoengana pasatu zirenean, basailuaren ezagutza, lehenengoan oso noizbehinkako kontua zena, ekintza arautu bihurtu zen; modu distiratsuago batean egin zen, formalitate gehiagoz bete zen, jaunaren eta basailuaren elkarrenganako betebeharrak gogorazi behar zituelako adin guztietan.

Egingo nuke omenaldiak Pepin erregearen garaian hasi zirela ezartzen; izan ere, garai horretan eman ziren onura asko betiko, esan dudanez; baina kontuz esango nuke hori, eta frankoen urtekarien egi-leak ezjakinak izan ez zirelakoan beti ere; alegia, Tassilon Bavariako dukeak Pepini<sup>867</sup> egin zion omenaldia deskribatzean, beren garaian ikusten zituzten usadioen arabera mintzatzeko bezain ezjakinak<sup>868</sup>.

## XXXIV

### *Gai beraren jarraipena*

Feudoak mugigarriak edo bizi artekoak zirenean, lege politiko-ei zegozkien ia bakarrik. Horregatik, garai hartako lege zibiletan, oso gutxi aipatzen dira feudoen legeak. Baina oinordekotzazko bihurtu zirenean, eman, saldu, utzi ahal izan zirenean, lege politikoen eta lege zibilen kontu bihurtu ziren. Feudoa, soldadutza egiteko betebeharr gisa, zuzenbide politikoari zegokion; salerosgai zen ondasun gisa, ordea, zuzenbide zibilarri zegokion. Horrek ekarri zituen feudoei buruzko lege zibilak.

Feudoak oinordekotzazko bihurtu zirelarik, ondorengotzen ordenari zegozkien legeek feudoen betikotasunari zegozkionak izan behar zuten. Hala ezarri zen, nahiz eta erromatar zuzenbideko eta lege salikoko<sup>869</sup> xedapenek besterik agindu, zuzenbide frantseseko arau hau: «Jabe-ondasunek ez daukate atzera egiterik»<sup>870</sup>. Feudoa zerbitzatu beharra zegoen, baina aitona, aitonaren anaia, basailu eskasak ziratekeen jaunarentzat; hortaz, arau hori feudoentzat baizik ez zen izan, Boutillierrek irakasten digunez<sup>871</sup>.

Feudoak oinordetzazko bilakatu zirenez, jaunek, feudoa zerbitzatu izan zedin arduratu behar baitzuten, feudoan oinordeko ziren alabak<sup>872</sup> —eta, nik uste, edozein gizonezko— beren baimenik gabe ezkon ez zitezela exijitu zuten; hala non ezkontza-kontratuak xedapen feudal eta xedapen zibil bilakatu baitziren nobleentzat. Jaunaren aurrean egindako halako ekintza batean, ondorengotzarako xedapenak egin ziren, feudoa oinordekoek zerbitzatu izan zedin; hortaz, hasieran nobleek bakarrik izan zuten etorkizuneko ondorengotzak ezkontza-kontratuz erabakitzeaskatasuna, Boyer-ek<sup>873</sup> eta Aufrerius-ek azpimarratu dutenez<sup>874</sup>.

Alferrik da esatea odolezko erretraktua —ahaideen eskubide zaharrean oinarritua, gure jurisprudenzia frantziar zaharraren misterio bat da eta hemen ez dut garatzeko astirik— ezinezkoa zela feudo-  
ei zegokienez, betikotu ez ziren bitartean.

*Italiam, Italiam*<sup>875</sup>... Autore gehienek ekin dioten lekuan amaitzen dut feudoen tratatua.

# Oharrak

## Laugarren partea

<sup>1</sup> *Narrate, puellae Pierides; prosit mihi vos dixisse puellas.* Juvenal, IV. satira, 35-36 bertsoak.

<sup>2</sup> Zesarrek galiarrez dioenez, Marseilaren hurbilak eta merkataritzak hain kalte handia egin zien, non, antzina beti germaniarrak garaitu bazituzten ere, gerora haiek baino gutxiago bihurtu baitziren. *Galietaiko gerra*, VI. lib., XXIII. kap.

<sup>3</sup> Holanda.

<sup>4</sup> «*Et qui modo hospes fuerat, monstrator hospiti*». *De moribus Germani*, XXI. kap. Ikus, halaber, Zesar, *Galietaiko gerra*, IV. lib., XXI. kap.

<sup>500</sup> XXXVIII. tit.

<sup>6</sup> «*Nolo eundem populum, imperatorem et portitorem esse terrarum*». (Ziz., *de Rep.*, IV. lib.).

<sup>7</sup> Justino, XLIII lib., III. kap.

<sup>8</sup> Aita Du Halde, II. tomoa, 170 or.

<sup>9</sup> Lehenik portugaldarrek ezarri zuten hori. *François Pyr ard-en bidaiak*, XV. kap., II. part.

<sup>10</sup> 1660ko *Nabigazio-akta*. Gerra-garaietan bakarrik bidali dituzte Boston eta Filadelfiakoe beren

itsasontziak zuzenean Mediterraneoara, beren salerosgaiak garraiatzen.

<sup>11</sup> Cadizen emana, 1740ko martxoan.

<sup>12</sup> Plutarko, *Ez dela lukurr eriaz mailegurik hartu behar* tratatuan, IV. kap.

<sup>13</sup> Diodoro, I. lib., II. part., III. kap.

<sup>14</sup> Salagarriak ziren legegile grekoak, debekatu egin baitzuten gizon baten armak eta zalgardia bahi hartzea, eta gizona bera atxitzea uzten baitzuten. Diodoro, I. lib., II. part., III. kap.

<sup>15</sup> *Hipotiposis*, I. lib., XIV. kap.

<sup>16</sup> *Legeez*, VIII. lib. (842 k.\*).

<sup>17</sup> Zonaro.

<sup>18</sup> *Leg. nobiliores, De commerc.*, eta *Leg. ult. de rescind. vendit* kodea.

<sup>19</sup> Hain zuzen, halakoetan horrela dago ezarrita maiz.

<sup>20</sup> Plinio, *Hist. nat.*, VI. lib., XXIII. kap.

<sup>21</sup> Ikus Plinio, VI. lib., XIX. kap., eta Estrabon, XV. lib.

<sup>22</sup> VI. lib., IV eta V. kap.

<sup>23</sup> XI. lib.

- 24 Diodoro, II. lib.
- 25 Diodoro, II. lib.
- 26 Ikus Plinio, VI. lib., XVI. kap.; eta Estrabon, XI. lib.
- 27 Estrabon, XI. lib.
- 28 Estrabon, XI. lib.
- 29 Patrokloren autoritatea handi samarra da, Estrabonen kontakizun batetik atera daitekeenez, II. lib.
- 30 In Plinio, VI. lib., XVII. kap. Ikus Estrabon ere, XI. lib., salerosgaiek Fasotik Zirora egiten zuten ibilbideaz.
- 31 Aldaketa handiak gertatu behar izan dute, derrigor, herrialde hartan Ptolomeoren garaitik; honek ibai asko deskribatzen baitizkigu Kaspio ibaiaren ekialdean hustutzen direnak. Tsarraren mapan Astrabat ibaiaren erribera besterik ez da ageri alde horretatik, eta Bathalsirenean, ezer ere ez.
- 32 Ikus Genkonson-en kontakizuna, in *Iparraldeko bidaien bilduma*, IV. tomoa.
- 33 Uste dut horrela eratu dela Aral lakua.
- 34 Klaudio Zesar, in Plinio, VI. lib., II. kap.
- 35 Ptolomeo Zeranok hil zuen.
- 36 Ikus Estrabon, XI. lib.
- 37 Tartesos fundatu zuten, eta Cadizen ezarri ziren.
- 38 *Erregeen III. Liburua*, IX. kap., 26. bertseta; *Paralip.*, II. lib., VIII. kap., 17. ber.
- 39 Appion-en kontra.
- 40 Liburu honetako I. kapituluan.
- 41 European errearen eta zilarren artean ezarritako proportzioak etekina eman dezake Indietan zilarren truke urrea hartzean, baina ezer gutxi, nolanahi ere.
- 42 Ikus Plinio, VI. lib., XXII. kap.; eta Estrabon, XV. lib.
- 43 Arradak besterik ez ditu; baina Siziliak oso portu onak ditu.
- 44 Holandako probintziakoak, diot; izan ere, Zelandako probintziako portuak sakon samarrak dira.
- 45 Alegia, mota bereko tamainak konparatzeko: «Jariakinak ontziari egiten dion ekintza edo bulkada, ontz horren erresistentziarekiko, honelakoa izango da...», etab.
- 46 Pertiako erregeari.
- 47 *De republ. athen.*, II. kap.
- 48 Ikus Estrabon, VIII. lib.
- 49 *Iliada*, II. lib., 668. bertseta.
- 50 *Ibid.*, 570. bertseta.
- 51 *Ibid.*, 381. bertseta. Ikus Estrabon, IX. lib., 414. or., 1620ko argitalpena.
- 52 Estrabon, IX. lib., 414. or.
- 53 Estrabon, XV. lib.
- 54 Herodoto, in *Melpomene* IV, 44.
- 55 Estrabon, XV. lib.
- 56 *Ibid.*
- 57 Plinio, VI. lib., XXIII. kap.; Estrabon, XV. lib.
- 58 Elementuak ez zikintzeko, ez ziren nabigatzen ibaietatik. Hyde, *Pertsiarren erlijioa*. Gaur egun ere ez dute itsas merkataritzarik, eta atotzat jotzen dituzte itsasoan dabil-tzanak.
- 59 Estrabon, XV. lib.



- <sup>60</sup> Herodotok (*Melpomene*, XLIV. kap.) dio Dariok Indiak konkistatu zituela. Arian ez ari dela ulertu behar da; eta hala ere, baliteke konkistatzeko asmoa besterik ez izatea.
- <sup>61</sup> Estrabon, XV. lib.
- <sup>62</sup> Hori ez legoke iktiofago guztietara hedatzerik, hamar mila estadioko kostaldean bizi baitziren. Nolatan eman ahalko zien Alexandrok bizibidea? Nolatan lortuko zukeen obedi ziezaioten? Herri batzuez baino ezin da halakorik esan. Nearkok, *Rerum Indicarum* liburuan, dio itsasbazter horren azkenean, Pertsiaiekiko mugan, ohartu zela herriek ez zutela hainbeste arrain jaten. Nire ustez Alexandroren agindua eskualde hartarako izan zen, edota Pertsiatik hurbilago zegoen besteren baterako.
- <sup>63</sup> Alexandria Rakotis izeneko hondartzara batean sortu zuten. Antzinako erregeek goarnizio bat zuten han arrotzei herrialdean sartzea debekatzeko, batez ere greziarrei; izan ere, jakina denez, itsaslapur handiak baitziren. Ikus Plinio, VI. lib., X. kap.; eta Estrabon, XVIII. lib.
- <sup>64</sup> Arriano, *De expeditione Alexandri*, VII. lib.
- <sup>65</sup> Ibid.
- <sup>66</sup> Estrabon, XVI. lib., azkenean.
- <sup>67</sup> Babilonia uholdeek hartua ikusirik, Arabia, gertu baitago, uhartea bailedin ikusten zuen. Aristobulo, in Estrabon, XVI. lib.
- <sup>68</sup> Ikus *Rerum Indicarum* liburua.
- <sup>69</sup> Estrabon, XVI. lib.
- <sup>70</sup> Estrabon, XVI. lib.
- <sup>71</sup> Arrotzenganako izuikara ematen zieten.
- <sup>72</sup> Plinio, II. lib., XVII. kap.; eta VI. lib., IX. eta XII. kap.; Estrabon, XI. lib., 507. or.; Arriano, *Alexandroren espedizioaz*, III. lib., 74. or.; eta V. lib., 104. or.
- <sup>73</sup> Arriano, *Alexandroren espedizioaz*, VII. lib.
- <sup>74</sup> Plinio, II. lib., LXIV. lib.
- <sup>75</sup> Ikus tsarraren mapa.
- <sup>76</sup> Plinio, VI. lib., XVII. kap.
- <sup>77</sup> XV. lib.
- <sup>78</sup> Baktrianako, Indietako eta Arianako mazedoniarrek Siriako erresumatik bereizi eta Estatu handi bat eratu zuten.
- <sup>79</sup> Apolonio Adramitin, in Estrabon, XI. lib.
- <sup>80</sup> VI. lib., XXIII. kap.
- <sup>81</sup> Plinio, VI. lib., XXIII. kap.
- <sup>82</sup> XI. lib., *Sigertidis regnum*.
- <sup>83</sup> Monzoiek alde batetik jotzen dute urtearen zati batean, eta bestetik urtearen beste zatian; eta alisio haizeek alde beretik jotzen dute urte osoan.
- <sup>84</sup> VI. lib., XXIII. kap.
- <sup>85</sup> Herodoto, in *Melpomene* (IV., XLIV.)
- <sup>86</sup> Plinio, VI. lib., XXIII. kap.
- <sup>87</sup> Ibid.
- <sup>88</sup> Ibid.
- <sup>89</sup> XV. lib.
- <sup>90</sup> Herodoto, IV. lib., XLII. kap. Konkistatu egin nahi zuen.
- <sup>91</sup> Plinio, II. lib., LXVII. kap. Ponponio Mela, III. lib. IX. kap.
- <sup>100</sup> Herodoto, in *Melpomene*, IV., XLIII.

<sup>101</sup> Erantsi horri liburu honetako XI. kapituluari Hannonen nabigazioaz esan dudana.

<sup>102</sup> Ozeano Atlantikoan, urri, azaro, abendu eta urtarrilean, iparrekialdeko haizeak jotzen du. Pasatzen da lerroa, eta, ekialdeko haizea saihesteko, hegoaldera jotzen da; edota alde berora sartzen da, haizeak mendealdetik ekialdera jotzen duen lekutara.

<sup>103</sup> Golko horri, egun izen hori ematen badiogu ere, Arabiar barrunbea deitzen zioten antzinakoek; Itsaso Gorri, berriz, golko horren ondoko ozeano-parteari deitzen zioten.

<sup>104</sup> Estrabon, XVI. lib.

<sup>105</sup> Ibid. Artemidorok *Austrikornu* zeritzan lekuan jartzen zuen kosta ezagunaren muga; eta Eratostene-sek, *ad Cinnamomiferam*.

<sup>106</sup> Estrabon, I. lib., VII. kap.; IV. lib., IX. kap.; Afrikako IV. taula.

<sup>107</sup> Ptolomeo, IV. lib., IX. kap.

<sup>108</sup> IV. lib., VII eta VIII. kap.

<sup>109</sup> Ikus zein zehatz deskribatzen dizkiguten Estrabonek eta Ptolomeok Afrikako parteak. Haien eza-gupenak munduko bi nazio indartsuenek, kartagotarrek eta erromatarrek, Afrikako herriekin izandako gerretatik zetozen, haiekin egindako hitzarmenetatik, lurralde haietan egindako merkatariztatik.

<sup>110</sup> VII. lib., III. kap.

<sup>111</sup> Eratostenes, in Estrabon, XVII. lib., 802. or.

<sup>112</sup> Ikus haren Periploa, Kartagori buruzko artikulua.

<sup>113</sup> Ikus Herodoto, in *Melpomene*, IV., XLIII., Sataspek aurkitu zituen oztopoez.

<sup>114</sup> Ikus gutunak eta kontakizunak, *Indietako konpainia ezartzeko balio izan duten bidaiak*, I. parte, <sup>201</sup>. or. Belar horrek osorik estaltzen du itsasoko urazala, eta ia ez da ura ikusten; itsasontziak ezin dira pasatu handik haize fresko bati esker ez bada.

